

BESTE URTE BAT



URTE onegaz *Jaungoiko Zale* emeretzigafen urtean sartzen da, eta igaro daben bideari begiratuta, bere asmoak gero ta geyago gogo-biotzetan sustraitu dirala ikusiaz poztu egiten da, eta adoretu bide luze ta latzean aufera yafaitzeko.

Eta urteak igarroteak be *Yaungoiko Zale*'ri zar usañik ez dautso emoten, bere asmoak eta zeregiñak beti *batsuk* izan afen *beti bafiak* diralako. Kristiñau ikasbidea *buruz*, *biotzez* eta *egitez* zabaltzea da bere zeregiña, eta ori euskaldunen artean asmau leiteken bide zuzenena aukeratuta, euren izkuntza zañean irakatziaz. Eta goiko ta betiko egiak zuzenez irakasten diarduanai urteak zar usañik ezañi ete leikioe?... Obeto esan geinke, zeregiñori daukona, *urteakaz*, sartu beañean, *gastetu* egiten dala.

¿Urteakaz gastetu?...

Guzur antzeko egia da, baña ezin ukatu leike. Obeto esateko egia beti da gaste ta beti zar, beragaz urteak zer ikusirik ez dauke-ta. Baña urteakaz dis-dis geyago egiten dabela esango geunke. Onetan uñearen antzera, zañago ta obe agertzen da, eta zañago ta obe agertzen dala esatea, eta zañago ta gasteago dala, alkañen uñean dabiz. Guzuña bañiz zañago ta txañago. Orixe dala-ta, urteak egieri bizitasuna emoten dautson antzera, guzuña urteak il egiten dabe. Ori dala-ta guzuña beti aldakor, beti yantzi bañiaz estalduta, bañuko ustelkeria estaldu eziñik...

Egiak, osterá, gero ta argi biziago egiten dau, eta buñukan, guzuñak ezañi gura

dautson ugaña beragandik ufinduta, gero ta dis-dis geyago egiten dau. *Zarago* ta *gasteago*... Beraz ba, guzufaren etsairik andienak urteak dira, eta egiaren laguntzalerik onenak be bai.

Yaungoiko Zale'n asmoak lenengotan batsuri begiak lausotu egin eutsezan, lenengoz tximistargiari begiratzan dautsonari lausotzen yakozan lez, gauza bakantzat begiratu be bai, baña biotz zuzenekoak ziran eta argi onek beragandu zituan, eta gaur aurka yarten dana «zentzun bakotzat» etsiko leukie, eta zuzen legokez.

Yaungoiko Zale'ren asmo zuzenak ez dira aldatu, oin emeretzi urte aldezten ebana aldezten, dau, *Yaungoiko*-zaletasuna zabaltzea bere bizia dalako, aldakuntzaz eriotzea etoriko litzakio ta.

Gure asmoak, Aita Santu berberarenak dira, Kristiñau Ikasbideaz, ziñeste ta *Yaungoiko*'ganako maitasuna euskaldun gustien biotzetan sustraitu, au da «Kristo' ren gentza (bakea) Kristo'ren bakaldefian» zabaldu.

Asmo zuzena, ta txalogarria ez ete?

Gaur, Aita Santuak ainbeste bider-esan dabenez, Katolikotar Ekintza'ren aldez gustiok yokatu bear dogu. Eta Ekintza onen zereginik lenena Kristo'ren irakatsiak zabaltzea ez ete da? Gustiok ofetara beartuta ez ete gagoz? Eta gustiok beartuta egon ezkeru, Katolikotar Ekintza'ren aldez beste zeregin barik, lanean ekiten dau-tsen *Yaungoiko Zale* bazkunai laguntzea, ez ete da egoki izango?

Beraz, bazkide gareanok iñoz baño gogotsuago, Bazkuna'ren asmoak zabaltzen ez ete gara alegindu bear?... Urte onetan bazkideak ugaritzen arduratsiago ez ete dogu yokatu bear?

Gure asmoa auñera eroateko len baño beañizan geyago dagola igarteko, begiak zabaltzea naiko da. Eta geldi egongo ete gara?

Yaungoiko Zale izenak berak *geldi* egoteko eskubiderik ez dausku emoten, *zaletasuna* geldi egoteaz ezin leike alkartu-ta.

Gaiztakeriak gero ta alegin andiangoak guzur eta oitura txarren yantziz estalduta basefi gustietan sartzeko alegin gustiak egiten ditu. Eta gu tamalez besoak idunduta ezer egin barik egongo ete gara?... Orixe ez!...

Urte Bañiz "asmo zarak"

Ondo betetan alegindu gaitzezan ba, gero ta sutuago, gero ta batuago eta eten barik *Yaungoiko Zale*'ri urte onetan bultzakada bafi bat emon dayogun. Akatz eta utsen batsuk gora-bera jauñera! *oso osoan uts*, ezer egiten ez dauanak egiten dau-ta...

KATOLIKO IZPARAK

XI'n Pio'ren abadegin- tzako Yubileoa dala-ta.

Gure Doipuru agurgafiak, bere abadegintzako 50'n urtea ospatzeko idazki orokor edo Enziklika edefa Gogo inarkunak goraltzen argitaldu dau. Eta iru egun bañu beste idazki orokor bat (Lotaziila'ren 23'an) aurtengo yubileo urteatzaz. Urteko gertakizun pozgafi ta atsekabeen bafi emonaz, Yubileo urtea, beste zenbaki baten esan gendun lez, 1930'ko Bagila'ren 30'arte luzetu dau. Beraz lengo baldintzakaz yubileoko parkamenak ordurarte irabazi leikez. Parkamenak irabazteko egin bear diran barauetzaz oar bat: Segura kardenalak, España'ko Gotzain gustien izenean, Aita Santuari Ufilan 24'an eskatu eutson, Kurutzadun Buldak emoten dituan efeitazunagaz egindako barauak, yubileoko parkamenak irabazteko balio dabela, eta Aita Santuak *pro gratia* bayetza emon dau.

50'n urteko Mesea.

Aita Santu XI'n Pio'k abadegintza 1870'ko Lotaziila'ren 20'an Laterano'ko Yon deunaren eleizan artu eban. Egun ofetan bertara Mesa emoten yoateko asmoa euki eban, eta ofetara-«Batikano Uritik» urten egin bear, eta gizosteak yakin ezker... Garagafiila'ren 25'n, lenengo Kepa deunaren enparantza edefera ibildeanean, gure Yaunaz urten ebanean, gizosteari bere tokian eutsiteko ta, agintariak 15.000 gudari bialdu zituezan, eta ortik atara zer bearko zan, Laterano'raño yoateko. Ori dala-ta edo, Aita Santuak Bere urteera ixil

-ixilik egin eban. Efoma'tafak ez ziran kontu ratu bafiro Batikano'ra biurtu zan arteraño. Goizeko seiretan, atezain egozan gudariak afituta itxiten zitularik, belbilean sartu eta Batikano'ko yaurlaria aüfetik ebal, inok yakin barik, Laterano'ko Bildegian gustiak afituta sartzten ikusi eben. Bere etoferaren bafi Lonbardatar abade ikastetxeko nausiak bakañik ekian, aüfeko gabaz, ikasle batsukaz bertara yoateko iragafi eutsolako. Eta afera egin bear eutsienak olan da be ordurako bildu ziran. Saspi lauren gitxiagoetan Mesa esaten asi zan, lonbardotar ikasle batek erasota, Ponpili kardenala-ta inguruan zituala.

Yaupa ondoren goxaldu eban eta Mixiño bildegia ikertu ondoren, amařetan Batikano'ra biurtu zan.

Eta urteera onen bafi amaiketari uri gustian zabaldu zan.

* * *

Lotaziila'ren 21'n bere «uřezko Mesa» Batikano'ko Eleizan andikiro esan eban. Bertan bildu ziran 40 kardenaletik gora, eundaka Gotzain eta 30 latefin ordelariak, abenda gustietako gizoste izugafiaz. Eleizkizun bikañenatarikoa izan zan.

Egun ata bertan, Karla deunaren eleizan, orain Aita Santu danak lenengo yaupa antxe emon ebalako, altara bafi bat onetsi dabe, ludi gustiko katolikoen arpidez odaindua. Altara ori eder-edefa ei da eta aituaq diñoenez Batikano'ko erti lanen ondoen ipinteko langoa.

Aita Santua'ren Idazki orokořak (Enziklikak).

XI'n Pio, aũreko «Yaungoiko-Zale»n ikusi leikenez, gai gustictan galentzen da, baña idazki bikañak eta ugari argitaltzen gitxi lan-goa da. Saspi urte onetan argitaldu dituanak aiatadako ditugu.

1922'ko Lotazila'ren 23'n, bere lenengo idazki orokoa, «*Ubi arcano Dei*», Bere doiputzako egitamua, «Pax Christi in regno Christi» azaltzeko.

1923'ko Urtařila'ren 26'an, *Rerum Omnium* deritxona, Sales'tar Prantzisko deunaren eriotzako 300'n urtearen gomutaz, eta izpafingilari eta katolikotar idazleen Zaindari aututeko.

1923'ko Bagila'ren 23'an *Studiorum du-cem*, Akino'tar Toma deunaren, deun iragar-tearen 600'n urtearen gomutaz.

1923'ko Azila'ren 12'an *Ecclesiam Dei* Yo-safat deunaren zinoapa-eriotzaren gomutaz.

1925'ko Lotazila'ren 11'n *Quas primas*, Kristo'ren Efegetzaz, eta bere yai bafia irasi-az.

1926'ko Otsala'ren 26'an *Rerum Ecclesie* Mixinoetzaz, eta onen geigafi lez, urte atako Bagila'ren 16'n, *Ab ipsis* Txinaiko mixino buru diranai.

1926'ko Yořala'ren 30'n, Asis'tar Prantzis-ko deunaren eriotzaren 700'gafen urtea gomutazeko *Rite Expiatis* idazki edera.

1926'ko Azila'ko 18'an *Iniquis afflictisque*, Mexiko'ko yasarpn eta katolikotafen kaltezko lege galgafien aurka.

1928'ko Urtařila'ren 6'an, *Mortaliu m animos*, Eleizaren batasunatzaz.

1928'ko Ofila'ren 8'an, *Misserentissime Redemptor*, Yesus'en Biotzaganako eraspn eta ordainketatzaz.

1928'ko Irařila'ren 8'n, *Rerum Orientalium*, Sorkaldeko ikasketatzaz, batez be Eleiz batasunari dagokionez.

1928'ko Lotazila'ren 20'an, *Divini cultus*, eleiz-gurtza eta eresi edo musikatzaz.

1929'ko Lotazila'ren 20'an, *Mens Nostra*, bere yubileoa dala-ta gogo-iñarkun (ejerzizio-

ak) goraldtu ta onurak azeltzen, batez be Loyola'tar Iñaki deunaren arauz egiten diranak.

Eta azkenez 1929'ko Lotazila'ren 23'an beste idazki orkor bat, Yubileo urteko gora-berrak eta poztasunen bafi emoteko.

Idazki gusti oneitan asmo bat, mamin bat ikusten da, «Kristo'ren Gentza Kristo'ren bakaldefian» zabaltzea, baña onetzaz zerbait esatea beste baterako itxiten dogu.

**136 zinoapa (martiri) ingal-
landar zoriondun izende-
gian.** ☞ ☞ ☞ ☞

Lotazila'ren 15'an Doipuruak, 136 zinoapa ingalandar zoriondun dirala iragafi dau. 1537'tik 1690'ra, VIII'n Enfi ke, Elisabete, Yakobo I ta Karla II'n aldian ingalandar katoliko zintso-ak, gofiak ikusi zituezan, eta euron artean askok zinoeste alde z bizia emon be bai.

1874'n 360 zinoaparen izendegia IX'n Pio agurgafiari aurkeztu eutsen, eta 1886'n, XIII'n Leon'ek 54 zinoapari ingalandařak eskintzen eutsen gurtza ontzat emon eban, eta 1895'n Ofila'ren 13'n bederatzi zinoapa zoriondun lefo-an ipiñi zituan.

1886'ko Lotazila'ren 9'an 253'n auzia erabagigaitzat artu eban eta oneitatik 136'en deun-tasuna ointxe ontzat emon dau gure Aita San-tu agurgafiak.

Oneitatik 65 abade dira, 35 kistar lau, 3 emakume, Malta'ko Zaldun bat, 21 yosulaun (yesuita) 8 beneditar, prantziskotar 2, ta mini-motar lekaide bat.

Baita ilaren 22'n zoriondun etsi eban Ogilvie Yon yosulauna. Onen auzia 1629 asi zan, beraz iru gizaldi igaro dira amaitu orduko.

**Italia'ko bakalduna eta
Aita Santua.** ☞ ☞

Italia'ko agintariakaz Aita Santuak egin dau-an Itunbenaren ondorena, bakaldunak Lotazi-la'ren 5'an egin dau sen ikerkundera izan da. Efege ta Efeğina euren ondorengoakaz, Aita Santua'ren yauregira yo an ziran. Abegirik onena egin eutsen, afeztik iragafita egozan

egitamuak osoan beteaz. Aita Santuaren auffera eldu ziranean, belaunikotu ziran eta Aita Santua'k yagi eragiñaz, Bere ondoren yesafita ogei minutuan izketan egon zan.

Bezua ederaf alkafi egin eutsezan, Aita Santua'ri ari-bitxidun gurutza eder bat emon eutsen, eta aldintsua dan antxiñako beste kurutzetxo bat. Aita Santuak iru domiñe ufezko, zidafezko eta burdin orizkoak emon eutsezan, eta Erapel margolari capetsuaren Andra Maria'ren irudi bat mosaikoz egiña. Ofez gañera Efegeñari ufezko agurtzakia emon eutson.

Ikertze au pozgaria izan da bai Aita Santu eta bai bakaldunentzako irurogei urte onetan artu emonik euki ez ondoren. Edestian gomutagafia izango da.

Izpar samiñak. ✕

Ainbeste pozaldiren ondoren, naigabea, safi oi dan lez keriza antzera, argetu da. Gabon yayetan, Gamba kardenal agurgafia ta Turin'go Gongotzaña bapatean il zan. Aita Santua'ren gogo-gogokoa, Berak 1926'n kardenal egin eban.

Baita urtearen azken egunean Bere anai Fermo Aita Santua'ri ia bapatean gaizkitu ta il yako. Yakiña gure Aita Deuna tamalez bete dau eriotza onek, eta guk geure otoitzez naigabe gafatz onetan lagundu bear dautsogu. (G. B.)

Gama.

GAZTERIAREN KISTAR ASIERATZAZ

AITA SANTUAREN IDAZKI MAMINTSUA



XI

N PIO agurgariak iru asten baruan iru Enziklika edo idazki orokor argitaldu ditu. Irurak pozik irakurri ditugu, Aita'ren itza semeak pozik aritu bear dau-ta, baña azkenengo au ila onen 11'n gazteriaren kistar azieratzaz argitaldu dabena irakurri dogunean, biotza pozez, adorez eta itxaropenez bete yaku.

Gai ori gaur egunean garantzitsuena dalako, toki onetan Eleizaren irakatsiak azalduaz bein baño sariagotan erabili dogu, (1) bai Eleiza'ren etsayak, eta etsaitzat ez dagozanak be, zuzenbidea zapaltzen alegintzen ziralako, bai gai onetzat, katolikotzat esten diran askoren eretxiak kili-koloka ikusten genduzalako, baita batez be, *Yaungoiko-Zale*'k bere zeregiñen artean, garantzitsuentzat gazteriaren kistar aziera daukolako.

Auxe dala-ta, Eleizaren irakatsi, zuzen, mamintsu, bikain eta onuratsuak, argi ta garbi azalduta Aita Santua'ren idazki bari onetan ikusi dituguzanean, biotzean sustraituta euki dogun gurari bizi bat egiztuta ikustez, biotza alaitasun eta adorez betetzea bidezkoa izan da.

Idazki onen garantzia.

Gauza bakoitza bere aldian egoki ba'da, idazki bikain au aldi egokian dator-kigu. Lasteriak, kistar asieraz Eleiza'k eta sendiak dituan eskubideak irunsi bearean dakusguz; guzurak, izparingi ta itzaldi bidez, umeen azieratzazko egirik argienak

(1) «Jaungoiko-Zale» Lotaz. 1-15-1925; Oriña 15; Bagila 1-1929.

nastu, lausotu ta guzuzeko irakatsiak euren tokian zabaltzen alegin gustiak egiten ditu; lateñietan oartzen dan on eta txarñen arteko guda gogofena ikastolen inguruan dabilela oartzen dogu. Eta asiera txar ala onetik gizartearen zorion ala ondarena datoñelako, bakoitzaren eskubideak argi azaldu, guzuzaren lausokeriak urindu, eta lateñien irunsi beañari esi gogofa ipintera datoñen idazkiaren gañantzia (inportantzia) ikusteko, begiak zabaltzea naikoa da.

Aita Santua'ren idazki au, gazteriaren kistar azieratzaz, *La Croix*'ek diñonez, *Rerum Novarum*, langile auziatzaz izan zana izango da. Azieratzazko auzi gareyenak bertan erabagita aurkituko ditugu, gai onetzaz egia ta zuzena aurkitu gura dituanak, idazki onetara yo bearko dau, Eleiza Ama'ren irakatsiak bertan bilduta dagoz-eta.

Ainbesteko gañantzia dabelako, idazki au Batikano'n bertan prantzeraz, erderaz, ingalanderaz, polakeraz eta alemaneraz argitalduko da.

Idazki onen mamiña.

Gustia da mamintsua, eta ikutzen dituen gai gustiak argiro azaltzen ditu. Kistar azieraren izatea ta gañantzia azaldu ondoren, gazteen aziera nori dagokion azaltzen dau. Iru giza-batza aitatzen ditu; sendia, lateña ta Eleiza Ama; lenengo biak gizonari izatez datorkiozanak, Eleiza bañiz izatez-goitik datorkiona. Sendia da izatez lenena, baña bere elburua osoro lortuteko bide gustiak ez ditu ta gizartean batu beaña dauko. Gizarteak bere elburua lortuteko, bea dabena ba'dau, baña gizonari elburu gurena lortuten laguntzeko ez da gai; orixe dala-ta, Eleiza, Kristo'k onetarakoxe irasi ebana, gustien gain agertzen da, berari bakañik irakasteko eskubide osoa Yaungoikoa'k emon eutsolako eta zerutar Ama danez, irakatsi ta sakramentu bidez zerutar bizitza emon, yanaritu ta zuzentzea dagokiolako. Eta Eleizaren eskubide au yakidi erti, elerti (literatura) eta gorputzari dagokiozan gauzetaraño eltzen da, kistar azierarako onuratsu ala kaltegañi izan leitekezalako. Gustiak irakasteko eginbea eta eskubidea dauko, Yaungoikoa'ren Bakalderira gustiai dei egin yake-ta.

Eleizaren eskubide oneik, sendi eta lateñienakaz ondo alkartzen dira; euri dagokien gauzetan bea daben azkatasunean lagatzen ditu-ta. Gazteen aziera, bereñez, lenengo sendiari dagokio, lenen gurasoenak dira-ta, eta guzur andi bat da semeak lateñienak, gurasoenak baño lenago dirala esatea. Orixo dala-ta, Eleiza'ren ardura ta zaintzapean, gurasoak lenen euren semeak azi ta eziteko eskubidea dauke.

Lateñiai gazteen aziera ez dagokio, bere eginbeaña «sendiak semeen kistar azieratzaz dituan eskubideak zaintzea, eta beraz, Eleiza'k kistar azieratzaz dituan goi-eskubideai itzal izatea da». Lateñiaren zeregiña, eskubideak zaindu, betetan lagundu, zirikatu ta eñzetasunak emotea da. Eta onetan gustiak alkartuta yoatea egoki ta onuratsu da, bakoitzak bere mañan eskubideak zainduta.

Gizona osoan eta dan lez artu bea da, aziera ona emoteko, adimenak eta ziñesteak irakasten dauskunez yatoñizko oben ondoren, eta Kristo'ren Etoñkunda gogoan eukita. Egi ta grazi bidez zuzendu, bideratu, argitu ta sendotu egin bea da,

eta ez gaur askok nai eta egin daben lez, ziñesteko irakatsiak eta Yaungoikoa'ren aginduak alde batera itxita; ori, mendu bearean arokeri ta griñan estuntzapean ipintea izango litzake-ta.

Eta bide or'en kalteak azaldu ondoren, non aziera emon bear dan azaltzen dau. Lenengo sendian, bear dan lez emon ezkerro egokiena eta iraunkor'ena da, eta Yaungoikoa'ren bildurean umeak azteko alegin gustiak egin bear ditu gurasoak. Geroz Eleizeak onetarako eraldu dituan bazkunak, eta azkenez ikastolak aitatzen ditu; azieraren aurkako etsairik andienak, Yaungoiko bako edo Kristiñau lkasbide bako ikastolak gaiztetsiaz. Eta katolikotar ikastolatza, eta irakasleatza eta gaurko gazteriak dituan arizkuetza batez be zine ta radio bidez be batsuetan gaiztakeriak egiten dituan zabalkundeatza itz egin ondoren, aziera «Yaungoikoa'ren graziaz (eskaraz) kristiñau oso ta egizkoa eraltzen» berenez zuzentzen dala diñosku. Eta gustiak aitatu barik amaitu bear ko dogu, gure irakurleai idazki onen bañ emotea baño ez dogu nai izan-eta. Gustiok gogoan eukiteko, irakurri eta ikasi egin bear litzake, eta irakasleak beti begien aurrean euki bear leukie.

Eta amaitzeko.

Onango laburpenak, egitea sala dala ba'dakigu eta saritan alperik galtzeko egokiago izaten dira, baña gai oneri J. L. ondo deritxogun gustian, ekiteko asmo-tan gagoz, eta gaurko laburpen onen akatzak parkatuko dauskuzala uste dogu.

Bitartean irakasle ta ez diranai, agintari ta gurasoai biotzez, geure abotsa entzungo ba'leukie, esango geunskioe: artu ta irakurri! Aita Santua'ren idazki eder-eder!

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santu ta Itunbenaren ondorenak

Aita Santuak, Gabon yayetan kardenalak egindako agufari erantzunaz, igaro dan urteko poz eta naigabeak aitatu eutsezan, pozez beteko urtea izan zala adiraziaz, bere abadegintzako 50'n urtean ainbesteko maitasuna lurbira gustiko semeak agertu dausielako eta batez be Italiar agintariakaz egin daben Itunbenaren ondoren pozgafiak dirala-ta. Baña... argiaren ondoan geriza ufean izaten da-ta, poz onein ondoan naigabeak be ur ibili dira. Katoliko'tar ekintzak Italia'n eragospen andiak aurkitu ditu, ori Itunbenean, argiro, azkatasun osoan lagatzen dala autortu ondoren. Politikea egiten dala aitzakitatzat artu ta Eleizak bere Irasleagandik artutako eskubideak zapaltzen dira. Ori betiiko leloa da... eta Aita Santuak argiro diño Katolikotar ekintzak egiten dabena politika dala esatea, guzufa dala. Baña. Mussolini'ri beste guza bat konbeni ta... Baita bere naigabea agertu dau, Efo-ma uri deunari ez yagokon oroigai bat iragiteko asmoa agertu dabelako eta batez be, katolikotar izparingiai guda gogof egiten yaken bitartean, Aita Santua'ri zor yakon itzal-aurka dagien idazti ta izparingieri ainbeste ezeziasun emoten yakelako.

Izan be, Mussolini nagusi dan aldian irurogetaka izparingi katolikotafak, egunorokotan bakafik, argitaltzea itxi egin bear izan dabe, bizilen ez dausielako itxi. Lenago be esan gendun baña, egiz esan geinke, gustia al dabela uste daben agintariakandik naigabe asko itxaron bearko dauzala gure Aita agurgafiak. Egia da Eleiza inoz ez dala ondatuko, baña bai bake gixi eukiko dabela be, Yesukristo'k iragafi ebanez.

Igaro dan urteko bidez-kundeak

Aita Santu agurgafiaren yubileoa dala-ta, igaro dan urtean. seme maitasuna agertzen, ludi-ko bazter gustietatik bidezkunde asko yoan yakoz. Bidezkundeok guztiz 458 izan dira. Oneitatiek 295 italitafak. Europa'ko beste efiatiek 124 yoan dira. Ipar-Amerika'tik 11, Apirka'tik 4 ta Ego-Amerika'tik 4. Bidezkunde geyen Italia'ren ufengo Prantzia'k eraldu ditu eta ufengo Beljika, Alemania, Suiza, Olanda, España, Babiera, Polonia, Ungaria, Austria, Txeko-slovakia, Malta, Luxenburgo, Portugal eta Ukraina.

Bidezkunderikugariena Gabon inguruan 1.500 prantzitafena izan da, ufengo prantzitar 5.600 gaztek Yoñalan egin ebena da, eta ufengo 1.000 ugazaba ta 500 langilek bertatik egin ebena. Baña gustien gain Bosko zorundunaren goralbenez salestafak eraldu ebena agertzen da, bertan 30.000 bidezti bildu ziran-eta.

Asmo begikoa

Leon XIII'k langile aldeko idazki eder «Rerum Novarum» argitaldu ebala 193'gn. befogegafien urtea betetan da. Auxe dala-ta, Paris'ko langile lendakari dan M. Delkout Halo'eri otu yako, ludi gustiko langilen bidezkunde bat Efo-ma'ra, eraldutea, Aita Santua'ri eskar on eta menpetasuna agertzeko. Bidezkunde au 1931'ko Bagila'ko 12'tik 18'ra egingo da eta latefi gustietako langile bazkunai dei egiten yake Efo-ma'n bizi dan bat, euren orde, bidezkundera eraldu bear daben batzorderako izentay deyela.

Katolikotar langileak, Eleiza'ren arauzko bazkunak ugaritzeko lan egingo dabe ta bakoitzak ordelari bat bialduko dau. Ordeleri bakoitza bere efitar yantziaz yoango da eta bost minutu-

tik igaroko ez dan itzalditxo bat, bakoitzak bere izkuntzan egingo dau. Eun bat itzaldira dirala uste da. Asmo bakan, begiko ta txalofafia berau!

Urteokaz katoliko egin diran idazle batsuk ☉

Safitan Irakurten dogu or emen idazleen bat katolikotar egin dala. Beste askoren artean bertan be bein baño safiagotan aitatu dituguz, Sigrid Untsed emakumea, Nobel saria irabazitakoa, Noruega'n, Jorgensen idazle bikaña, Dinamarka'n Papini ospetsua, Italia'n eta abar egi argia ezagutu eta katolikotar egin zirala. Gaur, ain ezagun ez diran Ingalanda'ko idazle bikain batsuk aitatu ditugu.

Maurizi Baring, bear ba'da Ingalanda'ko idazlerik bikañena 1909'an katoliko egin zan.

1922'n J. K. Twesterton idazle bakana katoliko egiteak ots andia atara eban. Bere anaya, idazle au be, amar urte lenago gure ziñestera biurtu zan.

Ronald Knox aba, *Evening Standard*'eko idazle txalotua 1917'n katolikotar e in zan. Oxford-Batza deritxon bazkunaren lendakari izan zan.

Gudaldian ain ospetsua izan zan *Sinister Street* irakurgayaren egile Kompton Mackenzie yaunak, urte areitan gure ziñestea besarkatu eban.

D. B. Wyndan Lewis eta J. B. Mortan idazle bafe eragile ospetsuak guda ostein bide oneratu ziran.

Eban Morgan, andiki arteko elerti zaletsuenerariko 1919'an gure ziñestera biurtu zan.

Alfred Noyes yaun olerkari entsutetsua 1927'n katoliko egin zan. Malborough'ko dukea be urte atan biurtu zan. Eta ileokaz Sehila Kaye irakurgilea eta bere senar protestante eleiz gizon, Tensore Fry yauna, ointsu katolikotar eleiza'n sartu dira.

Eta onein antzera baster gustietan egia bideak zabalduz doa. Ara aletxo bat. Boston'eko Kardenal O'Konnel agurgariak 500 gizonezko ta 1.100 emakumezko ointsu sendotza emon dautse.

Ingalanda'n urteko 12.000 inguru gure ziñestera biurtzen dira Bertako katolikotar urterokoak diño 1928'n 12.000'lik gora biurtu zirala.

Olanda'n yakiña da katolikotafak indar andia daukela eta bertako katolikotafak eragiñak eta

sutsuak dirala be. Befogei urtean katolikotafak *miñoi batean* geitu dira eta abadegaitan bat irukoitzu. Gaur katolikotafak 1.522.000'ra oitzen dira.

Yauna'ri eskefak emon eta ugaritu daitez eta Eleiz batasunara biurtu daitez an otoi eg daigun.

Izpaingilari onak ☉ ☉

Latefi arteko izpaingilari katolikotafen bazkunaren ordelariak Aita Santua ikertu dabe, eta bere yubileo gomutakitaz Maredsous'ko bertafaten lantegietan egindako Kristo Eferger irudi edefa eskiñi dautsoe. M. Delforje lendakariak katolikotar izpaingilariak Bruselas' egiteko asmoa dauken batzafatzaz itz egin e tson, eta Aita Santuak onetsiaz latefi gustietan izpaingilari katolikotafen alkartasun alde z egin eutsen.

Beste zerbait ☉ ☉

— Prantziko ta Alemania'ko katolikotaf Berlin'en batzar bat aurtemin izan dabe, eta asmo oso begikoaz 48 prantzetar ordelari idazle ta yakitun bertara yoan dira, guda gogor gafiak itxitako gafastasun eta alkar arteko usterik-eza baztertzeko. Euren biotza alkafi z baldu, anai maitasunez itz egin eta iñoz gal ta oztu bear ez zan alkafenganako kistar maitasuna geyagotuteko; ba'dago beafizana be Pozik artu dituez eta anai lez euren arteko a zietzaz itz egin dabe, Berlin'go Gotzaña bu dabela. Orixe bai'dagola ederto!

* * *

España ta Peru'ko agintariea artean eginda itunbenean asmo txalofafia euki dabe; eun artean auzirik sortzen ba'da, epaikaritzat o txegandik Aita Santua ala Berak aukeratzan o bena izan daitela. ¡Yafaibide edefa!

* * *

— Kolonia'ko agintariak Kristo Efergen e na latefi-yaitzat artzea erabagi dabe. Yafaitz asko izango al dituz!

* * *

Irlanda'ko Gotzñaak egin dabean batzafak erabagi dabe, zaldi-yoko-sariketak eta antzaz yolasak igande ta yai egunetan debekatzea; egunari zor yakon itzala zaintzeko. Elitzak txarto etofiko!..

AITA SANTUA'REN EGUNA

.....○○○Ⓞ○○○.....
(1922 - 1930)



N Bedito agurgariaren gogoaren alde, 1922'ko Urtañila'ren 24'n Milango Gotzain-eleizan egin zan eleizkizunean, il-itzaldi edeña Ratti kardenal agurgariak egin eban eta gauza eder asokoren artean auxe esan eban: «Aita Santutzaren entzute edo ospea gaur baño andiagoa iñoz be ez da izan; eta bardin antzekoa idoroteko be, igarotako gizaldiak zear ibili bear da». Gaur Aita Santu agurgari dan XI'n Pio'ren itzok, gaur, oin zortz urte baño be zio geyagoz Doipurutzagaitik esan geinkez. Eta entzute ori beraki egin dauan, etenbako lanari zor yakola be ezin ukatu leike.

Auxe naiko izan bear leuke Aita Santua'ren eguna katolikoentzat pozgariena izateko, beintzat azal zale diranentzat; baña batez be Aita Santua'ren eguna pozgaria ta maitasunez betekoa kistar zintsoentzat izan bear dau. Kistar batzaren Buru ta Biotza bera dalako. Beragandik aldunduta ez dago kistar bizitzarik, ez dago egirik... «Bidea, Egia ta Bizitza Neu naz» esan ebanaren Ordezkoa Aita Santua da-ta...

Berari entzun dayogun

Aita Santu autuko eben Konklabean sartu aurretik, bera ainbeste urtean kapi-lau izandako Erroma'ko Zenakulo'ko lekaimeak ikertu zituan, eta egundo aztuko ez yaken itzaldia be egin eutsen. Aita Santua bizi dan urian bizi izatea zorion andia zala adirazi ondoren, auxe esan eutsen:

Aita Santua «Yesu-Kristo'ren Ordezkoa, Eukaristia'ren osagailua da. Eukaristia Jesu-Kristo oso-osoa dago, baña ez ikusteko eran. Bere Ordezkoaga bertan dago ikusteko eran. Yesus, Eleiza'ren Yaungoikozko lemalaria, idazti deunak diñonez, egizko «Episcopus animarum vestrarum» da, bere Ordezkoagan agerian dago bere aginpide ta yaurpidez, onen bitartez, zerutar ontzia zuzentzen dabalarik».

«Otoitz egizue Yaungoikoa'k azkar, andikiro ta yaungokiro, Berak egite dakienez, dakienez, uts andi au bete dayen, bere Eleiza'ren alarguntasuna amaituaz. Il dabil Aita Santua'gaitik otoitz egizue... eta biotz gustiaz zerutar onespentak opa dautzuzan onegaitik be otoitz egizue». Eta uts au betetako lau egun bañu itzok esan zaitzaz, tuana Aita Santu autu eben, eta XI'n Pio'ren izenaz Otsala'ren 12'n burestundu.

Egun ori ba ez ete dogu ospatu bear?

Yesus'en Ordezkoaren eguna, Eleizako buru danen eguna, gure gogoa gure egia, Yaungoikoa'ren eskaña, emen deuntasuna eta gero betiko bizitza emote dautzuzan dauskunaren eguna, ez ete dogu ospatu bear? Zuzentasuna bañu gauza oberik oitura onak bañu gauza ederagorik ete da? Eta nor da munduari au erakutsi leu kiona Aita Santua bañu? Eta guk geure poza ta eskar ona ez ete dautsoguz erakutsi bear?

Baña, besterik ezpaltiz be, onexegaitik ospatu bear geunke:

Aita Santua gustion "Aita" da

Ta maitasuna zor dautsogulako, Bera gustion Aita dalako, igari barik mugagaitik gustien gañetik maitasuna irakasten dausku. Gustion Aita dalako egizko «katolikoko» edo orokor egiten gaitu. Aita maitekoña danez, gure bear izanak iñok bañu obeto ezagutu ta neke asko igaro bear izanda be, beti zainduko gaitu. Erea datoñeanean, gogoen kaltezko gauzen bat eskatzen dautsenean, naiz ta bizia galdu, beñola Napoleon'eri VII'n Pio'n erantzuna emoten daki; «Ez dot egin bear, ez neike egin, ez dot egin gura».

Azkenez Aita Santuaren *Alaitasuna* samintasunez betekoa dala argi dago. Bera Eleiza'ren Buru ta Biotza da eta Eleizaren gorputzeko samintasun gustia Aita Santua'gana eltzen dira, gustiokaitik yasan bear dau, eta guk bera ez ete dogu maiteko? Bere samiñaz ez ete gara saminduko eta bere pozaz poztu?

Zer egin bear dogun?

Lenen itxaropen eta *uste osoa* beragan ipiñi, egia berak irakatsiko dauskut-ta. Geure biotzeko *maitasuna* eskiñi, batez be atsekabe aldietan, orduantxe ondore zintsotasuna agertzen da-ta. *Seme zintzo*, maitekor eta esaneko izan, eta batez be berak Aita Santu egin aurretik lez ainbeste bider eskatzen dabenean *otoiz beroa* eskiñi gurutz astuna eroan bear dau-ta. Au ederto adirazten da Aita Santu autu ebenean Ungaria'ko kardenal Zsernoch'ek esan eutsozan itzetan. Amalagañen autes

kundean autu eben XI Pio, ta len aitatutako kardenalak auxe bere lagunei esan eutsen: «Kardenal Ratti'ri, ara zelan Kurutz bideko amalau egonaldi igaro eragin dautsoguzan, eta oin bakarik Kalbarioan itxiten dogun!...»

Egia izan be, Aita Santutzako mendia ta Kalbario'ko mendia, zerbait oldoztu ezkerro, bat dirala esan leike...

Otoi dagigun, ba, Aita Santua'ren egunean bere aldez!

G A M A

KATOLIKO IZPARAK

Katoliko zifneftaren Bi- zitasuna. ☞ ☞

Otsailaren 6 eta 12'n Aita Santu agurgari XI'n Pio'ren auteskunde ta bureskunde-egunak dira. Aurten zortzi urte betetzen dira. Orixe dala-ta, bere bakalduntzak bardiñik ez daukola eta aintzagariena dala adirazteko, bere menpean zifnefte alde lan egiten daben abadeen zenbakiztia ementxe argitaltzea otu yat.

Zertzelada geyenak *Schoenere Zukunft*, doistar izparfingitik, eta Streit eta Bertini abak, miñio zenbakiztiatzaz argitaldu eben idaztitik artu dituguz. Streit eta Bertini'k diñoenez, lurbira gustian 305.000.000 katolikotar dagoz. Baña aldizkingi ospatsu baten irakufi gendunez, bertan azaltzen zituan zioai begiratuta, zenbaki au, *345 miloira* eltzen dala esan leike.

Katoliko oneik 211 Gongoterki (Artzobispadu), 926 goterki (obispadu), 216 Bikariato edo ordeklaritza, 85 Lendararitza eta 28 prelazia deitzen yakonatan bilduta dagoz. (Streit) Eleiz-buru diranen menpean 310.000 abade-lekaidek lan egiten dabe.

Yauparien banakuntzak alde aundia dauko. Toki batsuetan ugari dagoz eta beste batsuetan oso ufi. España'n esaterako, 50.000 abade dagoz, 21 miloi katolikontzat, au da 420 kista'talde bakoitzeko abade bat; Ingalanda'n ostera 771'entzako abade bat. Olanda'n *miloi biterdi* (eta ez aureko zenbakian oker esan gendunez *bat eta erdi*) katolikontzat 5.000 abade dagoz, 500'entzat abade bat; Beljika'n, 7 350.000 katolikontzat 6 030 abade, 1210 katolikontzat bat, onez ganera ba'dira 9.818 lekaide be. Pantze'tarak 1026 katolikota'entzako abade bat dauke, ori 5.600 pafoki abade barik dagozala, gitxi di-

ralako. Alemania'n ipar aldean 1543'entzako abade bakoitza, eta ego aldean, bakoitza 1005'entzako.

Ipar Amerika ko Lateri batzan (E. U.) 1927'n 25 723 abade egozan, bakoitzentzat 746 katoliko.

Australia'n miloi ta erdi katolikontzat 1.400 abade dagoz.

Baña abadeen ufitasuna andia da, Amerika erdia deritxoen laterietan. Bost laterifitan 1925'n 5.000.000 katoliko inguru egozan, eta 462 abade baka'rik; abade bakoitzentzat 10.000.

Guatemala'n, Olanda baño iru bider andiagoa izana'fen, 1925'n, 62 abade baño ez egozan. Brasil'en 36 000.000 katolikontzat, 3.000 abade baño ez dagoz, 12.000 katolikontzat, bakoitza. Txile'n badira pafokiak 50 kilometro inguruan bananduta 15.000 eleiztar dituenak, Asia'ko miñioetan, 830 katolikontzat abade bat dago; Txina'n 770'ko bakoitza; India'n 1.000'ko bat. Baña miñio efitan zifnefgeak bide onera ekarteko ardurea be eurai yakokie, eta 1.000 eleiztar eukia'fen, beste 100 000 zifnefge, bide oneratuteko lan egin bea'ra daukie. Ez da zeregin txikia be-rau. Eta ez luzetzea'fen ez goaz geyago ipinten, Eleizaren bizitasuna igarteko zerbait ba'da-ta. Aita Santua'ren zeregin astuna, aiatu doguzan gustion Buru dala esanaz, baka'rik igari geinke. Amaika buru-auste igaro bearko gustiok zuzentzeko!...

Gure zeregiña ba, Aita'ri laguntzea da, Bera maitatu ta goraldiaz, bere aginduak zintso be-teaz eta batez be bere aldez otoitz egiñaz!...

Aita Santua'ren ospe ta itzala. ☞ ☞

Aita Santua'gaz lateri-buru geyenak aizkide-

tasuna zaindu gura izateak, gorengo mañan dagoa adirazten dau. Eta au egunerik egunera obeto dakusgu. Bera ikertzen, batez be Italia' gaz bakeak egin dituan ezkerro, latefietako agintari ta andikiak auzez doaz. Eta ikertzeok euren esanguratxoak daukela ezin ukatu.

Efege egunean asita onango ikertzañeak ugari izan ditu. Efezkada bat aitatu daigun. Luxenburgo'ko Karlota Dukesa Nagosia bere senaragaz, Piefe Monako'ko buru dana, Beljika'ko bakaldun senar-emazteak; euren suin Unberto Italia'ko bakaldungeya bere emazteaz, Boris Bulgaria'ko efegea, bere nebareba Zirilo eta Eudoxia'gaz, Portugal'go efege izandako Miguel eta Amelia; Babiera'ko bakaldun sendiko Maria Y; Ungria'ko artxiduke Jose-P., España'ko bakaldun sendiko Borbon Perdinando eta baita Ruperto eta Alberto babiera'ko bakaldungeyak, Petain gudaiburu ospetsua, Napoleon bakaldun sendikoa ta abar.

Egiz esan leike Aita Santua'gana, Ume Yesus' egana lez, efegeak burua makurtzen yoan dirala.

Aita Santua'ren azkenengo idazkia dala-ta.

Gazteriarren azieratzaz Aita Santuak argitaldu daben idazkiaren garantzia, aurreko zenbakian aitatu gendun. Gayari ta gaurko bear izanari begiratu ezkerro, bertan azaltzen dan baño gai garantzitsuagorik gitxi gizartearen etorkizunerako, gazteriarren aziera on ala txafetik gizartearen etorkizun on ala txafa zinzilika lez dago-ta.

Alan da be, *Osservatore Romano*'k tamalez idatzi dau, Italia eta erbestean be, bear dan garantzirik izparingiak, eta katolikotarak diranak be, ez dauetsiela emon. Italia'tararak, katoliko batzuk izan ezik besteak ia aintzat be ez dabe artu. Erroma'ko izparingiak leño batzuk bakarik ipiñi dituez idazkiaren bafi emoteko. Beste batzuk agertu ba'da bez. *Tevere* izparingiak zefenda erdi idatzi dau. Eta ori Erroma'n eta Aita Santua'ren goterkian. Italia'ko enparau izparingiak bardin samar. Eta *Osservatore*'k diñon lez, izparingioak katoliko dan latefian argitaltzer dira. Orixe dala-ta diño, katoliko diran izparingi eta Katoliko Ekintzaren bear izan andia dagola.

Erbesteko erietan be bear dan garantzirik ez dautse emon. Italia'rako bakarik dala uste dabela dirudi. Idazkia katoliko gustientzat eta la-

teri gustietarako da, Italia'rako batez be egoki izan añen, orixe dala-ta zabalduen diran izkuntzetan algitaldau da. Baña Eleiza'ren etsayei ez konbeni, eta aurka ezin dabenean ixiltasun-guda egiten ederto dakie. Guri dagokigu ba, al bait geyen zabalkundeak egitea.

Italia'n ain ots agertzeko ba'leiteke agintariak, tartean izatea; Mussolini'ren irakatsien aurka zuzen doa ba Aita Santua'ren idazki bikaña. Bañan su apur bat somatzen da, eta egunkaz idazti debekatuen Index'ean sartu dituz Mussolini aldezko idazti bi; bata lenago be aitatu dogun «Date a Cesare» Missiroli'na, eta bestia «Fazista Lateria, Eleiza ta Ikastolea» *Ignotus*'ek idatzia.

Aita Santua'k bere tokia zainduko dau, eta ikusiko dogu nok atzera egiten daben.

Aita Santua'ren edeski bi.

Bein baño safiagotan esan dogu Aita Santua oso mendigoizalea dala, eta bere bizitzan Alpes-mendiak arakatu zituan. Urtero opor aldian ibilte luzeak egiten zituan.

Bein 1911'ko Dagoniñar'er 20'n Graseli bere lagunagaz Saboya'ko mendiak arakatu ondoren, Annezi'ra yatsi ziran. Gotzain-eleizara mesa esateko yoan ziran, eta *celebret* agiririk ez eukielako ez eutsen mesa esaten itxi. Orduan Sales-tar lekaimetxe batera yo eben, eta an efeztasunak emonaz gañera, Sales'tar Prantzizko deunaren ilobian esateko eskatu eutsen. Nok esan, lekaime arei amaika urte bañu abade aretariko bata, Aita Santu zala, Sales'tar Franzisko deunaren eriotzako irugañen gizaldi-gomutaz idazki bikaña argitalduko ebala?

—Oraintsu Pignerot'eko kanonigu bateri, Aita Santuak bera mendiak arakatzan ibiltan zanean gertautako yazokun bat edestu eutson. Frenestrel'eko txauburuaren etxean alderdi atako Alpes mendiak arakatzeko egoala, mendiak zear osterak egitean, askotxo urinduta gero lañoak artu eban, eta biderik ez eban ikusten. Onetan Tofe Peleze'ko eiztari bat agertu yakon eta laguntzeko eskiñi. Ibiñi ta ibiñi ainbat arisku igaro ondoren, bakar-leku gain batera eldu ziran. Uste gitxien ebenean «Nor da or?» itza entzun ebeu, eta Pantzetar gudari bat uferatu yaken, agiriak eskatzeko. Nonbait, igari barik, Franzi'ko muga igaro ta gudariak eunarkunetan ebizen tokian sartu ziran.

Gudari zaintzañeak adierazo eutsen, gudari ez

zan edozein arapatzeko agindua eukala eta beragaz eroan zituan.

Gela baten laztamaraga gain gaba igaro eben gaur Aita Santu danak eta lagunak, eta urango egunean azke itxi ebezan.

XV'n Benedito'ren gomutaz.

Aita Santu ospetsu au il zala, Urtañila'ren 22'n zortzi urte bete dira-ta Batikano'ko Sixtina Kapilan il-otoitzak egin dira. Mistrangelo Florenzia'ko kardenalak, Aita Santuak egin eban lenngoak, mesa esan eban, Aita Santua bertan egoala. Lateñietako ordelariak egon ziran eta gizoste andia bildu zan bere ilobi aurrean otoitz egiteko.

M'taf G.

AITA SANTUA'REN IDAZKARITZA



GLEIZAREN Buru ta Zuzendari, gustiok dakigu, Aita Santua dala, Yesu -Kristo'ren Ordezkoa dalako. Ba'da baña Eleizan beste bat, Aita Santua'ren uréngo gañantzirik andiena daukona. Au, Aita Santua'ren Idazkaria da. Egiz, Aita Santua'ren menpean dago, beragaz egunoro egoten da, bere asmoak agertzen dautsoz, eta bere bidez, geyenez, kistañakaz artu-emonak euki oi ditu eta erabagiak be bai. Ba itunlari lez gauza asko bururatu eragiten dautsoz, gero Aita Santua'k aztertuta onesten dituanean, idazkariaren izenean erabagiak agertu aŕen, Aita Santua da erabagi oŕein erantzupena beragantzen dabena. Eleiza'ko Buru danagaz olango artu-emon bañukoak dituanak Eleiza bañuan beintzat gañantzi andia eukitea ez da añtzekoa.

Idazkaritza au, gitxi asko, era batera edo bestera, beti izan da, baña gaurko izenaz «Secretaria Status» amaseigaŕen gizaldi erdi ezkerokoa da. Esan bearik be ez da, Aita Santuak eta bere idazkariak gogo bateko eta asmo berberatakoak izan bear dabela, eta orixe dala-ta, Aita Santu bakoitzak, Bere asmoetarako ondo yator-kona aukeratzen dau. Auxe dala-ta, geyenez, ia beti, Aita Santu baña aututen dan-ean, Idazkari baña Berak aukeratzen dau.

Zeregin onetan ospetsuak izan dira, eta euron aŕtean geyen gañendu diranak, onexek dirala esan leike. azkenengo eun urte oneitan: Antonelli kardenala, IX'n Pio'gaz; Rampola, XIII'n Leon'egaz eta Meŕy del Val, X'n Pio deunagaz.

Baña besteai ezer kendu barik, ba'da bat gustien gain gañendu dana, Gaspañi Pedro, 1914'n XV'n Benedito'gaz Idazkaritza asi ta XI'n Pio'gaz otsala'ren 11'arte zeregin astun eta guren ori euki dabena. Eleiz-gizon ospetsu ta bikain oneri *katoli-*

kotar gustiok asko zor dautsogulako, egoki deritxogu bere aintzaz eta gomutuz zerbait *Yaungoiko Zale*'n ipintea.

✠ Pietro Gaspari kardenal agurgafia ✠

Norzia'ko goterkian 1852'ko Orfila'ren 5'n yayo zan. Beraz laster 78 urte ditu Gogo ta gorputzez enda gogoñekoa da. Bere ikasketak amaitu ondoren, Erroma irakasle izan zan, eta Eleiz Legedia azaltzeko Paris'ko «Institut Catholique»n 1880'n yoan zan. Bertan 18 urtean irakasle izan ondoren, 1898'n Gotzain egin eta Aita Santua'ren Ordolari Peru, Ekuador eta Bolibia'ra yoan zan. Iru urte ba'ru Erroma'ra biurtu ta arézkero antxe Eleiza'ren aldez lanik onuratsuen egin dau. Berez ere zeregin batsuen artean X'n Pio Doipuruak, Eleiz legeak biltzeko izentau eban batzordeko buru egin eban eta 1907'n kardenal autua izan zan. 1914'n Benedito XV' Aita Santu egin ebenean, Fe'fata kardenala Idazkaritzat autu eban, ba'ña ile be'ba'ru il zan, eta bere aizkide Gaspari zeregin bikain o'fretarako autu eban. Bere lagun eta lankide izan zan, eta biotz eta gogo bategaz alegin gustiak egin ebezan. Eleiza'guda galgarien alderdikierietatik aldenduteko; bakearen aldez eten barik laguntzeko; eta guda galgariaren gogo eta gorputzen kaltezeko ondoren ikaragarria arindu beintzat, eta go'otoak ibituteko. Eta ori batsuen eta besteen eskartxa'ra gogobera, irañak aztu ta anaitasuna ta Kristo'ren bakea bazter gustietan zabaltzen lagundu gindu ziran gustiai on egiñaz...

1922'ko Urtarila'n XV'n Benedito il zanean, ba'zirudien, oitura danez, Idazkaritzat ritza itxiko ebal, ba'ña gitxiten gertatzen dana, Aita Santu ba'riak bere tokian yagaitzeko autu eban. Eta gustiok dakigu, Aita Santua'ren lagun eta lankide bika onek egin dituzan lanak batez be lateriekaz Itunbena egiten. Gaur Batikano'n ordelari ritza dauken Lateriak 1914'n lako bi dira, eta Itunben onein artean Italia'ko Lateri ta agintariakaz egin dabena Eleiz edestian ospetsuena izango da.

Ainbeste lan egin ondoren eta dituan urteakaz, zerbait nekatua egotea ez o'aritzekoa, eta orixe dala-ta, toki guren ori itxi be'arean aurkitzen da. Aita Santu Orfila onen 7'n zuzendu dautson idazki baten, bere «eguneroko laguntzale ta lankide» gaitzatzat ez eukiteaz artzen dabena tamala agertu dautso, baita zerbait tamala arintzeko dautsola, berak al dabena laguntza emongo dautsola yakiteaz, Sarkaldeko Eleizalegeak biltzeko emon dautson ardureaz ga'ñera be».

Kardenal ospetsu au idazle bika'ña da, eta lege yakidietan Giannini, Mussolini'n ministro batek autortzen eban lez, Italia'ko lege-gizonik ospetsuena ta yakidetsuena dala autortu dau, eta bere Eleiz Legedia gustiak arituta itxi dituan.

Prati'n Karlos'ek idazti baten diñon lez, Lateri gizon izateko yayoa da, lateriak, gizonak eta yazokunak ondo ezagutzen ditu eta bere eretxia, aiko-maikoeta ibili barik, argiro azaltzea atsegin yakona da. Zurikeririk ez yako atsegin, oso laudatzen da, oldoskuna zabal agertzen dakiana azalez latz zamar agertuta be, eta «bere urteerak dituan. Autulari atseginga'ria, urteera bereziak ugari dituan.

Gizon yakintsu eta ospetsu oneri dautsen itzala agertzeko Italia'ko agintari

riak, «Anunziatta»ko idustun edo kolára eskiñi dautse eta Pantze'ko agintariak eurak esaten dautsen «grand croix de la Legion d'honneur».

Itxiten daben tokia betetzeko Pazeli kardenala, amairu urtean Alemania'n Aita Santua'ren ordelari gorenetarikoa izan dana autu dabe. Gizon egiz yaungoikozko, yakitun eta trebe au Gaspari yaunaren ikasle dala esan leike, eta bere tokia ondo beteko dauana.

✠ Gaspari yauna ta Kristiñau Ikasbidea ✠

Aitatuko gizon ospetsu onek, Aita Santua'ren Idazkaritza itxi áren, al daben giñoan lan egiteko asmotan dago. Bere gain Sarkaldeko Eleiz-legeak biltzea artu dau eta orez gañera asmo begiko bat, batez be guretzat, darabil. Kristiñau Ikasbide bakaía lurbira gustirako egitea. Asmo au antxiñakoa da, eta Batikano'ko Eleiz Batzar ospetsuan aitatu zana. Gaspari yaunak aspaldian asmo ori buruan erabili dau, eta gai oréztaz lan egin be bai eta naiko auferatuta egon bear dau. Kristiñau Ikasbide onek iru atal izango ditu. Lenengoak 30 itaun-erantzun, Yaunartzeko ta Sendotza'rako yakin bear diranak; bigaíena nagosientzako, eta irugaíenean ikasbideko egien azalben luzeagoa eta egi oneitzazko ezpayen erantzuna. Gizon yakintsu ta Gotzañakaz itundu ondoren, gustia latiñez idatzi ta Aita Santua'ri eskiñiko dautso, Berak deritxonean kistar gustiontzat ikasbide bakar bat egon deiten.

Erabagi au oso egoki etoíko da eta onuratsua izango da, onango arazoetan batasuna gauzarik ederéna izaten da-ta.

Baña yazokun onek beste ikasbide eder bat be ba'damosku. Kristiñau Ikasbidea'ri zor yakon gaíantzia emoten. Azalez izan áren, gai eta mamiñez gorengo malakoa da. Eta gustientzako idaztia danez, bai zala be. Araso bikañori bere eskuetan Gaspari kardenal agurgafia lango yaun yakintsuak beratzea, pozez betetako da, ainbeste auzi astun bere eskuetatik erabagiten oituta dagoanak eta eleiz gizon ain yakintsuak gauza ona egingo dabela esan bearik ez dago-ta...

Eta Kristiñau Ikasbidearen gaíantzia gero obeto ulertuaz, geure betiko asmoa betetan «Yaungoiko Zale»kook alegindu gaitazan, bakoitzari bere elez eta *euskaldunei euskeraz* Yaungoikoak gura daben lez irakatsiaz...

IZAKIEN ERANTZUNA

Maitasun bila ene biotza
dabil yayotza ezkeru,
maitasun orék zorunez bete
dayan orain eta gero.

•••••

Zer baña ene biotzak maite?
Nor egiz maitagaña?
Auxe galdazka arakutzen dau
ludi zabal dan gustia.

•••••

Izaki danak aurean zutik
daukodazala dirudi,
euren almen ta indar gustiak
erantzuteko urduri:

•••••

«Maitatu egik iratzalea,
gu eta ire Yaubea,
maitatu egik ire zoruna
doka Yaungoiko maitea».

•••••

¡Yauna maitetu!—diñoste goitik,
eguzki-argi, su-garák
¡Maitatu Yauna!—izpi gozoaz
ilargi samur, izarák.

¡Yauna maitetu!—itxasoak be
bere uñen orúaz,
¡Yauna maitetu!—lur zabal danak,
abots gogor ta sendoaz.

•••••

¡Maitetu Yauna!—Egazti danak
abestu zoli samuráz,
¡Maitetu Yauna!—abere orok,
basapiztiak, orúaz.

•••••

¡Maitatu Yauna!—naraskiak be
xomorotxo gelgaríak,
gure begiak ezin ikusi
leikezan koko txikiak.

•••••

Neure bañura, begiratuta
¡Maitatu Yauna! yoranez
diñost taupaka neure biotzak
gaba baltzez ta egunez.

•••••

Yauna maitetu biotz gustiaz
indar ta almen osoaz,
alantxe Yaunak sarituko zauz
betiko zorun gozoaz.

GABIREL.

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santua ta fazistak.

Aita Santua ta Italia'ko agintarien arteko Itunbena egin ondoren, Eleiza'ren eskubideak zearo aintzat artuko zirala Mussolini'k eta izenbetuaren, bein baño geyagotan Aita Santuak bere asafea agertu ta Eleizaren eskubidearen alde zementu urten dau. Euron bafi *Yaungoiko-Zale'n*, beti be emon dogu.

Argi ta garbi ta zearo Aita Santua'k Eleizaren eskubide alde itz egin dau, eta Itunbenean agindutakoa betetako eskatu be bai. Katoliko ekintzaz, eta gazteen azieratzaz auzi gogofenak izan dira.

Itunbena baño lenago *Baliā* ume bazkunen ikasbidea debekau eban eta oraintsu lengo zenbakian aitatu genduzan idazti bi *Index*'an sartu ditu. Idaztiok nok irafi nok eta zetarako idatzi diran begiratu ezkerro, argiro ikusten da idatzi oren irakatsiak debekatzeaz Mussolini ta fazistak gazteen azieratzaz aldezen dabena, Aita Santuak gaitzetsiten dabela. Esan beafik ez da, fazistentzako eta euren buruentzako sartada edefa izan dala. Egun bi bafu alan da be, izpafingietan debekatze argitaldu eben, eta au zerbait ba'zan, Gabonetan Aita Santuak agertutako asafea ta itzak argitaltzen itxi ez ebenentzat. Gogor egiten ez ziran asartu. Ufengo egunean *Baliā*'n batzar orokofean Milan'en, Mussolini'n anai Arnaldo'k itzaldi bat egin eban, eta, gogor egingo ebala uste zan afen, leun samar ibili zan, eta auzi ori beste batsuk lez ebatsi egin bear zala esan ondoren, bera sinistedun eta katoliko zala autortu eban.

Osservatore Romano'k itzok argitaldu zituan eta azalben leun bat egin be bai, azkenean be Italia'n gazteen asiera Aita Santua'ren idazki arauz izango dan ustea agertuaz. *Popolo d'Ita-*

lia'k, Otsala'ren 2'n *Osservatore*'n azalbenak begiko egiten yakozala agertu eban eta gai garantziutsu eta sai l onetzaz Latefi eta Eleizaren alkartasun geyagora eldu leitekezala adirazi eban. Eta orixe dala-ta edo beintzat egun gitxi bafu, Turati fazisten idazkari orokofak Aita Santua ikertu dau, eta pozez beterik uste dogu Aita Santuak oingoan garaitza irabazteko bidean sartu dirala. Beintzat auzia irabazteko bidean sartu dira...

Sobieten basatikeriak.

Rusia'ko sobiet, boltxebiki edo obeto basatiok, uzkurtez edo erlejiñoaren etsai lenengotarik agertu ziran. Eta amofurik gogofena abade ta lekaideentzat izan da. An geyenak zismatikoak (Aita Santua'ren agintza autoritzen ez dabena) direz eta katolikoak batean gogofak ikusi zitu ezan lenengotatik. Oin bafiz «Yaungoiko bakoan alderdiak» bultzatuta, bafiro Inpernutar amofuz guda gogofa ziñeskera gustiei egiten azi dira. Euren asmoa erlejiño aztefenak be Rusia'tik kentzea da. Ori baño basatikeri andiagorik ezin leike asmau be. Alan da be bide ori artu dabe.

Gizabidearen etsai amofatuok, euron asmoak aufera eroateko, gaiztakeri baltzenaz Gabon eguna ospatsea zearo debekau dabe. Eta orde z langile yai antzeko bat eralduta, Jainkobakoan alderdikoak bilduta zabalik egozan eleizak itxi eragin, deun irudiak iriz erabili, piloan bildu ta efetan aldia igaro eben. Ziñeste gustiak ito gurarik dabiz, eta ofetarako erabagirik basatienak artu dituez: eleizak eratzi; abade, lekaideak erail; eta ziñesterik dabena eriotzaz ala espetxeaz zematu. Egunokaz bakafik milaka abade ta lekaideri bizia kendu dautse.

Ainbeste ankerkerin aurka Aita Santua'k go-

gor bere asafea agertu dau, Ponpili kardenalari zuzendutako idazki baten. Protestantek be idazki oneri ederto eretxi dautse eta erabagi ofein aurka yafi dira. Izan be, *gizabideen* izenean gustiak, *gizon* eta *zibilizautzat* dagozan gustiak aurka yafi bear leukiala dirudi. Alan da be *zibilizautzat* dagozan izpafingi batsuk, onango basatikerien aurka bear dan asafea ez dabe agertzen, eta txafena, katolikotzat dagozanen eskuetan izpafingi ofeik ikustea da!...

Bolixebitar gaiztoen asmoa, eufak asmautakoa ez da. Pantzeak itxulaskunde ospetsuan olangoak egiten asi ziran...

Bein erantzun edefa artu be bai, edeski onetan lkusi geinkenez: Kafier gaiztoak, Nantes'ko bafesitar bateri 1795'n inotonso:

—Guk zuen eleiz eta tofeak eratsiteko asmoa dogu.

—Baleiteke—erantzun eutson,—*baña izañak bere tokian itxiko dauskuzuez*, eta an diran artean, geure semeai Yaungoikoa'ren izafon bidez irakatsiko dautsogu. ¡Boltxebikientzat be erantzun edefa! Eta efusitar gaxoen aldez otoi dagigun!

Katoliko Ekintza gure goterkian. ☞ ☞ ☞

Gure Gotzain agurgafiak, eten barik Katoliko Ekintza'ren aldez lanean diardu, ta auferakada bat gai onetan egiteko Urtafiñaren 20'n, Gipuzkoa'ko txauburu gustiei dei egin da, Donostia'n batzafa egin zan. 150 abade inguru bildu ziran eta Gotzain agurgafiak izaldi bikaña egin eutsen, «Abadea ta Katoliko Ekintza» gaitzat artuta. Lau-lau gauza egokiak eta yakingafiak eta asmo bikañak azaldu zituan. Tokirik ez dogu-ta, aitatu bakafik egingo doguz. Lamartine'k esaten eban lez, abadea gizarterako egiña da. Goikoakaz ta bekoakaz artu-emonak izan bear ditu. Geyenez efitik urtena izaten da, baña bere ikasketaz goiko malara igoten dau. Bere arloa, gizarte gustira zabalitzen da, eta gizon bakoitzaren bizitza gustira, yayotzatic eriotzarañoko une gafantzitsu gustietan bere bitartekotasuna beafa izaten da-ta. Kistar bizitza biotz gustietan erein eta landu egin bear dau, eta bere lanak Eleiza bafukoak bakafik ez dira. Leon XIII'ak esan eban lez,

sakristiatik urtenda efiaren erdian be lan egin bear dau, eleizara etorten ez dan efitafari be zorian bidea irakasteko. *Yaungoikoa*ren gizon Paul deunak esaten eban lez izan beafa dauko beti Bere ordezeko agertu toki gustietan; orix egin ezik onura andirik ezin leike egin eta.

Bere zaña andia da. Gizonak eta emakumeak langile ta lugiñak, ume ta gazteak, ogia emon ta Kristiñau ikasbidea irakasten alegindu bear dau. Gotzain ospatsu batek esan eban lez, «Gose dagoanari Goizparkiaz azetzea ez yako azaldu bear» eta. Yaten emoteaz ba ez da aztu bear.

Ume ta gazteai kristiñau ikasbidez gañera, ziñe txafen kalteetatik ufindu bear dira.

Egite onen aldez ekiteko, izpafingi onak bea dira, txafak kañoirik kaltegafienak baño kalte gafiagoak dira-ta. Izpafingi *ariñak* erdiz-erdizkoak, bietara yokatuten dabenak bazterzeko onak, egiz katoliko diranak ugaritu bear dira eta ofetarako gustiok batera lan egin bear dogu.

Aita Santu, Gotzain eta txauburu azpian gustiok lan egin bear dogu katoliko ekintza zabaltzeko, eta gure antxiñako euskaldun oituru onak biurtu daitezen.

Menpetasunaz eta maitasunaz ori lortuko dogo.

Amayeran Aita Santua'ri agufa bialdu yakon eta onetsiaz agufari erantzun eutson.

Protestante ospetsu bide onera. ☞ ☞ ☞

Beste askoren artean, oraintsu katoliko egidiranen artean Bernon Jhonson edo Bernon alzeritxona ospetsu enetarikoa izan da. Ingalanda pantzezkatafen antzeko lekaide bazkun bat sortu eben eta bertan sartu zan. Protestante artean eukien izlaririk onenatarikoa izan da. Biurtonek, sartada andia egin dau protestanteen artean. Zer dala-ta katoliko egin dan azaltzeko «One Faith, one Lord» («Ziñeste bat, Yaun bat») izendun idaztia argitaldu dau. Bertan diño katoliko egitea, Teresetxo deunaren bitartekotasunari zor dautsola. Lixieux'en bere onetan egoaldan egizko ziñestera biurtzeko bultzakadea soma eban, eta alantxe egin be. ¡Ondo etofia!...

GURE LENENGO EGINBEARA

.....oOoOo.....

GEURE begiz, egunoro ikusten dogun gauzarik tamalgariena auxe da: Gaiztakeriak egunerik - egunera, inor esirik ipinten ausartzen ez dala, bazter guztietan zabaltzen doala. Eta ontzat dagozanak, gaiztakeri gustien aurka su ta gar yokatu bearéan, geyenez, tamalez burua makurtu, eta *negartien kofradian* sartuaz naiko egiten dabela uste dabe. Gaur egunean negarâk alde batera itxita, zintso yokatu bear da. Eta bitartean, gizon eta emakume askotan, eta batez be gazterian, ziñeste epelkeria oituren nasaikeriaz alkartuta ikusten ditugu. *Izenez* kristiñau diran asko, eta ez dirala esan ezkerô asarâtuko litzakezanak, *egitez* izenen yaube diranik ez dabe agertzen. Begira irakurten dituezan izpañingiai, ikusten dituezan zineai, yoaten diran yolas eta dantzai eta... *Aitiarenka* asiko zara!...—Oreâk katolikotarâk ez dira ba?—esango dozu—Eta zelan leike gaiztakeriari indarâ emoten ibiltea?—Zelan? gaurko munduan oso ézez; *modako katoliko* izatea naiko da...

Modako katolikoak zer diran?

Modea, Adan alaben antzekoa dalako-edo, toki gustietan sartzen dana da, eta katoliko artean bear dan bañô geyago sartu da.

Gaurko egunean, katoliko askotxo dira, ziñeste epeldunak, bada-ezpadako oiturak dituezanak, Eleiza Ama'ganako maitasunik agertzen ez dabenak, beraz Eleiza'ko buru diranen aginduak, aintzat artzen ez dituenak. Eta bein oretara ezkerô, edozein izpañingi irakurtea, edozein zine ikustea, eta edozelako yolas eta dantzatara yoatea egunoroko ogitizat artzea, berez datorrena da. Ondorenak?...

Mundutaren asmo galgariei txera ona egin, Eleiza'ko eta eleiztaren gauzakaitik beti zer esana... yolas eta dantza onak ba'dira... oneintzako *sosoak* izaten dira... Ez dagoz *zozo* txarak...! Bai ba, Bateoan ezaritako kristiñau-*gatza*, urtu egin bear izan yake-ta, euren kristiñau sentzunik eza, besteen *sosotasunaz* zuritu bear... Oneik katoliko zintsoen epaigaririk gogorenak izaten dira... Uste izaten dabe non-bait, besteak baltzitura eurak zuriago agertuko dirala!...

Onexek dira *modako* katolikoak, eta *kofradi* onetan sartu geinkez, eleiztan lenen eta dantza nastuetan lenen agertzen diran Maria alaba (?) ta Luistar asko...

Gaitz onen sustaia.

Kristiñau bizitzaren aulkeri ta argaltasun onen sustaia bariz, ketiko geure argaltasun eta gaiztakeri axearen kaltez gañera, batez be, X'n Pio Aita benetan Deunak esan eban lez, ziñesteko gauzen ezyakiña, Kristiñau lkasbideko egiak buru ta biotzetan sustraituta ez eukitean dago. Kristiñau lkasbidearen ez yakin geyago ta kristiñau bizitza aulago, argalago izango da. Auxe bai dala Aita Santu yakintsuak esan ebanez,

Yatoñizko bigarren obena.

Eta *Yatoñizko bigarren obena*, Kristiñau lkasbidea ez yakitea, beste gayetan ez yakin eta apal diranen artekoa bakañik ez da; euren burua yakintsu egin da burua tente guri goitik bera begiratzan dauskuen yakintsu-*tentel* askorena be bai!... Onetzaz, tokirik ba'geunke, amaikatxo edeski ipiñiko geunkez!...

Oneik uste izaten dabe, beste yakidi batsuk zelanbait ikasi dituelako, goi ta beko gauza gustietzaz, itz egin bear dabela, eta erlejiñoatzaz be, bizitza gustian ikasten egonda baño *sanidade* geyagoz itz egiten dabe... Kredo ala Kristiñau lkasbide itaun batsuei erantzuteko lañi xamar aurkituko litzakezan askok... Eta oñez gañera, *El Sol* eta bere senitarteko izparingi gaiztoak irakurteko oitura daukenak ba'dira... *Libera nos Domine!* yakiturien-yakituriz esaten dituen kirtenkeriekaitik, Bermeo ala Santa Ageda'n matrikulea irabaziko leukiela esango geunke...

Eta tamalgarriena da, olangoxe ezyakiñaren tentelkeriei erantzuteko be kristiñau asko lañi ibiltan dirala, bear dan lez Kristiñau ibasbidea ikasi ez dabelako ala obeto *irakatsi* ez dautsielako...

Katolikotar ziñestearen etsairik txarrena.

Gure ziñestearen etsairik bildurgarriena ez yakianaren epaya da. Gure ziñestearen egia da, argia da, eta argiaren etsairik andiena ezyakiñaren iluntasuna da.

Tertuliano ospetsuak Eleiza'ren lenengo gizaldietan esana da: «Kristo'ren ziñesteak, ezyakiña'ren epayari bakañik bildur dautso. Ezagutu barik gaiztetsia izatea ez dau gura. *Ne ignorata damnetur.*» Saritan Kristiñau lkasbidea irakurtea naikoa izan da ziñeste bakoien ezpayak ezereztu ta katoliko ziñestearen egia ikusteko. Geure egunetan auxe aurtu dabe, beste askoren artean, Katoliko egin

diran gizon ospetsu bik: Giovanni Papini idazle bikain ta Wilibrordo Berkade margolari ta gaur beneditar ospetsuak. Euron itzak ez doguz aitatzen ez luzetzeaŕen.

Ezyakin onen sustaŕa non dagoen zelanbait eta bakoitzari *berea* emonaz, beste eretien baten azalduko dogu J. L.

Gaur ezyakiñau baztertzea saĭa dala bakariĕk esango dogu atal au amaitzeko.

Kristiñau Ikasbidea ez yakiteaz ez ete gara lotsatu bear? ♣ ♣ ♣ ♣

Eginbeaŕez yakin bear dogun gauza bat, ez yakiteaz, gustiok lotsatu egin bear giñakez, sentzunĕk euki ezkerro beintzat; eta gauza aŕigariĭa, asko aurkitu ditugu kristiñau ikasbidea ez yakiteaz bape lotsatzen ez diranak. Kristiñau Ikasbidea aitatu ezkerro, nor da itzok edo antzekoak entzun ez dituana, eta esaten dituana bape lotsatu barĕk: «ara ba, txikitan ikasi gendun baña...» Ori lotsatu barĕk eta bariŕo ikasteko erabagi barĕk esatea lotsagariĭa ez ete da?...

Geuk nai genduĕn baño geyagogaitĕk esan geinkez Heĭo idazle yakintsuak idatzi zituan itz oneĕk: «Ondo asitako gizonak, Maraton'go eta batez Termopilas'ko gudaketaren bari ez yakiteaz lotsatu egingo litzakez... Baña onexek ondo asiok, arpegia lotsaz goŕitu barĕk Katolikotar Eleizea zer dan ez yakin leikie... Aditz yokoak (konjugaziñoak) astutea ezin leikioe parkatu, baña Kristiñau Ikasbideaz astutea lagatzen yake». (*L'Homme*, 206, ing.)

Irakasleak, eta ez edozelakoak, aurkituko geunkez, *ortografiko* uts bateri, gaŕantzi andia emoten dautsenak, eta Kristiñau ikasbideari *bear* dan lez, aginduta dagon lez, «euskaldunei euskeraz», irakasteari baño geyago emoten dautsenak be bai! Eta orixe da negargariĕna!...

Lenen egin bear dana.

Katolikotar Ekintza dala-ta lan, polito, egiten da, batez be gure Gotzain agurgariĕk bultzkada egikoŕak emon dautsozan ezkerotik. Ba, Aita Santuak ainbeste bidar esan dabenez, lenen ziñeste sendodunak bear dira, eta oŕetarako, Kristiñau Ikasbidea *ondo* ikasi eta irakasten alegintzea *lenengo eginbeaŕa*, eta gureztat Aita Santuak beste ereti baten esan ebanez *andiena* be bai.

Gurasoak, yantzikera nasayen aurka Aita Santuaren aginduz emon diran erabagi gogoŕetan diñon lez: «Berarizko ardura ipiñi bear dabe, lenengo urteetatĕk Kristiñau Ikasbidea sendaro euren umeak ikasi dayen». (Acta Apostolicæ Sedis, 1-12-1920)

Alegin gustia egin daigun Eleizaren legeak bete, eta bete eragiten, ez yakin lotsagariĭa bastertu, eta kristiñau sentzuna, eta Bossuet'ek esaten eban *benetasuna*, gero ta geyago zabaldu daiten. Alan izan ala ez izan, batera edo bestera egiteko aldietan bizi gara-ta!...

AU ORI TA BESTEA

Gaurko askoren antzeko bat.

Bizitza gustian batera ta bestera yokatzen eban bat zan. Gustiakazkoa egitea atsegin izaten yakona, baña beti bere onerako zerbait atarata. Bere ames bakaña, zuri ta baltz, gustiakaz ondo konpondu, eta bereaz urtetea izan zan. Eta gizon oneri, beste enparauai lez, eriotzea uferatu yakon, gexo astun soñekoz estalduta.

Gero ta gaizkiago zegoan, eta beste mundurako pardela gertatzeko garaya eldu yakonean, abade bateri deitu eutsen.

Abadeak bere zeregiñak amaitu ondoren, ba'ekien nor zan eta Kristo'ren Efegetza gogoz autortu bear ebalá adirazi eutson, ofetarako, beragaz batean ¡Gora Yesu-Kristo! esanaz.

Gexoak pozez beterik erantzun eutson: ¡Gora Yesu-Kristo!...

Abadeari biotza poztu egin yakon ain biotzetik urteten eban deadařagaz, eta esan eutson: Tira, ederto; eta orain neugaz batera, beste deadar bat emon bear dozu: Esan egizu biotz gustiaz ¡Bera Satanas!—Gexoak ez eban erantzunik emon. Lengoaz damutu zalakoan, bañiro ¡Gora Yesu-Kristo! esateko agindu eutson eta bai esan be.

Orduan bañiro ¡bera Satanas! esateko agindu eutson eta bañiro be ixilik.

Au ikusirik, abadeak itandu eutson: Baña, gaxo ofek, ¡Gora Yesu-Kristo! ain pozik esaten dozun ezkeró, azkenengo une oneitan zer dala-ta ¡Bera Satanas! ez dozu esan gura?...

—Yauna—erantzun eutson gexoak—zeñen eskuetan yausiko nazen ez dakidalak!...

Zoritxařeko gizon (?) onek amaikatxo yařaitzale ba'dituz gaurko egunean be!...

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santuaren garaitza.

Italitar agintari ta Aita Santuaren arteko ltu-ben ospetsua egin eta izenbetu ondoren be, agindutakoen aurka, Mussolini'k eta yokatzen eben. Eta ori, argi ta garbi, katolikotar ekintza esitu, eta gazteriaren kistar - asieratzaz Eleiza' ren eskubideen aurka itzez eta egitez agertzia dala ikusten da.

Aita Santuak bere naigabe ta asafea safitan agertu dauz, baña faszistak, atzera egiteko asmorik ez eben agertzen. Eta onetan zirt edo zart egiteko unea eldu zan. Aita Santua'k idazki bikain baten bidez, gaztediaren kistar-ekizkuntza Eleizaren eskubide ta eginbeafa dala azaldu dau; eta katoliko irakatziz guraso eta latefiaren eskubideen mugak izentau, Mussolinifaren itz eta egiteak gaiztosten zitularik. Lenengotan muker xamar agertu ziran, baña gero lengo zenbakian azaldu gendun lez, auzi ori bakez erabagiteko gogoa agertu eban, eta alkar-izketa onein onurak egunotan agertu dira. Beintzat, faszista gaztediak, Eleizako buru diranak aututakoak izango ditue kristiñau ikasbidea irakasteko. Kistar ekizkuntza ba, abadeen eskuetan, bear dan lez gelditzen da. Baliñak - eta igandeetan amafak aufetik batzafa ez dabe izango, eta kistar ikasbidea ikastea bearkunezkoa izango dabe. Onez gañera, neskatiñen jinasi agometan eratasunak eskatzen dabena, betetako erabagiak artu dira.

Aitatutako erabagiok, lengo faszisten asmoen aurka dagozala argi agiri da, eta beraz Aita Santua'ren irakatsi ta aginduen afean burua makurtu beafean aurkitu dirala. Onek pozitu egin bear gaitu, Aita Santua'ren eta kistar eskubideen garaitza da-ta. (1) Erabagi oneik fas-

(1) Ondiño igaro dan Irañ'n 4'an Mussolinik esan eban «Gaste azieratzaz Eleizari ezer ez dausola itxiko». Atzera egiteko ez egoan.

zisten arteko bateri baño geyagori min emong dautse, baña, beintzat «onetan» bide okefa itx teko asmoa agintariak agertu dabe. Izpafingi katoliko ekintzaz bardin egingo ba'lebe, oduantxe buru makurtze txalogafia egingo lekiela! Otoi dagigun, eta aldiak agertuko dau.

Entzun eta egin!... Yantzi keri ta moda txafen aurka.

Yantzi nabarmenak dirala - ta, moda txafan baster gustietan zabaldu diralako, oitura on maite dituen edonor buruaustez ta tamalez bebear dau. Onetan, eginbear astuna daber. Aita Santua'gandik asita, Gotzain eta abade goñai baño ezpada be amaikatxo bider gogin beafean aurkitu dira,

Ba, ointxe bafiro Aita Santua'ren aginduen erabagi gogofak, 1930'ko Urtafaria 'ren «Apostolicæ Sedis» en argitaldu ditu, eta gaitan, gaiztoen iri ta ixekak gora-bera, alegin fiak yantzi nabarmenen aurka, sutsu ekin tsen Gotzain eta abadeen lana ixalotuaz, giny geyagoy eta indar gustiakaz» yantzi nakeri gizarte onen artefik zearo bastertu artu pertu barik ekiteko agintzen dautse.

Eta lan ori efezago eta egikoñago izan d amaika ataletan erabagiak banandu ditu.

Lenengoan txauburu eta izlariei baste agintzen dautse, erea yatorken gustian, esagiraka egin, zuzendu, eta bultz egiteko, erimeak lotsaz eta onbideari indar emoteko er yantzi daitezala, eta gurasoai adirazteko er barik yantziten, euren alabai ez dautse a izte ga bear.

Bigafen eta irugafenean, gai onetan gur et dituen eginbeafak azaltzen ditu: Yaungoiko a bildufean azi, garbitasuna eta eratasunala eta yafaibidez irakatsi, eta galbideetatik a

du, eta batez be, kristiñau ikasbidea sustraiz irakasteko arduratu.

Laugafen, boskafen eta seigafen atalean, ikastola ta ikastexeeetako buruai, yantzikera txfafen kaltez ekiteko eta eratasuna ardura andiz irakasteko dauken eginbeafa azaltzen dautse; eraz yantzita ez yoakena, andi nai txiki izan, ez artzeko eta lendik ba'dabil, ikastolatiak yaurtiteko aginduaz.

Saspi, zortzi ta bederatzigafen atalean, yantzikera ta moda txfafen kaltezo eta onen aldezo bazkunak sortu ta landuteko. agintzen dau. Baita soñeko nabarmendunik eleiz bazkunan ez artzeko, eta sartuta ba'dagoz, zuzendu gura ez dabena, begirapen barik yaurtiteko.

Baita be, yantzikera txardunei, Yaunartzean ez yake itxi bear. Bateo ta Sendotza'n amabizitat ez dira artuko, eta eleizan sartzea be debekau egin bear yake.

Azkenez, bazkunen buru diranai, txaunburuez gañera agintzen yake yantzi eratasunatzaz itz egiteko, batez be Andra Maria'ren yai egunetan, eta Ama Sortzez Garbiaren egunean eleizetan yantzien eratasun alde, otoi bereziak eta itzal-tiak egiteko.

Gai onetan saritan, alpefik ekiten yakola asko beste izaten dabe, buru gogoñak dirala, ta alpefik dala ekitea esanaz, baña onurarik ez gurestea, *gustiok batera, eten barik* eta *Yaungoikoaren gurariari* begiratuta, ekiten ez dauzgunulako ez ete da?... Obe litzake!... Baña ziur gagoz, abade gustiok alkartuta, Eleiza'ren agintza onetik, zearo bete eragiten, eta begirapen barik aleginduko ba'giña, yantzikera lotsabakoa erlazitatik eta kristiñau artetik, asko bastertuko gendukela. Ekin ba, Yaungoikoaren guraria da

Rusia'ko basatikeriak dirala=ta

Lengo zenbakian aitatu genduzanez, Rusia'n, ekin zieste ta erlejiño usaña be kentzeko, boltxebi-zimakeriak, asmau leikezan basatikeririk andienak ko eragiten diardue. Tamalgafia ziñez ain eleizkoya o, eratan eri andi bat, Yaungoikoa gofotatzen dabenen iela berpe artean yaustea. Zigofa, eriotzea, lapufetea, guzuzte ta ondatzea, aspaldian Rusia'ko ziñeste-ko eragintza euren eleizen inguruan dabiz. Aita Santu-koar bainbeste gaiztakerin aurka bere asafe ta na'iz mala agertu dau, baita Rusia'ri egindako mek ald... andiak gomutatzen ditu, batez be guda os-

tean 150.000 ume gosetiri egunoro yaten emon eutsela, agintari gaiztoak katolikoak lagunduta baño gosez ilda ikustea obetzat etsi eben arte-raño.

«Yainko gabeak» ziñeste gustien aurka egiten dabezan ankerkeriak gaiztetsiteko, gizabidea maite dabenez latefi gustiak yaiki bear leukiela esan lei; baña, oingo latefi-buruak, nonbait sa kelean ikutzen dauksienean bakarik, ausoakaz artegatzen dira, eta agotan darabiñen gizabide edo *zibilizaziñoa*, umezurtz itxidabe.

Ingalada'n oraitiok, agintariei aldunak eskatu dautse, boltxebitafai artu dabenez bide ofetan al dabenez, yafaitzen galerazteko. Ikusikogu zer egiten dabenez.

«Ziñestedunen» artean baña, ao batez boltxe-bitafen gaiztakerien aurka asafea sortu da, eta euron artean katolikotzat dagozan efi batsuei, ikasbidea emon leikion bat aitatu dogu. *Azerbaidjan*, erkaldefiko, ordelariak, maomar latefi-aren izenean, basatikefi aurka Londres'en eraldu dan kristiñau batzordeari, eta Latefien Bazkunari, idazki bat zuzendu dautso euren ziñeste-koen kaltez egin dituezan ankerkerien bañi emoteko, eta beste askoren artean diño, ziñeste irakasten dabenez ikastoletara umeak bialdu dabezalako bakarik, guraso asko erail dituezala. Ori bafiz egi ta gizabideen aurka danez, maomar gustiei dei egiten dautse beste «Eleizakaz» batean euren asafea agertzeko.

Bitartean basatiak, *Pravda* deritxon izpañigian iñon diran astakeriakaz Aita Santua'ren dei samufari erantzun dautse, euren buru Lenin'ek izentauko bideari ezergaitik ez dauksiela lagako adiriaz.

Besterik ezean ba, Aita Santuak gura dau, otoiiz egin daigula Rusia gaxoaren alde, eta Berak Yoseba deunaren egunean asmo ofegaitik Mesa esateko asmoa agertu dau.

Aita Santua'ren samintasunaz samindu ta Berreakaz geure otoyak batu daiguzan.

Aita Santua'ren Idazkari baria.

Lengo zenbakian aitatu gendunez, Gaspafi kardenal ospetsuaren tokia betetako, urte askoan beragaz lan egin eban eta ikasle izan zan Pazeli kardenal agurgafia autu dabe. Auxe da gustiak ao batez txalotu dabena. Radini Tedestxi kardenalak, ondiño abade egin bañi zala «Pazeli ona» deitzen eutsanak ezagutzen dabenez gustien biotzak beragandu ditu. Yaungoiko za-

le, yakintsu, diplomatiku, toki gustietan Yaun-goikoen gizon lez agertu da Alemania'n Aita Santuaren ordelari 13 urtean izan da, eta bertan guda ondorenak leunduteko egin dituzan lan andiak dirala-ta protestantetafai be maitagafi egin yake, eta araso ori itxi biar izan dabenean, euren tamala agertu dabe. Gudan eta guda ostean bakean alde lan asko egiñak, eta Alemania latefiz protestante izan afen, Babiera ta Prusia' gaz egin dituan konkordato edo itunben bidez eleiza'ren azkatasuna lortu dau. Efoma'ta'fa da, Batikano'ko lege gizon baten semea eta orain-tsu Kirinal'egaz egindako Itunbenean ainbeste lan egin daben Pazeli lege gizonaren anaya da. Igaro diran Gabon yayetan kardenal autua izan da, eta 55 urte ditu. Eleiza'ren onuraz lan asko egingo dabela uste dogu; aufekoen onatzai yafaituta.

Eukaristi batzafak. ☸

Aurjengo Eukaristi batzaf orokofa, Kartago' ko uri ospetsuan Oriña'ren 7'tik 11'ra egingo da. Ainbeste deun eta ziñopen yayoteria dan uriau, kristiñauentzat maitagafia da, zoritxafez maomafen guzufak zabaldu arte, lenengo gizaldietan, kistartasunak dis-dis egiten ebalako. Olan-go batzafetarako aukerakoa da ba. Batzordeak lanean gogor diardue. Otoi bidez, eta ogetamar izketan irafitako idazki bidez zabalkundea ederto egiten dabe, eta uste da, gizoste ugaria ludi-ko toki gustietatik bilduko dala. Bertan gustientzat tokirik ez da egongo ta, Tunez'era yoan etofia egietko, batzordearen eskuetan, Tunez'en diran 15.000 bilbel edo automobiletatik geyenak, aurkitzen dira. Ipar Amerikafak eurak ekafiko daben itxasontzian ostatua be eukiko dabe.

—Goterki onetan, iragafita dagoz, Oberamer-gau eta Kartago'ra egingo diran bidezkundek.

Araño yoan ezin diranentzat, be emen ufean aurten izango da Eukaristi batzar begiko bat, Tolosa'ko yaupalerki edo artziprestazgoan, Oriña'ren 7'tik 11'arte, batzar ori iragafita dago, eta bertarako abadeetik asi ta bazkunen buru, gu-raso ta neska-mutil gazteak iragafita dagozan gayetzaz euren lanak bialdu leikiez. Zertzelada geyago, gaurkoz ez doguz ipinten tokirik ez dogu-ta.

Kardenalen eriotza ☸

Egun gitxin bafuan, eta osatebakuntza ondo-

ren kardenal bi il dira. Bata, Merry del Val, N P Pio Aita deunaren idazkari ta lankide ospetsua izan zana, aman aldetik Zulueta euskotar odo-lekoa, Londres'en yayoa izan afen. 65 urte izan ditu, eta 35'agaz Gongotzain autua izan zara eta 38'gaz, Aita Santua'ren idazkari. Eleiz gizon apal onentzat gorralbenik andiena aitatu ditugun zertzeladok dira.

Bigafena, Perossi kardenala 1928'n autua ereslari ospetsuaren anaya, osatebakuntza ondore doren 61 urtedun il da. Au Otsaia'ren 21'n eta Mefy del Val yauna 26'n il'zan (G. B.)

M'faf G.

BELGUNTZAK

Aurtengo garizuma onetan, geuk dakigunala ufengo ixentatzen doguzan erietan izango dira belguntz edo misiñoak.

Bilbo'n, Deun Jon Eleizan, euskeraz, Epañ 9'tik 16'ra. Misiño au emongo dabenak gureba-kide ta idazkide Txopitea'tar Gotzon eta Lafiñaga'tar Eukeni yaupari Jaungoiko-Zaliak dira.

Araztu'n Epaña 9'tik 16'ra Martin eta Polentzaba karmeldafak.

Ziafotza'n Epaña 9'tik 16'ra Apolinar eta Hilarion karmeldafak.

Ayangiz'en, Epaña 22'tik 30'era Martin eta Efrapael karmeldafak.

Laukiniz'en Epaña 29'tik Joñaña 6'rarte Polentzaba eta Apolinar karmeldafak.

Usansolo'n Joñaña 6'tik 13'ra Martin eta Tomas karmeldafak.

Arieta'n Joñaña 6'tik 13'rarte Amunategi eta Elulali ta Afonategi'tar Eustaki karmeldafak.

Abadiño'n Etxezaraga ta Unduraga'tar Miren Biotzeko Seme Belgundariak.

Sondika'n be eurok, ez dakit noz.

Onez ganera lau-ufenak daukiez karmeldafak Elantxobe'n, Busturi'n, Mundaka'n, Bedarri'n, Ispaster'en, Garai'n, Mañari'n, Lemoa'n, Leizorua'n, Ibarangelu'n eta Afankudiaga'n.

Lur onian yausi beite Jaungoikoaren itzazko ma asko zerurako bidera ekarteko.

KRISTIÑAU - IKASBIDEA TA IRAKASLEAK

Ezyakiñaren sustrai batzuk

GURE lenengo eginbeaía, Kristiñau Ikasbidea irakastea eta ezyakiñ lotsa-
gaía baztertzea dala esan gendun. Ez yakin onen sustrai eíotsuena,
irakasteko eginbeaía daukienagan arkituko dogu. Ez yakiñaren ingu-
ruan iru gauza oneik alkartuta eíez aurkitu al izango doguz: Gurasoen ardurageke-
ria; irakasleen yaunzaletasun uría, eta Eleizaren aginduak bete, eta bete eragiteko
geuk be al dogun gustia ez egitea. Batez be gurasoen artean, oker andi bat gero
ta geyago zabalitzen doa: Kristiñau Ikasbidea irakasteari bear dan gaíantzirik ez
yako emoten. Eta au Aita Santu agurgariak, aurtengo Garizima'ko izlariei aitatu
dautsen beste oker baten adaía baño ez da. XI'n Pio'k esan ebanez, «semeen azie-
raren kaltezko oker bat gero ta geyago zabalitzen da, eta da, gurasoak euren seme
-alabak zaintzeko daukien eskubide eta eginbeaíari amor-egitea».

Gurasoak, euren umeak ikastolara bialtzen dituezala-ta, nasai aurkitzen dira,
eta edonok daki an irakasten dan Kristiñau Ikasbidea, naikoen erdi be ez dala. Ge-
yenez umeak ulertzen ez daben izketan, eta beti be, arin-arin, azalben barik egun
gitxi baíu aztuteko eran, eta gure Gotzain agurgariak, igezko idazki baten esan
eban lez, irakasleak orenbestegaz, lateri legeak betetan ba'dituez be, «ez beintzat
Eleiza Amaren legeak, azaldu ta bete eragiten ez dautsen bitartean» (Bol. Ofic. 15
-IV-929) Ezyakiñ ori baíiz nausien artekoa danean, geure Gotzain agurgariak igaz-
ko garizima'ko idazkian esan ebana diñogu: «Gatz izugaía da benetan ezyakin au;
baña aundiagoa egiten dau ondiño, ezyakiña borondatezkoa izanak. Gaurko egunean
ez dakianak yakin gura ez dabelako ez daki». Egi benetan negargaía.

Kristiñau Ikasbidea, egi soila bakañik ez da, biotzean sustraituta *bizi* eragiten dauskuna baño. Au da, *egi bizia* eta *bizitzako egia*. Eta bizitzako egia buru irakastea ez da naikoa, *buruan artu*, *biotzean maitetu*, eta *egiteetan agertu* bada da-ta. Orixe dala ta, Eleiza Amak, umeen biotzetan sustraituteko ardura biziaz ba koitzari bere elez eta euskaldunei euskeraz, irakasteko agintzen dau... Baña ontze emon eta txalotzea ez da naikoa, agindua *bete* egin bear da, ofetarakoxe emote da-ta. Osakairik onenak be gexoa ez dau osatuko, agindua entzunaz bakañik, *ar tzen* ezpadau...

Gure Gotzain agurgari Mujika yaunak gai onetzaz, aitu nai dabenentzat arg itz egin dau. Agindua emonda dago. Euskaldunei euskeraz irakatsi bear yako. Agin du ori zelan betetan dogu?... Ikastoletan zelan betetan da? eta menpetasunian, aur etik yoan bear daben ikastetxe ta *kolejioetan* zelan betetan da?... Zearo betetan dabenak zenbat dira? Nik samintasunez beterik bakañik erantzun neike; zuk, irakurle maite, pozez erantzun al ba'zendu, poztuko nintzake...

Bakoitzak bere egiteetaz erantzungo dau. Nik auxe bakañik diñot. Kalterik andiena gure etsayen burukak ez dauskue egiten. Agindutakoen aurrean, gure *erretxitxoak* auffera eroan gura izateak, agindua apalik bete bearean, auffera ta atzera, esker eta eskumara begira ibiltea, eta *gora begiratzeaz* aztutea, orixe da kaltegarriena. Yaungoikoa'k burutzat ipiñi dauskuzanen aginduak, zintzo bete barik gure alegiñak onuratsuak izatea zelan gura dogu?... Menpetasun barik egiten dan lana Yaungoikoak ez dau onesten.....

Aginduak emonak dagoz, agindu leikenak, eta agindu leikezan gauzak diralako, *gustiontzat* bide zuzen bakañ bat dago: Aiko-maikoetan, eta aitzaki bila ibili barik *maitasunez*, *menpetasunez* eta *zintzoro* bete... ¡Orixe egingo ba'litz!...

Maixu ta abadeak batera.

Astia ta lana alperik galdu gura izan ezik, eleizak eta ikastolak batera yo bear dabe; Kristiñau Ikasbidea onura geyagoz irakasteko au beareko gauza da. Baña abadeak, Eleiza Ama'ren agindua beteaz, euskaldun umeai euskeraz irakasten alegintzen diran bitartean, irakasle, maixuak oretzaz, ezetsiz itz egiten ba'dautse, edo beintzat agindua bete ez, umeen aziera onari kalte andia yatorkola ezin ukatu daike. Umeen biotzean, azkatu ezin daben korapiñoa sortzen da, neuri ume batek egindako itaun mamintsu baten sartzen dana: Igesko Garizima'n gure Gotzain agurgariak, euskaldunei euskeraz Ikasbidea irakatsi bear yakola agintzen eban idazkia Mesatan irakuri ondoren, Kristiñau Ikasbidera eldu nintzanean, mutiko batekin, beste barik, auxe itandu eustan. Jauna, zelan da, ori; Mesatan dotriñea euskaldunai euskeraz ikasi bear dabela irakuri dabe, eta guri zergaitik esaten dausku ur lie *H.....ak*, euskeraz ikastea zertarako bear dogun?»... ¡Ume gaxoak!...

Eta erietako abade langile askok itz egingo ba'lebe!...

Ondorenak? Maixuak egun gustian beragaz daukoz, eta ikusten dabenaz

bakañik, abadeaganako itzal uste ta maitasunak umeen biotzetan bear bestean ez da sustraitzen, eta onek askok uste daben baño kalte geyago erlejiñoari egiten dautso. Eta sañitan ikastola txaræk baño, ziñesteari kalte geyago egiten dautse. Eta ez naz bakañik au diñodana. Orain emeretzi urte abade yakintzu batek orixe idatzi eban. (1)

Ez yakiña baztertzeko ba,

Eragospenok baztertzen alegindu bear gara, gai onetzaz emonda dagozan legeak bete eta maxuai bete eragiten alegindu bear gara, eta onetan geuk uste geinken baño geyago egingo dogu, geure eskubideak zeintsuk diran, eta irakasle ta geure eginbearæk, legez, zeintzuk diran yakin eta ondo betetan alegintzen ba'gara. Gai onetan, legez, zer egin geinken? J. I. uréngo zenbakian ikusiko dogu.

GAMA

(1) *Catecismo razonado de la Sagrada Eucaristia*, por el Presb. Dr. D. Federico Santa Maria Peña, - Madrid, 1911-pag. 118'an auxe diño:

«-¿De quien temeis la ruina de la Religión en las naciones cristianas?—No la tememos tanto de las escuelas laicas, cuyos niños salen odiando al sacerdote, como de las escuelas cristianas, en que por defectuosa orientación salen los niños sin amor filial y sin religiosa veneración para con los representantes de Dios». Egi garátza da baña... *egia*.

GURTU DAIGUN...

Maitasun Ikurton Deuna
gurtu daigun biotzez,
Maitasunen-Maitasuna
goraldu be abotzez.

Ziñeskai sakon-sakona
adimententzat ilun
dala, orok aitortuaz
gogo osoz gurtu daigun.

Berau da Goi-Egia ta
goi-bizitzan Eguzki,
gizadi au argituaz
berotzen dau samurki.

Gizadi galdu onentzat
auxe Bide b.kaña,
goi-zoruna geuretzako
Bide argi, zabala.

Biotz ustelkoarentzat
Ikurton au Bizia,
dalako, opa dayogun
geu-maitasun gustia.

Gogoz ilun gareanok,
biotzez argal utsak,
Indar, argiz aseko gauz
Yosu-Kristo'n Gorputzak.

Belaun-biotzak makurtu
Yosu-Gorputz auran,
eskar-on ta maitasunez
danok bizi gaitean.

Maitasun gomutaki au
maite daigun biotzez,
Maitasunen-Maitasuna
aintzaldu be abotsez.

ESAKUN ZARAK

Urdaia ta ardoa urtekoa; adiskidea urtetakoa.

Mikela ta Peru bitxi, asaré diranean, diru gitxi.

Aume aobereak, ama biren titiak ar-tzen ditu.

Asentzio letañetan andrak andra andi.

Euriaren gañeko leye, euri deye.

Or eldu duk nire anaya Martxo, ezti-kena utziko ez ariko ez artxo.

Norbere eruz be izan leiteke pobre.

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santua ta Rusia. ←

Rusia zorigaiztoko efiaren yaube, boltxebiki edo sobietak egin ziran unetik, gosea, ankerkeria, ta gaiztakeria nausi dira. Agintari bafioak zīnesterik ez ebela gura lenengotatik agertu ehen, eta zīnstedunen aurka agindu gogofak emon ebezan. Aita Santuak, euren politika auzietan sartu barik, gizabideen kaltezko aginduen aurka asafea agertu ehen, lenengo XV'n Benedikto'k ainbeste on egiten Rusia'ko gosetiai alegendu zanak; eta bere ondorengo XI'n Pio'k beste ainbeste egin dau eretia eldu yakon bakoitzean. Orainsu bafiro, lengo zembakietan aiatatu gendun idazki edefean, bere tamala agertzen eban Aita Santua'k Rusia'ri egindako mesedeak aiatatu ondoren. *Yainkobakoen guda-rozte*a deritxonak, lengoez gañera, aletin gustiak egiten diarduala diño, guraso eta batez be umeakandik zīneste sustaferañokoa zearo kentzeko. Sobieten erantzuna, era bitakoa izan da. Alde batetik, len aiatatu gendunez, gofago ekiteko asmoa artuaz eta bestetik *Tass* deritxon izpar bazkun izpar-emalearen bidez, *Sergius* eurekanduita daukien patriarka izuna aotan artuta, an zīneste yasarpelik ez dagola esaten asartu dira. Sergius ori nor dan yakiteko auxe naiko da: Boltxebikien alde eleiza gustietan otoi egiteko agindu dabela!...

Gaiztakeri negargariak. ←

Rusia'n zīneskera gustiak, ta Yaungoikoa'ren zīnesterañokoa efiaren biotzetik, eurak lotsabarrik esaten daben lez, baztertu gura dabela igarteko, ara euren izparingietatik artutako izpar samingari batsuk.

Herbigny gotzain agurgariak egunokaz Efo-ma'n egindako itzaldi baten aiatatuak dira, eta

iñok ukatu ez daizan boltxebikitarēn izparingietatik artuak.

Gabon yayetaik oñartekoak bakafik dira. Gabon yayak katolikoak Lotazila'ren 24'an ospatzen ditugu; baña Rusia'n, 1882'n Gergori Aita Santua'k egutegian egin eban zuzentzea aintzat artu ez ebelako, gu baño amabost egun atzera go dabiz, eta Gabonak gure Urtafiila'ren 7'n ospatzen dituez. Ba Yainkobakook, egun oneitan berariz euren amofua agertu dabe, eta Otsala'ren erdirarte ekin dautsie. Ara egin daben zer-bait.

Gabon yayek, beti lez ospatu beafean, yai egitea galeraso dabe, eta iru asten bafuan 2.000 eleiza itxi eta apurtzeko agindua emon be bai.

Bezbojnik, boltxebikien izparingiak, Otsala 1'ko zembakian diño, Moskou'n, Simonoff-lekaidetxe ospetsua, bere 100 metro goiberako tofeaz, gustiz apurtuta eratzi dabela. Zortzi egunean dinamitaz beste zeregin barik apurtzen ekin dautse, gustiz birindu arte. Lekaidetxe eder au 1370'n egiña zan.

—Urtafiila'ren 15'ko zembakian diño, 50 yudafēn sinagoga, apurtu zituezala, eta astakeriok egitea langiñeai otu yakela diño; baña eurak adirazten dabe, asmuok nondik sortu diran.

—Urtafiila'ren 8'n, Rusia'tafēn Gabon egun biamonean, *Izvestia* izparingiak diño: «eundaka eleizak itxi dira; miñaka yoala (kanpayak) eratzi; erlejiñoen kaltezko guda onetan langiñeen laguntza onazeño eldu da». Gabon egunean lan egiteko agindua emon eban eta lanean azaltzen ez zanak, bazkunaren aufean burua zuritu bear eban. Gaizki gelditu gura ez ebanak, ba, bear e in bear.

—Lugiñari zīneste kenzeko be bide gustiak artzen dituez. Lugiñen artean komunismoa eraltzeko, Kolkhozes-kolonya edo lugin taldeai luřak

landuteko emoten dautsez, baña bazkun onetan sartzeko «Yaikogabeak» dirala argiro autortu bear dabe.

Onen ondorenak laster azaldu dira. Igaro dan Azila'n Yainkogabeen bazkunan Rusia gustian 600.000 egozan, eta *Tass* izpar-emale bazkunak esaten ebanez, Otsala'ren 20'n miloi bi ta erdira eltzen zirala esan eban, naiz ta izvestia miloi bira eltzen zirala esan. Zerbaki oneik agertzen dabe, Rusia gustia talde gaizto baten azpian dagola. *Miloi bi* (eta ori ba'dira) zer dira enparau 150.000.000 rusitafen ondoan?

Tass izpar-emoie bazkunak berak autortzen dabanez, rusitar erian, egindako alegiñak gora-bera siñisteak dirau. Beronek diñonez ba, Rusia'n 50.000 eleiza dagoz, eta 35.000 itxita egon afen beste 46.000 eleizetara «zoritxafez gizoste ugaria yoaten da». Egia esan, zerbakiok egizkoak ez dira, Rusia'n 50.000 eleiza baño geyago dagozalako, baña etsayak ori esateak, eria yaungoya dala adirazten dau.

Ume ta abadeen aurka. ←

Boltxebikitañak ziñeskera gustien aurka doaz, baña batez be kristiñautasunaren aurka. Au zearo kentzeko, umeak Yainko barik azi gura dituez edo obeto Yaungoikoa'ren gofotoan. Gaiztakeri itzala benetan! Ikastoletan orixe irakasten yake, eta bide gustiak ontzat darabildez, ume gaxoak gaiztakeri bidetik eroateko. Irakatsiak, izpafingiak, irudiak eta abar. Ara bide bat benetan iguñafia. *Rabotchnaya Moskva*'k diño, deunai ifi egiteko eta irudiak efetako. Gabon egunean egin eben ibilaldian, 5.000 ume batu zirala, eta goiz eta afatsalde gustiak deunen irudiai txistuka eten barik ekiteko, txandaka-txandaka gertau zituezala.

Baña amofurik biziena, abade ta eleiz-gizontzat da. Lenen buru diranen aurka gaiztakeririk baltzenak asmau eta zabaldu, gaizki esan ezkerro, guzufa izan da be, «zerbait» gelditzen dala bai'dakie-ta. Gero euren artean asafeak sortu eragiten alegindu. Erail be asko egiten dituez, baña batez be euren alegin gustia, zigor bidez ziñestea ukatu eragitea da. Ziñopak baño, ziñeste ukatzaleak nayago dituez. Uri askotan abadeai osiatua emotea debekau egin dabe, eta zigorik gogofenaz zematzen dabelako, safitan izotz ikaragariaz txaide bastefetan egon beafean aurkitzen dira. Espetxeratu eta lan neketsuak ezarten dautsiez, Aita Santuak, bere idazkian

aitatzen dituen abade ta Gotzain katoliko, Boleslao Slokan eta Alesander Trison eta Bere ordelari Leonidás Fiodorov'en antzera, eta safitan eriotzarik gogofenak ezafi be ufengo izpafetarik atara gogofen.

Ointsu Rusia'ra ostera eginda, Walsh yaunak, Georgetown'eko ikastetxe nagosiko irakasle danak, beste gauza askoren artean Rusitar Eleiza'ko gotzain batsuen eriotza ikaragarriak aitatu ditu. Perm'eko Gongotzaña, begiak atara ondoren bizirik lurperatu eben; Belgorod'eko Gotzaña kare biziko laba batera yaurti eben; Hergnej'eko gongotzaña irañez bete eta urkatu egin eben eta Feofan'go gongotzaña biloizik ibai izontura yaurti eben.

Ainbeste gaiztakerin aurka gogor yarki dana Aita Santua da, eta beste ziñeskeretakoak beragaz dagoz, baña non dira latefi-buruak? ¿Non sartu dira *Gizonaren Eskubideen* aldezko bazkunak? ¿Non sartu dira *Gizabidea* beti agolan dabenak?... Ixiltasun lotsagarria!...

Beste biderik ez dago-ta Aita Santuak eta gure Gotzain agurgariak agindu dauskuenez, Rusia zoritxafeakoaren aldez otoi dagigun, eta Aita Santuak parkamenez aberaztu daben otoitztoa safitan esan daigun: «Munduaren Gaizkatzale orek, Rusia gaizkatu egizu».

Meñy del Val kardenalaren

il otoitzak eta ilburukoa.

Kardenal onen eriotzaren bafi emon gendun. Bañikano'ko eleizan il-otoitzak andikiro egin ziran, gizoste izugafia ta ogei kardenal bertan zirala. Ondoren gorpua elezpe edo kriptan, X'n Pio'ren ondoan ipiñi eben. Ilburukoan agertu eban. X'n Pio'ren ondoan obiratua izateko guraria, eta au yakin ebanean, Aita Santuak berak izentau eban tokia andik ufean, auxe esanaz: «pozik izentauko utsola, Meñy del Val yaunari, X'n Pio'ren *ondo-ondoko* tokia, bere ilobizat aukeratafuta ezpaleuko».

Albait ufenean asi dira ba lanean, eta ilobiak, bere aginduz apañafirik ez dau eroango, eta idazkun auxe bakafik ipiñiko dabe: «*Da mihi animas, coetera tolle*».

Eta idazkun onegaz ederto datoñen asmo bikaña euki dau. Bere ondasun gustiak Ziñeste Zabalkundeari itxi dautsoz, Mixiño txiroai laguntzeko. Kardenal onen eriotzaz, gizon bikañenetako bat Eleizak galdu dau, baña donokirik

lagunduko dautsola itxaron geinke. Oin gelditzen diran kardenalak 60 dira; 28 italitafak eta 32 beste latefietakoak.

Gazteriaren azieratzazko Aita Santua'ren idazkia. ←

Idazki goragarri onek zirkin andia eragin dau toki gustietan, alde gustietako izpañingiak agertzen dabenez. Ipar Amerika'n Yudar Rabino, Yakob Katz yaunak, itzaldi baten Aita Santua'

ren idazkiaren goralben andiak egin ditu, bikain-bikaña, goi ta beko yakituriz beterik dagola adiraziaz.

«New York Times»ek, ingalanderaz idazkia osoa argitaltzen lenengo izan gurarik, radio—ufutidatziz,—itxasoak zear igaro dan luzeena, artu gura izan dau 12 000 itz izan dira; amalau ordu ta erdi igaro bialtzen, eta 30.000 frankotik gora kostatzen da. Izpañingiarren amaika zefenda bete dituz.

M'taf G.

A U O R I T A B E S T E A

Lutero'n ondorengoak.

Estados Unidos'en, Baltimore deritxon erian, Luteron ondorengo asko egi dagoz. Baltimore'ko sendi askok «LUTERO» abizena daroiela, Estados Unidos'ko aldizkingi baten egunokaz irakuri dot.

Baña, LUTERO abizena eroan arén, eta Alemanian, orain 4 gizaldi dirala, Aita Santuaren aurka yagi ta Protestantismoa sortu eban, Martin Lutero lotsabako andien ondorengoak izan arén, ez tira danak protestanteak.

Ona emen, LUTERO deritxon bateztaz, Baltimore'ko izpañingietan irakuri dodana:

«Egunokaz Baltimore'n Lutero Jauna (Alemaniako ziñausle entzutetzuen ondorengo dan gizon aberatsa) il-da.

«Gizon agurgarri au Lutero'gandik yatorri-zuzenean etoria eta LUTERO'n abizenaz ezagutua izan arén, ezta protestantea izan; katolikua izan da.

«Seme bat itxi dau ta bera katoliku abade da. Beneditiño, gañera. Baltimo-

re'ko Beneditiño-lekaidetxe-andian bizi da bera.

«Aita il-yakonean, bere ondoan egon da, eta bere begiarteko aitaren gorputza, il-ari-pera eroan baño len, «bere aitaren gogoaren alde eta bere asabak (Alemania'ko ziñausleak) Eleizeari «ekari eutsozan gatzak Yaungoikoak «kaltegetu dagizan», aldra andien aurrean, otoitz egin dau ta lletako Mesa «Nagusia, zizpuru andiak egiten ebazala, «Lutero Aba Beneditiñoak esan dau.»

P. Angelo Jauregi.

Elvas 27-XII-29.

Ipar - Amerikan, Lateri Batzako izpañingia katolikařak.

Ipar-Amerikako Lateri - Batzan agertzen diran izpañingia katolikotarak, «The Catholic Press» diñoskunez, eleiz-oriyak eta, zenbatu barik, 291 dira. Amalau izkeraz diardue; eta itsu-eraz be, bi. 206 Ingeleraz, 18 Jermaneraz, 15 Boemeraz, 15 Poleraz, 9 Italeraz, 9 Prantzeraz, 4

Ukraneraz, 3 Litueraz, 3 Eslobeneraz, 2 Españeraz, 2 Eruteneraz, Magiar 1, Eslobak 1 eta Japoneraz 1. (Euskeraz be, len beintzat, agertuten zan bat, Kalipornian).

6.647.066 irakurle batzen zituen 248 izparingiok. Katolikañak Lateri-Batzen 22.000.000, biribilez, dira.

Aunetzaz baririk iñok nai balu, 64, West Randolph Street'en, Txikago'n emon leuskioe.

Garizimea dala-ta.

Garizimea, Kristiñau-Ikasbidea ikas-teko, barauak eta laztasunak egiteko, eta otoitz geyago egiteko aldia dala Kristiñau gustiak yakin bear dabe.

Batsuk baraua aitatu ezkeru gosez il bear dabela uste izaten dabe-ta auzokontzat erezegi itxiten dituez.

Baraua, arimarentzat ona danik iñok ezin daike ukatu, Eleizak argiro diñosku, ba «grina txarñak zapaldu, gogoa yaso eta onbidea ta saria ondoren dakarzala».

Baña gorputzarentzat kaltegarri ete da? Neufiz egin ezkeru, osagileak eurez esaten dabe, osasunerako nozik bein ona dala. Hipokrates eta Galeno gentilak ziran, eta lenengoa 140 urtera zelan eldu zan itanduten eutsoenean, «beti yateko gogo apur bategaz maitik yagiten zala-

ko» erantzuten eban eta Galeno'k osasuna zaintzeko amar egunetik bat barau egiten eban.

Gaña orez gañera aragia iztea ona dala urengo edeski onek agertuko dausku.

Kartujoak, gustiok dakigu oso bizitza latza dabela, eta barau askoz gañera, aragirik gexorik egonda be ez dabela yaten. Bein baten Urbano V'en aldiari (1362-1370), Aita Santu onek aragi ez yateko legeari gogoregi eretxita, lege ori kentzea otu yakon. Buru ziranak arregatu ziran, eta aren eskatzen eutsen, lagatzeko osasun onean irauten ebela-ta.

Baña Aita Santua'k ez eutsen entzun. Orduan, Gopatzeko lekaidetik sendo ta zarenen talde bat eskari berbera egiten bialtzea otu yakon.

Ogetasapi ziran. Euren buru yoyanak 100 urtetik gora eukoizan, eta gazteenak Iarogeta zortsi, eta gustiak osasun onekoak... Ori baño *argumentu* obarik ez egoan eta V'n Urban Aita Santuan'k len artutako erabagia ezereztu eban, eta inguruan eukoizan kardenalai esan eutsen: «Itxi dayoegun bakean kartujo onei euren oitura latzakaz».

Oingo barau *bigunai* bildur dautsonak, auxe gogoan euki bear leuke:

KRISTIÑAU IKASBIDEA IKASTOLETAN

•••••

BEIN baño sariagotan esan dogu, umeai Kristiñau Ikasbidea irakastean, gu-raso, irakasle ta abadeak, gustiak batera yotea, bear bearekoa zala. Eta onetan, irakasbideak eta sentzunak eskatzen dabena baño ez dogu esan. Alan da be, argi egon aŕen, eguzkia baño argiago diran egiak be, aitatu bearean aurkitzen gara.

Irakasleak alde batetik eta abadeak bestetik yoa ezkerro, zeregiña ugari-tu, onurak uritu, eta umeai gogait eragiteko biderik onenera yoten da.

Gauza bat biritan edo era bitara ikasi beara, mutikoai ez yakie gogoko egiten eta..... mutiko ez diranai bez. Eta batera ez yotetik orixe sortzen da, biritan ikasi (?) beara. Eta noz eta zelan? Ikastoletan oin daukiezan ainbeste idazti nas-tuta gogait egin ondoren, txoriak kayolatik baño pozago urten daberen mutikoak, bereala Kristiñau Ikasbidea ikasten Eleiza'ra yoa bear ba'dau, pozez eta maitasunez yoateko sentzun andikoak izan bear ko dau; nekatuta dagonari lan bari bat agintzea da ta, ori ez da gozo-gozoa izaten. Gitxienez ortik kristiñau Ikasbideari maitasun gitxiago eukiteko bidea zabaltzen da. Eta egin-egiñean be Kristiñau Ikas-bidea *maitatu* bear dan gauza bat da...

✻ *Akatz ori kentzeko bidea.* ✻

Oretarako bide bakaŕa dago. Ikastoletan *bear dan* legez, onuratsuen dan izkuntzan Eleizak aginduta daukon lez, bakoitzari bere izkuntzan irakastea. Baña euskaldun eŕi askotan zer gertatzen da? Gustiok dakigu. Kristiñau Ikasbidea ikas-tola geyenetan, euskaldun umeai erderaz irakasten (?) yake eta ori gure baseŕi-tarixoentzat, pantzeraz irakastea beste da. Aŕautz-oskolak yaten emotea lez; ezin

egosi. Abadeak osterá, bere eginbeará ta Eleiza'ren agindua beteaz. umeari biotzeraño sartzen yakon izkuntzan, astean bein, eta yaunartza nagusirako ile batsuetan egunoro irakasten alegintzen dira. Eta geyago nai izanda be, edo urin bizi diralako ala egualdi txararak diralako, sariagotan biltzen neketsu egiten yake. Eta *ondo* irakasteko ori eragozpen andia izan... Bitartean ikastolan erderazkoari ekiten dautso. Mutikoak ikastolatik urtetan dau eta aldi gitxi baru *ondo* ikasi ez daben euskerazkoa aztuten yakon bitartean, azalean gelditu yakon erderazkoa aizeak eroaten dautso-ta, bear izen geyen daben aldian, or ikusi leike, ainbeste urtetan ikastolara ibili dan mutil ori, txarteletan doanean kalabazak irabazteko lain Ikasbide baño ez dakiala...

Eta ondorenak gero agertzen dira. Guzurá ta nasteak buruan, eta griña txar eta ekandu nasayak biotzean sartzeko, bultzakada andirik ez dabe bear.... Gaur inguratzen daben etsayei arpegi zelan emongo ete dautse? Ikusten dogunaz ez gara afitu bear; len aifatu dogun gaitzaren ondorenak baño ez dira-ta.

Baña txarago dana,

✱ *Ikastoletako gaitza bikoitza da* ✱

Bata, ikastoletan, bear dan lez, eta legeak agintzen daben lez, Kristiñau kasbidea ez irakastea da, irakaskizun gustien gain eta lenengo mañan ez ipintea. Eta bigarrena, euskaldunei euskeraz ez irakastea.

Ikastoletan Kristiñau Ikasbidea 'tzazko lateri-legeak betetan ete dira? Itau oneri erantzuteko, labur-labur lege oneik aifatu daiguzan. Ezpaña'ko legeak gai onetan, 1838'ko Azila'ren 26'ko Arautegia (1) eta 1857'ko Irála'ren 9'n emondako (2) legean sartzen dira. Geroztik emon diran aginduak emen aitatzen dogunik ez dabe aldatu, beraz, bete naiz bete ez, lege oneik gaur be lege indara dauke, ta bete bear dira.

Araudiak bere 38'n atalean diño: «Ziñeste ta goi-legeen irakaskintzari, ikasaldi gustietan *lenengo tokia* yagoko»; 39'k: Kristiñau Ikasbidearen irakasaldia labura baña *egunorokoa* eukiko da, eta baita edesti deunaren atal batena be». Araudi onetan agintzen da, Idazti Deuna irakuri ta azaldu egin bear dala 25'a.) oitura dagon tokietan umeak igandero Mesa nagusira eroan bear dirala eta ez dagon tokian oitura ori sartzen alegintzeko (42 a.) eta larunbata aratsaldez Kristiñau Ikasbidea eta edesti deuna bakañik irakasteko (44, 45, ta a.)

1851'ko Itunben edo Konkordato ta 1857'ko legean, aitatutako agintzaok aintzat artu ta beste zerbait zeatzako azalduten dabe, baña aitatukoa naiko izango da. 1913'ko Joñala'n 23'n emon zan legean be l'go atalean emon dituguzanak sendetsi egiten ditu, Kristiñau Ikasbidea gustiei irakatsi bear yakela esanaz, katoliko-tar ziñeskera ez dan beste bat daukenen semeai, gurasoak eskatu ezkerro izan ezik.

(1) Reglamento de Escuelas 26 de nov. 1838. (2) Ley de Instrucción pública, d. 9 sept. de 1857.—Gai onetzaz beste batsuen artean onexek ikusi doguz: *La Iglesia y la Catequesis*. Síntesis Canónico-legal sobre la enseñanza religiosa en España, por el R. P. Juan Postius; 1929 pag. 69 ta ab. eta *El Párroco en la Escuela* por Isidro Almazan y Francos, 1923, pag. 68 ta abar. Baita *Sal Terrae* marzo 1925, pag. 185. *La acción Social del Sacerdote* P. A. Azpiazu 1929 pag. 308'n laburpen polita dakar.

Lege oneitan agintzen dan eran Kristiñau Ikasbidea irakasten ete da? Ba, irakasle gustiak euren eginbeaña betetako ori egitera bearřuta dagoz.

Ořez ganera euskaldunen artean beste eragozpen bat dago. Eragospen au esaten dabe, erderaz, irakatsi beaña dala, lateri ikastoletakoak ezin irakatsi leikela. Ořek Kristiñau Ikasbidez zer ikusirik legez ez leuke izan bear, alan da be, baña, gai ořetzaz, 1902'ko Azila'ren 21 emon zan legeak azaltzeko urte atan bertan Lotazila'ko 19'n emon zanak diñonez, aginduaren 2'gn atalean aitatzzen dan zigora, tez dala kontuan euki bear «irakaslea erderaz *dakienai* beste inkuntza baten zuzen yakonean baño». Beraz erderaz ez *dakianai* euskeraz egitea ez dau galerazten-lateri ikastoletan be. (Ikusi len aitatu dogun Postius Abaren idaztia, 91'n ing.) Dana dala, uste dogu irakasleen artean Jaungoiko-zaletasun geyago ba'lego, Eleizarren aginduai zor yaken beste itzal artuko ba'leuskioe, Kristiñau Ikasbidea irakasteko, ikastolak *eragozpen izan beañean* laguntzale izango litzakezala; gustiok bate-ra umeen biotzak landuaz, ereiten dan aziak emaitz ederak emongo leukezala. Baña onetan al doguna egiteko lege gustien gañetik dagon Yaungoikoa'ren legea gogoan euki bear litzake.

✻ *Irakasleak gogoan euki bear dabena* ✻

Auxe da: Aita Santu XI'n Pio agurgariak gasteen azieratzaz emon daben idazti ederean diñon lez, ikastolak gurasoen ordez eta aginpidez da gozala eta Kristiñau Ikasbidea Eleiza'ren izenean irakasten dabela, eta beraz Eleiza'k agintzen daben lez irakatsi bear dabela, eta eleiza Ama'k bakoitzari bere elez irakastea nai daben ezkerro, euskaldunei erderaz irakatsita lege ori ez dabela betetan. *Lenengo* tokian, ba, Kristiñau Ikasbidea ipiñi bear dau, eta *ondo* irakasteko lenengo ardurea, eta au *bear dan lez* irakasten dabenen aurka ez zuzen, ez zearka, ez itzez, ezta egitez, ez dau agertu bear. Eta ořez gañera, umeen biotzak landuten abadeagaz batean lan egin bear dau. Orduantxe bakařik onuratsu izango da, eta egizko *irakasle*; gai onetan uts egiten dabena *irakasle izen* ederearen duin be ez da-ta. Olangoak zeregin astun ořetarako ez dira yayo...

Pasko aldia dala-ta

Eleiza'k Garizima aldian otoi eta laz-tasunak agintzen dauskuzenean, Pasko aldirako gertatzea gura dau; geure oben-en damutasun egiazkoen bidez, autortu ta yaunartzeko gertatu be gura gaitu. Gu-re gaiztakeri ta ezereztasuna ezagututea gura dau, eta orétarako bide egokia au-torkuntza.

Geure biotza nasaitzeko aukerakoa dalako, éreza izan bear leukela dirudi; baña... Pasko *txala* saldu gurarik dago-zanak eretxi bardiñekoak ete dira? Ondo oldostu ezkerro alantxe izan bear leuke. Yazokun oneitan zerbait ikusi daigun.

Txeverus kardenal ospetsuari iño-tson, bein emakume protestante batek, katoliko egiteko eragospelik andiena autorkuntza zala. Ta kardenalak eran-tzun eutson: «Ez andrea, zeuk uste do-zun aña iguin autortzeak ez dautzu emon; eta nik uste dot orén bearizana ta indaía somatzen dozuzala, zeuk uste ba-rik, zeure bizitzan baíri ta biotzeko gora berak azaltzen diarduzu-ta. Autorkuntza, baíuko samin-gaitzak agertzea da, eta neure eretxia emon daidan orixe egiten diarduzu»...

XIV 'n Luis Parantze'ko érege zala, Olanda 'tañakaz izan eben gudaldian, pantzetar gudalburu bat, Kanbrai'tik igarotean, Fenelón Gongotzain ospetsua ikertzera yoan zan. Yauna—esan eutson—egun gitxi baíu gudaketara yoan bear naz eta, neure oben gustien autorkun-tza aurérik, yaungoikozkoa dala egiztu-

teko dagozan zioak yakin gura neukez.

Ene aizkide maite — erantzun eutson Gotzaña, —zeure gurari ori ezin neikezu bete; baña beti biderik laburénera yo bear dogun ezkerro, lenengo autortu zai-tez eta ba'leiteke, eska'tzen daustazuzan zioak zeuk azaltzea.

—Baña ori azkenetik astea izango li-tzake, lenengo egin eta gero zegaitik egiten dan yakin? Ori baño besterantz...

—Buruz alantxe dirudi, baña egitez besterantza gertatuko yatzu. Astirik gal-tzerik ez daukagu ta neure urteai ziñestu egioezu...

Ori entzun ebanean, autortzeko be-launikotu zan. Bitzueon artean Yaungoi-kozko alkar-izketa izan zan. Seme gal-duaren antzera biurtu zanak, autorkun-tza amaituta be nega'rez ekin eutson.

Fenelon yaunak, besarkatu ondoren, maitakiro esan eutson:

—Egin dozunaren onurak azaltzea gu-ra dozu, len eskatzen izan dozuzan zioak yakin gura zeunkez?

—Ez yauna—erantzun eutson zotín-ka—, oin ulertu ez eze, neugan sometán dot autorkuntza yaungoikozkoa dala.

Gaspari kardenalaren «urte- era» bat

Orain arte Aita Santua'ren Idazkari izan dan Gaspari kardenal ospetsua zu-rikeri zalea ez da. Bere eretxia argi ta garbi, zearka ibili barik, azaltzen daki, naiz ta batsuetán azalez gogortxo izan. Ale bat edeski onetan ikusi geinke.

Bein «diplomatiko» batek, iges ebatzi

zan Eróma'ko auziatzaz itz egin eutson, eta Laterien Bazkuna auzi ori ebazteko bitarteko izan zeintekeala bear ba'da adirazi eutson.

Yakiña bitartekotasun ori alderdi batekoari be atsegin ez yakola izango. Beraz, gauzari diran lez begiratzen dakien Gaspari yaunak, yaun arek inotsona amestzat eukiko eban.

Alan da be, bere asmoa azaltzen itxi eutson eta amaitu ebanean esan eutson:

—Eta naspil bat sortzen ba'da, Lateri Bazkunak zer egingo dau?

—Naspil ori zuzentzen sartuko litzake.

—Ze gudari indartsukaz?

—Bereakaz.

—Eta gudari bila nora yoango litzake, ilargira?...

—«Diplomatiko»ak laster igari eban aurera ezin zeikeala yaraitu.

G.

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santua ta Garizima'ko itzaldiak. ✘ ✘ ✘ ✘

Oitura danez, gariziman Efoma'ko eleizetan itzaldiak dituezan izlariak, Aita Santua ikertzen dabe.

Aita Santuak itzaldietako gaya ixentatzen dauise. Aurtengoan, munduko zoritxararak geure izatetik sortzen diralako betikoak dirala azaldu ondoren, Bera baikor eta ezkoña be ez dala azaldu dau. Baña gaurko gizarteko gaitzen artean, gasteriaren aziera onari kalte egiten dautsienak, berarizko astuntasuna dauke, eta orixe dala-ta, Idazki Orokoña (Enziklika) edera gai onetzaz argitalduafen be, izlariak gai onetzaz itz egitea gura izan dau.

Berak esan dabenez, sendiko aziera onaren kaltezko oker andi bat zabalduz doa. Eta oker au, gurasoak, seme-alabak zaintzeko dauken eskubide ta eginbeafari amain-emotea da. Safitan eurak gura dabenean urten, eta gura dabenean tokira, aita ta amaren zaintzapetik urfinduta yoa-ten dira. Eta onetan gurasoak euren eskubide ta eginbeafen alde yokatu bear dabe. Zaindu egin bear dituez. Eta Katoliko diranak ain erantzupen ikaragafian afetarik ipinten ez ba'dabe, gofotauko ba'lituez lez egiten dabe, nai-ta-ez etofiko yaken kaltea galerazten alegintzen ez diralako. Eta bide ofetatik gurasoai itzal gustia galtzen yake, eta aziera gustien kaltez da, umeak nagosie itzal gustie galtzen dautsielako.

Semeak, gurasoen afean ikaraz ez dabe egon bear, ez, baña beste ertzera ez da yo bear, euren gurasoak «lelotzat» artzeragiño. Onetzaz gogor itz egin bear da.

Gazterien bigafen afiskua, irakurgai txararak dira. Gaur egunean idazti asko argitaltzen dira, ez bakarik Yaungoikoa'ren aurka irañez beterik baita gizatasunaren aurka be, gasteria afisku andienean ipiniirik. Eta gai onetzaz—diño Aita Santuak—Efoma'n bertan berarizko afizkua dago, eta tamalez Litorio Idaztiategiko katalogoan (Fazisten idaztiategian) gazteentzako aukerakotzat iragarten dituezan idaztien artean idazti

gustiz txararak, izate legez be debekauta dagozarak, ipinten ditue ta izlariet onetzaz be gogor ekiteko esan dautse. Itzaldiok beste toki batsuetan be txarto ez litzakez etofiko.

Aita Santua'ren Otoitza Ru- sia'ren aldez. ✘ ✘ ✘

Aita Santua'k iragafi eban Yoseba deunaren egunean berarizko otoitzak egingo zituala, Rusia'ko basatikeriak amaitu daitezcan, eta berberori bere semeai eskatzen euskun. Egiz esan geinke egun ofetan, katolikotar zintsoen biotzak Aita'ren asmoakaz bat eginda egon dirala. Egun ofetan mundu gustian zerbait eginda, Aita Santuaren asmoai erantzuteko, «L'Osservatore Romano'k» pozez beterik esan dabene lez.

Efoma'n bertan egin zan eleizkizuna ikusgarfia izan ei zan. Ogetalau kardenal eta gizoste ikaragafia bildu zan otoitz egiteko eta eleiza gustietan Yaunartze, itzaldi, ibilkunde eta eskariak egin zirean. Eriak ofen sutsu Aita Santua'ren ondoan yarten diranean, agintariei zerbait bideak efaztu dautsiez, eta bide ofetatik nozbait sartuko al dira.

Gizabidearen aldez gustiok batera. ✘ ✘ ✘ ✘

Rusia'ko basatikeriak ikusita gizabidearen aldez gustiok bateña yo bear leukie, eta ofetarako asmoa toki askotan agertu da. Txekoeslobakia'ko Mikura aldunak esan dauanez, ez katolikotar gareanez bakarik, gizon gareanez be gustiok basatikeri ofein aurka yarki bear gara. Grezia'n Banbata aldun lendakariak eskubide ostikopetuaren izenean, Rusia'ko yasarpenean aurka asafea agertu bear zala esan eban.

Ingalanda'n Sir Kingrtek'k yasarpentaz, Rusia'ko ordelariari oar bat egiteko eskatu eban. Kantorbery'ko Gongotzañak bere asafea agertu eban eta agintariei eskatu be bai gai onetan daukazan eginbeafak gomutatze.

Yoba'ko (Ipar Amerika'n) metodisten artza

ñak, onean ezin ba'da gudaño yo bear dala esan dau.

Baña biderik onena Olandafak artu dabela uste dogu. Olandar zintsoak euren asafea agertzeko, Kooperatiba bazkun -alkartasun bidez, rusitar gariak «boiko» egitea erabagi dabe. Itxasontzi batsuk 30.000 tonelada gari Rusia'tik Amsterdaman eta Rotterdam'era ekarzenak, etofi diran lez, Ingalanda'ko kayetara biurtu bear izan dabe. Basatikerieri erantzun edefa. Emen bafiz?...

Bitartean ba'diño, ainbestek asafea agertu ondoren, yasarpena boltxebitafak zerbait ibitu dabela, baña ziur ezin leike esan ondiño.

Toledo'ko kardenal agurgariaren idazkia. ♣ ♣

Katoliko -Ekintzak une onetan dituan eginbeartaz Segura kardenal agurgariak idazki edefa argitaldu dau. Zerbait aiatu baño ez dogu egingo, luzea da-ta. Bere eginbeafa ez lekela beteko, kardenal jaunak diñosku, Katoliko -Ekintzaz Aita Santuak igaro dan Azila'n bialdutako idazkiko irakatsiak azalduko ez ba'litu, Lenen Katoliko-Ekintzak politikako alderdi andi bat egiteko asmoa daukela zabaldu da, eta oriz guzuña da, alderdi gustien gain agertu bear dabelako. Une onetan gustiak noraezean lez dabiz España'ko politika arasoak, zertan geldituko diran ez dakigu, eta ofek erlejiñoareztat, gafantzi andia daukela ezin ukatu. Katolikoak politikako arasoetan zer egin bear ete dabe? Politika bi dira: bata efiak bear dan bidetik eroaten dituana, ta beste bat, ofen aitzakiaz andigurea asetuteko asmoa daukana. Lenengoa bidezkoa ta ona da; eta zuzena dalako, katolikotafak gaiztoen eskuetan ez dabe itxi bear. Politika zuzenak, egi ta zuzenaren alde, beraz Eleizaren eskubideen alde, yokatzen dau. Katolikoak olakoxe politika bakafik euki leikie. Katolikoak, politikako gauzetan Eleizaren aurkako erixirik ez dabe euki bear. Yesu-Kristo'ren Efegetzaren alde yokatu bear dabe, Eleizaren etsayak lanean diarduen artean gu geldi egotea ez da zillegi-ta.

Alderdiak zillegi dira, baña Katoliko -Ekintza gustien gañetik agertzen da. Españar katolikoak efi arazoetan lan egin bear dabe, gaiztoen eskuetan gelditu ez daitezkan.

Auteskunderetan bildurik gabe zuzenen alde

yokatu bear dau. Jaungoiko ta Eleizaren kalteko legeai bere autarkiz ez dautse lagundu bear. Lan on ta suzena egingo dabenari lagundu bear yako. Orain arteko katoliko artean izan diran eztabidak alde batera itxi, eta Aita Santuaren aginduak bete biar dira. Labur-labur esateko: Oingo aldakuntza au gafantzisua dalako, katolikotafak gogor lan egin bear dabe; Eleizaren kalteko politika-erexietatik aldendu; Eleizaren eskubideen alde zintso yokatu; alderdietan sartu leitekez, eta bear izana eldu ezker, erexiak alde batera itxi ta gustiak alkartuta Eleizaren alde lan egin bear dabe.

Izpar txorta. ♣ ♣ ♣

Sobiet ankefak eurak emon dituezan zenbaki-etatik dakigu, igesko urtean zenbat eleiza itxi dituezan. Urietan 530 kristiñau-eleiza itxi dituez, 3 yudatar sinagoga, ta 26 maomatafenak. Baserietan 589 kristiñauenak, 15 yudafenak, 96 maomatafenak eta kalmukotar bat.

—Louis Txang Gotzain yauna pantzezkatafa, Fengyang'en il da. 1926'n XI'n Pio'k egindako txiñar Gozafetariko bat da. Orduan egiñiko seitatik iru il dira. Txao agurgaria 1927'n, Odo-riko Txeng 1928'n eta oin il dana.

—Batikano'ko Idaztitegian, XI'n Pio Aita Santua lendakari izan zan. Otsala'ren 20'n Burdin orizko Bere irudi bat agirian ipiñi dabe. Kuatrini irudigileak egiña da, eta bafenean idazkun aux dauko: Pio XI Pont Max.—Exprefecto-Patrono Beneficentissimo-Ministri Bibliotecæ Vaticanæ -Anno Pont VIII-Sac. L. Erle kaldenal ospetsuak itxalditxo bat egin eban irudi au ipintea Lendakari zala eta oin be Aita Santu dala, Idaztitegian ainbeste egin dabelako esker onak eskatzen ebalazalduaz.

—Yapon'en katoliko ziñestearen zabalkundea egiteko bazkun bat eraldu da. Irakurgai bidez zabalkunderik geyena izango da. Idaztiñoak eta ofiak zabalduko dabez. Lenengo liburutxo begi osagile yakintsu Sibaara jaunak argitaldu dau. Idaztiño onen 30.000 iyeki zabaldu ditu. Izparingi antzeko ofiak be zaltzen asi dira, ta lenengo zenbakian 50.000 iyeki atara dituez.

ABADEAK IKASTOLETAN

.....oOoOo.....

TOKI batsuetan, alkartuta ikusi ez aŕen, toki gustietan zer ikusi dauken gauza da. Abadeak ikastolatik uŕin ez dau ibili bear, bere eskubideak zaindu gura ba'ditu. Kristiñau Ikasbideatzaz irakasleak *legez* daukezan eginbearak azaldu ondoren, txauburu (paŕokoak) ikastoletan *zer egin leiken* eta bear ba'da, egin bear daben labor-labor ikusi daigun.

Ziñeste arasoetan abadeak, eŕian gustien gañetik agertu bear dau, eta onetan irakasleak auŕenen dirala, bere nagusitza autortu bear dabe; bestela asiera onata ikasbide ona erein beaŕean kaltegaŕiak izango litzakez-ta. Irakasletza araso astuna da, gaŕantzitsua eta askok uste daben baño erantzupen andiagokoa. Irakasleak umeen biotzak eraldu egin bear ditu, adimena egiaz argitzen daben bitartean; eta au egin ezkeru, txauburuen laguntzaŕik onena izango litzaken lez, ori egin ezik, etsairik txarenak baño kalte geyago egin leikio.

Irakasleak abadeari itzal andia euki bear dautso, bestela abadeai euki bear dautsen lotsea zelan irakatsi umeai?

Txaunburuak be, al daben gustian irakasleagaz alkartuta yoatera egin bear dau, bitson lana umeentzat onuratsuago izan daiten. Ikastolatik uŕin ez dau ibili bear ba, eta irakasleagaz saŕitan umeak ikusten ba'dabe, umeentzat onuratsu izango da.

Baña bat edo bestegaitik, alan ezpalitz be, txauburuak, ikastolan bere eskubideak daukoz, eta bere eginbeaŕak be bai. Eta ez Eleiz legez bakaŕik, *lateŕi* -legez be bai. Eskubide oneik ementxe aitatuko ditugu.

✦ Paŕokoan eskubideak ikastoletan ✦

.....

Toki askotan oiturarik ez dalako edo, ba'dirudi txauburuak (paŕokoak)

ikastoletan sartzea debekauta daukiela, eta alan da be, ikastolakaz txauburuak zer ikusi asko daukiez. Ara *legez* daukiezan eskubideak:

1.º — Pařokoak, erlejiño gayetzaz ikastolak ikertzeko eskubidea dauko (1892'ko Dagoniła'ren 31'ko R. D.) Eta ikertu be egoki deritxon gustian. (1892'ko Dagoniła'ko 11'ko R. D.)

2'n.—Astero Kristiñau Ikasbidea irakasteko eskubidea. (1857'ko Iraiła'ren 9'n emondako legea 11'n a.) Eta 1858'ko Epaiła'ko R. O. baten Gotzañai, asteroko ikertzea egin daitela eskatzen yake. 1913'ko Oriiła'ren 5'n eři-ikastola batzordekoai (Junta local de primera Enseñanza) umeai itaunak egitea debekatzen yake, baña agindu ofen 22 ta 23'n atalak, pařokoen eskubideai iketurik ez dautso egiten; lenengo R. O. edo Erege Agindu batek *lege* emondakoa aldatu ezin leikelako, eta beti be Batzařeko danez itaunak egiteko eskubide ori euki ezda be, Pařoko danez eukiko leukelako. Eta au Abilako Gotzañen eskariz emon zan, 1920'ko Azila'ren 5'ko R. O. nan garbiro erabagi zan.

3'n.—Txaunburuak (pařokoak), eskubide osoz, bere ordez, ikastolak ikertzeri eriko beste abade bat bialdu leike. (1911'ko Bagila'ren 24'ko R. O.)

Eta öndiño geyago be esan geinke. Legepean idigiten diran *edozein* ikastolak ikertzeko eskubidea be txauburuak ba'dauko.

Konstituziño'ak 12'n art. 2'n atalean auxe diño: «Emonda dagozan legeak zainduta edozein españarek, ikastolak irasi ta eutsiteko eskubidea dauko». Beraz, ikastola gustiak, emonda dagozan legepean yausten dira. Eta onetan indařa daukien legeak 1838'ko, 1857'ko eta 1851'ko itunben edo Konkordato legeak dira. Eta asi Konkordato'ko 2'n ataletik eta argiro diño, pařokoak era gustietako ikastolak ikertuteko eskubidea daukola. Beraz... (1)

Eta aiatatu ditugun legeok, gustiok dira indardunak, eta *lege* bařiak emon arte iñok ezin leikez ortik sortzen diran eskubideak ukatu, eta iñor ukatuten asartuko ba'litz, non eta noz eskubide onein aurkako *legerik* emon dan itandu... Eta erantzuten daben bitartean, zafi baterako ba'dauko-ta, eskubideok gogoan euki eta egiteetan agertu...

✧ Eskubide onein onurak ✧

Abadea nozik bein eskolan agertzea bakařik, naikoa izango litzake Kristiñau Ikasbidea irakasten aurenengo ez diran irakasleak bizkortuteko. Ikasitako Kristiñau Ikasbideari begira kada bat bařiro emotea, abadeak egindako itaunak eta azalbenak umeen biotzeraño sartuko litzakez, eta eurak eta euren gurasoak be, obeto ezagutu obeto zaindu eta obeto zuzenduteko bide egokia izango litzake

Auxe dala-ta, Agiře Kardenal agurgariak, 1913'ko Bagila'ren 19'n Espaiña'ko Gotzain gustiai zuzendutako idazki gomutagaři baten, len aiatatutako eskubideak azaldu ondoren, esaten eutsen: «Eskubide oneik, zio asko dirala-ta, gustiz onurats

(1) Ikusi «*La Iglesia y la Catequesis*» por el P. J. Postius C. M. F. Madrid, 1929, 69 ta a. ing. *El párroco en la Escuela*, por Isidro Almazán, Madrid 1923, 86 ing. *El derecho Español y la Iglesia* por Antolín López Pelaez Obispo de Jaca, Madrid 1911 438'n ta a. ing.

izanez ganera, egoki da bertan bera ez lagatzea eta erabiltea, ez dirala erabilten-da, kentzeko aitzakirik artu ez dayen». Eta ikertze oneik ez egitea tamalgaría dala diño.

Alegin gustia egin bear litzake, eskubideok zaintzen, abadeari itzala gurasoentzat baitintasun, irakasleentzat bizkorgari, eta neska-mutikoentzat onuragari izango litzake-ta.

✂ Gaur bide gustiak artu bear dira ✂

Txaña zabaltzeko bide gustiak erabilten dituezan artean, ona zabaltzeko antxineko bideakaz *bakarik* ez gara asetu bear. *Augere vetera novis* gogoan euki bear dogu, eta eten barik zintso yokatu, bakoitzak *al daben gustia* eginda. ¡Orixe egingo ba'litz!...

Geure eskubideak uritu gurarik dabilzan etsai malzuréi aitzaki gustiak kendu bear dautseguz. Gure eskubideen alde zintso yokatu, bakoitzat bere tokia zaindu eta bere eskubideak aldeztu, eta bakoitzari bere tokia zaindu-eragin, ori egin ezkeru, txarari bide asko itxi ta onari bide asko zabaldu geinkioz ondiño-ta...

Bestela geure eskubideak zaintzen ez dakigula esango dauskue, eta esaten be asartu dira, len aitatu dogun Agiré Kardenal agurgariaren idazkian irakurten danez: «Aldundian bertan agintariak esan dabe, Gobernuak irakaskintza arasoeztazko eginbearak uts egiten ba'dautse, eleiz agintariak be uts egiten dabela, legeak emoten dautsozan eskubideak erabilten ez ditualako, eta au egiz esan al izatea tamalgaría izango litzake».

Beraz, bakoitzak bere eskubideak noraño eltzen diran ikusi, eta *al dan gustia* egin, ori egiten dabenak *bear dabena* egin dabela esan al izango dau-ta...

eta ezpainetatik «¡Gora Kristo Eregel!» zeriola, Jainko ber-bera ikusi eta maiteago izanez betiko atsegiñetan zoriontsu bizi izan zedila agintzen zion dei auxe entzun zun: *Atoz nere Aitaren onetsi edo bedein-katu ori, jabetu zaitetz ludiaren asieratik zuentzat gertuta dagon jauregiaz*» (1).

Izan ere Jesukristo il zan egunean bertan eta Bera bezelaxe «¡Aita, barkatu zayezu, zer egiten duten ez dakie-ta!», esanaz iltzea baño atsegingariagorik!

III

Eta oraindik ere Madrid'go «A B C» *berijario-gezufontzi* ofek: «Itxoiñ, Calles'en eta bereen asmoak ez ditugu ezagutzen bear bezela-ta», esango digu!

Noren besoetako semea dan ezagun dik bai! Galde egin bearik etzeok!

J. L. Zubiaga'far M. M.^a

AU, ORI TA BESTEA

Gurutzeko zigoña dala-ta.

Gaiztakeri andiak egiten zituezanak gurutzan ilteko oitura Sorkaldean lenen sortu zan, eta Gerketar eta Erómatafartara zabaldu zan. Lenengotan abe luze bat izaten zan, eta gaizkilea bertatik eskegita ipinten eben. Geyenetan zeare-tara beste atal bat ezarten eutsen eta batsuetan X antzekoa izaten zan, alderdi bi luñean sartuta zutik ipinten eben (*decussata*); beste batsuetan T antzekoa atal luzeenak luñean sartzekoa; beste batsuetan † antzekoa izaten zan, (*capitata*) esaten eutsen. Ba'ziran Y erakoak be, † antzekoak be bai, Kepa deuna lez buruz bera yosteko, baño oneik gitxiagotan oituten ziran.

* * *

kariz lotzen eben, beste batsuetan untzez yosi. Erdi inguruan eutsigari bat ipinten eutsen. Gurutzean iltea zigoñik gogor eta bildurgarien eta yoputasun ezaugaritzat euki oi eben, Zizeron'ek bere aldian esan ebanez.

Oingo irakurleen bateri ezpan ingurura itaun au etoriko yakon: Eta Yesu-Kristo'n gurutzeta zelangoa izan zan?

Ezpairik ez dago, Yesu-Kristo'ren gurutzeta † erakoa izan zala (Immisa edo Capitata) deritxona. Mateo deunak diñoskunez *Buru ganean*, idazkuna ipiñi eutsien-eta.

Gurutzeak zelako gaya izan eban? Zenbat gura eretxi dagoz. Zedro, sagar, lizar, aretx, arte ta leña (piñua) izan zala aldezen dabenak ba'dira. Baña ondar edo ereliki atalak aztertuta, piñu edo leñakia dala dirudi.

Yesu-Kristo Gure Yauna, gurutzeta luñean zala ala tente ipiñita yosi eben. Eritxi bi dagoz, eta asko dira, gurutzeta zutik egoala yosi ebela diñoenak.

Untzez yosi ebela ziuñ dakigu, eta baita ziuñ esan leike lau untzekaz yosi ebela, oin bakoitza untze bategaz yosteko oitura ba'egoan-eta. Margolariak-eta iru untzegaz yosita Yesu-Kristoren irudiak egiten dituez, baño antxiñeko irudiak eta idazleak agertzen dabenez oin bakoitza bere untzeaz yosi eutsen, eta beraz lau untze izan ziran.

* * *

Yesu-Kristo'ren gurutzeta, Elene Deun a'ren aginduz, Yerusalem'en idoro eben Lan asko eginda gero iru gurutze idoro ebezan, irurak bardiñak ziralako, zeit egizkoa zan yakin gurarik Makari deunak, aldi atan Yerusalem'go patriarkari gaizki egoan emakume bateri ikutzeko agindu ebazan, eta irugañenak ikutu ordukoxe osatuta gelditu zan. Baita be abitzak diño ildako bat be era berean osatu zala. Au 326 ala 328 urtean gertatu zan.

G.

Gurutzean ilten ebena batsuetan lo-

KATOLIKO IZPARAK

Kartago'ko Eukaristi Batzara.

Eukaristi Batzar orokofak gure Yauna'ren aintzaz egiten diran, yai bikain, eder eta zora-garrienak izaten dira. Orain arte 29 egin dira, eta eurotatik 10 Prantzia'n, 5 Belgika'n, 2 Alemania'n eta 2 Italia'n egin dira eta beste bana, Austria, España, Ingalanda, Suiza, Olanda, Malta, Yerusalem, Kanada, Later-Batzan (Txikago'n) eta 1928'ko Iraia'ren 6'tik 9'ra Sydney, Australia'n. Batzar ospetsu atan erabagi zan uren oa Apirka'n egitea, ondiño ludiko bazter onetan bat be ez zalako egin eta uri egokientzat Kartago uria aukeratu zan.

Uri ospetsurik ba'da auxe da edestian, bai Eroma'tafai emon eutsien buru austeagaitik, baina kristiñauentzat uri au goragarriena dalako. Zipriano, Eukeni ta Aureli Gotzain eta ziñopa ospetsuak, uri onetakoak izan ziran. Tertuliano eleiz aldezko idazle bikañaren yayotefia, Pulgentzi deunarena, Pelizitas eta Perpetua, Sekunde, Maxime, Domitile ta ainbeste ta ainbeste ziñopa bikañek euren odolaz deundutako lurfaldea. Uri onetan Agustín deunak bere gastearo naspildua igaro eban, eta baita gero Gotzain eginda, bertan egin ziran Eleiz batzar ospetsuetan bere deuntasun eta yakituri andia agertu. Uri onetan egin ziran Eleiz Batzafak ogetakak dira. Bigafen gizaldi azken aldian kristiñautasuna mardul egoan eta Tertuliano'k idazti baten argiro diñon lez, biztanlerik geyenak katolikotar ziran, ta benetan tamalgafi bañia, 698'n maomafak su ta gar zuzitu eben ezkerotik oraintsurarte kristiñautasuna ayenatuta egon da. 1830 ezkerotik, bafiro lengo bideetara yo dau, apurka baño ezpada be, eta eragipen andiena emon dautsona, euskotar bat izan zan, Labigerie kardenal ospetsua Bayona'ko semea.

XIII'n Leon'ek Kartago'ko Gongotzain eta Apirka'ko gustien buru autu eban. eta lan afigafiak egin zituan, 1892'n il zan arteraño.

Zertzelada batzuk.

Eukaristi batzar onetako yayah Ofiia'ren 7'tik 11'rarte izango dira. Batzafak batsuk andik ur-ean dagoan Tunez'go urian izango dira, Kartago'n baño aukera geyago dagolako

Aurten bertan Apirkatar Gotzain ospetsu Agustín deunaren eriotzako amabosgafen gizaldi edo eunkia betetan dalako, batzartxoetan adiraldu ta aztartzeko gaitzat «Agustín deuna ta Eukaristia» autu dabe.

Batzafeko abestia Boubée abak atara dau, eta eresia ipinteko egin dan sariketara aurkeztu diran 355'n artean, Labal'go goterkiko, kanonigo Lekok'ek txapeldun urten dau.

Uste danez, aukera asko egon ez afen, bidezti asko elduko dira eta geure goterki onetatik be mordotxoa yoango dala uste dogu. Orain arte gutziz 9 kardenal beintzat yoateko dira. Prantzia'tik bakafik mile bat abade ta 1.200 abadegei doaz, eta gusziz 2.500 bat abade bilduko dira. Amerika ta Ozeania'tik be bideztiak elduko dira. eta Europa'ko amasaspi latefitatik bidezkundeak iragafita dagoz.

Ostatuekaz estu xamar ibiliko dira, baña batzordeak al bait ondoen gauzak gertatzeko alegintzen da. Tunez urian geyenak egon bearko dabe, Kartago berä txikia da-ta. Eta Tunez uri andi xamafa izan afen (200.000 biztanle inguru dituz), tokirik ez dalako egongo, bideztiak eztofikoko diran amairu itxasontzi berarizkoetan ostataz asko egongo dira, eta onein artean izango da, 300 bidezti-gaz Noruegatik etofikoko dan *Méteore*, itxasontzia. Ain gitxi dagozan tokiik

etorteko ez dira gixi gero. Tunez'en beintzar efeztasun gustiak emoten diardue eta katoliko ez diranak be, euren etxeak eufez eskiñi dabez egun ofeitarako. ¡Egiz gomutagafi izango dala uste dogu, ile bete baru egingo dan Eukaristi Batzar ospetsu au!

Zabalkundea radio edo iratizkin bidez. ✻

Efoma'ko izpar bat irakufi dogu pozez bete gaituana. Batikano'ko urian ipinten diarduen iratizkiña, Kepa deunaren egunean zabalduko dala, eta egun ofetan, Aita Santua'k efi gustiei bakezko gezna (mensaje) bialduko dausiela, eta ondoren Latefi buru ta Efegeai agur bat eta berarizko bat iratizkiña daben mixiolariei.

Yakiña, izpar au pozez beterik irakufi dogu, benetan atsegingafi da semeentzat Aita'ren itza entzutea ta. Izpar au pozafen irakufiko dabe lurbira gustiko katolikoak.

Auxe asmakizun au benetan afigafi izan da, eta ondo erabilten ikasi ezkeru, katolikotasuna zabaltzeko aukerakoa Ipar Amerika'ko katolikoak beste edozeñek baño, obeto ulertu dabe, zabalkundea egiteko bide on gustiak erabili bear dirala eta iratizkiñaz ez dira aztu. Latefi Batuetan (Ipar-Amerika'n) lekaide ta katolikoak ogetalau iratizkin daukiez berariz, Kristiñau Ikasbide, eleiz abesti ta Katolikotar zinestea zabaltzeko Onetan geyen galentzen diranak Paulotar lekaideak dira, bost iratizkin eder eurenak daukiez eta, ofez gañera ba'dira beste eun bat radio estaziño, Gotzañak ontzat emondako itzaldi ta abestiak emoten dituenak. Pantzetafak be onetan alegintzen dira. Emen be zerbait egiten da, baño askozaz geyago egin bear litzake.

Iratizkiña askok uste daben baño gauza benetakoagoa da. Onerako naiz txafferako asko egin leikena. Txafak bafiz beti dabiz zur gaiztakeri ta guzuña zabaltzeko, ta onak bitartean zer egiten dogu? Geyenetan lo...

Au egiztuteko ara izpar bat. Boltxebitafak, zineste ta *gizadia*'ren etsayak, eta amofatuak atan be, euren asmo galgafiak era gustietara zabaltzen diardue. Igaro dan Epala'ren 9'tik 15'ra egunoro «yainkogabeak» nai dabena zabaltzeko iratizkiñak artu dituez, itzaldiz eta abestiz eta eresiz al daben gustia zinestearen aurka esateko. Eta ez Rusia'rako bakafik; inguruetak latefietako izkuntzetan, filanderaz, lituaneraz, polakeraz eta abar, gaiztakeriz, gu-

zufe eta asmo gaiztoz betetako itzaldiak egiten dituez. Ofek kalte andiak egin leikezala argi dago, batez be bakoitzari bere izketan egiten dausiela. Bitartean lotsagafia ez ete da emen Kristiñau Ikasbidea euskaldunei euren izkuntzan irakatsi bear yakela buruan sartu ezinik ibili bea?... Gaiztoak euren gaiztakerian gu baño zufago, noiz arte?...

Izpar txorta.

Egizkoena dirudien zenbakuntzaz Yesu-Kristo'k gure maitasunez Nekaldirik gogofena igaro eballa 1930 urte betetan dira. Guk 19'n eunkia ospatu beafik ez daukogu, egunoro Mesa deunean bafizatzen dalako, eta baita berak irasi daben Eleizan nekaldi onek bizirik diraulako.

Epala'ren 30'n il zan Efoma'n, X'n Pio Aita benetan deunaren azkenengo afebea. Maria Sarto'k 84 urte izan ditu Bere eriotza dala-ta Efoma'n atsekabe andia izan da, il-otoizetan agertu danez Gorpua Riese'ra sendiko ilobira eroan dabe Iru afebatatik bata X'n Pio bizi zala il zan, Ana Sarto 1925'n eta azkenengoa egunokaz. Sendi zorientsu onetan gustiak izan dira kristiñau eredu bikañak (G. B.)

New Yor'en izugafiko gizostea bildu da batzar baten, boltxebitafen basatikerien aurka asafea agertzeko. Bitartean, euren *zera*... Yudas saltzaleari irudi bat, Moskou'n iragiteraño eldu da Eta besterik ez dogu aitatzen inguingafiak diralako. ¡Ludiaren Gaizkatzafe ofek, Rusia Gaizkatu egizu!

Frederic Mistral olerkari ospetsua yayo zala eungafen urtea dala-ta, Probenza aldean yai edefakaz bere gomutea goraldtu dabe. Izan be, bere txokoa ain maite eban *Mireio*, olerki ospetsuaren egileari txalo gustiak zor yakoz. Auxe bai zala, krisiñau ziniso ta egizko abertzaleal...

Tokio'ko Ikastetxe nagusian lenengo aldiz ointxe atzefitar bateri irakasletza emon dause. Hermann Grauert osagile yakintsua da berau. Alemandafa, ta katoliko sutsua dubarik gexo aldietan mixiolariei asko laguntzen dausena.

Oñila'ren 24'tik 29'ra, Madrid'eko Prantzizko deunaren eleizan, Otoi Bialguntzako bigafen latefi-batzafa izango da. Egitamu eta itzlariei begiratu ezkeru, uste da benetan gafantziusua izango dala.

KRISTIÑAU IKASBIDEKO IDAZTITXOA

“Idaztien érege”

KRISTIÑAU Ikasbidea dala-ta, aspaldi onetan idatzitakoa amaitzeko, Kristiñau Ikastia irakasteko erabilten dau idaztitzoatzaz zerbait esango dogu.

Idaztiño bikain au, gizon yakintsuak gorengo malan ipiñi dabela érez ager-tu geinke, baña gaur gustion gañetik dagoanaren itz gomutagafi batsuk ipiñiko dodaz. Ointsu, Efoma'ko Kristiñau Ikasti batzafeko ordelariak, Aita Santua ikertu dabe, eta Kristiñau ikasbide'ko idaztitzoaren goralben andiak egin dautsez.

«Idazti txiki ta aundi ori, izen apala eukiañen, idaztien érege dala esan geinke, onen gañetik berariz «Idazti» dan Idazti Deuna bakañik agertzen da, Yaungoikoa'ren itz berbera, eta Berak esan eta agertu gura izan eban eran antxe aurkitzen dalako. Idazti Deunaren ondoren Kristiñau Ikasbidea dator, mamínez beronek be, Yaungoikoa'ren itz berbera daukolako, bertan dagoz ba, bere aginduak, bere egiak, bere legeak, eta Yaungoiko ta gizonaren arteko artu-emonak eta mundu gusti ta Yaungoikoa'ren artekoak be bertan izentatzen dira».

Idazti ori—díño Aita Santuak—ikasi ta befikasi egin bear da, gero ta geyago ta obeto, gero ta zabal eta sakonago, eta nai ba'da geroago ta yakintza-arauzago; baña oretzaz gañera, zeatz, arduraz eta osoro beti bete egin bear, naiz ta ori gogor samar izan...

Goralben edefago eta *goragokorik* ezin geinke eskatu.

Aita Santuak bañiro díñosku, Kristiñan Ikasbidea geroago obeto ikasi ta obeto betetan alegindu bear gareala. Ara Yaungoiko Zale'ren asmoak Aita Santu berberak sendetsita. Eta ori lortuteko idatzi doguna eta egin geinken gustia iñoz be geyegi ez dala izango itz ofeik adirazten dabe,

Kristiñau Ikasbideak mamiñez bardin samafak izan afen, batsuk beste batsuk baño, argiago, osoago, eta egokiago egiñak izaten dira. Eta danen artean onena aukeratzera yo bear dogula sentzunak eskatzen dau. Baña zein dan onena esan eta ikasbide bakartzat autu leikena nor da? Yakiña, ludi gustirako Aita Santuak bakafa aukeratu leikela, eta ofetan aspaldi zerbait egiteko asmoak izan dira, eta ba'dirudi laster egingo dala be.

Bitartean goterki bakoitzean goi-legez eta latefi legez be, eskubide ori Gotzaniña da, eta euroen eginbeafa izan leiteke, gai onetzaz abadeak eta egin leikioezan oar zuzenak aintzat artu ondoren, Postius abak diñon legez. (1) Idazle berberonek diño Kristiñau Ikasbide bafi bat argitaldu ala batasuna iragarten danean batsuk arituta gelditzen dirala. Baña aritze edo eskandalu ori parixetarena da. Euren eginbeafa beteta, eskubide osoaz, Gotzaniak olangoen bat agintzen dabenean, gustiak burua markurtu ta amen egin bear dogu, ofetan eurak diran nagosi-ta.

Eskubide au latefi-legeak eurak be autortzen dautse. 1857'ko ikastola-legeak, argiro diño: «Kristiñau Ikastia Gotzaniak izentautako Ikasbidetik irakatsiko da» (A. 87.) Beraz euskerazkoa izentatzen daben tokian axe irakatsi bear...

Yaungoikoa'gandik dauken eta legeak autortzen dautsen eskubide ori erabilteko eragospenak aurkituafen, len eta oraik be eskubide ofeik erabili dituez.

Postius abak diñonez (2) «Oliver Iruña'ko Gotzain agurgafiak, 1876'n erderazko Astete agindu eban, euskerazkoa euskalefitarako agindu eban eskubide bardiñaz, «oartu da ba (euskerazkoa) erderazkoa baño askozaz obeto ulertzen dabela, naiz ta erderaz yakin». Eta geure egunotan, 1927, gotzaintzan ondorengo izan daben batek, Mujika yaun agurgafiak, Intza'tar Damaso abak egindako euskerazko Kristiñan Ikasbidea, euskeraz itz egiten dan efi ta pafokietako, *Ikasbide bakar, aginduzko ta nai ta ezkotzat ezafi eban*».

Eta bardin egin ebela diño Tafagona'ko Goigoterkiko Gotzaniak, Kristiñau Ikasbide ta itzaldietzaz euki eben auzian, azkenean be, gogoko izan ez afen orduan agintari ziranak, Efoma-tik etofitako erabagia ontzat emon ebenean. Naiz ta askok beste gauza bat uste...

Eta emen zein ikasi bear ete da?

Goterki onetan, nai ta ez zearo agindutako Ikasbiderik ez dago, baña ba'da bat Gotzaniaren ardurapean, eta ofetarako izentautako batzorde batek egindako, ikasbide osoa, argia ta egokia. *Gazteiz'ko Eleiz barutirako Kristiñau Ikasbidea*, deritxo.

1923'ko Garagafiila'ko 15'ko Boletin'an argitaldu zan idazkian esaten da, Ikasbide au, ofiziai edo legezkoa ta agizduzkoa dala, (ez baña egun baten beste gustiak bastertuta), mañaz-mala irakatsi bear dana, izkeraz ta erakuspenez ezin obea, eta ofez ganera Dotriña zafak ez dirala osoak eta euskera mordoloz beteak dagozala. Ofez

(1) La Iglesia y la Catequesis-1929-40'n ing.

(2) ibid. 96. ing.

gañera Yaungoiko Zalek Kristiñau Ikasbide au zabaltzeko egin dituan alegiñak onetsiaz, orduko Gotzañak bide ofetatik aufera yañaitzeko esan euskun.

Yaungoiko Zale'k urtero egiten daben *Kristiñau Ikasbide Egunean*, Ikasbide ori legekotzat darabil, eta ia Bizkai gustia arakatuta, gero ta obeto ikusi dogu, Ikasbide eder ori oso oderto neska mutikoak ikasten dabela, eta ori irakasten ez daben tokietan, besterik be *ganoraz* geyenez ez dabela irakasten... Ori alde batetik; eta irakasteko zaletasun *sutsua* ikusten dan toki gustietan *Kristiñau Ikasbidea* irakasten dabela oartu ezkerro... *ufengo* itaun onei erantzutea ez da ain gaitz izango.

Zer dala-ta ondiño toki batsuetan ez ete da erabilten? Zer dala-ta Gipuzkoa'ko eri askotan ain muker ete dagoz Kristiñau ikasbide bañia irakasteko? Zer dala-ta oin 50 urte bastertuta egon bear leuken Irazusta yaunaren «Doctrina Cristiana» (euskeraz da gero) baipen barik irañita eri askotan irakasten ete da? Gaitz onen sustaña ikastoletan ala non ete dago? Gai onetzaz *Argiak* idatzi daben idazki begiko baten diñon lez, «lotsatu egin bear genuke, oraindik erakusten dala entzun eta beste gabe».

Gai onetan, nagosien gogoia yakin eta egin gura dabenak, bai'daki zer egin bear daben, gustiok batera yotea gauza egokia da, eta onuratsua. Kristiñau Ikasbidea, asieran aitatutako Aita Santua'ren itzetan dakusgunez, gero ta obeto ta sakonago ikasten eta irakasten alegindu bear gara, eta ofetarako ikasbiderik onenak aukeratu eta ekogi ez diranak bastertzea, sentzunak berak eskatzen dabena da...

AU ORI TA BESTEA

Mofoi bikaña

Ogei bat urte eukazan gaste bat egoan, mofoi etxe baten eta, Yakobo bere izena. Egun gustiak goizetik gaubera, gari sakuai zuzentza ipinten igaroten zituan.

Egun baten, ben samar egoala ikusi ebalako bere ugazabaren adizkide zan Dufflo abak, uferatu yakon eta esan eutson:

—Yakobo, ba'dakik eure ugazaba, igaz pozik yaokala?

—Ainbat obeto! Eta eskefik asko esan daus-talako.

—Ze bear geyen atsegin yata?

—Au beintzat ez da begikoa.

—Orduan zer dala ta lan ain gogaikafi au artu dok?

—Bizibideak eraginda eta neure guraso zafai laguntzeafen.

—Eskolarik eta ba'dakik?

—Ez gauza andirik! Apur bat! txikitatik lan oneri ekin neutson-eta.

—Zerbait ikasi gura eunke?

—Bai pozik be, baña ikasteko astia nondik atara?

—Ba, iluntzeko 8'tik 9'ra neugana etorten ba'az, neuk irakatsiko daustat zerbait.

—Yauna, ori da biotz edefa daukona. Ni beti eskafoneko izango nayako.

—Gaur afatsaldetik gurok asi?

—Bai pozik be!

Urteak yoan, urteak etofi, *Yakobo gastea, egun baten abade egin zan, gero Gotzain eta ibili ta ibili Kardenal ospetsu; ainbeste on egin eban eta urte gitxi dala il zan kardenal Jibbons Ipar amerikar ospetsua.*

Sales'tar Prantzisko deunaren esakun batsuk.

Zerbaitetzaz zure eretxia eskatzen ba'da-utsue, azkatasunez emon egizu, baña zure eretxia aintzat artuko daben ala ez arduratu barik.

Izakerarik onenduna be, egite txafak safi egiñaz, oitura txardun egin leiteke eta gustiz gaiztotu be bai.

Onik ez egitea bera ba txar andia da.

Soñekoetan al dozunez eratasun eta lautasuna zaindu egizuz, eurak edertasuna ondoen goraltzen dabe, eta mostasuna estaldu be bai.

Egiz apala danak ezertan irain egiten yakonik ezin uste izaten dau. **G.**

KATOLIKO IZPARAK

Agustin deunaren goraltzenez.

Aurtengo Dagoniã'ren 28'n Agustin deuna il zala 1 500 urte betetan dira. XV'n gizaldi onen gomutaz Aita Santuak idazki orotar edo Enziklika eder bat argitaldu dau. Aita Santuak deun aintzagafi onen bizitza, irakatsi, deuntasun eta Eleiza'ren alde agertu eban kemen eta adorea argiro azaltzen ditu.

Aldi atan bear zan gizon ospetsu au. Yaungoikoa'k ustebako bideetatik atara eban. Bere goi eskafaz guzur eta ekandu txar sasi artetik atara eta «argimutil gañean ipiñitako argia» lez agertu zan bere gizaldian, ziñausleak bifindu ta betiko bizitzarako, gogoen zuzentzaile izateko.» Giza biotzaren argaltasuna ezagutzeko aukerako bide izan yakozan ainbeste urtetako zalantz eta argaltasunak, eta orixe dala-ta beste inok baño argiroago azaldu zituan giza-biotzak zuzen ibilteko bear dituan goi-eskar eta laguntzaren bear izanak.

Idazle argi, biozkor eta zofotza era batera izan zan, eta egia aldeztu ta guzufa bastertu bear zan gustian, an zan gure Eleiz guraso bikain au, beti gertu, beti adoretu.

Biotz andidun deun onek, Yaungoiko ta geideaganako maitasunean gorengo mañara igon eban, eta apaltasun bikañenaz, itzez irakasten ebana, egitez bete eban, gopatz deunak irasita.

Idazki edefa amaitzen da, Kartago'ko Eukaristi batzafa, Eukaristi deunaren garaitzaz gañera Agustin deunaren aitzazkoa izango dala adiraziaz.

Gotzain, idazle bikain, izlari sutsu, eta deun goragafi au goraltzen gustiok alegindu gaitez.

Il'gn Pio ta Irakasleak. ←

Lombardia ta Piamonte alderdiko 1 200 ira-

kasle Aita Santua ikertzen yoan dira. Jules Padoan irakasleak gustien izenean menpetasun agerpena egin dautso, eta baita onespenu eskatu. eurak Yaungoiko ta abefiaren afean daukien erantzupen andiko araso ondo betetako. Aita Santuak, bere biotzeko alaitasuna agertu ondoren, itzaldi edefa egin dautse Bidezkunde ori begiko yakola adirazi dautse beti irakasleatzaz ardura izan dalako eta baita bera be urte baten, abade gaste zala, irakasle izana dalako, laugarren urtean osoan azaltzeko ardurea euki eban eta.

Baña ofez gañera ba'dira beste zio batsuk irakasletza goragafi da. «Irakasle» izenak berak adirazen dau. Yesu-Kristo gure Yaunak «Zoaze eta irakatsi egizue» Apostoluei zuzendu eutsen, eta dei au beste gorengo bideetatik irakasle gustiekana be eltzen da. Auxe esaten dautse sendiak euren ordeztu eta aginpidez, umeak euren eskuetan ipinten dituenen. Irakasleak gurasoen ordeztu dira, eta gurasoak bizibidea dala ta, ezin dabena zintzotasunik andienaz irakasteko emoten dautsez.

Abefi ta lateñiak irakasle araso ondo betetako efeztasunak emoten dautsiezanean, beste ainbeste diñotse. Eta auxe batez be Eleiza Amak, Yaungoikoa'ren ordeztu ludi gustian egieren irakasle danak, diñotse: Zure ikasle diranok, seme ta efitar bakarik ez dira, ofez gañera Yaungoikoa'ren odol edefaiz gaizkatutako go-goak dira, beraz, aziera emotean azkenengo elburua gogoan euki bear dozue. Yaungoikoa'ren agindupean azi, eta goi-eskar bidez, argaltasunak sendatuta, kristiñau onbideetan gorengo maletara igon dayen. Ofetarakoxe Eleizak irakasleen laguntasuna eskatzen dau, umeen biotzak onbide ta ontasunerako gertatzeko. Eta itzaldia onetsiaz amaitu eban.

Orixe da izan be irakasleen lenengo zeregiña, eta ofeñi ofen gañean iragiten ez dana zer dan

ikusten gazoz. Irakasleak auxe goagan eukita, euskalefian *kristiñau* eta *euskaldun* gurasoen ordelari dirala gogoratuko ba'lira!..

Kartago'ko Euskaristi Batzaña

••••• dala-ta. •••••

Eukaristi batzañetan, begikoen egiten dan ya ya umeen Yaunartza ta eleizkizuna izaten da. Lenengoz Madrid'eko Eukaristi batzañean, egin zan 20.000 umeen Yaunartzeaz. Efoma'koan ederenetaikoa ta samuñan izan zan, ainbeste kristiñauk bizia emon eben Koliseo'en erdian egin zan-eta Amsterdam' en be. yolastokian 8 000 bildu ziran, eta Txikago'n toki askotatik bildu ziralako yaunartza ezin ospatu izan zan, baña 62 000 umek yaupa abestu eben. Kartago'n iñaren 8'n umeen eguna izango da, Belbedere yolastokian Yaunartza ta yaupa ta eguerdi ostein palma banantzea izango da, antxiñako eleiz aldekoen yantziatz, ziñopan (martiren) yolastokian. Gomutagafia izango da, batez be toki aretan, Ilarino, Maxime, Donatile ta Sekunde, ta amabi ume eleiz abeslarik antxiña ziñeste aldezen euren bizia emon ebelako.

—Aita Santuak, Eukaristi Batzar onetan bere Ordeleri izateko Lepizier kardenal agurgafia izentau dau. Beronegaz amar kardenal bilduko dira. Gotzañak eunetik gora izango dira, eta uñinenetik datoñena Keñi yaun, Sidney'ko Gongotzain agurgafia da, eta ori 80 urte beteak dituala Adoretsua da gero.

—Eukaristi Batzar oneri laguntzeko usterik gitxien euki leiken aldetik laguntza etofa da. Pranzia'ko agintariak euren ardurapean dagolako. Kartago'ko Eukaristi Batzafari laguntzeko 2.000 000 pranko emon ditu Eta Italia'ko agintariak, latefiaren ibilpideetatik yoan gura daben Gotzañei yoan etofia duan eskini dautsie eta, Bidezkunde Batzordearen agiria eroan ezkerko, kristiñau lauentzat be yoan-etofia euneko befogetamar merkeago egingo yake. Ezaugafi txafia ez da ori, naiz ori egiteko *euren* zioak izan.

Ipar Amerika'ko katolikotafak.

Igaroko bederatzia iñabete onetan, Eleiz Katolikotafan aldeko idazti bidez, katoliko ez diranen artean zabalkundearen egiten gogor diardue. Aldi onetan zabaldu dituez, Kardenal Jibbons ospetsuak idatzi eban idazti baten 1.000.000 iye-ki. Idazti au «Gure asaben ziñestea» deritxona

da. Iyeikiok eun goterki ta Hawaii ugarte ta Alaskan aldean zabaldu dituez,

Onez gañera katolikoak eleiz bazkunai laguntzeko ardura andia artzen dabe. Erietxeak ugarritzen batez be ardura andia artzen dabe, eta aldi laburpean 652'tik 775'ra Latefi-Batza'ko katolikotar erietxeak(ospitelak)igon dabe. Batez beste erietxe bakoitzak 150 oe ditu. Eta edozelakoak ez dira Osagile amerikafen batzak, ondo eraldutako erietxeak zeintsuk diran azaldu dauz. Ontzat emon dituanak Lateri-Batza gustikoen artean 100' etik 29 dagoz, eta katolikoen arteko 100'eko 57 ontzat emonda dagoz. Katolikotafak esku zabaleko agertzen dira.

Ointsu il zan Konrad Hubert'ek New-York'eko Bingen deunaren erietxerako 500.000 dolar itxi ditu; Washington'ko Ikastetxe nagusi katolikorako 50.000 dolar eta beste batsuetarako 400 000.

••••• Izpar txorta. •••••

—Nils Beskow luterotar artzaña, yayotzez zuezitafa katoliko-ziñestera etofa da. Idazle ona da, eta bere idazti bi «Yaungoikoa'ren afean» eta «Yaungoikoa'ren bideak» izkuntza askotara biurtuak izan dira.

—Sarkaldeko eleiz legedia eraltzeko Aita Santuak Batzorde bat aukeratu dau. Ofetarako euren arteko gotzain eta yaupariak aukeratu dituez, Gaspari Kardenal agurgafiaren lendakaritzeapean. Onein iñundarizat beste lau lekaide aukeratu dituez, eta egin-eginean be iru euzkotafak; Souarn Efomaldo Aba, agustindar prantzi aldeko euskalduna; Lafaona aba M, B. S. napartafa eta geure aizkide ta idazkide Lafakoetxea'tar Ipolitio karmeldar aba, Zeanuritar argia. Artu geure zorion agufik sutsuena.

—Baita «Agenzia Fides» ko idazle autu dabe gure aizkide ta Oleta'tar argi Unzalu'tar Yon abade agurgafia, orain arte Gazteiz'ko Mixiño Idazkaritza buru izan dana. Araso gafantzisu onetan lan egiteko Batikano urira aldatu da. Zorionak aizkide!

—Egun gitxi bafu Batikano'ko uria izango da Ufutzikin onen eta ugarienak izango dituna. Oin egiten diarduen lanakaz 600 ufutzikin izango dira ia biztanletan aña Toki gitxiagotan ainbeste ez da inon be.

—Tolosa'ko Eukaristi batzaña Oriñaren 8'n asteko zana, atzeratu egin da, bafiro *iragari arte*.

M'taf G.

“EUSKELTZALEAK” Zetarako...?

..... o o o

IDAZKAI onen buruan ipinten dogun Bazkunak argitalduta, alkartasun begiko oren asmo txalogariak azaltzen dituan egitamu polit bat artu dogu. Eusko-erriaren egizko aurrerapen alde, zintso, kementsu eta eten barik, lan egiteko asmo *biziak*, zeatz azalduta dakars. *Eusko-erri Ekintza*, katoliko ziñestepean da *Euskeltzaleak*, leporatu daben arloa. Asmo begikoa *Yaungoiko Zale* koentzat; ekintza ori guretzat laguntza izango da-ta. *Yaungoiko-Zale* ren asmoak itz onetan sartu geinkez: Euskaldunen artean, Katolikotar Ekintza zabaltzea. Beraz gure lana, «*Euskeltzalentzat*» onuratsua izan bear, baita eurena guretzat... *Yaungoiko-Zale* k ba, *Euskeltzaleak* pozez beterik ez ete dituz besarkatuko? ¡Bai beintzat!...

Alkartasunetik indarra sortzen da-ta, anaitasunik andiengan alkaeren alde lan egin bear dogu. Eta onetzaz igesko Epala'n toki onetan idatzi gendun zerbait, bariro ipintea egoki deritxogu. Ara orduan esaten genduna:

“Batera yo bear dogu”

«Maitasun bi dira gure eriko biotz gustietan sustraitzen alegindu bear garenak: Katolikotar ziñestea ta euskeragako maitasuna. Ziñestea, goi-ondasun ederena da; euskerea, beko ondasunetan sustrai sakonenak gure biotzetan daukazana. Biok ederto alkartzen dira, antxiñeko aizkide dira, eta biok batera eusko-biotzetan, euren etxean lez, sartzen dira, eta maitasun biok eusko-biotzaz yaubetuten diranean, igalirik ederrenak emoten ditue.

«Gure erri au, bere izenen yaube izango ba'da, bere izakerea galdu gura ezpadau, oitura garbi ta onak zaindu gura da'ditu, ziñesteari lenen eta gero euskereari eutsin bear dautso, edo obeto esateko, biok batera maitasunez zaindu bear ditu,

Ziñestea ta euskerea aizkide zar eta kutunak dira, eta biok gure asaben biotzetan batera bizi ziralako, «euskeldun fededun» antxiñako esakuna da.

«Gure ziñeste ta izkuntzaren arteko alkartasun au geyagotzea dagokigu. Ziñesteko egi sakonak geure izketan azaldu bear doguz, eta gogoko edozein bear izanetan euskaldunak bear daben irakatsia, bere izketan euki bear dau. Oretantxe utsunetxoā susmatzen gebalako, «Yaungoiko-Zale-Bazkuna» sortu zan, euskaldunei, Yaungoikoak gura daben lez, euskeraz zeruko bidea erakusteko. Eta onetantxe batera yo bear dogu». (1)

Aldi egokia

Lan oreri gogotsu ekiteko aldi egokian gagozala, eta bear izan andia dagola argi dago. Ikastoletatik, eři izkuntza bastertuta dakusgu, eta iñoz bastertu bear ez litzaken euskerazko Kristiñau-Ikasbidea be bai, ile bi onetako zenbakietan argiro azaldu dogun lez. Ori, «zuzentza, ikasbide ta sentzunen aurka dagola argi egon ařen... Bakoitzak berea zaintzea, Yaungoikoa'ren legea dala aztuta, izate berberatik sortzen diran eskubideak, baster gustietan ostikopetuten dira, eta baltzena, egunoroko ogia ba'litz, ala izan bear ba'leuke lez, bidebagakeri onei euskaldun askok laguntzen dautse. ¿Ez yakiñez?... ¿Gaiztakeriz?... ¿Gořotoz?... ¿Baldarkeriz?... Ba'leiteke gustitarik zerbait baño geyago izatea. Dana dala, lotsagarikeri oren aurka, alkartuta zintso, kementsu eta eten barik lan egiteko aldia eldu da. Oretarako «Euskeltzaleak» gustion batasuna eskatzen dabe. Ederto deritxogu!

Ořez gañera.

Eriaren alde lan egiteko, bazkun gustiak, bakoitzak bere izatea galdu barik, alkartu egin bear dira; lanak banandu eta asmoak auřera eroan, lan onuratsua egin, euskal-eragipenaz euskaltzaleatasuna baster gustietara, bakoitza, eři ta sendietara zabaldu; aldizkingiak indartu, antzokiak euskaldundu, euskal-izpaingia albait lasteren argitaratu... Eusko-eri-yakintza alde, edesti, oitura, irakaskintza bidez geure eři au bariztatzen alegindu, euskaldun onak egiñaz geure eři au, egizko auřerapen-bidetik auřera ta auřera yoan daiten... Oretarako, Eusko-erian izan diran gizon ospetsuen goralbenez, eun-urteurenak eraldu eta yai, ori ta idaztiño bidez txoko gustietan euren ospea zabaltzen aleginduko da. Au, ta Euskel-eguna, ume euskaldunen Eguna, ta ez dakit zenbat gauza geyago *Euskeltzaleen* asmotan sartzen dira... Besterik bai? Baita gařantzi andia daukon, «Euskel idazle taldea antolatu ta sendotuko du, euskerak gero ta idazle geyago izan dezan» Auxe bai bear-beareko gauza dala!...

Orain arte ba.

Euskal-idazlea umezurtz izan da. Zaleatasunak bultz-eginda, zerbait egin gurarik idazten asartu izan danean, safi askotan beintzat, etsayak alde batetik, eta epaikari

(1) Ikusi *Jaungoiko-Zale*, 1929'ko Epařaren l'koa,

gogoñegiak bestetik, euskal-idazle gaxoa inguratzen izan dabe, eta landara samuñen antzera, aize ta eguzkirik ezagaitik, saritan kikildu ta tximurtuta gelditu izan oi da. Idazkera txukuna, eñeza, txairoa ta atsegintsua eskatzen izan yako baña... laguntasunik eskiñi barik. Bestetik, epaikariak makila eskuan ebala, bear baño geyagotan bere inguruan ikusi izan dituanean... besteentzat lan sail eta beareko ori itxi bearean aurkitu da. Bai ba, lorak emon baño len igali umatuak eskatzen izan yakoz eta zelan yaraitu...?

Amaikatxo ezagutu dituguz, eguzki epeletan maraskiloen antzera lenengo adar bat gero beste bat, atara ta astiro-astiro euskal-idazle bidetik ibilten asi diranak, baña asi bakañik... Zer dala-ta? Epaikari zorotzen batek, auñerantza bultz egin bearean, zartadatxoan bat emon dautsolako, bildurez atara dituen adarok baruan sartu, ta maraskiloen antzera etxe baruan, geyago ez urtetzeko asmoaz, lotsatuta eskutau da... Ondorenak? Euskal-idazle bat gitxiago.

Auxe dala-ta, len aitatu dogun idazkian euskal-idazleok arautzat auxe euki biar geunkela esan gendun: «Beareko diran gauzetan batasuna; eztabaidakoetan azkatasuna, eta beti eta gustien gain maitasuna»... Bide oñetatik urin eldu geintezala uste dot.

Beraz lan iraunkor eta onuratsurik egin gura ba'dogu:

Biotz-biotzez maite dogunok,
Yaungoikoa ta Euskera,
Batu gaitez, bitsuon aldez...
Ekin... gustiok batera...

GAMA

EGIAK MIN?...

Samiña, neke ta loía,
atsekabe latzenak,
inguruan daukoz sañi
gizon zintso, zuzenak.

—

Egi alde z yokatuta
maitaleak ugari,
euki bear leukezala
beti nai non dirudi.

—

Ilunpean dagonari
atsegin ez argia?
Egia ez ete da ba
adimen-yanaria?

—

Yanari au ez ete da
gogoentzat bizia?
Zelan leike ba gizonak
beti ez maitatzea?

—

Zorunaren bila dabil
artega ta yoranez,
or emen dagolakoan,
non aurkituko pozez.

—

Ta norbaitek ba'dagertso
zorunaren bidea,

zelan leike zintso danak
gogoz ez maitatzea?

—

Alan da be tamalgari
auxe bai'da benetan:
Egi bila dabilena
egian bildurietan!...

—

Zoruna dakartsola be
maite daunak bildurtu,
auxe da bakana ¡ziñez!
naste au nok azkatu?

—

Alan da be, bai ete da
ain argi dan egirik:
«Iñon ez da egiaen
bildur ez dan gizonik».

—

Zer dala dan bildur ori?
egiz eta benetan:
«Argiak mintzen dabenak
zerbait dau begietan».

—

Olan dala, egi alde
zintso dagianari,
etsayak bilduko yakoz
inguruan ugari!...

Gabirel.

RESURREXIT

Gure ziñeskintzako ziñeskai gustien artean ba'da bat eustazpiaren gařantzia dabena. Yesu-Kristo ilen artetik berbiztutea da. «Kristo berbiztu ezpazan—Paul deunak diño — gure yarduna alpařekoa, gure ziñestea utsa da». (1 ad Kor. XV-14).

Eta izan be, Kristo berbiztu ezpazan, agur gure itxaropen gustiak. Baña Kristo egiz eta benetan, berbiztu ba'da, betoz etsayen amofu gustiak, itxasoko uiñen antzera etofi beitez, berbizteko arkaitz sendo onetan bifinduta geldituko dira-ta...

Eta egin-egiñean be, yazokun onek eguzkia lez argi dagi, eta etsayak eurak, egi onen argiaz lausotuta, itxumustuan nondik yo ez dakiela dakusguz.

Alan da be, amofu biziz egi onen aurka alegin gustiak egiten dituez, eta egi onen gařantziaren ezaugafirik onena auxe da.

Bai ba, Krlsto berbiztu ba'zan, Yaungoiko da, Bere irakatsiak Yaungoikozkoak, eta Berari yafaitzen ez dautsona, bidekatuta, erioztzako ilunpean dabil...

Etsayak ernai ibili ziran, ilobian zaintzaleak ipiñi, ikufatz edo *seluaz* itxi ta bere ikasleai iñor atzipetuteko bide gustiak galerasteko alegin gustiak egin zituezan; baña egiaren yaraitezaleak iñor atzipetu beafik ez dauko, eta etsayak artutako bide gustiak, egia obeto ezagututeko bide izan ziran, eta euren burua lotindu baño ez eben egin.

**

Gai onetzaz egi bi dagoz iñok ukatu ezin daikezanak. Bata, *Yesu-Kristo egiz eta benetan il zala*, eta bestea, *Yesu-Kristo egiz eta benetan berbiztu zala*.

Au gustiok ziñestez dakigu; baña edestiz bakafik be iñok erantzun ez egiteko eran egiztu leike. Geuk geure begiz ikusi ez dogun yazokun bat egitzat artzeko, ziñaldariei itanduten dautsegu. Eta yazokun bat etsai eta aizkideak ao batez autortzen ba'dabe, burugogor ez danak ziñestu egin bear dau. Ba egin-egiñean Yesu-Kristo il zala, Yon deunak, erioztaldian gurutzearen oñetan egon zanak, eta bardin enparau Goizpargileak argiro adirazten dabe.

Au egia dala ikusteko, gogoratu daiguzan Getsemani'ko gogo-lafitasun eta odolezko izerdia, Pilatus'en aginduz yasan zituan zigortze ikaragafiak, eta aufegunetik ezer yan eta edan barik egotez, ainbeste odol galtzez ganera, eta afituko ete gara gurutzea eroateko lagun beafean aurkitzeaz? Oñazeok gizonik sendoenari bizia kentzeko añakoak ez ete ziran? Eta onez gañera, gurutza baten untzez yosita iru orduan igaro zituan oñazeak bizia kentzeko naiko ez ete ziran? Eta lantzaz egin eutsen zauri sakona? Eta bulafeko zauri onetatik urten eban odol eta ura, naiz batsuek diñoenez andafai edo *pleuratik*, naiz beste batsuen ere-

txiz, biotz-zofotik, eriotzaren agerkai ez ete da?

Auxe dala-ta, gudariak oi eben lez anka-zufak ez eutsoezan apurtu, ilda ikusi ebela-ko. Pilatus'ek eunburuagandik eriotzen bafi yakinda obiratzeko baimena emcn eban. Yuda-fak ondo ilda egolako obiraltzen itxi eutsen, beslela mutil onak ziran!... Ofegaitik bere eriotzarik ez eben iñoz ukatu. Onez ganera eun libra usainkiz bilduta iru egunean obiral-duta egotea, bizirik egonda be, iltzeko naiko zan. Yesus'en eriotza ziñaldariak, aizkide ta etsayak, Pilatus, eunburua, pafixetafak, oñaze ikaragafiak eta zauriak dira. ¿Ziñaldari onein aurka nor yagi?

* * *

Oin egiz eta benetan berbiztu zala ikusi daigun, Zelan dakigun? Beste edozein yazkun lez, ziñaldari bidez. Eta nortzuk dira ziñaldariok? Asko dira. Batsuk azken arnasa gurutzean emoten ikusi ebenak. Emakume ta gizezkoak, yakintsu eta ezyakiñak, Yesu-Kristo eriotzalditik irugafen egunean asita bizirik ikusi eben, eta ez birloratuta egozala, ez amesetan, ez lotan, egun argiz, banaka, taldeka, iratzafirik. eu en sentzunen yaube zirala baño. Eta er batek, toki baten eta bein bakafik, askok safitan eta toki askotan baño. Eta ez ikusi bakafik, Beragaz itz-egin, yan eta ibili, zauri deunak ikutu, Bere irakatsi ta aginduak entzun... Eta ori amaika aldiz beintzat, gertatu zan:

Maria Magdalatafari ifobi ondoan agertu yakonean; emakume deunak ifobitik urira biur-tzean; Kepa deunari bakafik; Emaus'ko ikasle bie; ikasleai apaltokian egozala, itz-egin, yan eta euren ziñesgogofkeriagaitik' agiraka egiñaz; gustioi berbizte egunean. Zortzi egun bafu ikasleai bafiro Toma ziñesgogofa eurekin zala. Kepa ta sei ikasleai Tiberiades'en afantzan ebiltzazala; Galilea'ko mendi baten bosteun tageyago lagunei (1 ad Kor. XV-7) Yakobo bere lengusuari; eta zerura igon aufetik gitxienez eun ta ogetalau lagun bere inguruan

eukoazan. Onez ganera Paul deunak diño berari Damasko'ra bidean agertu yakola. (Ikus. Mat. XVIII; Mark. XVI; Luk XXIV; Yon XX). Onexek dira ziñaldariak. Mota gustitakoak dira, eta oartu, geyenak ziñesgogofak izan zirala; eta befogei egunean ainbeste aldiz eta ainbeste eratarra berbiztuta agertu yakelako, ain argi egi au ikusi ebelako, aldezteafen euren zanetako odola ixuri eben. Ezertako onura barik, egia aldezteafen bizia emoten dabena ez ziñestu? Paskal yakintsuaz egiz esan geineke: Nik euren burua, diñoenen alde emoten dabena ziñaldariari (testiguari) ziñesten dau-set».

* * *

Bitartean etsayak, gudariei eurak lotan egozala, ikasleak Yesus'en gorpua ostu egin ebela esateko dirua eskiñi eutsien. Lotan egon ba' ziran zer dala-ta ez zigortu? Ikasleak zelan ezagutu? Atarako eben zarateagaz zelan ez esnatu? Ala gudari gustiak gofak izan ete ziran? Ori asmau ebana bai lotan egon zala! Agustín deunak diñon lez.

Begintan ziño bat izan zala! ¡Bai! orduan beste mirari andi bat autortu bear dozu.

Ludiko oitura galdu, eta siñeste guzuzefkoen aurka, eginbear ain gogofak bere ondoren dakarzan egi bat gizadiari ziñestu eragitea, alatzik andienetarikoa izango litzake. Alatz bat ez ziñestearfen beste bat autortu bear...

* * *

Jorgesen idazle bikañaz amaitu daigun: «Orain emeretzki eunki, Yofala'ko goiz baten, aingeru batek iru emakumeri esan eutsen: «Oin emen ez dago. Berbiztu da...»

Eta afezkero, gizadia ifobi ofen aufean be-lanikotzen da, ari oneri mun egiten dautso, atxurdir onen ganean negar egiten dau... Au Dante, ala Napoleón ala Oehlenstxlager'enen antzeko ifobia ez dalako...

Utsik dagoan ifobia dalako.

Manterola'far G. yaup.

AU, ORI TA BESTEA

Gaiztoak eta Kristiñau Ikasbidea

Gizon gaizto ta Eleizaren etsai agertzen diranak, gaiztakeri-bidea, besteai irakatsi aŕen, euren seme-alabak bide onetatik eroaten zaleak izaten dira. Gaiztakeria auzorako obetzat etsiten dabe. Orixe dala-ta, bein baño safiagotan ikusibo ditugu, seme-alabak, lekaide ta lekaideen ikastetxeetara bialtzen. Yazokun onek, argiro agertzen dausku, gaiztoak okeŕeko bidetik doazala ezagutzen dabela, eta eurak maite dituezan-entzat bide ori ez dabela gura.

Beste askoren artean, yazokun onek diñoguna egiztuten dau:

Diderot eta bere alaba

Diderot, naspiltzale amofatu eta idazle gaizto ta lizunetarikoa izan zan. XVIII'n gizaldian Parantze'ko itxulakunde ikaragarfia gertatzen, gitxien galendu zana ez zan izan.

Alan da be, bere alaba ardura andiz, katolikotar zĩñestepean asi ta ezi gura izan eban.

Saritan Kristiñau Ikasbidea artuta, bere alabari irakatsi ta azaltzen ekiten eutson. Ikasbide edeŕa, gure eguneko ainbat katolikotar guraso ardurabakoen-zat.

Egun baten, bere antzeko aizkide gaizto batek, zeregin onetan egoala ikertu eban. Diderot «katekista» biurtuta ikusi ebanean, aŕituta esan eutson:

—¿Zelan dok ori? Euk eure alabeari

Kristiñau Ikasbidea irakatsi?... ¿Eure lengo eretxiak laga dituk ala?

—A, ene aizkide,—erantzun eutson Diderot'ek — Kristiñau Ikasbidea dokan gauza edeŕa! Neure alaba Miren'eri, gauza oberik irakatsi ete ñeikiok, alaba on, eginbearak maite dituan emazte, eta ama samur eta zintsoa izaten baño?...

Argiro ezagutu ta autortzen eban, alaba on, emazte zintso eta izan bear daben lako ama izateko, bide bat bakara dagoala; Yaungoikoa'ren bildur deun-ean aztea, eta oŕetarako bide bakara egoala; Kristiñau Ikasbidea...

Gaur safi askotan, gurasoak ikusten ditugu, eta ori eleizan safi ikusten diran- en artean be bai, umeai gauza asko irakasteko ardura andia artzen dabena, baña Kristiñau Ikasbidea azalez ikasiaz naikotzat eukiten dabena. Eta gero aŕitu egiten dira, seme-alabak, itzalik eta lotsarik ez dausiela-ta, biufiak dirala, maitasunik ez dausiela ta abar.

Bakoitzak ereiten dabena artzen dau, eta lur azalean azia ereiten dabena, geyen itxaron leikena sustraibako landarak dira, eta ondoren txafak ikusi aŕen negar egiteko eskubiderik ez dauko.

Guraso askori, ze lotsa daukien semeai itanduten dabenean, eurak emondakoa daukiela egiz erantzun al izango yake. Negaŕgarfia benetan. Baña... egia...

Kartago'ko Eukaristi Batzara

Egunokaz asi da Kartago'ko Eukaristi Batzara eta bertara eldu diran bideztiak 20 000 inguru, izango dira. Batzar onetara Aita Santua'k bere ordelarizat, lengoan esan gendunez, Lepizier Kardenal ospetsua aukeratu dau Berarizko itxasontzia Aita Santua'k gertau dautso-eta «Citta-di-Napoli» itxas-ontzi edefean Aita Santua'ren ikufiña galurean dabela, Kartago'ra eldu da. Agintariak eta efiak aferarik edefena egin dautsoe. Katolikotaf ez diranak, Batzarkideai abegi edefenetarikoak egiten dautse, eta gustiak al bait ondoen urten dayen, laguntzeko gertu agertzen dira. Ahmed Patxa Bey, Tunez'ko agintari buru danari, deduzko lendakafitza eskiñi dautsoe, eta, maomatafa izan afen, pozik bayelza emon dau. Ezaugafi ona da.

Bildu diran bidezti gustientzat Tunez ta Kartago'n ostaturik ez dagolako, lengo zenbakian aiatu gendunez itxas-ontzietan yan eta lo be egingo dabe. Ofez gañera 500 oyal zurizko txosna, zelayan gertau dituez, bakoitza lau oegaz, Batzar egunetan bildu diran abadegei eta gudan egon ziran abadeak lo egiteko. Ofaitio guldaldian baño baketsuago lo egin al izango dabe. 10 kardenal eta 100 gotzain baño geyago bildu dira eta yayok dotoltasunik andienaz egiten diardue, egunorokoak diñoenez. Ufengoan J. L. zertzeladak emongo deguz.

Sobieten basatikeriak-dirala-ta

Rusia'n, «Yainko-gabeak» ziñeskera gustien aurka asi daben guda ikaragafia zala-ta Aita Santuak, Yaungoiko ta gizabidearen izenean, asafea agertzeko, argitaldu eban idazkiak basater gustietan zastada andia eragin eban, eta aq batez, ziñeskera gustietakoak. Aita Santuak

esaten ebanagaz bat egiten zirala agertu eban. Aita Santuak, efukafion kaltez, gudarik ez eban ezkatzen, otoitzak baño. Eta Aita deunaren ikasbideai yafaituaz, toki gustietan otoitzak egin ziran.

Ofez gañera, itzaldi, batzar, eta idazkiz latefi gustietan ainbeste basatikerin aurka yaiki dira, eleiztafak bakañik ez, baita, boltxitafen lenengo agintzaldian latefi-buru izan zan Kerensky'k be, Paris'n sozialista aldunei egin eutsen itzaldi baten. «Gizonen eskubideen aldezko Batzak» be ainbeste basatikerian aurka asafea agertu dau. ¡Nozbait!...

Asafe au alde gustietakoa izan dala ikusi gura dabenak *La Documentation Catholique* aste-roko aldizkingi edefa irakufi daike. Yoñala'ko zenbaki bi, 5 eta 19'koa osoan gai ofegaz betetarik dagoz. Alemania'n, Austria'n, Belgika, Brasil, Bulgafia, Ipar Amerika, Kanada, España, Prantze, Ingalanda, Grezia, Ungari, Italia, Irlanda, Baltiko latefi, Olanda, Skandinabia, Polonia, Suiza, Txekoeslobaquia, ta Yugoelabia'n asafea agertzeko egin diran itzaldiak eta ederto azaltzen dira, aiatu doguzan zenbaki bi ofeitán. Eta ez katolikoak bakañik. Aita Santuagaz batean dagoz, kistar ziñausle gustiak, zismati-koak, judafak eta ziñesgeak eurak be bai.

Bitartean «Yaungoikogabeak» euren salari ekin dautsoe. Alan be lan inguingafi ofetan zerbait bigundu dirala esan leike, ba Pasko aldirako Gabonetan egin ebena egiteko egon diran afen, gaiztoen eskuetan ez dagozan eleiza gustietan gizoste ugafia ikusi ziran eskuetan argiak zituezala. Eñia basatikeri ofein aurka agertu dalako, eta eleiztafak agiñak erakusten asi diralako, atzera egin dabe. Eta egin bearko be bai, ia efi gustia ziñesteduna da-ta. Gaur buru dan Staline ankefak oin urte bi argiro autortu eban, *eunetik larogetamabost*

Rusia'n zīnestedunak zirala, eta euneko bost komunistak, eta kirtenkeri ta basatikeri ankefa izango litzakela, zīnestedunen aurka yoatea. Euren buru danak diñoenean, eta amar urtean alegin gustiak egin ondofen!... Oin urte bi itzok esan eta orain bafiro artu daben bideak agertzen dau, efa ondaitzen doala, eta boltxebitafak, bertako gose, gexo, ta zoritxafen efua norbaiteri bota bear da, zīnesteari botaten dautsiela. ¡Gixajoak! Burua galduta euki bear da gero, *egunoro ogia* Yaungoikoari eskatzea galerazata, ugarituko dala uste izateko!...

Ipar-Amerika'ko lateri ordelariak.

Oraintsu Washington'en agintariak argitaldu daben izendegiak diñonez, *Lateri Batuak*, diplomatiku edo ordelarizat beste lateri batsuetan daukiezan euren emazte ta gusti, idazkari ta abar, gustiz 420 lagun dira, eta eurotatik 236 katolikotafak.

Europa'ko laterietan. ordelari ta laguntzale gustiak katoliko diranak onexek dira: Parantze, Italia, España, Beljika, Austria, Portugal, Irlanda ta Lituania. Onez gañera Ingalanda'ko Orde larien artean 15 katolikotar dira, Alemania ta Austria'n daukiezan artean 4. Txeko-slovakia ta Olanda'n 2, ta Yungoeslabia'n 1.

Gustiz Amerikar Lateri-Batzak, 55 ordelaritza ditu mundu gustian, eta ordelaritza oneitan buru diranetatik 29 katolikotafak dira.

Lengo zenbakian esan gendun, Ipar-Amerikar katolikotafak erietxeak-eta zabaltzen lan gogor egiten ebela, baita idazti bidez, zabalkundea egiten be. Gaurko zenbaki onetan ikusi geinke gizaratan atzerengoak ez dirala.

Mixiñoen aldeko bazkunak.

Zīneste Zabalkunde ta Kepa Bialdu deunaren, efitar abadeen aldeko mixiño bazkunak euren batzaña Efoma'n euki dabe. Igesko Bagia'ren 24'na ezkerotik bitsuok idazkaritza baten azpian dagoz, bakoitzak bere eralguntza berezia euki afen.

Laterietako ordelariak emon dabezan azalbenetatik Bazkun onuratsu biok auferapen andiak egin dituez.

Iges Zīneste Zabalkunderako batu zana 68 *miñoi* eta bosteun miña lira dira, aũeko urtean baño 14 miñoi geyago.

Kepa deunaren Bazkunak be asko batu dau, 11 miñotik igaro da-ta. Egia esan, mixiñoak daukien beafizanetarako asko ez da, baña, len baño asko geyago batuten da.

Batzafon buru Van Rossun kardenal agurgafia izan zan. Gero lendakafiak Aita Santua ikertu eben, eta itzaldi samufa egin eutsen; Yaungoikoa'k maiteen zituan bazkun onein asmook gero ta indar geyago artzen ebelako poza agertuaz.

Izpar txorta.

Bolskonsky efusitar bakaldungaya, gudaldian katoliko zīnestera biurtu zan. 62 urte ditu eta ointxe dago Efoma'n gertatzen abadekuntzastaster artzeko.

Irlanda'n, azkenengo zenbatzak agertzen dabenetz, eunetik 92 katoliko dira. Ainbeste gizalditan protestantepean egon afen izitso euren zīnesteza zaindu dabe.

Ungaria'n 31 lateri-aldun edo diputaduk, Budapest'en, gizonenkoentzat dagon Gogo-iñarkun etxean. iru eguneko Gogo-iñarkunak egin dituez, Irakatsi edefa beste batsuntzat be.

Batikano-idaztitegia ointsu auferapen gustiekaz eraldu daben antzera, Aita Santuak agindu dau berberori egiteko bertako agiriteki edo artxiiboakaz. Bilabide bat egingo da, 650 idazti beteko dituana. Lan onetarako munduko artxibista onenai deituko yake, eta urte asko eralgi bearko dabe zeregin ikaragafi ofetan.

Yosulaun ospetsu eta tximis-indarlari bikain Perez del Pulgar aba'ri 6.000 langiñen eskariz, ufezko Lan domiñea agintariak emon dautsoe.

Domñe Alazgiñea'ren eungafen urtea ospatzeko, yai dotore ta batzar ospetsuak egin dira Madrid'en.

Barsobia'ko zismatikuen buru danak, Denis Gongotzañak, Aita Santua'ri idazki bat zuzendu dautso, Rusia'koen aldez otoi egiteko emon eban agintzaren esker-ona agertzeko.

Bariku Gurenez, Rio Janeiro'n il zan, Arcoverde kardenal eta Gongotzaña. 1850' yayo 1905'n kardenal egin eben, eta Ego-Amerikar lenengo kardenala berau izan da.

GASTERIEN BIDEAK

..... 2000

Nora goaz...?

VAN eta edan neurí barik, yolas egin al dan gustian, Yaungoikoa'k, Berari zor yakon guriza eskiñi, eta gorpuzari bear daben atsedena emoteko, izen-tauko yai egun gustietan, yo batera ta bestera, goizean asita gaberaño, eta bear ba'da gabaz be, dantza nastu, yolas lařegi ta zorakerietan aldi gustia igaro ta gogoa gaiztakeriz orbandu, eta gorputza lařegikeriz ondatuta, eusko gasteria ondamediko bidean dakusgu. Auxe dala-ta, euren bizia laburtu dabenak itz egingo ba'lebe! Euren lařegikeriz zoroetxeetara burua eroan dabenak zerbait esan al ba'lebe!... Gurasoai ta ixuri eragiten dautsiezan negar-malkoak ikusiko ba'genduz...!

Burua txapela berotzeko baño zerbait geyagorako daben edonork, ikusten dana ikusita, auxe esaten dau:—Bide orřetatik nora goaz...? Nora...?

Gasteari “gizon,, izaten irakatsi bear yako

Eriēn itxaropena gasteria da. Gasteak biarko guraso eta eři-buru dira. Beraz, gasteria ondatuta dauken eřiēn sařeran, Dante'k gaiztokiko ate-buruan ikusi zituan itzok ipiñi geinkez: «Agur itxaropen gustiak...»

Eřiak amiltegitik atarateko bide bakařa dago. Gasteria bidezuzeneratzea. Zelan? Gasteriak, eta gasteriaren ardura dauken gustiak, ondo azi, ondo ezi ta mēdu gura izan ezkerō, lenen gasteriaren izakera ta ondasunak gogoan euki bear ditu, eta ondasun bakoitzari, izakeraz zor yakon gařantzia emon; ondasun bakoitza bere mařan ipiñi; goyan egon bear dabena, goyan; erdian egon bear dabena, erdian, eta, bean egon bear dabena, berengo mařan. Sentzunak eskatzen dabena orixe da.

Eta ondasunok zeintsuk ete dira? Labur-labur iru oneitan sartu geinkez: *Adimena*, *biotza* ta *gorputza*. Gaur lenengoatzaz zerbait esango dogu.

Gasteria zuzentzeko, lenen adimena argitu, sendotu ta osotasunera yaso bear dogu. Oretarako bidea? Egia. Adimenaren yanari egokia egia da. Eta gorputzeko yanariaren bitartez, gorputza bizkortu ta sendotuten dan antzera, egiaren bidez, gasteen adimena argitu, bizkortu ta sendotu bear dogu. Eta egi onein artean, lenengo mañan goiko egiak, Kristiñau Ikastiko egiak dagozalako, zuzen yokatu gura dabenak, egi oreik gasteen adimenean erein bear ditu. Au bear beareko gauza da.

Lenen ba, Yaungoikoa'gazko egin bearak, gero, bere buru ta geideagazkoak; gustiok, yoranez, bilatzen dogun zorionaren sustaia ortxe dago-ta. Egi oneik, bere griña txarak eziten, laeregikeriak inñauten eta neuriz ibiltzen irakatsiko dautsoe. Eta olantxe, bere buruarentzat eta besteentzat kaltegarri izan bearean, bere baruan ba-kea eta inguruan zorion eta alaitasuna zabalduko dau.

Oñixe da, *gizon* izaten irakastea.

Oñari oñen gañean beste gustia

Gasteak zintso zuzen, oldostun, erizpide zuzendun eta asmatzale izaten, gasetan ikasi bear dau. Eta oretarako sentzunak landu, ezi eta ondo erabilten ikasi bear, egi-argia, sentzunen bidez gure adimenera eltzen da-ta. Ori ezin lortu leike, bere begien aurean, bere inguruan dituan lagun eta gauzak ondo ezagutu ezik. Beraz, lenen ezagutu bear dabena, bere guraso, senide, enda, yatoñia, ta bere eria ta izkuntza dira. Ikusten dabena, ona izan bear dau, entzuten dabena, egia; eta egi onek irakatsiko dautso, gauzak diran lez ikusten eta alde gustietatik aztertzen. Eta aztertze oretatik sortuko yako bere erianako maitasuna, eta bere biotza sustraitu egingo dau. Gizonak ba, zugatzen antzera, txori-buru izango ezpada, bere inguruan, sustrayak emon bear ditu, eta maitasunezko sustrai oneik, bere guraso, sendi ta erikideetara zabalduko dira, bere begiak lenengoz ikusi dabezan, mendi, zelai, ibar eta erekak, aretarik geyenaz ezagutzen aleginduko da. Eta bardin erianen edesti, abesti, yolas eta ekandu onak: itz baten, erianen arpegikerea ezagutzeko go-go sortuko yako. Eta ikastoletako ikaskizunak be oretaraxe zuzendu bear litza-kez...

Okekeko bidea.

Bide oretatik ibili ezik oker dabil, naiz ta gauza asko ikasi. Zuzena ete da ba, mundu gustia ezagutzea, norbere guraso senide ta eria baño lenago? Zuzena, norbere izkuntza ikasi aurretik erbestekoak ikastea? Zuzena beste eriak ezagutzea eta norberea ezagutu barik? Zuzena, Himalaya, Karpatos eta Alpes'en goi-berak yaki-tea, egunoro etxetik urtetzean ikusten daben mendien goi-bera ezpadaki? Saritan erbestetik etofi eta norbaitek itanduten dautsenean, efi edestiari yagokon zertzeladan bat, mendi batek daben goi-bera eta etxe ospetsu baten edestia, ogei urte erian igaroaren, zer erantzun ez dakiela ikusten dira. Ori *pedagojiari* eskeñak!

Au idazten dabenari, bederatzi urtera orduko, Volga, Rusia aldeko ibayak eban luzera irakatsi eutsoen, baña Gorbeyen sortuta bere etxe aurretik igarotzen zan erekearen izena ta luzera ez eutsoen irakatsi. Oingo bari ez dakigu; ba'leiteke

pedagojiak auñerapide asko egitea, ordulik ona zapañada asko yausi da-ta...

Ez gara aritu bear ba, gaurko gasteak euren eríari egizko maitasunik ez euki-teaz, beraz ez da eríko yolas, ekandu on abestiaria ta abar... Eta maitasunik ez yakona eréz lagatzen dalako, gasteria eritik igaska ibilteaz bez, orixe irakatsi dautsie-ta...

Ortik sortu da,

Aizea buruan eta ibili munduan

Arautzat artuta gasteri geyena ikustea. Eta idekoak alkafekin ondo aituten dira-ta, aixez beteko burua ta *pelotoya* aizkide kutun egin dira. Gaste geyenak gau ta egun ames onegaz dakusguz: *futbolas*. *Neuriz* artu ezkeru, beste yolas eríkoi eta obeak daukoguzan arén, txarto ez deritxogu. Baña... Baña yokolarien bizitza ta «alatzak», garaitzaleen edestia, partiduak eta txapeltzak autu bakaña, *pelotoyan* burua ta biotza... ta sakela sartuta biziteari... erdi ondo be ez deritxogu...

Ostera be, putzezko *pelotoya* nagosi dan artean, sentzuna auzoan izango da. Eta bitartean ¡yakiña! erí-yakintza, idaztietan, ikasteko gogoa iñon bez...

Ori al da kristiñau gasteen zeregin bakaña? Ori, eusko-gasteriaren eginbeara? Ori, kirtenak ugaritzeko bidea bai, besterik ez!...

Oingo *futbol* txapeltza dala-ta, erdi zoratuta ainbeste gaste ikusteak, idatzi dodana bururatu² daust eta, ²or dozu irakurle, gogor samara izan arén, egia da-ta...

Kartago'ko Eukaristi Batzara

Iragafita egon dan lez, Kartago'ko Eukaristi Batzara andikiro ospatu da. Oñila 7'n afatsaldez asiera izan eban, bost kardenal ordurako eldu ziranak 100 Gotzafetik gora, agintari ta 30 000 lagunetik gora bilduta egozala. Lepizier Kardenal ordelariari Aita Santuak zuzendu eutsen idazkia irakufi ondoren Heylen Namur'ko Gotzain agurgafi ta Eukaristi Batzaren lendakafiak itz egin eban, Aita Santua'ri Lepizier jaunari, Gongotzafari, eta bertako agintari eta eraltzalei eskerak emoteko, eta baita zorionak bertara eldu zirán bidezti gustiai be, ludiko basier gustietatik, Kristo'ren Efegetza autortzen bildu ziralak.

Ondoren Lepizier kardenal agurgafiak itz egin eban, Eukaristia gizon eta latefien arteko anai-mailasun lokafia zala azalduaz.

Ilaren 8' n Umeen eguna izan zan. Kartago'ko antiñako yolastokian, kurutze irudian zuriz yantzita 6 000 ume ipini zituezan eta erdi-erdian oindi edo aldarea, Hlond, Polonia'ko Gotzainburuak mesa esateko 12.000 lagun inguru ixiltasunik andienaz, yai samur onetara eldu zirán. Abesti samufak abestu ondoren amabi abadek Yauna emon eutsen, euren gain egazkin bat, bere erara, Yauna'ren omenez zerbait egin gurarik eñilan artean

Egun onetan afatsaldean egin zan ibildeuna ikusgafia izan zan 8 000 neska-mutiko, zuriz yantzita, eskuetan palma bana ebela, ainbeste Kristiñau zintsok zinestearen alde odola ixuri eben tokira ibildeunez yoan zirán. Pafa abak toki aretan zinopa izan ziránen gomutaz itzaldi edera egin eutsen, eta Lepizier kardenal agurgafiak bildu zirán 60 000 lagunei Gure Yaunagaz onespina emon eutsen.

Ufengo egunean, amařetan aintxiñako *Basilica majorum*, oraintsu aurkitu daben eleizan Gotzain-mesa nagosia izan zan. Gizoste izugafiz gañera, 4.000 abade ta 100 Gotzain baño geyago oindi inguruan bildu zirán. Egun onetan yolastokian gizonen batzara egin eben. Tssier Gotzafak itzaldi sutua egin eban. Ilaren 11'n, egin zirán eleizkizunak gomutagafienak izan zirán. Goizean Zipriano Deunaren eleizan izan zan

yauapan 150 Gotzain, eta 4 000 abaden inguruan 20 000 lagun baño geyago bildu zirán. Afatsaldeko ibildeuna, zoragafia. Iru kilometro luzeak ibildeunak betetan zituán, Heylen agurgafiak gure Yauna eroan eban, eta Lepizier kardenalak onspina. Azkenean *Te Deum* abestu ondoren, *Ave maris stella* bildu zan gizoste ikaragafiak abestu eban eta. ¡Gora Kristo Efege! ta ¡Gora Aita Santua! ao batez esanaz Batzar gomutafia amaitu zan

Lepizier kardenalak esan dabenez, ibertar eta maomafak be al bait ondoan gustiak urteteko ederto lagundu dabe. Ezaugafi ona da!

Kristiñau Ikasbide batzara ←

Datofen Urñila'ko iragafi da, Zaragoza'n egin-go dan Kristiñau Ikasbide Batzara Bertan adiralduko diran gayak gafantzitsuak izango dirala esan beafik be ez dago, gai onetzazkoak berenez dira gafantzi andienetarikoa dabenak eta.

Iru ataletan banatuten dira 1.º—Kristiñau ikasbide Bazkunatzaz Zer dan, zelan eraldu Goterki, pafoki, Abade ikastetxe ta abar. Kristiñau Ikasbide sariketak, zelan, non eta yaupal-erki bakoitzean egitea egoki danez. Kristiñau Ikasbide eguna Zelan ospatu? ta abar.

2n.—Kristiñau Ikasbide Irakaskintzaren eralgunta: Umeak; Kristiñau Ikasbidea. Nagosiena Goragoko malak: abade-ikastetxe ta ikastetxeetan. Katekistan irakaskintza, ta abar.

3n.—Gasteriaren Kristiñau- ezikuntza edo azierrea. Onetzaz gayak Aita Santuak argitaldu daben, idazkai edefetik artuta dagoz.

Bazkide izateko izena emotea naiko da. Baña ezaugafia eroan, eztabaidetan tarteko izan eta erabagietan autarkia eukiteko, gitxienez 10 lauerleko ordaindu bear dira. Deduzko bazkide izan gura dabenak 5 lauerleko ordaindu bear diu, baña erabagiyetan sartzeko eskubiderik ez dau izango ezta Batzar edestia be besteai lez ez yako bialduko. Oindiño Y. L. zertzelada geyago emongo doguz. Bitartean pozez dakusgu ainbeste bidar aiatu dogun gauzari gafantzia emoten yakola ikusteaz.

Deun eta Zorundun bariak ←

Datoñen Bagila'n Aita Santuak yai andiak ospatuko ditu. Ila'ren 8'n zoriondunen lefoan ipiñiko dau, Paula Frasiñetti agurgafia, eta 15'n Konrado Parzhan. Deun iragaritzeak talde bitan izango dira. Ba ila'ren 22'n Luzia Filippini ta Katalina Thomas, deun dirala iragañiko dau, eta bigafen taldean, drudienez, Belarmino kardenal agurgafia, Teofilo de Kurte ta Kanadatar ziñopak. Azkenengo oneina ikusteko iparamerikatik asko etofiko dira eta euron artean nafu gofiak be bai.

Gai onetzaz beste auzi batsuk adiraltzen Efoma'n asi dira. Bi dira, XV Benedito'k «txamañadun deunak» esaten eutsienak. Pantzetañak biok; Filiberto Brau eta Kamilo Fefon-Brau, azkenengo guda nagosia baño lenxoago il zirana, Pantze'n katolikotar ziñeste aldez lan asko egin ebenak, eta *La Croix* izpafingiaeren irasleak.

Rusitar erbestetuak eta katolikotar ziñestea. ←

Lengo zenbakian aitatu gendun Bolkonsky andikia katoliko egin eta oraintsu abadegintza artu ebala Auxe dala ta, beste batsuk be aitatu bear doguz, katolikotar ziñestea, rusiatar erbestetuen artean zabalduz doala adirazteko. Alexander Erbeinoff, Kirinal' en Rusia'ko Ordelearitzako idazkari izan zana ointsu abade egin da Tolstoi ipuin idazle ospetsuaren iloba bi, Lophen les-Bruges-ko beneditařen lekaidetxean dagoz. Euron aita Tolstoi'n suña da, eta seme biak dituan, lekaidetxean idaziitegiaren arduradun da Maklakoff Yauna Douma-ko lendakaria izandakoan semea, Liñe ikastetxe katolikotafean irakasle da. Atekabea, begiak argitu ta egia argia ikusteko aukerakoa da-ta, Yaungoikoa'k Rusiatar asko beragandu ditu, eta gero ta geyago bide onera etofiko dirala uste izan geinke.

Añitokieta'ko Andra Maria'ren aintzaz. ←

Zumaya'ko uri polit eta inguruan ain maite daben Andra Maria'ren aintzaz, Ofiñla'n lenengo egunetan yai andi ta gomutagañiak egin dira Sortzez Garbiaren irudi oñeri Burestuna ipinteko, asmo begikoa artu eban uri atako pafoko langife ta gogo-zaleak, eta bai egokiro gertau eta andikiro ospatu be. Lenen zortziufen baten

bidez efiã gertau zan eta azkenengo irunetan Pildain yauna, Gazteiz'ko kanonigu yakintsu ta izlari ospetsuak itzaldiak euskeraz eta erderaz egin zituan.

Ofiñla'ren 4'n Burestuntzako eguna izan zan. eia goizeko saspiretan efi gustiak yaunartu ondoren, amafetako Gotzain-Mesa izan zan, Pildain yaunaren itzaldiaz. Pelusio'ko Gongotzaña be bertan zala.

Afatsaldeko lauretan, eleizatik emparantzara ibildeun edefa Andra Maria'ren irudiaz egin zan. Gizoste izugafia bildu zan bertan. Eta antxe gustien biotzak Gotzain agurgafiaeren itzaldiaz pil-pil egozala. Mujika yaun agurgafiañak Añitoki-etakoa Andra Maria-ri uñezko burestun edefa ipiñi eutson. Ango gora, txalo abesti eta etxapli-guak ezeuken amairik. Te Deum edefaz amaitu zan. Ederto zumayatar zintsoak; eta euren txauburu argi Mayora yaunak artu bei geure zorion agufik sutsuena.

Izpar txorta. ←

—Berdier Kardenala ta Gotzain asko bertan zirala, Hipona'n Oriñla'ren 13'n Agustín deunaren eriotzako XV'n gizaldia ospatzeko yai edefak egin zira. Agustín deuna 450 urtean il zan. Bere gorpua lenengo Zerdeña'ra eroan eben eta gero Pabia-ra, eta antxe dago bere ilobi edefa

Oberamergau'n (Babiera) Ofiñla'ren 9'n «Nekaldi» ospetsua anteztu eben. Amar urerik bein egiten da, efiak eskintza eginda daukolako. Gizoste andia bildu da, eta agintarien artean, Orsenigo'yaun agurgafia, Berlinen Aita Santuaren ordelaria be antxe izan da.

Pantze'ko langile-talde edefak aita Santua ikertzen bidezkundez yoan dira. Lyon'go Gongotzaña buru dabela Aita Santuak gorralben andiak egin dautsez, Eleiz irakaskintza-arauz lan egiten dabelako, eta bere agindu itza auxe dala esan dautse: «Beti aufera! Beti gorago! Beti oketo!»

Bourne Kardenal agurgafiañak, Lau Gongotzain, amasei Gotzain eta 50 abade inguruan zituala, Ofiñla'ren 6'n Upoland'go abade Ikastetxe'ko eleiza onetsi eban. Ikastetxe onetan 300 irakasle abadetzarako gertatzen dagoz.

Olab deunaren 900'ren urtea ospatzeko Noruega'n deun onen irudiaz bidayen ikufatzak (seluak) atara dituez. Onexek katolikotar ziñestea, bere efiã sartu eban.

GURE KRISTIÑAU IKASBIDE EGUNA



Yaungoiko Zale'ren Eguna



AUNGOIKO ZALE BAZKUNA'ren asmoa, bere izatearen una, eta alegin gustien elburua Kristo Gure Yaunaren irakatsi goitar, egi utsezko ta onuratsuenak euskaldunen artean zabaltzea dala ikusteko, gai onetzaz idatzi, egin eta agertzen dituan gurarietan argiro ikusten da. Eta onetan zor yakon laguntza be, bear dan bestéan ez yakola emoten, yai ořetarako zabaltzen daben arpideko izendegian eřez ikusi zeinke irakurle. Bazkide bakoitzak *zertxobait* emongo ba' leu, yayok andikiroago egiteko eřeztasuna eukiko leukela esan bearik ez dago. Ori bariz, bazkide maiteok, geure eginbearétako bat dala ez deritxozue?

Auxe da ba gure eguna, Yaungoiko Zale'ren eguna ta... egunik onuratsuen be bai... la ba, gustiok batera zerbait egiten dogun!

Zaletasuna biztu!...

Kristiñau Ikasbidea irakasteko ikasleetan zaletasuna biztu egin bear da, eta zaletasuna biztuteko, irakasten danaren garántzia azaldu bear. Gai ořek izatez dauken garántzia, ikaste ořen onurak agertu, eta ikaste ori pozgarri egiten alegindu bear gara. Eta ořetarako, goi alaitasunaz beteko yayok eraldutea baño bide egoikiagorik ete da? Umeak poza, abestia, alaitasuna ta... saria ikusten daben tokirantz begi-biotzak berez biurtzen dituez, euliak eztiak atrapatzen diran antzera, umeen biotzak poz eta alaitasunaz geuregandu bear doguz. Eta Kristiñau Ikasbide egunetan ikusten dan beste alaitasun beste yaitan ikusi ete geinke? An gustiak tarteko izaten dira, gustiak pozgarrien bat artzen dabe, eta azterketan bertan be, bildurik kerizparik be ez da agertzen, zigorik emon barik, aurkezten diran gustientzat maitasuna

baño ez da ikusten-eta. Yai oneitan, ondoen ikasten dabenak saritu egiten dira, eta ain ondo ez dakienak be, urengorako zaletu ta... zerbait sari be pozgaritzak emoten yake. Gustiak pozik bialtzeko alegin gustiak egiten dira, eta orixe da, zaletasuna biztuteko biderik egokiena. Kristiñau Ikasbidearen zaletasuna geyagotu gura ba'dogu ba, yai onei albait geyen laguntzen alegindu bear gara.

Eredu bikaña

Zeregin txalogari onetan, eredu edera gura ba'dogu, or dogu gure Aita Santu Agurgari XI'n Pio. Beti Kristiñau Ikasbidea irakasten zale-zalea izan da. Bein baño sariagotan, Kristiñau Ikasbidea zabaltzeko, batez be txikitxoai irakasteko egin zituan lanak, aldizkingi onetan aitatu dituguz. Abade eginda bereala, Milan'go urian, Kristiñau Ikasbidea umeai irakasteko ardurea bere gain artu eban, eta 650 ume lenengo Yaunartzarako berak gertatzen zituan. Bere abade bizitza gustian umezale, eta batez be ardi galduen antzera ebiltzen ume gaxoen maitale kutuna izan zan. Aita Santutzara igon da gero be, bein baño geyagotan esan dau, «umetxoak bere biotzeko kutunak dirala». Eta alantxe bear be, Yesu Kristo gure Yaunaren yaraitzale ta ordezk zintsoa izateko. Urtero Yesu-Kristo'k lez bere inguruan biltzen ditu Ero-ma'n Kristiñau Ikasbidea ikasten galendu diran umeak. Berak afera egiteko dauken areto edereanean artzen ditu, eta maitasunez beteko itzaldia egin ondoren, emon dautsezan sariez gañera, domiñe edera emoten deutse. Gaur gai onetzaz geyago ez luzetzearen, maitasun ori agertzen daben yazokun bakar bat aitatuko dogu. Aita Santuak, Bere abadegintzako berogetamargaren urtean sartu zanean, yazokun pozgari onen gomutaz egingo ziran yai gustien onaritzat umeen Yaunartza eder bat ipiñi gura izan eban. 120 neska-mutikori Gure Yauna lenengoz bere eskuz emon eutsen, bederatzi kardenal, Gotzain ugari ta 50.000 lagun inguru Batikano Eleizan yai onetarako biltzen ziralarik. Eta bakoitzari domiñe eder bat emon eutsen yai samur aren gomutakitzat. Au ikusirik, gure Aita'ren antzera, ez ete gara aleginduko, Kristiñau Ikasbide egun au albait ederen izan daiten, buruz, biotzez egitez eta esku zabalez gogotsu lan egiten? Gure artezkariak diñon lez «geroago ta adoretzuago, iñoz baño ustetsuago aurtengo egun andia gertetan» ez ete dautsogu ekingo?

Ekin ba,

Ayangiz, Albiz, Aratzua, Kortezubi, Forua, Gorozika, Gernika, Luno, Mendata, Morga, Muxika, Murueta, Nabarniz, eta Erigoiti'ko ume maiteak ekin gogoz Kristiñau Ikasbidea ikasten, ekin gogotsu, eten barik eta bildur barik, azterketa eguna eldu daitenean, geyen maitetu bear dan txapeltza irabazteko. Kristiñau Ikasbidea ondo ikasten dabenaren txapeltza, eta ez batsuntzat bakarrik, gustiontzat, *Yaungoiko Zale*'ren gurari bizia, gustiok txapeldun izatea da-ta...

Ekin ba!...

IZPARINGI ETA ALDIZKINGI ONEN ALDEZ

Katolikotarak, euren izenen yaube izan gura ba'dabe beintzat, izparingi onen aldez, eta txaren kaltez lan, eta gogotsu atan be, egin bear dabela esan bearik ez leuke izan bear. Eta alan da be, orixe dedarka esan beara, inoz baño andiagoa da. Zelan leiteken ori? Katoliko asko izan aren, katolikotar sentzun gitxi dagolako.

Izparingiaren garantzia azaldu bearik ez dago, aburu on naiz txarak zabaltzeko biderik zabal eta eragikorena izparingia da-ta. Au txar eta onak gustiak autortzen dabe, gustiak begiz ikusten dabena da-ta. Norbaitek zeintzuk eretxi buruan dituan yakiteko, zeintzuk izparingi irakurten dituan yakitea naiko da. Izparingiak geyenez, batez be ikastuna ez dana, beragandu ngiten dau, gizonaren adimenen yaube egiten da, eta gizona geyenez oldoskunak darabilelako, izparingia oldoskunen yaube egiñaz gizonaren yaube egiten da. Au onan dalarik, izparingi txarak egin leiken kaltea, eta onak egin leikezan onurak ¿nok ez dakus? Gaur gizar-tean ikusten diran eretxi oker, oitura zatar eta biurikeriak sustara non daben aztertuko ba'gendu, geyenez izparingietan aurkituko genduke.

Orixo dala-ta izparingi txara, Aita Santuak esan dabenez, *ixuri txara, gaitz astuna ta egizko zoritxara da.*

Eta, egiz negargaria da, izparingi txarak, Segura Kardenal agurgariak diñonez, katolikotzat dagozan askoren arpidez, iragarkiz eta irakurtez bizi dirala.

Orixo dala-ta, geure agintariak dei egiten dauskue alegin gustiz izparingi ta irakurgai onen aldez gogotsu lan egin daigun, eta txaren kaltez be alegin gustiak egin bear dituguz. Eta ila onetan Donostia'n agertu dan izparingi katoliko ta euskaldun «El Dia»n antzera agertzen diranean, gusti-
ok poztu bear gara, eta al dogun neuriz lagundu. Geure txalo beroak, lan eder ori leporatu daben katolikotar eta euskaldun zintsoai. Urte askotan Katolikotar ziñeste ta euskal-eriaren aldez zintso ta onuraz yaraituko al dabe!...

Eta Eleiz-buruak eskatzen dauskunez «Izparizgi onen egunean» zure otoitz beroenak, eta emaitz ugari-enak, izparingi onen aldez izan beitez...



Au ori ta bestea

Nastezaleak

Beti be bai baña, gaur egunean nastezaleen *kofradikoak* ugari bai ugari dira. Yaungoikoa'ri argi bat eta txeren (debruari) beste bat edo geyago ixiotuten dautsen gustiak beintzat. Eta ori Yesu-Kristo gure yaunak argiro itz oneitan gaiztetsi eban: «Yaun biri iñok be ezin leikioe otseindu; ala bata goñotau ta bestea maitatuko dau, ala lenengoa maitetu ta bigařena ezetsi: Yaungoiko ta txerenari ezin zeinkioe otseindu». Itzok argi ta garbiak dira, ořein aurka ez dago aitzakirik.

Satanas "yauna"

Len aitatu dogun *kofradikoa* zan nonbait oin aitatuko doguna.

Gizon bat gexorik txarto, iltamuan egoan. Abadeari deitu ta, beste onu batsuen artean, auxe esan eutson:

—Ene seme, zerura yoatea gura ba' dozu, nai-ta-ezkoa da, Satanas'eri osoan itxitea.

—Bai, yauna, bai,—erantzun eutson gexoak—nik Satanas «yaunari» osoan itxiten dautsot.

—Tira, ořegaz ainbeste begirapen ta koipekeri ez da erabili bear, soil-soil Satanas esan eta kitu: «yauna» ořelakotentzat ez da.

—Parkatu beist, Aita, baña niri iñogaz asarãtzetik ez yat atsegin, gustiekazkoa egitea gura izaten dot...

Onen antzekoak dira, goizean yaunartzen, ta arãtsean dantza nastu ta zine txarãtan dabiltzazan katolikoak (?); kristiñau zintso lez agertu nai eta moda txar eta yantzi nabarmenai indar emon eta guda egiten ez dautsenak. Eta ori Eleiza'ren agindu garbiak ezagutu ondoren. Bardin idazti onen artean txarãk irakurten dituenak, egunoroko izparingi txarãk irakuri ta euren diruz egunero laguntzen dautsienak... Zer ba, zertarako da eleizan saři ibili eta argitarako txakur bat emotea, urten orduko, beste bat periodiku txarãri emoten ba'dautso?... Zertarako dira eleizara yoate gustiak, andik urten orduko, ekandu txar, irakurgai lizun, ziñe gaizto, ta soñeko nabarmenen aurka egiten ezpadau? Olan dabiltzanak, noren alde yokatuten ete dabe? Kristo'ren alde? Orixe ez! Yesu-Kristo'k argiro esan eban: «Nigaz ez dagona Nire aurka dago». Orduan noren aldekoak, Kristo'ren etsayen aldekoak baño?...

* * *


Geldi egotea baño zerbait geyago dana egizu, bestela ez egizu ezerbe egin.

—Zer gertatuko dan yakin gura dabena, zer gertatu dan oldostu bear dau.

—Gizon yakintsuak gitxi aritzen dira, eta gitxi dakiana, asko.

—Onerako lenengo mañea, txarãk ez egitea da.

Katoliko ta Euskaldun



Aldizkingi onen eguna

Il onen 29'gna, Kepa deunaren yaya, dauko aukeratuta Eleizeak **Aldizkingi katoliko**en alde berarizko alegiñak egiteko.

Aita Santu ta Gotzain jaunren aginduz eleiza gustietan otoitz eta ukar-eskeak egingo dira, egun oretan, aldizkingi onai laguntzeko. Parkamen osoa irabazi leikie, Aita Santu Benedito XV'ak emona, otoitz eta limosna egiñaz gagera, Jaunartzen dabenak.

Otoitz, zabalgundea ta limosnea eskatzen yaku siñismen eta ekandu onen utsigariñik indartsuenetarikoak diran aldizkingi katolikoentzat.

Euskaldun Gotzain baña

Zorioneko gagoz euskaldunak, ta batez be euskal-idazliak. Lendik doguzan Gotzain gutarai beste bat geitu dautse Eliz Amak. Baiona'ko asteroko «Eskualduna»ren zuzendaria, Jean Saint Pierre jauna, Antxubeo idazle-izena ospetsu egin dauana, Kartago'ko Gongotzañaren laguntzale izateko Gotzain egin dau Aita Santuak.

Bere bizitzako edestian badago zer ikasi ta zer goratu. Baña gaurkoz besterik ez dogu esango lenengo Seminario'ko irakasgoan, gero Bayona'ko Gotzañañaren idazkari lez eta sei urte onetan «Eskualduna»ren zuzendaritzan lan eder ta ugaria egin dauala erlejiñoaren eta euskêraren alde. «Gitxik dakie, diño «Eskualduna»n bertan Oxobi bere lankide ta adizkide barukoak, zer dan «Eskualduna» lako aldizkingi bat euskeraz moldatzea, izparkari ta idazle lagunak urun dirala eta eskupean dituzun langileak euskera tutik aditzen ez dabela».

Zorioneko gara ba euskaldunok ta gure zoriona boakio gure idazle-lagun izan eta orain Gotzain legez agurtzen dogun Saint Pierre jaun argiari.

Segura'n auñen - eguna

Erènderi'ko olerki - egunaren oyarzunak ozta ixildu dira ta orain beriala, il onen 25'garènean, «Euskalzaleak» gertaut, Segura'n izango da auñen-eguna.

Ikusgarñiak izango dira Segura'n egun oretan egingo diran yayak ta ikusgarñia batez be ainbeste ume euskerazko kristiñau ikasbidean, irakurten, idazten eta abar zein geyagoka sayatzea: baña ikusgarñia baño eriantzatzat onuratsua dan aldetik geyago poztu biar gaitu jai onek.

Artu begiez eraltzaleak gure txalorik beruenak.

Urñean be euskaldunak euskalzale

Eröma'fik bialdu daukue gure bazkide Luzio Aba Irukoistañaren amaren il-gomutakia euskeraz egiña.

Bialdu daukunak bere idazkian diñoan zerbait emen ipiñi gura dogu askoren ikasbidetzat. «Emen dagoen aberkide bateri, diño, il yako bere ama lazтана, eta eriotz gomutakiak gure euskera eder-gozoan atara deus... Atzerian dago gorputzez baña bere biotza or Aberian bertan bizi da. Ondiño orko aberkideak be euskerazko gomutaki gitxi egiten deurie... baña aberiñik urin dabizenak... Zeozer esan edo ipiñi gura badozu zeure aldizkingi ederean orko aberkideak piztu daitezcan. ¡¡Badau beara!!»

Yesus'en biotz maitegarïari

Yesus'en Biotz maitea,
samin, nekez aseá,
Zu biotz argaldunontzat
bizitz eta bakea.

Gurutza gáren artean,
dozu Biotz erdian,
mailatzen ikasi daigun
geure bizi gustian.

Ezpata zoróttez einda
zauri zakon, bizia,
izan daiten guretzako
zorion-iturïa.

Arantz-ustai gogoarakaz
zakust inguraturik,
ikasi daidan ez dala
neke barik bizirik.

Kurutze, arantza, zauri,
gustion azalbena?
Biotz maitagarï óren
neurge dan maitasuna.

Maitasunak maitasuna
eskatuten ba'dausku,

sentzundun kistaarak zelan
Biotz au ez maitatu?

Maitasun au neke barik
ez daurkigu luéan
ori aurkituko dogu
goiko zoruntegian.

Beraz, bizitza onetan
Yauna maite ba'dogu,
kurutz, arantza, zauriak,
urbil euko ditugu.

Maitasuna gaía da-ta
geldirik ezin egon,
bizia daben artean
lan dagi beti, nai non.

Maitasuna bizitza da
geldia eriotza,
maitasunik ez dabenak.
ilda dauko biotza.

Biotz maitagarï órek
jaíren, entzun eiguzul:
«Zure maitasun gáretan
gure biotz au sutu...»

Aita Santuaren 73 urteak.

Aita Santu agurgafi XI'n Pio 1857'ko Oriñaren 31 yayo zan. 73 urte bete dituz ba Egun ori ospe barik igaro izan daben afen, ludi gustitik zorion agur ugariak bialdu dautsoez, poza ageritu ta bizitza luzea opatuaz.

Izan be Eleiza gustia poztu bear da. Doipuru agurgafia, dituan urteakaz. gasteen sendotasun ta alaitasunaz ikusteaz.

«Osservatore Romano»k esan dabenez, gizonik geyenak, gitxi asko, mankauta itxiten dituan adin ofetan, zartzaroa bera da gexoa ta, gorputz eta gogoz ain txairo gure Aita Deuna ikus tea egiz afigafia da, egiten dituan lanak, Eleiza'ko buru danez dituan buruauste ta zeregiñak gogoratu ezkerote batez be. Yaungoikoa'ren eskua argiro ikusten da. berarizko arduraz bere Ordezkoa zaintzen dabelako, eta guk Yauna'ri biotzez eskefak egiñaz. Eleiza'ren garaitzarako urte askotan zaindu daiskula biotzez eskatu bear dautsogu.

Katoliko Ekintza gure goterkian.

Kristiñau bizi'tza Gazteiz'ko goterki onetan mardul agertzen da. Batez be. langileen artean alse. inez dakusgu ziñeste agerkayak ugarituez doazala. Igesko antzera Bizkaitar langileak gogo-iñarkunak egin ondoren Begoña'ko Ama'ren eleizan Yaunartza orokofa egin dabe. *Lau mila* beargin bildu dira euren biotzak berotzeko, Mai deunaren aufean. Gauza benetan pozgafia eta iixaropenez betekoa, ainbeste gizon, eta beargiñak atan be, euren ziñestea bildur barik autoritu ta Kristo'ren Efegetza nai dabela agertu dabelako Langile begikoak ondo igafi dabe lana, onuratsua, poza ta alaitasuna izango ba'da, Jesus Langile burutzat artuta, bere oñatzai yafaituta bakafik izan leitekela. Ederto gizonak! Zorionak gustioi ta yai eder ori eraltzen aufetik ibili dan Olabafieta yosulaun abari.

Goterki onetatik urtero lez Lourdes'era bidez-kunde edefa egiten da, eta il onen 2'tik 5'era egin dana besteen gañetik agertu da. 3.500 bi-

dezti, gexo talde edefagaz, Ama Sortzez Garbieren oñetan bildu dira, Gotzain agurgafi Mujika yauna buru dabela. Itzaldi edefak Gotzaiñak euskeraz eta erderaz egin ditu, eta eleizkizun ederenetarikoak. eta abestiakaz bakafik an izan diran erbestetar bideztiak arituta itxi dituez. Ama efukiofak bideztien eskariak aintzat artu dituala, ezaugafia emon dau, Bernardino Bakero befogetakaz urtekoa, urte biterdi oneitan elbafituta egon dana, osatuaz. Durango'taifa da berau, eta osagilerik onenak etsita egon afen, makulu barik etxera biurtu da. ¡Aintza Lourdes'ko Ama Sortzez Garbiari!

Igaro dan ilaren 29'n Igokunde egunez, euskal-efiko koldobikatafak, Eziibalitz eta Gazteiz'en bildu ziran. 3.000'tik gora gaste adoretsuk ziñeste sutsua agertu eben, eta apur bategaitik ez zirala bildurtzen be bai, eguraldirik euritsuena egin afen, alaitasuna galdu barik, euren batzafetan garfik andiena agertu eben-eta. Auf-era mutiñak! .

Ordu Deunaren eungafen urtea.

Paray-le-Monial'en, Yesus'en Biotz maitagafiak, Margarita Alakoke deunari, Bere maitasun samufa agertu ta Biotz doneaganako gurtza zabaltzeko eskatu eutsun. Toki aretan Ordu Deuna, edo ordu beteko otoitza, Getsemani'ko baratzean igaro zituan lafitasunen gomutaz, ointxe eun urte egiten asi ziran, eguen gabaz. Margarite Maria Alakoke'tar deunari Yesus'en Biotz maitagafiak irakatsi eutsonez.

Eungafen urte ori andikiro toki gustietan egin da, eta Aita Santuak ordu berean, Oriñaren 22'n egin gura izan dau. Batikano'ko Eleizan, gure Yauna agirian dala egin eban, eta ordu oso-osoan XI'n Pio belauniko egon zan. Azkenean Berak emon eban Gure Yaunagaz onespina. Gizoste izugafia bildu zan.

Euskal idazle bat Gotzain.

Bayona'ko Gotzain idazkaria, eta «Eskualduna» asterokoen artezkari dan Saint-Pierre

Yon euskal idazle bikaña, Kartago'ko Gongozaiaren jaguntzale izentau dabe. Izen ordetzat «Antxubeño» artuta, amaikatxo idazkai txukun idatzi ditu. Idazlerik bikañetarikoa, eta Elissalde'k diñonez, «gure idazlerik bikañena da, ori Axular bera bafuan sartuta be bai».

Gotzain bafi onek 46 urte ditu, 1908'n abade egin zan, eta 1922'n urtetik Bayona'ko Gotzain-idazkari ta «Eskualduna» asterokoaren artezkari urte oneitan izan da.

Euskera biotz - biotzean daroa - ta adirazi dabenez al daben neufiz ekiteko asmotan dago.

Yaun agurgafi ofek artu bei gure anai-agurik maitetsuena eta. . ez ete litzake egoki izango, euskal idazleen artean zerbait gomutakitatz eskintzea. .? Zer deritoxozue idazkideak?

Pantzetar katolikotafak

Kastelnau gudalburu bikain eta katolikotar zintsoa buru dabela, pantzetar katolikotafak gogor diardue, Eleiz eskubidean alde batzafak egiten. Batez be, lekaideentzat azkatasuna, sendia aldezea, eta umeen azieratzaz gurasoen eskubideak zaintzea da orain daukien arasorik beafekoentzat, eta ofetarako batzar edefak sailean egiten diardue Ara batsuk: Bourdeaux'en 20.000 gizon bildu ziran; Lyon'en 20.000; Bressuire'n 13.000; Koutances'en 25.000; Belfort'en 15.000 eta Tours'en 10.000.

—Orila'ren 28'an il da Reims'go Gongotzain ospetsu Louis-Henri-Joseph Luzon, kardenal agurgafia. 1842'n yayo zan, 1888'n Gotzain egin eben, eta 1907'n X'n Pio'k kardenal izentau eban. Zama astun ori berari afen ez leporatzeko eskatu eutsonean, X'n Pio'k ezer erantzun barik, bere eginbeafa, bulafean eroyan gurutzeta erakutsiaz, agertu eutsen.

Guda galgafian, alemandafak geyen zigortu eben uria Reims izan zan. 14.000 etxetatik saspi bakafik matxura barik gelditu ziran, eta bertako Gotzain eleiza zoragafia be, ondatuta gelditu zan. Gotzain kementsu onek neuribako adore ta iraupenaren yabe dala erakutsi dau, gustiiz bafiztauta ikusi arteraño, ez dau arterik artu-ta. Bere poza andia izan zan, Gotzain eleiza bikaña bafiztauta ikusi ebanean, eta goitik obeto ikusteko, 84 urte zituala egazkin baten igon eban. Azkenerarte eten barik Eleizaren alde lan egin dau eta orain saria artzeko erbeste au itxi dau.

Kardenal bafiak

Aita Santu Agurgafi XI'n Pio'k, Abadegntzako Yubileoa amaitzeko Bagila'ren 30'n bost kardenal edo yanzkordun bafi egiteko asmoa agertu dau. Gustiz 70 izan leitekez, baña zenbaki ofetara inoz be ez dira eldu, eta oin dagozanak 58 dira. Euron artean Lienart yauna Lile'ko Gotzain agurgafia mala ofetara yasoko dau. Gotzain au prantze'ko gasteena da eta 28 ilebete baño ez da Gotzain egin ebela. Iges bere goterkian izan zan langile ta ugazaba arteko auzi baten agertu eban yakituri ta zurtasunafen gustiiz galendu zan. Ezagutzen dabenak diñoenez, izakerarik onetarikoa dau, yakitun, zur, leun, alai, kementsu ta eraiña da, eta gaitasun gustiok batera gitxik euki daroetz. Beste iru Efoma'ko Eleiz Batzaetan dagozanak dira, Rossi yauna Tesalonika'ko Gongotzaiña, Martxetti Selbagianni, yauna Ziñeste zabalkundeko idazkaria eta Serafini Konzillii Batzako idazkaria eta azkenez Rio de Janeiro'ko Gongotzain Leme de Silbeira. Lienart yaun agurgafia Luzon yaun agurgafiaren tokia betetzen Reims'era yoango da, alan Parantze'ko Gongotzain zafenak itxi daben tokia, Gotzain gasteenak beteko dau.

Zafak eta gasteak aitatu ditugun ezkerre, beste izpar bategaz amaituko dogu. Egunokaz il da, Alemania'ko Gotzaiñk zafena be 88 urtedun Luzon yaunaren adin bardiñekoa. Bere izena Maximilian Ritter de Lingg da, XII Alpontso'ren irakasle izandakoa.

Zoriondun bafi bat.

Aita Santuak, Yubileo urtea amaitzeko eraldu diran eleizkizun ospetsuen artean, deun ospez il diran eta euren deuntasuna argiro agertzen daben batsuk, zoriondun ala deunen izendegian ipintea da. Ila onetan ainbat izango dira, eta lenengoa, Bagila 8'n egin dabena Paulo Frassinetti izan da. Sendi apal artekoa 1809'n yayo eta 1882'n il zan. Gastearoa umeai asiera ona emoten igaro eban, eta onetarako Doroteen Bazkuna irasi eban. Berealako baten Efoma, Paris Later-Batzan, Brasil, Portugal eta Malta'n zabaldu zan. Bazkun onek on asko egiten diardu, eta iraslearen bere zorion iragartzeta yayetarako bidezkundez eta, milaka asko bildu dira. Oif denez, yayok andikiro ospatu dira.

“Yaungoiko Zalen,, Kristiñau Ikasbide eguna dala-ta

Eleiza Ama'ren gogoia



RISTIÑAU IKASBIDEA irakastearen aldez, eten barik eta *opportune et importune* ekiteko gai onek dauken gañantzia gogoan sustrailuta eukitea naiko litzake. Baña besterik ezpalitz be, Eleiza Ama deunaren gurari bizia auxe dala yakitea gureztat ziorik indartsuena da. Eleiza Amak eten barik diardu, agindu au bañiztatzen, eginbear astun au, egokiro bete eragiteko erabagiak emoten, maña gustietako katolikotañai eginbear estu-estu au gomutazoten... Zer dala-ta ainbeste bider?... Eginbear au dauken *gustiak*, zintzoro betetan aleginizen diralako ez da izango beintzat.

Gaur gure Aita Agurgañi XI'n Pio'ren asmoa, bere begietako niñia, bein baño geyagotan aitatu dogunez, Katolikotar Ekintza da, eta oretan ezer ganoraz egingo ba'da, Kristiñau ikasbidetik asi bear. Katolikotar Ekintzan ziñeste erotsu ta sendoa bear da lenen, eta ziñeste sustraitsurik, Kristiñau Ikasbide barik ez dago.

Orixe dala-ta, egiz «Kristiñau Ikasbidearen Aita Santua» deitu geinkion XI'n Pio'agurgañiak, bere bizitza gustian zaletasun gustien gain Kristiñau Ikasbidea irakasteko euki daben zaletasuna, Aita Santutzan bear ba'da geyagotu egin dau. Berak gai onetzaz artu dituan erabagiai begirakada bat emonda bakarik ikusi geinkenez. Baña onetzaz, Y. L. astiro idaztiño baten itz egiteko asmoa daukagu -ta, gaurkoz oraintsu emon dituan agindu bi baño ez dituguz aitatu.

Gaur batez be beañeko gauza da

1929'ko Azila'ren 25'n, irakaskintza arazoa dauken lekaide ta lekaimeen Buru diranai zuzendutako idazki baten, ara ardura ori daukon Eleiz Batzak diño-ana: «Kristiñau Ikasbidea arduratsu ta benetan ikastea, noraño beañekoa dan argi-

ro ikusteko, argiro onetantxe agertzen da: egitez kristiñau bizitza eukiteko, bear-beareko dan ziñestea, Kristiñau Ikasbidez asi ta sendotzen da. Gaur bariz bear izan au berariz somatzen da, Yaungoiko, Uzkurtz (erlejiño). giza-gogo, gizarte, eta gizonaren betiko elburuatzazko guzur astunak baster gustietan zabalitzen diralako».

Yaungoiko Zale'ren asmoak auñera eroatea ba, iñoz baño bearekoagoa dala, Eleiza Ama'ren agindu onetan argiro ikusten da.

“Ezyakin aldia”

1929'ko Dagonila'ren 28'n Idazki baten Eleiz Batzak, abadeak Kristiñau Ikasbidea eñari irakasteko dauken arazoari, «yaupari-arazo gustien oñari eta onura ta auñerapide gustien artean eragile garantzitsuen» dala diño, «batez be apostoluen itzez «ezyakin aldiak» egiz deitu geinkioen aldi oneitan. (1) Eta tamalez, arazo au saritan bastertuta ikusten dala diño, Kristiñau egi-lenak eñari ta umeai be iñondik egoki ez dan eraz irakasten yakezala; tamalez Yermias Igarleak negarez iñoana esateko eraz: «Umeak ogia eskatu eben, eta emongo eutsoenik ez zan aurkitzen». (Lam. IV, 4). (2)

Umeai iñondik be egoki ez dan eran irakasten dautsienen artean, ume euskeldunei erderaz irakasten dautsienak ez ete diran sartzen? Aituten ez daben izkuntzan irakastea iñondik be egoki ez dan era ez ete da? Beraz bide zuzenagorik ete da «euskaldunei euskeraz» irakastea baño, *Yaungoiko Zale*»k beti aldeztu dabenez?

Eta gure asmoak, Eleizaren asmo berberak ba'dira, zer dala-ta kolejio ta ikas-toletan, ez ete dira betetzen? Eta bete eragiten ez ete gara alegindu bear? Eta orotarako «Kristiñau Ikasbide Eguna» egokia dalarik, Egun ori albait andikiroen ospatu daiten gustiok ez ete gara alegindu bear?

Ekin dayogun ba, bazkide maiteok, Eleizan ain gorengo mañan ipinten daben arazo bikain oneri, lanik onuratsuena orixe izango yaku-ta,

Abadeen zeregiña “bakañik”?

Ikusten dana ikusita, uste izan leike, Kristiñau Ikasbidea irakastea yaupari (abadeai) leporatu dauskuela. *Legez* guraso ta irakasleak gai onetan eginbear astunak daukez, eta egunen baten kontu estua emon bearean aurkituko dira, baña gaur *egitez* zeregin ia geuri leporatu gura dauskue au. Egia da, gure eginbearik astunena dala, baña guraso ta irakasleak be, oretan erantzupenik garatzena euko dabe. Alan da be, Tores eta Bages, Gotzain agurgari ta yakintsuak esaten eban: «Gaur mundura datozen, umeai Kristiñau Ikasbidea irakasteko ardurea, ia abadeen

(1) Totius veluti sacerdotalis ministerii fundamentum esse, ejusdemque fructuum et progressionum causam praesertim temporibus, quae apostolicis verbis *tempora ignorantiae*. (Act XVII-30) vere dici possunt. (Litterae ad Archiepiscopos, Episcopo aliosque locorum ordinarios de studiis Orientalium veruum et de catechesi in seminariis impendius excolendis—29 aujusti—1929).

(2) Hanc proh dolor saepenumero neglectam videmus, et aud raro ineptissime tradi plebi christianae ac pueris ipsis prima religionis elementa; ut illud dolendum sit Jeremiae prophetae ingemiscentis: *Parvuli petierunt panem et non erat qui transferet eis*. (Lana IV-4),

gain bakañik bota dabe. Ikastola askotan, azal-zaletik baño ez da irakasten, eta batsuetan txarto, eta ori kristiñau ikastolatzat dagozan artean be bai» (1).

Gotzain yakintsuak idatzi ebanean baño ondiño egia andiagoa dalako, goazan bidetik, ikastolak gora-bera geure gain «bakañik» arazo ori artu bearko dogula uste izan edo beintzat alan balitz letxe ointxegandik alegindu bear gara; gai onetan egin geinken gustia be geyegi ez da izango-ta. Oretarako gustiok batera yo bear dogu, anaitasunean lan egin, era gustietara, Kristiñau Ikasbideaganako zaletasuna zabal-tzen aleginduta, eta beintzat, Kristiñau Ikasbide Egunari gañantzirik andiena emon-da.

Gertau gaitez an ba, Kristiñau Ikasbide egunerako, eta, Yaungoikoa'ren guraria da-ta, gustiok batera ekin eta yañai...

GAMA

(1) Ejemplaridad de S. José Oriol. Pastorales, tom. III, 149'n ing.)

BIOTZ-EGARÍA

- Oldostu-nayak ekarten daustaz ames gozoak
une gustietan,
- neure biotza obaren bila nabaitzen dot nik
beti amesetan.
- Yakin-gurean kili-kilia, atsedeen barik,
darabilt bafuan,
- oron Egile maitagarían oñatza dazaut
egafi gozoan.
Ene gogoa argitarako egiña da-ta
argi bila nabil,
- aseko nabien itufi ori neuregantzeko
yoranak narabil.

- Ez da bidezko egafi ori asetu naya.
- niretzat bizia?
- Ez daust ofexek argiratuten laño artean
dagon eguzkia?
Ori dala-ta laño baltz ofeik ufatu arte
ez dot atsedeenik,
ofetarako gogo bizia ez dan tokian
ez dago biotzik...
Auffera bada ene gogoa bizitza-zear
beti amesetan,
ames gozotik esnatutean aurkitu zaizan.
Yaunan besoetan..:

AU, ORI TA BESTEA

Umeak nagosiaren eredu.

Umeak maitagarri egiten dira, ekar, lau eta tolesgeak diralako, baña batez erugabeak diranez, euren biotza itz eta egiteetan agertzen dabelako. Umea *ume* dan artean, dan lez agertzen da, maltzurkeria zer dan be ez daki eta orek edonor be maitagarri egiten dau. Gure Yaun maitea ba, ain ume-kutun izan zala ikusteaz ez gara aritu bear. Ez da umeak nagosiontzat eredu ta yaraibide lez aurkezten dauskuzanean.

Mateo deunak diñonez, (XVIII - I...), egun baten bere ikasleak eldu ta Yesus' eri itandu eutsoen: «Zeruko bakalderian nor dala nagosi uste dozu? Eta Yesus'ek ume bateri deituta euren erdian ipiñi eban, eta esan eutsen: Egi-egiz diñotzuet, biurtzen ezpazare eta ume lez egiten ezpazare, zeruko bakalderian ez zare sartuko». Eta apaltasun eredutzat axe umea ipiñi eutsen.

Beste onbideetan be ikasbide ederak emoten dauskuez sarri askotan. Ara gai onetzaz

Vazokun samur bat.

Egun gitxi dala, Milan'go uri ospe-tsua, Kristo'ren Eregearen aintzaz, bigarera lateri batzar orokora ospatu da. Amayeran ibildeun edera egin zan. Eta ibildeun onetan *L'Italia* izparingiak diñonez, neskatotxo bat ikusi eben, al eban indar gustifagaz, larosa bat Yaunari yaurtiten. Kustodiaren ari-bitxiak yo ta larosa ori luera yausi zan. Bereala nes-katoa larosaren bila areta andiaz asi

zan, eta ainbesten artean ibili ta ibili bai idoro be, bereari ezaugarri bat egitea otu yakolako. Eskuratu ebaneko maitasunez mun egin eta biotzean estutu eban.

Eta bere lagun bateri esan eutson: Auxe da nire lorea, eta neugaz eroan bear dot. —Zegaitik baña?—lagunak esan eutson —Eta neskato begikoak erantzun eutson:—Yaunari ikutu dautsolakol...

Ikasbide edera kristiñau askorentzat. Neskatotxo onek agertu daben ziñeste samur eta sendoa biotzen yaube egingo ba'litz... Eta *Yaungoiko Zale'n Kristiñau Ikasbiderako* gertatzen diarduzuenok,

Ikasi! Ikasi!

Neskato onen antzera, Yesus maitatzen, eta Kristiñau Ikasbidea ikasteko asmoaz eskuetan artzen dozuen bakoitzean, gomutau ainbeste maite zaituen Yesus Berberaren irakatsiak antxe dan-kozuezala, eta bere gurari bizi-bizia dala, egi orein bidez zeuen adimenari ikutu eta zeruko argiz betetea...

Pozez beterik ikasi ba, zorioneko bidea «Kristiñau Ikasbidean» ikasiko dozue ta. *Gogoz* ikasi, yakin bear dozuezan egirik bearekoenak, «Kristiñau Ikasbidean» daukozue ta. Eta *maitasunez* ikasi, ainbeste maite zaituen, eta geyen maitatu bear dozuen Yesus' eganako maitasuna «Kristiñau Ikasbideak» irakatsiko dautzue ta. Gaur Yesus'ek eskitzen dautzuen lora edera, «Kristiñau Ikasbidea» da, eta lora ori maite izanda, emongo dozuezan igaliak, Yesus'ek geyen *maite* dituz...

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santu ta Langileak

Bere aufetiko Doipuruen antzera, XI'n Pio agurgaria langileen egizko Aita dala ezagutze-ko, Bera ikertzen doazanean egiten dautsen afera samura eta itzaldi edefak gomutatzea naikoa da.

Egun gitxi dala, Napoles eta Italia-ipar aldeko euntoletako 4.000 langile Eroma'ra bidezkundez eldu dira. Aita Santuak berarizko afera samura egin dautse, eta egin dautsen itzaldi edefean lanaren edertasuntaz goralben andiak egin dautsez.

Bere bizitzako irurogeta amalagaen urtean sartu dala esan ondoren, itz eder eta gomutagafi oneik esan dautsez:

«Une onetan nai ta ez gomutau bear gara Gu bearginen seme ta langileen artean yayoak gareala; euron artean Gure gastearoa igaro genduala, eta beti, Gure bizitzako aldi gustietan, langileen alaitasunetan eta naigabeetan be beti tarteko izan gareala. Baña zuok Geure aufean ikusteaz ain zoriontsu ba'gara. batez be, lana maite-maite dogulako, ta lana gorengo mañan dagoala uste dogulako da.

Gu ba, Yesu-Kristo Gure Yaunaren Ordezko gara; Yaungoiko izan eta langile apalen artean bizi gura izan ebanena; Berak Yaungoikozko nekeen bidez, lana deundu, goratu eta yaungoikozkotu egin eban, beferoste ta goratzeko bide egin, lana gure gogoentzat auxe dala irakatsiaz: gure obenen oben-neke edo penitentzia, kristiñau-onbideen inarkuna, goi-eskafa geuregan-tzen daben otoa, eta zerurako irabaziak ugari-izeko ituria...»

Gaurko langileak irakatsi edefok gogoan artuko ba'lituez, beste zer bat izango litzake gitxiartean.

Deun eta Zoriondun bariak

Aita Santuak bere Yubileo urtea yai andiekaz amaitu gura izan dau; deun eta zoriontsu bariak iragarteko Batikanu'n egiten diran eleizkizunakaz. Bagila'ren 8'an Frasinetti Paule zoriondun zala iragafi eban, lengo zenbakian aitatu genduez.

Ilaren 15'n Aita Santuak *Konrado Parham* zoriondun zala iragafi eban. Alemandafa da berau. 1818'n yayo ta 1894'n il zan. 31 urtedun zala, kaputxindafetan sartu zan, eta bertan atezain 40 urte igaro zituan. Apaltasun andikoa, ekafa, eroapentsua otoi-zale eta geide maitale sutua izan zan. Mirari andiak egin zituan, eta bein baño geyagotan, eske eltzen yakozen bear-tsuen alde ogia ugaritu.

—Bagila'ren 22'n beste emakumezko bi deunen izendegian ipiñi ditu. Bata Luzia Filippini 1672'n Italia'n yayo ta 1732'n il zana. Au Kristiñau Ikasbide zale txiki-txikitatik izan zan.

Bere trebetasuna ikusirik bere txauburuak besteai irakasten ipiñi eban. Onetarako yayoa zala zirudien, eta Barbarigo kardenal eta Kristiñau-Ikasbide zale ospetsuaren laguntzaz, araso bikain ofetarako Bazkun bat eraldu eban, eta besteai zeruko irakatsiak azaltzen bizia igaro eban. Katedistentzat eredu edefa!

—Bigafena Katarine Tomas deuna izan da. Mañorka yayoa 21 urtean agustindar kanoniga lekaime izan ondoren 1574'n Palma'n il zan. Le-kaimeari dagokion ixil bixitza, alatzez eta gelfa-gez bete ondoren, il zan. Bere gorpua, 350 urte igaro diran afen, oso-osorik dago. Il baño iru urte lerago bere eriotza eguna Yaunak agertu eutsonean auxe esan eban. «¡Ene Yaungoikoa, ondiño beste iru urte! Beste iru urte!»

Teresa Deuna ezkerotik España'ko latefian emakumezkozik deunen izendegian bat be ez dau ipiñi, Katarine deuna ila onen 22'n egin daben arte. ¡Bai uñiak dirala!

Onez gañera Kepa deunaren egurean Belarmino zorunduan, Kanada'tar ziñopak Brebeuf Yon eta lagunak eta Teofilo de Kurte pantzez-kafa deun iragafiak izango dira.

Lateri Batuetako Katoli-

✿ kofarak ✿

Ango aldizkingi ospetsu batek iragafi dabenez, Ipar Amerika'ko Later-Batzan lau kardenal, amabi Gongotzain eta eun eta amabi Gotzain dagoz. Abadeak 26.925'ra eltzen dira, eta oneit-atik 8.052 lekaide. Iges baño 572 geyago da-

goz. Eleizak txiki ta aundi 18.166, iges baño 250 geyago. Abade Ikastetxeak, mutikoentzat 218; neskatoentzat 745, eta 7 224 pafoki euren ikas tolagaz. 2.248.571 ikaslegaz

Umezurtzentzat 529 etxe, 51.523 umezurtzegaz, eta 624 erietxe 100.000 lagun egunero zaintzen dituenak

Later Batza'ko katolikotafak, Tlaska ta beste alderdi batsuetakoak zenbatu barik, 20.078.802 dira; iges baño 83 944 geyago Oneitatik katoliko zinestera biurtu diranak 38 252, iges baño 1655 geyago.

Otoi Bialguntza batzaña

Igaro dan ilean andikiro ospatu da Madrid'en Otoi-bialguntzak eraldu daben bigafen batzar latefitafa lizaldi edefak eta egokiak izan ziran, baña batez be ospetu ziran elizkizunen artean benetan edefa izan zan, Retiro egurastokian egin zan 50.000 umeen yaunartza orokofa. Saspi yaupa batera esan ziran eta umeai egozan toki-an sei abadek gure Yauna emon ouspen. Batzañak Pantzeska deunaren eleiza ospetsuan egin ziran. Eta amaitzeko Cefo de los Angeles'era bidezkundera egin eban egualdirik izan leikenik txafenagaz eta alan da be milaka asko bildu ziran, zinesmen sendoa agertuaz.

Aita Santua ta Egazkintza

Txinar Gotzain batek oraintsu Aita Santua ikertu dau, eta Aita Santuak adirazten emon dautso, safitan Bera ikertzen etofiko ba'litz pozik ikusiko leukela. Txinär Gotzañak ufin egoalako, osterea egiten ez zala efeza adirazi eutson.

—Baña ez, baña ez.—erantzun eban Aita Santuak—aldí gitxi bañu yoan-etofi ori egazkiñean al izango dozu Orduan ufin ez yatsu egingo, iru egunean etofi al izango zara-ta. Alan txinär Gotzañok, Geu ikusten safi etofi al izango zarie. Aita Santuak egazkiñetan itxaropen andia dauko, eta pozik ikusi dau Hlond kardenal eta Ungari Gotzain -buruak artu daben asmaoa: toki ufinetara, Gotzain-ikertzea egiten egazkiñez yoatea. Aita Santuaren eretxiz, Mixiñoen zabal-kunderako egazkiña gauza edefa izango da.

Pentekostes baña

Orixe izan dala esan geinke Pentekostes egunean, Batikano'n Aita Santuaren afean egin

zan irakaskintza batzaña. Bertan bildu ziran «Gregoriana» Ikastetxe nagosian ikasten dagozan, 4.000 ikasle ludiko baster gustietakoak.

Doipuruari agufa Ledotxowski Yosulaunen Buru dan Abak egin eutson eta bereala filosofi ta Teoloji gayetzaz, saspi latefitako beste ainbeste ikaslek itzaldi sakonak egin zituezan.

Seik lateraz itz egin eben eta saspigafenak italeraz. Onen ondoren *befogetazortzi* ikasle befogetazortzi latefitakoak Aita Santuagana zuzendu eskua mun egin eta bakoitzak bere izkuntza gustiak entzuteko eran, maitasun agufa zuzendu eutsoen. Ezpai barik uste dogu, gure euskera gozoa be tardean izan zala, ikasle ofein artean ainbat euskera maite dabenak ezagutzen dituguz-ta

Asmo begikoa benetan, eta atsegingafia gusion Aita dan XI'n Pio agurgafiarentzat.

Izpar txorta

Garagafilaren 25'tik 27'ra Lourdes'en Andra Maria Guztiz Garbiaren aintzaz Batzar edefa Lourdes'en ospatuko da. Aita Santuak Batzar au pozez onetsi dau ta agindu be bai Bere orde-laria Batzar ofetarako izentauko dabela.

Batikano'ko radio ifatizkiña laster amaituko da, eta diñoenez Europa'ko indartsuenetarikoa izango da.

Mantxester'en Pentekostes barikuan, ibildeun edefa ango katolikotafak egin dabe 20.000 ume bertan bildu ziran.

Korpusti egunean. Berlin'en ibildeun ospetsua egin da. Ibildeun onen buruan, Alemania'ko kanziñer Brüning eta beste lau ministro yoan dira: Wirth, Stxaetzel, von Gerard eta Stegerwald. Reist'eko eresbatzak, eleiz eresiak yo ditu

Milan'en Agustin deunaren XV'n eunkia ta Kristo'n Efegetzaren zabalkundez, italitar bigafen batzar orokofa eginda. Lau egunean izlarik bikañenak itz egin eben, eta azkenez dela Tofe kondeak, «L'Osservatore Romano»n artezkariak, Kristo'ren Gentza Kristo'ren bakaldeñan gaitzat artuta itzaldi yatofa egin eban.

Eukaristi ibildeun edefaz amaitu zan 10.000 lagun baño geyago bilizen ziralarik.

KRISTIÑAU - IKASBIDE EGUNA DALA - TA

Ikasbidea ❀ ❀ ❀



MEAKAZ egiten diran yayak, beti alayak, beti pozgarriak eta biotza nasaitzen dabena izaten dira. Euron artean gizartean somatzen diran atzera eragiteko gauzarik ez da ikusten, ekar, argi, lau eta maitagarriak diralako. Eta batez be, yayok, umeen arteko bitza lez, autuak, onenak, eta Kristiñau-Ikasbide-zaleak diranean, azaldu ezin leiken beste *zer* bat oartzten dogu. Ortxe bai ikusten dala, eta argiro atan be, umeak luřeko baratz onetako lora ta apaingarri dirala...

Igaro dan igandean ba Gernika'n euron artean igaro gendun eguna guretzat pozgarriena izan zan. Batez be eleizan bertan egin yakezan itaunai, bost urtetik asita amalaurañokoak, zoli, ezpai barik eta bildur barik, Kristiñau-Ikasbideko itaunai erantzuten ikusiaz, *oin bederatzi* urteko Kristiñau-Ikasbide «baria» gatxa dala esaten dabena gogoratzen nintzan... baita ori aitzakintzat artuta, ez bata ez bestea ganoraz irakasten ez dabena... Ume maiteok, erantzun edera, ta yari-bide ohea emon dautsozue *ikasi gura dabena*...

Bide zuzen bakaña ❀ ❀

Zuok ume maiteok artu dozuen bidea. Euskeraz Kristiñau-Ikasbidea ikasteko bidea artzen ez dabena oker dabil, bide zuzen eta bakaña euskaldunei euskeraz irakastea da-ta. Au era gustietara, eta ia eten barik, toki onetan azaldu dogu, eta orixe esan eutsen Ituraran yaun agurgariak enparantzan bildu ziran ume ta gizoste ugariari: «Euskaldunei euskeraz irakastea beareko gauza dala, ta itxukeri ta gaiztakeri andia euskaldunei euskeraz ez erakustea; deabruak asmautako gaiztakeria, Kristiñau-ikasbiderik ez irakasteko; erderaz irakastea ingles irakastea aña izaten

dala-ta, ezer ez dabelako ulertzen; orixe dala-ta guraso eta maixuak be, euskaldun umeai euskeraz zeruko bidea irakatsi bear dautsiela» argiro azaldu eban. Itzok beste askotan lez aizeak eroango ete ditu? Itzok esan diran erian, bete bearrik ez ete dago? Ba, bete nai ez bete, orixe da bide zuzen, bakaña. Beste bideak astia galdu ta onura gitxi atarateko aukerakoak dira.

Kristiñau Ikasbidea goraltzen

Egun gustia Kristiñau-Ikasbideari opaltzea, yakingai bearekoa goraltzeko bide egokia da, ainbeste lagun, beste asmo barik bilduta, Kristiñau-ikasbidearen edertasunak itzez eta egitez eta yañabidez gorengo mañan, zor yakon mañan, ipintea da-ta. Orixo dala-ta, Kristiñau-Ikasbide-Eguna, egun onuratsu ta itxaropenez beteko eguna dala edonork autortu bear dau. Kristiñau-Ikasbidea ikasi dabelako pozez beterik bialtzea, obeto ikasteko poztutea da, eta Egun au gomutagaña umeentzat dala ikusteko, aurreko urteetan azertu genduzan umeak egiten dauskuen añera ikustea baño ez dago. Beraz egun au abadeak lagungaritzat artu ta ondo urten dayen alegin gustiak egin bear dabez, eta irakasleak be egun onetako pozagaz umeen biotzak erezagorekanduko dituez. Egun au ba gustiontzat da onuratsu, pozgari eta itxaropenez betea. Egun oneik, legamien antzera, lo zoñan dagozanak yagiko ditu. Ekin bide oretatik Kristiñau ikasbidea goraltzen, bakoitza, sendia, eta gizarte ondamendiko bidetik aldendu leikena idaztiño goitar ori bakañik da-ta!

Ikasi ta egin ba... ❁ ❁

Kristiñau-Ikasbidea ondo ikasten dabenak, bete barik laga leike, baña ikasten ez dabenak ezin bete lei, eta ondorenak negargariak dirala, egunoro dakusgu, baña batez be yazokun onetan ikusi geinke:

Gabilard eritxon batek oraintsu beste bat erail eta, Vannes, Prantzia'ko urian urkamendira eroan dabe. Burua mostu baño lenago bere aldezlari izan dan lege-gizonari auxe idatzi dautso:

—«Nik egin dodan gaiztakeriagaitik Yaungoikoari parka eskatzen dautsot. Neuk ixuri eragin dodan odolaren ordez neurea eskintzen dot.

Kristiñau Ikasbidean irakatsi eustenari yañaitu ba'neutso, ni emen ez nintzake aurkituko. Yaungoikoari otoi egiozu, Berak parkatu dagidan. Nik zure alde z otoi dagit».

Ondiño aste batzuk dira au gertatu dala, eta argiro ikusten eban eraileak, bere zoritxañera, Kristiñau-Ikasbideko irakatsiak aintzat ez artzeak eroan ebal.

Amaitzeko Gernika'n aurkeztu zarien ume ta irakasleoi zorionak, eta batez be txapeldun izan diran Nabarniz eta Mendata eredutzat artuta jekin eta yañail...

AU, ORI TA BESTEA

Kristiñau ikasbidea irakatsi

«Yaungoiko-Zale-Bazkunak», zortzi urte oneitan bakoitzean amar amabi efitako umeakaz yai edera egin ditu. Azkenengoa Gernika'n izan da. Inguruko eriak polito erantzun dabe ta sariak ugari irabazi be. Zeintsuk abade ta irakaslek gogoz lan egiten daben, umeak agertzen dabe. Ederto eta auera eten barik! Euskaldunei euskeraz Eleizak gura daben lez irakatsita. Onan leyar garbi-zear argia igaroten dan lez, Kristiñau Ikasbidea umeen biotzetan sartzen. Eta euskeraz irakatsi ezik... margodun leyar batetik igaroten dan lez, auzita, indar barik, sustrai barik... Irakatsi ba Yaungoikoak gura dauan legez...

Eredu Bikaña

Kristiñau Ikasbidea irakasten bikaña oraintsu Eleizak deun iragarí daben Roberto Belarmino deuna da. Kapua'n Gongotzain egoala, Eguen Gurenez, oi eban lez, amabi beartsuri oñak garbitzen ziarduala, Kristiñau Ikasbidea itanduten asi zan. Eta oartu eban, Kepa deunaren tokian egoanak, eun urte eukozan agurreak, *Kredoa* ez ekiala. Eta samintasunez malkoz beterik esan eban. ¡Eun urtean gizon oneri *Kredoa* irakasteko gizonik ez da egon Kapua'n? Orduxtetik len baño ardura geyagoz irakatsi eta irakatsi eragiten bere goterkian alegindu zan.

Geure artean amaika aurkituko geunkez, *Kredoa* eun urte baño lentxoago azlu yakienak. Zergaitik? Ez ikasi ez

dabelako, baña bai euskaldunak izan eta erderaz, sustar barik, ikasi dabelako. Gero, ziñestea epelduez doala, ez yakina zabalduz, eta iletaz... Zer egiten dozu bear dan lez irakasteko?... Zer, irakasten dabenai laguntzeko? ¿Ezer bez?... Orduan eskubide bat bakañik daukozu... Ixilik egoteko eskubidea.

Zergaitik ez?

Gaur euskaldun umeai, Kristiñau Ikasbidea euskeraz irakatsi bear yakola ukatzen sentzundunik ezin leiteke asartu, sentzunak eskatu ta Eleiza Ama'k agintzen dabena da-ta. Baña, alan da be, *egitez* egi argi au ukatzen dabenak, auzez aurkitzen dira. Euskaldun ume asko dagozan eriak ezagutzen ditugu, umeai Kristiñau Ikasbidea, erderaz irakasten yakenak. Ori zer dala-ta? Ume euskaldunei, euskeraz zergaitik ez yake irakasten? Zergaitik ez?

Lengo egunean, Gernika inguruko erietatik bilduta ume talde edera, zirt eta zart, Kristiñau Ikasbideko itaunei erantzuten ikusirik, bertako taldeixo bateri itandu neutson eta erantzun be bai eurak euskaldunak zirala, baña kolejoietan erderaz irakasten eutsiela... Orduan neure artean egin neban; Eleizaren legeak norrentzat emoten ete dira?...

Emendik auera, olan ba'goaz, *Gernika'ko Arbola da bedeinkatua... Eman da zabal zazu «Gernika»n frutua...* esan bearko dogu...

KATOLIKO IZPARAK

Deun bariak

Gure Aita Santu agurgariak, Yubileo urtea amaitzeko deun iragartzeko bariak egin ditu. Deunen izendegian zortzi ziñopa ipiñi dituz, Kanada'n Uroadafak erail ebezan bost yosulaun; Brébeuf Yon, Laïemant Gabirel, Antoine Daniel, Txarles Garnier ta Noel Txabanel, eta beste iru Latefi Batzan Iroketafen artean Kristo'ren aldeiz bizi emon ebanak; Isaak Joges, René Goupil, eta Yon Lande. Gustiok 1642 ta 1649'n ikaragarizko oñazen artean bizi emon eban eta Eleizak gustiak batera Deunen izendegian ipiñi ditu. Ogei kardenal eta Gotzañak ugari izan ziran eleizkizunean.

Egur ofetan bertan Bagila'ren 29'n, beste deun bi iragafi ditu: *Roberto Belarmino* deuna, yosulauna, eta *Teopilo de Korte* pantzeskatafa.

Belarmino deuna, 1542'n yayo zan, Montepulziano, Toskanatafa izan zan. Amabi anaitatik irugafena. Bere osaba Marzelo Zervin Aita Santu izan zan, baña aututa ogetabi egun bafu il zan.

Yosulaunetan 1555'n ikaskizunak egiten asi eta bertan gelditu. Florenzia, Mondobi eta Lobaina'n lenengo ikasle ta gero irakasle izan zan. Bere yakituri andia zala bide Efoma'ra deitu eutsoen eta an irakasle egoala, Aita Santua'k kardenal autu eban, eta iru urte geroago 1602'n Kapua'ko Gongotzain eredu, idazle ta Aita Santua'ren eskubideen aldezele kementsua izan zan, eta batez be Kristiñau Ikasbidega irakasten eta irakatsi eragiten gitxi lakoa. Kristiñau-Ikasbide-zaleak badaukogu onetan eredu bikaña. 1621'n il zan.

Teopilo de Korte Korzega'n 1676'n yayo zan. Gastearo yaunkozale ondoren, pantzeskafaretan sartu zan. Lenengotako araudi latza, lekaretxetan zearo betetako, Sabina'n, Korzega'n ta Toskana'n irasi zituan. Oneitariko baten Futza-

txio'ko lekaidetxean deun au il zan. Bere goi-maitasunak bizi kendu eutsola esan geirke. Il baño saspi egun lenago, osatebakuntza beafekoa egin biarda, osagilea bere zeregiñean egoala, txarto egoan bateri elexakoak eroateko deitu eutsoen.

—Zakarias Lukes abak, berak eroango eutsola, esan eutson.

—Ez ene seme, erantzun eutson, neuri deitu daust ta neu yoan bear naz; maitasun-egintza au neuk egin bear dot. Andik saspi egun bafu 1840'n il zan. ¡Oin deunik ez dala egiten, lelo-lelorik uste dabenezta, ara or amar deun eta bikañak atan be. ¡Aintza eurai!

Kardenal bariak. Aita

Santua' ren itzaldia

Iragarita egon dan lez, Aita Santuak, Bagila'ren 30'ko Konsistorioan, lengo zembaki baten aitatu genduzan, Leme, Martxeti, Rossi, Serafini ta Lienart yaun agurgariak kardenal egin ditu, eta, oi dabenez, Aita Santuak itzaldia egin dautse, aldi oneitan izan dituan poz-atsekabeen bafi emoteko. Yubileoa dala-ta, alderdi gustietako kristiñauak agertu dautsen maitasuna; Kartago'ko Euskaristi Batzafa, bere biotza ainbeste itxaropenez bete dauana, eta deun izendegian bitarteko ainbeste deun iragartzeko egin dituan eleizkizun edefak, pozik andiena emon dautsi-enak izan dira.

Poz onein inguruan, atsekabeak ibili dabiltz. Efoma'n, biztanleak ainbeste ugaritu diralako, pafoki bafien beafizan andiak emoten dautsen buruaustea naiko ez dala, agintariak protestantetafai, euren ziñeskerak zabaltzeko emoten dautsen azkatasunak, bere biotza naigabez bete dau, ainbeste pozez kristiñau gustiak, izenbetuta

ikuski eben Itunbenaren aurka dagoalako. Rusia'ko yasarpena dala-ta, albait lastefen amaitu daiten oitotz egin eta berberori egin dayela abadeai eta eskatzen dautse.

Azkenez urte onetan bere biotza asko naigabetu dauana Malta ugarteko auzia izan da. Auzi au, beti lez, agintariak eurai ez yagokezan gauzetan sartzetik sortu da. Ingalanda'ko agintariak, idazti bat auzi onetzaz argitaldu dabe eta Aita Santuak «Idazti Zuria»z erantzun dautso. Idazti ofetan agertzen danez, auzi onetan efudun, argiro, Malta'ko yaurleri Lord Strickland da. Agindunai, burugogor eta auzi-zale utsa bizi gustian izan da, eta ezagutzen daben gustiak aintzakotzat dauke. Ba auxe Eleizaren eskubide agiriaren aurka yaiki dalako, Gotzaniak aurka yaiki yakoz, euren eginbeafak eskatzen eutsenez. Aita Santuak Ordeleria bialdu eban, eta argiro ikusi da, Strickland ori katoliko buru egin afen, Gotzai eta abadeen etsai amofatua dala (gauza bakana ez da gero?) Gai onetzaz Aita Santuak batez be iru gauza esan dituz. Lenengo: Aita Santua ta Gotzaniak auzi ori sortzeko biderik ez dabela emon. Bigaferen, Aita Santuak bakeak egiteko egin dituzan alegin gustiak, notin eta egite batsuk bitarte izan diralako alpefekoak izan dirala. Irugaferen, Aita Santua ta Gotzaniak auzi onetan politikan ez dirala sartu, euren eginbeafak eskatzen ebanez, katolikoai eginbeafa azaltzen baño. Euren arazoa orixe da.

Vannuteli kardenalaren eriotzea

Toki onetan ainbeste bider aifatu dogun Vannuteli kardenal ospetsua iña onen bederatzian il da. Berau izan da kardenal gustien artean zafena, eta azkenengo unerarte burua argi euki dau, eta il zan egunean bertan, bere lanakaz arduratu zan. Gizon ospetsu au asko ikasi ta asko ikusia zan, eta ia lengo gizaldi erditik onaño Eleizako arazoetan tarteko izan da.

1856'n Genzanno'n yayo zan, eta 24 urtegaz, oin 70 urte, lenengo yaupa emon eban. Ikastetzeko irakasle, ta Olanda eta Belgika'n, Aita Santu Ordeleritza idazkari izan ondoren, 1875'n Aita Santuaren idazkari ordeko izan zan. 1880'n Konstantinopoli'n Aita Santua'ren bialdu izan zan, eta 1882'n Lisboa'ko Ordeleri. 1889'n kardenal egin eben eta Aita Santuaren ordez Rusia'ko III Alexander'en burestuntzara yoan zan.

Kolonia, Metz eta Bruselas'ko Eukaristi Batzafetan ordelari izan zan eta 1900'n Palestrina'ko Gotzain etag eroz Eleiz Batzen buru urte askotan izan da. Berau izan da kardenalik zafena. Idazti asko ta ederaf argitaldu ditu kardenal ospetsu onek. Eleiza'ren aldez ainbeste lan egin ondoren, irabazi daben saria ugaria izango dau.

Aita Santua'ren osasuna

Aita Santuaren osasuna dala-ta, zufu-mufu guzufezoak zabaldu dira-ta, izpafingiak beti lez or ibili dira guzufa dariola.

XI'n Pio'k, bere 73 urteak gora bera osasuna daukola ikusteko, egunero egiten dituan lanen bafi emotea naiko da. Goizean asi ta gaba ondo sartu arte, eten barik lan egiten dau. Goizean Mesa emon ondoren goxaldu ta zortziterdietan eldu diran Iudiko bafiak emoteko, ordu bete Pazzeli kardenal idazkariagaz igaroten dau, ainbeste ta ainbeste erabagi emonaz. Gero Eleiz-Batzetako kardenal artzen ditu, esku arteko auzietan erabagia emoteko eta ondoren latefi-ordelari ta Iudi gustitik eltzen diran Gotzaniak, ondoren bideztiak eta, ugari izan afen be, Berak bakoitzari erestuna mun egiteko emoten dautse, eta ori bideztiak milaka izan da be bai. Eta gitxi naiz asko, gustiai italeraz, pantzeraz edo alemaneraz itzaldia egiten dautse.

Bazkaltze ordurako geyenez ordu bateterdiak, izaten dira, safitan ordu biak eta baita irurak be. Laurak inguruan egunoroko ibilaldia egiteko baratzetara yasten da. Egualdi ona naiz txafa izan, ordu biko ibilaldiau beti egiten dau, eta zortzi urte oneitan egun gitxitan itxiko eban. Auxe da bere yolas bakafa.

Egurastetik biurtzen danean, bafiro lanari ekiten dautso, ikertzeak eta abar, bederatzia eta beranduagorarte be bai. Gero apari-izkia egin eta... bere idaztitegira yoanda, an bere betiko aizkide idaztiekaz amabiak eta geroagorarte egoteko...

Auxe da egunoroko bizitza, Pio XI'k Urtafila'ren 1'nk Lotaziila'ren 31'arte egiten daukana, udaldian iru astean audientzi barik egiten dituan egunetan izan ezik. Eta Urte Deuna eta aurten lez Yubileo urtea danean, lana ikaragafia izaten da, eta alan da be, zortzi urte igaro ditu XI'n Pio agurgafiak ondoez txikien barik. Ez da gauza afigafia, bere adiñeko gizon batentzat? Ondiño lengo ilean, 22 ta 29'n goizeko 8'tan baraurik Batifano Eleizara yatsi, Mesa abestu

ta deunen iragartze yaya eginda ordu batetan bere gelara biurtu zan, neken ezaugafirik agertu barik. Auxe naiko da Aita Santua'ren gexoatzaz zabaldu diran zuñu-muñuak guzurtatzeko. Yaungoikoari eskeñak egin dayoguzan ba, eta eskatu urte askotan osasuntsu zaindu dayela.

Lourdes ta osagileak

Amerikar osagile taldea, eun inguru, Europa'ra ostera bat egiten etofi dira eta Lourdes iker-

tutea otu yake. Gotzaña ikertu eben eta, geyenak protestanteak izan afen, batek itzalditxo bat egin eban, ziñeste gustietakoak *itzalez ikertu bear daben* txoko au ikusteko zoriona euki dabela agertuaz. Gotzain yaunak, berak dakian lez, ederto erantzun ondoren, osagile-landolak ikertu zituezan eta ingalanderaz, aurtemin gertutako iru osatze gelgafi azaldu ondoren, afituta yoan ziran.

M'far G.

Ekandu garbien aldez



Etsairik andiena

Udaldian gagoz. eta urteko aldi onetan beste edozein alditan baño obeto ikusten da edonon ain goratuak izan diran eusko ekandu garbiak, baseririk urriñenetan euren burua eskutau eziñik, atzeritar oitura zantaren izkorenak bultz eginda. Non dira gaur dantza nastu galgariak sartu ez diran eriak?... Egia esan, bai'dira zorionez, Yaungoikoa'ri eskerak, izuri galgari orek kutsutu bakoak, bai'dira ondiño; baño zenbat...? Eta zenbat buruka ez ete dabe egiten ekandu garbiak zaintzeko!... Eta zorionekoak garaitzale urtetan ba' dabe.

Besteak, eririk geyenak, oitura zantari ateak idigi dautsiez, dantza nastu ezaiñak, moskorkeriaz alkartuta, egunez eta gabaz eri geyen «biziena» dirala esango ba'gendu... egia baño ez genduke esango. Eusko-erriaren izakera bereziak, etsai andiena ortxe dabela esango geuke. Gaur egunean *lotsabakokeria lotsabarik* agertzen asartuten ba'bada, gizarte-lotsea galdu dalako da, eta gizarte-lotsea galtzeko gaurko dantza nastuok baño bide aukerakoagorik txerenak be ez leuke asmauko.

Gaste gaxoak!...

Gastea erien bizia, poza, alaitasun eta itxaropena da. Erien etorkizuna gasteetan dago. Gasteria alai eta garbi zaint. en daben eria eririk zoriontsu eta goragarriena izango da. Baña ori gusti ori izateko, gasteak egiz gaste izan bear, gorpuz eta gogoz garbiak, ekandu onetakoak, euren bizitasun eta griñaren yabe diranak, ez txarbidean «aguretuak»...

Erien apaingaririk ederena, eta aberastasunik bikañena, gasteri garbi zintso

eta gordiña da. Eta gauza negargaria ez ete da, erien odasunik ederrenok «auzpo-yotzale» eta «ardao zaltzale batsueñ eskuetan ipintea? Samingaria ez ete da, eri agintariak, ekandu txarok galerasteko ezer ez egitea? Eta zer aurka egin bearean gaberdi ta goizalderañoiko dantza nastuei indara emoten ba'dautse? Orek erien ondatzale diralako, espetxe gogoñaz zigortu bear litzakez, gaizkilerik txarenak diralako... Bilbela bide zuzenetik erabilten ez dakian *txopeña* baño bapez obe!... Olango agintariak dagozan erietan, eta ez dira gitxi, azkatasuna, gastetasuna eta lotsaba kokeria alkartzen dira, eta naste oretatik gauza onik ezin urten. Gaste gaxo, eru kariak olango erietan bizi diranak, beti galbidez inguratuta bizi dira-ta.

Gasteen aldez gustiok alkartu

Orixe da egin bear litzakena. Eria egiz maite daben edonork, zuzen-zale bada beintzat, eri oitura garbien aldez al daben gustia egiteko gertu egon bear dau; beraz lenengo bazkuna, ekandu onen aldez lan egingo daben bazkuna izan bear leuko. Bazkun onek Eleiz bazkunakaz batean, edo euren laguntzaz, ekandu txarok baztertu eta gasterientzat, eritik urten barik yolas egin dayen, yolas garbiak eraldu ta batez eri yayetan arisku geyen egoten dan aldian, yolas alai, erikoi eta garbiak gertatzen lan edera ta onuratsua egingo leuko. Or baster gustietan ez dakusguz «Abera ta landaren aldezko bazkuna» zabaltzen? Abera ta landara gustiak baño, gasteen garbitasunak, edo obeto esateko gizatasunak ez ete dau balio?

Egia da Gasterien Bazkun eleizkoyak, euren egitamuan, ekandu onetan zaintzea daukela, baño bear dan eragipena eukiko ba'dabe, lagundu egin bear yake, ertz gustiak artu bear dira, eta oretarako, guraso, agintari eta zerbañt gizatasunen yaube diranak erian abadeakaz alkartu bear litzakez, ekandu garbiak zorionez zaintzen diran tokietan aldezteko, eta txarok sartu diran tokietan baztertze.

Ekandu onen esia

Gaur erietan bearekoa da. Gaiztakeria «barikeri» mosuaz baster gustietan lotsa barik aurkezten da. Ona dana «gixajo» tzat artzen dabe, eta ekandu garbia «soso» tzat, burubakokeria «gizonkerizat», eta zintsotasuna «pelkerizat». Ori olan dalarik, Katoliko Ekintzan zintso yokatu gura ba' dogu beste biderik ez dago, kristiñau egiaren bitartez, guzur eretxiak bastertutia baño; eta ekandu onezko esiaz eriak esitu, ekandu garbiakaz irauten dabenean, txar eta galgarietatik zaintzeko, eta kutsu galgariak yota dagozan erietan gaiztakeria, Paul deunak diñon letxe, ontasun ugaritasunaz itoteko...

Egi *zar* oneik baster gustietan zabaltzen alegindu gaitez, eta bakoitzat al dogun gustia egin daigun, geure eragipena eldu leiteken toki gustietan, ekandu onen aldez, batez geure asaben ekandu garbien aldez, gogoz eta kementsu yokatzen, ba gure Gotzain agurgariak Yantzi Nabarmenatzaz emon daben azkenengo aginduan diñonez, «lñok be ez dau aztu bear, ekanduen le egabekeria, ziñesge ta basatikerira atzera biurtzea dala; gustiak egitzat euki bear dabe Tom Mann'en esakun ospetsu au: *Etorkizuna eri garbieta izango da*».

AU, ORI TA BESTEA

Belarmino deunaren edeski bat

Oraintsu Eleizak deun egin dabean gizon yakintsu au, gastetatik izlari bikain azaldu zan, eta abade egin aurfetik itzaldia egiteko baipena emon eutsoen. Bein Lobaina'n egoala, bere izlari-ospea bereala zabaldu zan eta, alkarfen leyan gustiak itzaldietara yoaten ziran. Eleizak gonburu betetan ziran eta tokia gura ebenak bizkor ibili beara izaten eben.

Egun baten itzaldia egiteko eleizaruntz yoyala bidean gizon itzal andiko bategaz batu zan. Eta izlarien autura yo eben ta gizon ori inon diran goralbenak Belarmino'tzaz esaten asi zan. Bere ospe, yakituri ta deuntasuna goraltzen ekin eutson bitartean, Belarmino berekautan lotsaz beterik egoan.

Gizon arek Belarmino zanik ez ekian eta alditxo baten ekin ondoren, ikusirik Belarmino astiro yoyala esan eutson: «Ara; zure pausuan yoan ezkeru, itzaldia entzuteko tokirik ez dot izango ta, ni aurera noa, eta zuk eldu gura ba'dozu bizkor ibili bearko zara».

Orduan Belarmino'k erantzun eutson: Ordu onean yoan eta tokia artu zeinke eleizan; nitzat berandutxo yoanda be, itzaldi orotarako tokia izango da...

Eta andik laster Belarmino aba itz egiten agertu zanean, eta beragaz etofri zana zala ezagutu, gizon a, arituta gelditu zan ain apala zala ikusirik.

Keleme M. Ofbauer deuna (1751-1820)

Taswitz, Txekoslovakia'n yayoa zan,

Gastetan ogigiña izan ondoren, Eredentoristen Gopatzan sartu zan. Goi-maitasuna bere biotzaz yabetu zan eta urko lagunari on egiteko bide gustiak auke ratzen zituan. Egun baten beartsu ta umezurtzentzat ukara (limosnea) eskatzen ebalarik, gizon batek ixekaz txistua arpegira yaurti eutson, eta deunak laster erantzun be: «Au neuretzat, orain neure umezurtzentzat zertxobaik emon al ba' zendu...»

Erantzun onek gizon asaretia otzandu eban, eta ukar ugaria emon eutson. Bere ikurritza (lema) auxe izan zan: «Yaungoikoa'k nai dabena, Yaungoikoa'k nai dabenean eta Yaungoikoa'k nai dabean lez».

X'n Pio agurgariaren maitasuna

Gustiok dakigu X'Pio deun ospez il zala, eta geide-maitasunean galendu zala. Benezia'ko Patriarka zala, oso txarto egoan gexo bat ikusi eban, lufean lastamaraga txar bat be ez eukola.

Etxera biurtu zanean, bere artean esaten eban: «Nik oyan lo egingo dot ilten dagoan gexoa lufean dagoan bitartean?» Eta erukituta bere oeko koltxea artu ta lepoan ebala, gexoaren etxera biurtu zan. Gaba beranduan alango pardelagaz gizezkoa ikusi ebenean txinelak susmo txara artu eutsen, lapuren bat ete zan edo... Eta uferatu ta oratu ebenean... arituta gelditu ziran lapurtzat artu ebena, Patriarka berbera zala ikusirik, eta eurak lagundu eutsen koltxoya eroaten.

KATOLIKO IZPARAK

Aita Santuaren aldez lan

egiteko

Ingalanda'n aspaldi dago bazkun bat, *The Society for the maintenance of the Apostholic See* deritxona Aita Santuaren aldez lan egiteko sortua. Eta Parantzen oin iru bat urte *Volontaires du Pape* izenaz bazkun begiko bat sortu ehen asmo berberagaz. Ba Bazkun begiko oneik asmo edefa euki dabe. Lan bikain oferi onura geyagoz ekiteko latefi mugan gañetik alkartasuna egitea.

Oñetarako Montmartre 'ko Eleiza ospetsuan Eleizkizun edefa yaupa nagosia Bourne kardenal agurgariak abestuta, egin zan, Berdier kardenala bertan zala. Afatsaldean bafiro eleizan bildu ziran eta eleizkizun eta itzaldi eder ondoren alkartasuna izenbetu ehen. Bazkun onein asmoa Aita Santua'ren irakatsiak zabaltzea da -ta, gustiak, gustiz onuratsutzat etsi dabe, Aita Santua'k berak erantzuten zuzendu dautsen ufutidatzean, berarizko pozaz alkartze ori ikusi dabela diñotse.

Auxe dala-ta izparingi batsuk, alde gustietako katolikoak alkartuta, alderdi bat eraltzeko asmotan dabilzela esan dabe, baña ori ez da egia, alkartasun ori erlejiñokoya ta alderdi usain bakoia dala edonok daki-ta. Aita Santuak berberak ainbeste bidar ez ete dau esan katoliko gustiak, Eleiz-buru diranen agindupean lan egin bear dabela, baña alderdien gañetik egin bear dabela? Beraz alderdi usañeko alkartzeakaz esan dan gustiak sustefik ez dauko.

Protestanteak Eroma'rantz

Protestanteen artean, batez be talde batsuetan, Katolikotar Eleiza'ri len gofotatzen ebezan gauza askotan yafaitzen asi dira. Euron artean New York'en Andra Mari'ko protestante-eleizan Kristo Etege, Sortzez Garbiaren eta Yesus'en Biotzaren yayak ospatu dira. Protestantetafentzat gauzarik bakanena. Orixe dala-ta *episkopalliana* deritxon eleiza talde bitan banandu da. Bata Eromatafen oñatzai yafaitu gura dautsona,

ta bestea metodistetara makurtzen dana. Ori dala-ta asko katoliko biurtzen asi dira.

Euron artean ots andia egin dabena Selden P. Delany, New York'eko Andra Mari'ko oge urte baño geyagoan izan dana katoliko biurtzea izan da. Gizon yakintsu ta egi-zalea izan da ta Yaunak bideak argitu dautsoz. Haward'eko lkastetxean doktor txapela irabazitakoa da, eta *L' American Chuch Monthly* aldizkingiaren artezkaria. Baita katoliko ziñestera biurtu da, Harol R. Flower abade protestantetafa, Txikago'ko lkastetxe Nagosikoa.

Onez gañera beste batsuk be ba'dira bide onera yo dabena; Gilbert Harding, Kambridge'n ikasketak egia, eta Penn yauna oraintsu aitatu gendun Vernon yaun izlari ospetsuagaz. Au diñoenez beneditafetan sartzeko ei dabil. Yauna'ri eskefak egin dayoguzan, ain gizon argiak bide onera yo dabelako.

Ufengo Eukaristi Batzar

.. Orokoa, Irlanda'n ..

Aurten Kartago'n egin dan Eukaristi Batzafean artu dan asmoa ufengoa Irlanda'n ospatzea izan da. 1932'n ospatuko da. Toki ori autt dabe urte ofetan Patirki deuna ziñestea zabaltzen yoan zala 1.500 urte betetan diralako. Irlandar zintsoak Batzar ori ondo eralduten aleginduko dirala esan beafik ez dago, eta ointxegandik Dublin'eko udalak, Gotzañei eskiñi deutsez uri artako yatetxe ta etxeak. Eta ueste dogu irlandar katoliko sendiak, Txikago'n egin ehen antzera. erbestetik elduko diran bideztiari euren etxeak eufez eskiñiko dautsiezala.

Orain arte zertzeladarik ez dabe emon baña yairik ospetsuena Tara deritxon tokian Dublin' dik 25 milara dagon eñan izango dala dirudi, toki aretan Patirki deunak irlandar lenengo bakkalduna ziñestera biurtu ebalako.

¡Aintza Yauna'ri goyetan!

Ertiliarik gauzak asmatzeko ez dira txañak. Eta Paris'ko Katolikotar ertiliariei asmo begiko

bat otu yake. *Tour Eiffel* ospetsuan yaupa bat esan eragitea. Esan eta egin. Garagafila'ren 11'n etilari talde bat *Tour Eiffel*'era zuzendu ziran, beñola etilari ospetsu izandako, eta 47 urtegaz abade ikasketak egiten ekin eutson Buffet yaupari agurgafia lagun ebela. Irugafen onera igon eben eta bertan ondia gertau ta ixiltasunik andianean yaupa asi zan. Yaupa emoleak itzaldi egoki bat egin eutsen eta bildu ziranak gure Yauna artu eben. Mesa ondoren Eiffel'en galur-galufereano igon eta lafosak onetsi ta banandu ebezan, euren «eleizkizunaren» gomutakitzat. Abadearen onespina burua makurtuta artu eben eta yai begiko au amaitu zan. Ederto dago! Yauna toki gustietan aintzaldtu bear da-ta.

••• Misiño astea •••

Bagila'ren 29'tik garagafila'ren 5'arte, Barzelona Erakusketan egoan Mixiño yauregian. Mixiño yakidiatzazko batzar yakingafia egin da. Misiño arazoetan yakitunenak España gustitiek bertan bildu dira. Batzartxoak yaupari ikastetxean egin dituez eta gairik gafantzisuenak adiraldu, aztertu eta sustraiz azaltzen alegindu dira. Lan gogoz egin dabe. Astelenean asita larunbaterarte, egunean sei ordu batzafetan lanean igaro dituez. Befozetaka lanak aurkeztu ta batzafetan azaldu ziran, eta itzaldi edefak egin zituezan, batez be Kalaofako Gotzain, Kamarasa yaunak, Urbano abak eta Barzelona'ko Gotzain agurgafi lrurita yaunak.

Batzar au yakitunentzat izan da; alan da be asko bildu dira, eta atzeritiek be batsuk eldu dira, euron artean Belgika ta Alemania'tik.

Iges mixiño aldez bertan egin ziran yayak osotuteko aste au aukerakoa izan da, eta uste izan geinke onuratsua izango dala. Mixiñoiztia aufera eroateko asmoa artu da, batez be lendik abade ikastetxean landuten asita dagona, ofetarako beafeko Mixiño yakidi idazki bat argitalduta. Mixiño ikasketak yaupari ikastetxean aufera dagozala pozez ikusten dogu, eta onetan lenengo izan diran Gazteiz eta Barzelona'ko goterkiei, Burgos, Kalaofa, Tafagona, Iruña, Santiago ta Gerona'koak yafaitu dautse. Orixe da bidea. Buruz eta biotzez ekin belguntzaren aldez, Eleiza Ama deunaren guraria, beraz Yaungoikoa'rena, orixe da-ta.

Barzelona'ko Gotzain agurgafia, bertako agintariakaz itunduta erabagi txalogafi bat artu dau. Eleizakoak eroatean Gure Yauna'gaz doan bilbel edo automobila, Eukaristi iruditxoaz ikurintxo bat eroango dau, eta ezaugafi ori daroen bilbelai besteak tokia azke itxi bear daise aufera yafaitu dayen. Gauza efeza ta begikoa da, Barzelona lako uri batek yaunaren aintzaz egiten dabena. Aste batsuk dira erabagi ori bertan asi dirala. Ondo baño obeto dago ori, eta burubide ori artu daben gustiak benetan txalogafi dira.

Yapondar katolikoak

Yapon'daf katolikoak gitxi izan afen, zintso lan egiten dabena dira, eta enda begiko ta zoli ofek, katolikotar zines-teari gero ta afera ohea egingo dautsola ziur esan geinke.

Oraintsu Sapporo'ko biztanleai, Beethoven'en *Missa solemn* ospetsua abestutea otu yake. Gizoste izugafia eldu zan entzuteran, entzungafia da izan be ta. Ereti oferi gurgila artuta pantzezkar mixiolari Ugolino Noll abak, Yaupa (mesa) deunatzaz itzaldi edefak egin dituz, yaupa deunaren azalben osoa ta edezti eginaz. Yapondafen artean, zinesgeen artean batez be, itzaldio ots andia egin eben, eta Emperadoreak berak gurari bizia agertu eban, Ugolino abaren itzaldio entzuteko. Eta aba onek emperadoreen auferan itzaldio egin dituz. Eta bai pozik be!

Txikago'ko ikastetxean be...

Orain arte ikastetxe nagosietan protestante eria dalako edo, katolikotaf abadezkoak, irakle izaterik ez euken. Baña oin katolikotafak baster gustietan afera ohea aurkitzen dabe. Txikago'ko ikastetxea gizatzizti irakle Haile aba pantzezkatafa autu dabe. Berau da abadezko lenengo irakle. Yakintsu, eta etnologo ospetsua da, eta izan bear maia ofetara bere zines-teoak ez diranak yasoteko. Pozitutekoa da!...

M'tar G.

ESAMESAK DIRALA-TA

Esamesen kalteak

GIZON asko gaur egunean ikusten dira, onen aldez dagozanak, eta txarāk artzen daben indarā tamalez ikusten dabenak. Bakarēan artu ezkerō, onen aldez zintso yokatzeko gogorik onena agertzen dabenak. Baña olango bat agintari egiten dabe, esaterako alkate ala zerbait aginpide emoten dautse, eta or ikusten dira, txartzat daukien eta zuzendu leiken, eta zuzendu bear daben oitura txar bat zuzentzeko erabagi bat emoten ez dirala asartuten, eta onari indarā emoteko be *beatogi* agertzeko bildurik andienaz ikusten ditugu. Eta ori zer dala-ta?...

Onari kalterik andiena eta txarāri bultzakadarik andienetakoa, emoten dautsen etsai bat dakusgu baster gustietan. Berez utsa, etsai ezereza, indargea, baña geure kikilkeriz, koldarkeriz, etsai bildurgarā biurto eta aginpide zabala daukona. Berau gauza onen etsairik bildurgarāiena dala esango geunke, eta gaiztakeriaren laguntzalerik onena be bai. Ainbeste eragipen daukan *zer* ori, *zer* eta dan?... Zer?... Auxe bakarik: *¡Zer esango dabe!*... Orixe, uskeri ori, guzurā dirudi baña, orixe da mundurik erdia batera ta bestera darabilēna, ta sarāiegitan agintarien buru, oin, eta egiteak batera edo bestera erabilten dituana be bai.

Óreri begira egotea, gizatasunik ez eukitea dala esango dozu bear ba da. Alantxe da izan be, eta zeozegaitik esaten da *oin gizonik ez dagola*...

¡Zer esango dabe!

Zer egin bear ete dot? euren buruari itandu bearēan, *zer esango dabe!* galgarā ori, igarā barik, baster gustietan sartu yaku. Orixe dala-ta, asko eleizara etoriko litzakezanak, andik ufinduta ikusten ditugu, beste asko sarāiogotan, esames orekaitik, ez dira yoaten, lagunak zer esango dabenen bildurak lotuten ditu.

Gastea lagun gaiztoakaz batu ala yolas galgariai *zer esango dabel* sarri-tan lotuten dau. Eta oréxek bultzatuta izparingi gaiztoak irakuñi, zine txarak ikusi eta dantza nastuetara yoaten asiko da. Emakumeak yantzi nabarmenai indara emoten ba'dautse, esamesen aitzakia atarako dautzue. Gurasoak seme-alabai iñoz emon bear ez leuskioen azkatasuna emoten ba'dautse, besteak egiten dabela-ta zer esango ete daben bildurak kikiltzen ditu. Agintariak egin bear daben lez, orotarako-xe dira ta, gaiztakerien aurka ezer egiten ezpadabe, batez be ontzat dagozanean, *Zer esango daben!* bildurak lotuten dituz. Eta gaiztakeria izkorena lez goraka dakusgu, eta ontasuna bastertuez...

Noren erúz?...

Gaiztoak onari egiten dautson kalte gustia baño askozaz andiagoa da, ontzat dagozanak, euren koldarkeriz egiten dautsena. Gauza on bat egin bear danean, ala oker dagona zuzendu ala gaizkeriari guda egin, *Zer esango dabel* bururatzan yakunean auxe erantzun dayogun. *Zer esango daben?* Nork? Gaiztoak?... Eta gudari zintso bateri etsayak esango dabenak ze ardura emon bear dauiso? *Zer esango daben onak?* Onak ezin leike, *saltzale* biurtu barik, gauza onagaitik gaizkirik esan. Beraz gauza bat egin bear dogunean, Yaungoikoa'k nai dabenari eta «Berak zer esango dabenari» begiratu bear dautsogu, eta olantxe bakañik geure eginbeara beteko dogu. Bestela, onaren etsairik txarènak geu izango gara. Gaiztoak onari egin leikion kalte gustia baño andiagoa da, ontzat dagozanak, koldarkeriz, egiten dautsona. Gudak, geyenez; etsayen indarèz ez dira galtzen, norberen argalkeriz baño.

Zertarako dira negarok?

Txarak indara artzen dabela ikusteak tamalez bete bear dausku biotza, baño orék zer balioko dausku, onari indara emoteko geuk al doguna egiten ezpadogu? Lanik egiten ezpada, zertarako dira negarok? Gaur guraso askori entzuten yake, «olan ba'goaz, ez dakigu nora eldu bear garean»; «gaurkoa laégikoa da», «gaurko umeak ezin leike gauza onik atara» ta abar, eta bitartean ama negarti onek, auzokoak zer esango daben bildurèz, euren seme-alabai dantza nastu ta berandukoetara yoaten lagatzen dautsie; yantzi nabarmenak gora bera ez dira bildurtzen; etxetik eta menpekoen eskuetatik izparingi gaiztoa kentzeko alegiñik ez dau egiten. eta ama kristiñauok diran lez agertzen asartuten ez diralako, *guraso on* agertzen *lotsa* diralako, gaiztakeria lotsa barik baster gustietan agertzen da, eta autu txarak, ekandu nasayak, zine zantarak, dantza nastuak, ziñeste epelkeriaz batean, geure euskal-erri maite onen yabe egiten doaz...

Eta ori ezin leike olan itxi. Gustiok batera ta gogor ekin bear dautsogu, negarok alde batera itxita. Txarèn aurèan burua makurtuta aurera yaraitzea gaur saltzale izatea izango litzake. Agintariagandik asita, euren erantzupena izugaria da-ta, ontasan eta ekandu onen aldez kementsu ta zintso yokatu bear dogu, *esamesen* bildur barik, Kristo'ren aldez arpegia azalduaz, gaurko onbiderik bearèkoena orixe dala esan geinke-ta.



Etxebaria (Markina). Agintariekaz eskola-umiek ordainduta
bazkari bat artu dabən eřiko zařak

AU, ORI TA BESTEA

Artzaintxo baten otoa.

Bayona'ko Gotzain batek, Garizima'ko itzaldi baten irakatsi askodun edeski au azaldu eban.

Bein Saboya'ko mendietako artzaintxo bat aurkitu eban, eta esan eutson: Mendian beti bakarik egoten aspertu egingo az ¿ez-dok?

—Ez yauna, ez.

—Astia zetan emoten dok ba?

—Otoi egiten.

—Eta ze otoi egiten dok?

—«Aita Gurea».

—Baña ori arin amaitzen dok.

—A, yauna; Nik «Aita Gurea» esaten dodanean, auxe gomutatzen dot; ni ume ain txiroa izan arén, Yaungoikoa'ri *Aita* deitu nekiola, eta orixe oldosten zerura begira, aldi luzean neure otoa amaitu ezinda egoten naz.

Gotzañak ariturik berekauten egin eban; txamaña zar ofen bañuan estaltzen danbitxiaren edeña! Artzaintxo oren antzeraotoi egiten ba'genkil!...

Deunen gogo argia →

Deunak, askotan itunegi begitantzen yakuz, eta ori ez da egia, deuntasuna alaitasunaz ituntasunaz baño obeto alkartzen da-ta, Alaitasuna onbidea da,

eta Paul deunak, Yauna alaitasunez otseindu daigula diñosku. Deunak ba geyenez, benetasuna gora bera alaitasuna euren urteeretan agertzen eben. Onetan Belarmino Deuna gatz andikoa zan, eta Pilipe Neri'tar deunaren urteerak ezagunak dira. Eta Laurentzi deunak sutan eretan egoala, ilteko agindu ebanari esaten eutson. Eréta ñagok, jira ei dak eta yan, ik bilatzen ditukan eleiz ondasunak txiroen eskuz zeruko ondasuntzaira eldu dozak-eta».

Beste ale batsuk: Yon Mirena Bianney, Ars'go ixaunburu deun ospetsuari, saritan eldu yakon emakume bat deunen gorpuzkin edo erelikiak eske. Alango baten iribañeka erantzun eutson: «Ara deun egin zaite bai, eta deunen gorpuzkiñak eukiko dozuz».

Yapon'en 1867'n izan zan yasarpenean, ilteko zorian egozan kristiñauen arteko mixiolarien sakristau bateri, batek esan eutson:

—«Burua noz ebagiko daustie?

—Antza danez laster izango dok?».

—«¿Eta bildurik eukiko dok?»

—«*Lenengoz* burua mostuko yaustieik eta, ba'leitekek naiko bildur eukitea».

KATOLIKO IZPARAK

Tolosako Eukaristi Batzara

Orila'n iragarita, atzeratu zan Eukaristi Batzar au Dagonila'ren 27'tik 31'ra ospatuko da, Gotzain agurgafia Lendakari dala. 28'n abadeen eguna izango da, eta eurai dagokiezan gai garrantzitsuak adiraldu ta aztertuko dira, goizeko bederatzietan egingo dan Ordu deunaren ondoren. 29'n umeen eguna batez be izango da, eta baita Eukaristi ta Gasteak gaitzat artuta batzar edefak izango dira. Eta afaasaldeko iruretan eleizkizun ondoren ume gustien ibildeun edefa egingo da. 30'n Eukaristi ta Gasteen azieratazako gayak adiraldu ta gabeko amafetan gau gurtzaileen eleizkizuna izango da.

Azkenengo egunean 31'n Yaunartza orokofa ta amafetan izango dan Gotzain-Mesa'z gañera, afaasaldeko lauretan Tolosako yaupalerki edo artziprestazgoko efi gustietatik bilduko diran eleiztafakaz lbildeuna andikiro egingo da.

Batzar au, Eukaristiaren aintzaz dalako, gustiontzat maitagafia izango dala esan beafik ez dago, eta gizoste andiak bilduko dirala uste osoz itxaroten dogu. Eta beste zertzelada batek be, oso begiko egiten dau: ainbat aztergai eta itzaldi geure euskera zamufean izango diralako. Olantxe bear be. Egitarauari akatzik ez dautsogu ezafi gura, baña, ain egun gitxitan aztertzeko gai gevegi ez ete dira izango?... Au Batzar gustietan yazoten dana da, maitale dan biotzak asko egin gura izaten dau-ta. Baña safitan gertatzen da orixe dala-ta, erabagi geiegi artzea, eta gero ezin bete. Auxe dala-ta, erbesteko batzar batsuetan pozez ikusi dogu, gayak berezien asi dirala. Dana dala, gari ugariez urte txafik ez da izaten da. ¡Ekin!... Eukaristi'ganako maitasuna zabalitzen...

Lourdes'en Andra Maria'ren aintzaz Batzara

Parantze'ko katolikotafak, azkar, bizi ta erainak dirala ezin ukatu leike. Izparfingi, aldizkingi ta idazti bidez egi ta zuzentzaren aldez yokatzen dabela ikusteko, bertan argitaltzen diranen izenak naiko izango litzakez. Baña batez batzara-

ak eta edefak atan be, ugari eraltzen gitxik irabaziko dautse. Igaro dan Garagafila'ren 23'tik 27'ra, Lourdes'en egin dabena eder eta onratsuenetarikoa izan da.

Egualdi itxafagaz asi ta edefaz amaitu zan, eta bitartean izlari bikañenak, eta yakitun sakonenak Andra Maria Sortzez Garbiaren edertasunak, egiten dituan alatzak eta abar adiraldu dituez. Eleiz aufeko zelaya 8.000 tximist-argiz eta laterfiko alde gustietatik bialdutako loraz yosita agertzen zan. Berdier agurgafia, Aita Santua'ren ordezeko izan zana eta eraltzaleak, yayon anditasunaz poz-pozik gelditu dira.

Kristinau Ikasbideen alde

Italia'ko yaurlariak, Aita Santua'gaz Itunbena egin dabean ezkerotik batez be, Kristinau Ikasbideen alde erabagi begikoak emon ditu. Beste gauza batsuetan Eleizaren eskubideak aintzat artzeko, eta erabagitakoa betetako muker xamar ibili ba'dira, onetan zur yokatzen dabe, Kristinau Ikasbidea gizartearentzat beafekoa dala igafi dabelako nonbait. Izan be alantxe da-ta! Itunbena erabagi ebenez, ointxe emon dabe, Aldundiak onetsita, lege bat, Italia'ko irakastetxe ta ikastola gustietan Kristinau Ikasbidea irakasteko agintzen, eta zenbat ordu astean eta nortzuk irakatsi bear dabean be bai. Irakasleak Gotzafinakaz itunduta autoko dira, eta abade ala lekaide izan bear dabe eta besterik ezin danean kistar laua, baña Gotzafianen eretxiz ofetarako gai dana. Irakasle bakoitzak astean amazortzi orduko irakasteak izango dabez, eta beste irakasleen eskubide ta eginbeafak. Ikastola bakoitzean astean ordu betean irakatsi bearko da, eta goragoko maletan ordu bian. Au beintzat txalogafi da ta, yafaitzaleak euko al dituz.

Mixiolarien bizitza

Mixiolariak osasuna galtzeko toki ta afisku andietan ibili bear dabela gustiok dakigu. Eta orixe dala-ta asko gasterik ilten dirala egunoro dakusgu. Gai onetzaz azterketa bat egin ondoren, *Corrispondenza* izparfingiak, mixiolarien

biziatzaz zertzelada batsuk argitaldu ditu. Geyenez, mixiolarien bizitza, beste gizonen bizitza baño boskafen zati bat laburago izaten da. Bana onein artean gitxien biziten diranak Apirka'n dagozanak dira, oneitatik geyenak bizi bear leuken baño 14 eta 16 urte gitxiagoan biziten dira.

Orixe da-ta, mixiolarien bear izan andia dagolako, *Propaganda Fide* bazkunak eta beste batsuk be ardura andiz artu dabe mixiolarien bizitza zaintzeko bideak artzea. Ofetarako gogotsu diardue osagile ikasketa batsuk ikasi dazezan alegintzen eta baita euren artean osagile aba bat, eta osakiñak eskuratzeko ezeztasunak emoten. Lana ugaria da-ta langileak ufi diralako au beaferko gauza dala inok ezin lei ezpayan ipiñi.

Asmo begikoa

Pantzetar abeslari talde batek asmo begikoa euki dabe Lourdes'era etofita bide batez otu yake, Añamendi (Pirineo) mendien erdian yaupa bat abestutea. Bignemale'ko erpiñera, Asouez'ko etzandegitik urtenda, lau orduan eldu ziran, abeslari txikien buru Maillet aba zuzendari zala.

Eta antxe, itxasertza baño 3.298 anei-neurkin edo metro gorago Paulin abak, yaupa egin eban, eta lau abotzetara 20 abeslarik gustiak zuriz yantiak, *Missa Brevis* Palestrina'na abestu eben. Belebile'ko abeslariok euki daben asmo au oso begikoa da eta beingoan ez yake aztuko zeru urdiñean azpian edur zuriz inguraturik euren Yauna Osti zuri deunean ain goyan gurtuteko euki daben zorioneko eguna! Egiz lengo zenbakian Tour Eiffel'eko yaupa zala-ta esan genduna zio geyagoz esan geinke. ¡Aintza goyetan Yaungoikoa'ri!

Batikano'ko Latefian

Aita Santua'ren latefitxo au, txikia izan afen, ornidua izango da. Bertan sartzeko agiri edo pasaporte bat ipiñi dabe, eta bertan bizi diranai, bakar-bakafik emongo yakez, Eroma'n bizi diran dardenalai, latefien ordelariai. eta «legez» Aita Santupeko latefi bafuan sartzen diranai.

Baita itunben bat egin dabe Batikano'n egin diran diruak Italia'koagaz batean latefi bietan balio dayen.

Baita egunokaz bidayen Ikufatz edo selu bafiak irafi dituez. Sei eratakoak dira. Aita Santua'ren irudia daroe ta beste batsuk Batikano Uria'ren argazkia, Batikano'ko Eleiza, Doipuruaren yauregia eta baratzak eta abar.

Bide onera

Beljika'tar katolikoak, bai daukie zegaitik poztu. Euren bakaldun gayaren emaztea protestantea zan, eta yakiña ori ez zan ain pozgafia be. Brabanteko dukesea zan, Astrid'ko bakaldun sende izenduna. Ba auxe, Yaungoikoa'ren argiak yota katolikotasunaren egia ikusi dabela-ko, Katoliko egin da.

Dagoniã 'ren 5'n, katoliko zinestea autortu dau, Van Roey kardenal agurgafi, Brabante'ko duke, Desein kanonigo eta Leklef abade, ta kardenalaren idazkariaren afean. ¡Ederto!

Bannuteli kardenalaren ordezkokoak

Bannuteli kardenal ospetsua Eroma'ko Andra Maria Nagosi deritxon eleizako yaupalburu izenduna zan, eta ordezk Zerretti kardenal agurgafia izentau dabe.

Dataria'n itxi daben utsa betetako Skapineli kardenal agurgafia izentau dabe. Kardenalen artean malarik gorengoenetarikoa da. Eta dekanoo edo zafen izena eroango dabena Granito di Belmonte kardenala izango da. 79 urte ditu. Lourdes'en guda nagosia baño egun batsuk lenago ospatu zan Eukaristi Batzafean Aita Santua'ren ordezkoo izan zan, eta antxe ikusi gendun 200 gotzain 4.000 yaupari-lekaide ta 200 000 lagun ingurun afean itzaldia egiten.

Italia'n izpafingiak diñonez, oin dagozan kardenalak 64 dira, bat XIII Leon'ek egiña, 13 X'n Pio'k, 16 Benedito XV'ak, 34 XI Pio agurgafiak aututakoak.

Yolasak, dantzak eta...



Yolasak, beaŕekoak.

YOLAS egitea, batez be eten barik lan egiten dabeneztat, eta gasterientzat geyenez beaŕeko gauza da. Gizonik ben eta itzalenak be, bere yolas alditxoen beaŕizana euki oi dau, gizonak ba eten eta atsedeen barik bere almenak erabili ezkeren *eten* egingo leuke-ta. Orixe dala-ta edestian irakurten dan lez, gizon deun eta benenak be, euren atsedeen alditxoak eta yolas aldiak artzen zituezan. Atsedeen edo yolas au batsuentzat, zeregiña aldatutea izan leiteke, zeregin bat safitan besteen atsedeen izan leiteke-ta. Baña olangoak gitxi izaten dira, eta geyenak, euren gogo ta gorputzak eskatzen dautselako, zerbait yolas beaŕeko dabe, aldia baño lenago ondatuta geldituko ezpadira. Yolasa ba bizitza osasunarentzat *gatza* dala esango geunke.

Baña zelan yolastu?

Yolasak izen oŕen yaube ixango ba'dira, gogo ta gorputzari atsedena emoteko izan bear, bestela kaltegarí izango litzake-ta. Ori baŕiz, yolas ona izanda be bai. Yolasa ona izan aŕen ba, *neufiz* egiten ezpada, gorputzari atsedena emon beaŕean, neke ta kaltea ekaŕi leikio, eta gorputzari kalte egin leikion yolasa egizko «yolasa» ez litzake izango.

Bardin yolasa txara danean, gogoaren kaltegarí izango litzake, eta orduan yolasa «gaiztakeri» biurtuko litzake. Orixe dala-ta, beste gauza gustietan lez gizonak yolasean be, Yaungoikoaren eta gizatasun legeak zaindu bear ditu. Yaungoikoaren legeentzat ez dago opor edo bakaziñorik, au lanean eta yolasean aldi ta alde gustietan zaindu bear dau. Beraz, yolas egin bear da, baña gorputz eta gogoari kalterik egin barik...

Beraz gaur egunean «deporte» izenaz egiten diran laŕegikeriak, yolasak baño

gasterien ondamendi geyago dira, eta igandean, Yaungoikoa'ri eskiñi ta atsedean ar-
tzeko egunean, yolas eginda, «astelena» edo emen esaten dabenez «ajea» ondoren da-
kañen yolasak, astokeri dirala esanda be, geyegi ez genduke esango. Neufi barik ibili,
yolas egin, nekatu, neufi barik yan eta edan eta *ez ura*, dantza nastu iguingarietan
egunez eta gabaz, iluntasuna bera baño baltzagoak diran dantza ta yolas onein ondo-
renak... osagile ta yaupariok ondo dakiguz.

¿Ori da yolas egitea? ¿Ori gizon izatea? ¿Ori batez be, kristiñau eraz yolas egi-
tea? Ori erien ondamendia da; besterik ez...

Eta gaur tamalez.

Orixe da nagosi. Orixe geyenak ontzat emoten dabena, eta ontzat dagozanak be
ofen aurka arpegia azaltzen ez dira asartzen. Agintari ta ez diranak, erien garbitasun-
ari begiratu bear dautse eta onaren alde al dan gustia egin bear dabe, gaur gauza-
rik beaferkoena orixe da-ta.

Ori egiten ez dan artean apariketan ibiltea izango da, eta erien auferapena guzur-
ezkoa; erien auferapena gizatasunean dago, eta gaurko yolas bafiak, emetu, erkindu
ta ondatzeko baño ez dira gauza. Zikinkeri ta moskorkeria nagosi diran eriak zoro-
txetik urean dabiltz, bizitz onetan be zoritxaferkoak dira, eta efi ofeitatik gauza onik
urtengo daben itxaropenik ez euki, ez egizko auferapenarako, ez betiko bizitzarako.
Gizonak «gixon» izan gura ba'dau, bere indafak eta bere griñak onerako ezi bear ditu;
eta oingo yolason bidez, bere ta besteen kalterako bakarik izango da; yolas ofeik
gizona «gaizkin» biurtzen dabe-ta.

Erietatik ixufi ori yaurtiteko gizon zintso, zuzen eta zerbait diran gustiak al-
kartu egin bear dira, eta txauburu ta endoreakaz aituta eten barik eta kementsu
¡Ekin!..

Udaldia ta yolasak.

Baña gaitz onek sustrai sakon eta zabalagoak botaten ditualako, udabafian sal-
dañak azalera urteten daben antzera, erien «zorna» onek udan batez be agerkundea
egiten dau. Udea atsedean aldia da, eta atsedean aldi au saritan alper aldi biurtzen da.
Eta alperkerirako eskubiderik gizonak inoz be ez dauko.

Gai onetzaz Barzelona'ko Gotzain agurgafi Irurita Yaunak idatzi daben idazki
eder baten auxe diño: «Udaldiko atsedena, ez al da egia saritan alpeferi biurtzen
dala, alperkeri madarikatuan, txarvide gustien sastegian, Bonabentura deunak diñon
lez, eta lizunkeri piztugafi Tomas deunaren irakatsiz? Emakumeen yazkera nabarme-
nago agertzen dala, ez al da egia, bero lafegia aitzakitzat artuta? ¿Mundutar yolas-
keri ta atseginzalekeria, ez da egia, udaldian zorakeriraño eltzen dala, lizunkeriaren
agertze lotsagafiakaz?... Itz baten, askontzat kistar bizikera amaitu ta mundutar bizi-
kera asten da; askontzat udeak ez dau Yaungoikorik, edo beste Yaungoiko bat
dau, garbitasun gayan ain gogoña ez dana. Eta au guzur kaltegarfia da. Yaungoikoa
beti bat da, ez da aldatzen, Bere eskubideak eta gure otseintzaren zioak aldi ta alde
gustietakoak dira.» Gogoan eukitekoa da...

EGUZKIARI AGURĀ

*Agur eguzki, argi, beroa, bizitz naroa
zabaltzen dozuna,
Agur lugiñen itxaropena, lankide ona
poz eta zoruna.*

*Zu agertzeaz baster gustiak alaitzen dira,
ots ilunak iges,
izadi dana, zugatz ta lorak, iturri garden
txoritxoak pozez.*

*Maitasunezko izpi bero zain, kiskur-kiskurik
egozan landarak,
eskar oneko agertu nayan, zabal-zabalik
dakustaz espanak.*

*Lora samurak intzan bilduraz kibil-kibilik
egozan gaxoak,
zeu agurtzeko yoran yoranez bialtzen dabez
lurinkai gozoak.*

*Txori politik birloraturik txorotxioka
agurtzen zaitue,
maitasunezko ereserkia, samur, gozoa,
abesten dautzue.*

*Zuretzat ez da etsai bakar bat, ikus-eziñik
lurbira gustian,
alde danetan argi-beroa zabaltzen dozu
bizitza bidean.*

*Zugandik iges nai dabenari lagundu nairik
bideak argitu,
aldozun neuriz, axeri bere lagunduteko
beti zagoz gertu.*

*On egin beti ta edonori bizi gustian
zure izatea,
orixe da ba Yainko altsuak ipiñi dautzun
bizitza legea.*

*Maitasunaren irudi zara, ikasbidea
gizon gusiontzat,
geide-maitasun eredu eder bakan-bakana
zu zara guretzat. .*

OÑETAKOAK

—○○○○—

(SCHMID)

Auntzak zaintzen irabazten ebanagaz, Konrado gizajoari ez yakon eltzen oñetako batsuk erosteko. Auxe zala-ta oñetatik asko yasan bear izaten eban; udagoyena azken-ean egoan ba, ta euri ta edur ugariak yausten ziran.

Egun baten oyanetik agertu yakon; lapurtzat biriteko aldiz zigortua izan zan gizon bat eta esan eutson:

—Nire bizibidea irea baño irabazteko obea dok. Neure menpean yarten ba az, zapata bañi batsuk emongo daustadaz. Oñetako onakaz otzik

ez dok izango, eta ortozik lokatzartetik ibili beañik be ez.

Auntz zaintzaleak erantzun eutson:

—Ez, gurago yoat zintzoa izan eta ortozik ibili, gaiztakeri bidez aberastu baño. Askoz obe dok lokatzaz oñak zikintzea, esku ta arimea gaiztakeriakaz baño.

Txiro ta zintsoa izan obe da ontasunez, aberatsa izan baño gaiztakeriko bidez.

AU, ORI TA BESTEA

¿Ezin leikela ezer egin?...

lñok ez dau ukatuko Eusko - erian ekandu ta oitura zantañak, dantza, nastu, zikiñak, gabeko ibili txarñak, lotsabakokeria egunez eta gabaz gero geyago zabalduz doala.

Eta ori ta gasteria ustelkeriko bidean dagoala esatea gauza bat da. Eta ori gurasoak euren eskubideak zaintzen eta euren eginbear estuak betetako adorerik ez daukelako. Eta batez be agintarien «olokeriz», eta «lelokeriz» be bai.

Batsuk gero izan be ba'dira... Egun gitxi dala auxe edestu eusten: Yaupalburu batek gabeko dantza zikiñetzaz zerbait egiteko eskatu eufson. Eta endorearen erantzuna auxe izan ei zan: Abadeak eleizan agindu dayela, plazan berak agintzen ebala». Kirtenkeri ori, nonbait «gizonkadatzat» eukiko dau. ¡Eri gaxoak! ¿Zertarako dabe aginpide ori ekandu zantañak bastertzeko ezpadabe? ¿Zertarako? Ekandu onen alde lan egiten daben abadeai laguntzeko ezpadira, zertarako alkatetza artzen ete dabe?

¿Ezer ezin leikela egin? ¡Guzurñ!... Asko egin leikie, gura ba'lebe eta egizko «gizon» eta *katoliko* ba'liral!...

¿Ezer ezin leikela egin?... Ara or eredu bat

«Yaungoiko-Zale'ko Kristiñau-ikasbide» sariketea gertatzen giñarduala, Mendata'ko eleizpean iragarki pozgarñi bat ikusi neban. Ara erderaz ziñoana:

«Eri onetako dantzak, Elexaldeko zelayan egingo dira, eta dantza garbiak izango dira eta Abe Maria'k yo arte bakarik». Eta agindu ori bertako endore edo alkate, Zañagoikoetxea'tar Santos'ek izenbetuta egoan. Eta ez oin eun urte, 1930'ko urtean baño. Endore goragarñi oñek emon daben erabagiaren antzekoa, beste endore batsuek ¿zergaitik ez dabe emoten? *Gura* dabenak al dabenak baño geyago egiten dabelako ez ete da?

Azkatasuna ta lotsabakokeria

Azkatasunari min emoteko bildurñak, agintari asko kikildu egiten ditu. Azkatasuna gauza edeña da, baño «kirtentzat» ederegia. Askok bañiz, azkatasunaren izena agotan artuta lotsabakokeriari indarñ emoten dautse. Egizko azkatasuna onetantxe dago, Gabirel Garcia Moreno Ekuador'eko lendakariak arautzat euki zituan itz eder oneitan: *Azkatasuna gustirako ta gustientzat, gaizkiñe ta gaiztakeriarentzat izan ezik*. Orixe da egizko azkatasuna; muga oñeik igaroten dituana, lotsabakokeria baño ez da.

Esi bako azkatasuna amiltegirantz doa. Egizko azkatasuna Yaungoikoa'ren lege ta gizarte legepean bizitean dago, *bultzi edo trenaren azkatasuna, bere burdinbidiari lotuta yoatean dagon letxe*. ¡Guda gogoña egin dayogun ba, lotsabakokeriari!...

Aita Santuaren Osasuna

Garagarñia'ko 15'ko zenbakian, Aita Santuaren bizikera ta lan izugafietzaz zerbait esan gendun, bide batez, bere osasunatzaz zabaldu ziran izparak guzurtatzeko. Orduan esan genduz, XI'n Pio agurgafia beti lez osasuntsu ta langile yafaitzen eban. Baña bafiro be nonbaitelik sortuta, *zerbait* asmogaz asmautako izpar txafak zabaltzen yafaitu dautse aldi gitxirako zala ta abar esanaz. Baña Yaunari eskeñak izparok guzufeñkoak izan dira. Egia esan, ustirik gitxien danean, beste edozein lez gexotu leiteke; baña beintzat ondiño sendo dago eta urte askotan olantxe yafaitu dayela biotz-biotzez Yaunari eskatzen dautsogu.

Havas izpar Bazkunako bateri Pazeli kardenal agurgafia esan dautsonez, Aita Santuak osasunik edefena dauko ta eten barik, opor aldi barik, lanean diardu. egunero eltzen yakozan bideztiak artu ta itzaldiak egiñaz, eta ori egia zala ikusi zeikean, Eskutari'ko Gongotzañak izparingilari bateri, bidezkundeko batsukaz, Aita Santua ikertzeko esan eutson. Bera ikertu dabena esan dabenez, gorputz eta adimenez bizkor dirau, bere adiñak eskatzen daben baño be bizkorfago. Beraz zorioneko gagoz Gure Aita maitagafia ain ondo dagola yakiteaz.

Protestanteak Eromara

☪ begira ☪

Bein baño safiagotan gai onetzazko izparak emon doguz, eta gaur izpar pozgafi bat daukogu.

Anglikano deritxon Ingalanda'ko protestante taldeak, aurtien Lanbeth'en batzar andi ta orokora egin dau. Bertan irureun gotzain protestantelik gora bildu dira. Eta batzar onetako erabegialdi idazki orokor bidez, Kanturbery'ko gongotzañak izenbetuta argitaldu dira. Bertan diñonez, gaur eguneko eretxi ta burubideen nastea zabalkundeä egiteko aukerakoa da, eta iñoz izan danik aukerakoena. Baita adirazten dabe, euren gurari bizia, Kristo'ren yafaiñe etsiten gustiakaz batasuna egitea dala diran, ofetarako

katolikotafai be dei egiñaz. Artu emonetan as-teko batzorde bat izentau dabe Efoma'tar egizko Eleiza bakafaz batez be itunduteko. Yakiña, egizko Eleizagaz batuteko bide bakafa dago; seme galduen antzera itxi eben Eleiza onetara osoan biurtu ta Aita Santua'ren nagositasuna autortzea; eta eurak be ba'dakie, bein baño gegyagotan Aita Santuak berak azaldu dau idazki edefetan eta. Alan da be, bafiro batasuna egiteko autuetan asi gura izatea, ezaugafi ona ez ete da? ¿Eta katoliko zñestepan biziteko zoriona daukugonontzat ez ete da pozgafi?

Suezia'n katoliko deun

☪ bat goraltzen ☪

Anstxaire deuna, Suezia'n katoliko zñestea, lenen erein eban beldu edo mixiolaria izan zan. Latefi onetan, oin, zoritxafez protestantepean yausi ziran ezkerotik, katolikotafai gofoto bizia izan dautse.

Alan da be, katoliko zñestek, latefi oneri egin eutsozan onak ezagutzen asi dira, eta zelanbait eskar ona agertzen be bai. Ezaugafi ona berau. Ba, Anstxaire deuna, Suezia'ra zñestea zabaltzen eldu zala XI gizaldi bete diralako, yai andiak egin dituez, bakalduna buru dabela. Eta yai oneik dirala-ta, Suezia'ko bakaldun Gustavo V'ak bere biziko itzaldia menpekoai zuzendu dautse. Bere itzak katoliko bakaldun baten espanetan be aintzagafi izango litzakez. Au egiztuteko ataltxo bat ipiñiko dogu; Anstxaire Ipar aldeko belduaren gomutea, geyegi iñoz be ezin goraldu al izango dogu. Bera ainbeste neke ta lofez gure lur alde onetara eltzea, Suezia'ko latefi edestiko gertakizunik gañena da. Beragaz aldi-aro bafi bat asi zan. Zuzentza, zentzuna, giza-maitasuna, anai-maitasun eta gure elburuarena, berak eta ondorengoak ereinda gogoak aldatu dituez. Baña araso goragafi au ondiño ez da amaitu. Maitasuna zuzentza, alkafenganako ustea, egi zaletasuna, gogo zuzena Yaungoikoa'ren bildur bakafik dana, au gusti au gure artean zabaldu ta sendotu beafa dago...» Katoliko belgundari edo mixioiari deun baten etofera, Suezia'ko edestian gertakizunik

gorengoena izan zala, protestante batek autor-
tzea, gogoari eukitekoa da...

Yaungoikoa' ren zigofa

Egiz esan geinke Tzaritzin, Rusia'ko efi baten yazo dana, izan dala. Safitan aituta dogun Sobiet edo boltxebikien katolikotasun eta ziñeskera gustientzako amofua, geyagotuez doala esan geinke Orixe dala-ta Aita Santua'k efi gaxo ofen alde otoiitz egiteko eskatzen dausku, eta oraintsu Mesa ostean esater diran iru *Agur Maria*'k Rusia'ren alde izan daitezala agindudau.

Bitartean ba'diardue euren basatikerietan auf-
era. Basatikeri onen agerkai bat, eleizak dinamitaz apurtzen yafaitzea da. Oraintsu, Tzaritzin' en gotzain-eleiza era ofetan apurtzea otu yaken. Eta zelan apurtzen zan gustiak pozez ikusi al izateko, auzer auzer yarleku pila andiak atondu zituezan, yolas aldiatarako ipinten dituen antzera, Basati talde edefa bildu zan, eleiz ondatzere ori pozafen ikusteko. Gertakizun gustiak eginda dinamita edo lertiari sua emon eutsenean, ya-kiña! danbada izugafia entzun zan, baña txarto ipiñi ebelako edo, eleiza oso-osorik gelditu zan, eta bafiz, yarlekuetan egozan geyenak danbadearen indafez ilda ala zaurituta gelditu ziran. Bizirik gelditu diranak nozbait begiak zabalduko al dabez!...

Ziñesgeen arteko mixiñoak

Ziñesgeen arteko mixiñoak auferantza doaz, inoz baño lan geyago egiten dabela esan geinke, naiz ta Txina'n bertako naspilak dirala-ta eragospen asko aurkitu. Apirka 'n katolikoak 4.000 000 dira eta India'n sei urtean 300 000 geyagotu dira. Txina'n 1906'n ezkerotik 1.000 000 bai baño geyago geitu dira. Ugaritzeak lenen Yaungoikoa'ren laguntzari zor yakoz, baña ofetarako bide, mixiolariak ugaritzea izan da.

Oin eun urte ziñesgeen arteko mixiolariak 300 baño ez ziran. Gaur ara zenbat diran: abade edo mesadunak 12.712; legoak, 4.000; lekaimeak 30.000, katekistak, 65.641, eta ugutzatzen laguntzen dabenak, 8 174. Gaur beraz, mixiñoetan lan egiten diarduenak 121.752 dira. Ugari dirala esan lei, baña ziñesgeak «mile miloitik» gora dirala gogoratu ezkerotik. egiz esan geinke, «uzta ugaria, baña langileak gitxi» dirala. Yaunari langileok ugaritu daitezala biotzez eskatu dayogun.

Gudan ildakoena gomutaz

Hartmanswielerkopf, mendian, eta bere auzean daukon Alsazia'ko zelayan il ziran 30.000 gudar gomutaz, mendi ofen gaurean kurutza eder bat ipintea erabagi dabe.

Kurutza ofek 18 metro edo neurkin gobera izango ditu, eta goi alde argi gofiz piztuko dabe, alderdi gustietatik ikusi al izateko eran.

Iñen artean kurutza nausizat ipinteko artzen daben ardurea, gizarteak bizien artean nagosi izan daiten ardura geyago artuko ba'leu, ainbeste gomuta negargafi bastezetan ez litzake izango!

Eskintza edera eta

☺ beafekoa ☺

Oin iru bat ilebete dala, latefi gustietako *Emakumezko katoliko gasterien* batzar bat egin zan. Artu eben erabagirik gafantzitsuena, yantzen eratasunatzaz izan da. Yesus'en Biotz eta Andra Maria'ren eskintzaz eta Aita Santuaren omenez, yantzikera onen alde zintsoro zabal-kundea egiteko erabagia artu dabe. Bitartebako yantzian, zanko erdirakoak gitxienez, estuegi ez diranak aldeztuko dabez, eta eun meegizkoak eta aragi margo edo koloreko galtzerdian aurka egingo dautse.

Ofetarako bazkide batek esan dabenez auxe egin leike: *egoki ez diran yanzkeraz argitaltzen dituen aldizkingi (revista) ri «boikot egin, yostun ikastola katolikoak irasi eta modatzako aldizkingi katolikoak argitaldu, yanzkera bafi egokiak azalduaz*. Asmo ta erabagi edefak dira, baña baster gustietan beteko ba'lira obeak. ia nozbait kistar sentzuna, *ontzat* dagozanen artean zabaltzen dan, bear izana be ba'dago-ta.

Kristinau Ikasbidea baria

☺ mundu gustirako ☺

Batikano'ko izpafak diñoanez, laster mundu gustirako Kristinau Ikasbide» bakaña lateraz argitalduko da; eta ondoren ludiko izkuntza gustietara biurtuko da, toki gustietan ikasbide bakaña izan daiten. Onetan lenago be aitatu dogu ta lanik geyena Gaspafi kardenalak egin dau

Gexoen "maitasunez..." dantzan?...



Erukizko egintzak

AUNAREN aginduz gizonak alkañi euki bear dautsogun maitasunak, bear izanean ala zoritxarpean dagonari laguntzera bultzatzen gaitu. Maitasun-legetik erukizko egintzak berez lez sortzen dira ba. Baña geure geideari bear izanetan zelan lagundu? Zelan? Kristo gure Yaunak argiro diñosku: «Ukaña (limosna) egitean zure eskerreko eskuak, eskumak zer egiten daben ez dayela yakin». (Matth. 6, 3.) Orixe da gure Yaunak irakatsi euskuna, eta zuzen ibiliko ba'gara, bide orëtatik ibili bear...

Modako erukia

Norbaitek esan leike: Ori lenago izango zan, baña gaur, beste gauza askotan lez, onetan be, auërapen andiak egin dira. Aldi bakoitzak bere *gauzak* ditu-ta, radioaren gizaldi onetan gauzak argitan egitea egokiago ez ete dirudi? Bai *ge*? Katoliko bañizale edo *modakoentzat* ba'leiteke, baña egizko katolikoentzat orixe ez, Yesu-Kristo'ren irakatsiak aldi ta alde gustietan bardiñak dira-ta. Alan da be, *modea* gauza gustietan sartu gurarik dabil eta ia sartu be egin dala esan geinke.

Len zoritxar, ezbear ta ixurien bat egoanean, kristiñau-maitasunez erukituta, bakoitza al eban eraz laguntzen alegintzen zan. Gaur be arpideak zabaldu ta diru mordsoska edeñak biltzen dira. Eta ondo dago. Baña aspaldian beste bide batsuk, inondik be egoki ez diranak, asmau dituez. Dirua zoritxardun ala gexoen alde biltzeko, ordaindutako dantza nastu ta galgariak gabaz egitea. Eta ori sentzun apur bat daukenentzat erdi ondo be ez dago. Orain, Selgas'ek bere aldian esaten eban lez, «txiroen izenean yolas egiten da, oñazen izenean atsegindu, eta zoritxarëen leporki zoriona bilatzen da». Gauza bakana da izen be, gexo ala zauritatuta dagoanen

erukiz (?), eurai laguntzeko aitzakiaz, yolastu, poztu ta atsegintzea...! Ori al da erukia? Eruki bařegarřa, negargarřa ezpalitz!... Erukitzen ez dan erukia, anketako erukia; eruki bakana ziřez!...

Alantxe da izan be, bařa, ogeigarřen gizaldiko erukia da-ta, aurka egiten nor asartu?...

Katolikoak beintzat

Ao batez gustiak aurka yaři bear leukela esan lei. Bařa zer da dakusguna? Yesu-Kristo'ren irakatsiak *modatik* yoandakotzat etsita edo, gaurko eruki (?) bařegarři ori askok begi onez ikusten dabe. Eta txiroakaz «erukituta» dantzan egin be bai. ¿Zer ba? esango dabe euren artean: «Ankak biotzaren indarřaz ez ete dabiz? Beraz, anketako eruki ori biotzean sustraya daukona ez ete da? Nok dauko ba zer esanik?...» Bai, ori olantxe da, bařa... burua loka xamar daukonentzat, sentzun-bakoentzat... Eta ez dira gitxi gero!...

Negargarřiena ez da bařa ori. Katoliko eredutzat dagozan izparřingiak, olango dantzen aurka yaři bearean, ontzat emon, txalotu ta indarřa emoten alegintzea da. Udaldian batez be amabost egun ez dira igaroko olango dantza nastuak batean edo bestean beartsuei laguntzeko eraldu dirala iragarři barik.

Ara ale bat. «Esta noche se va a celebrar la verbena a beneficio de la Enfermerřa Antituberculosa Victoria Eugenia, en los jardines del Instituto Alfonso XIII». Eta gabeko amaiketean asiko zala, «manubrio» ta gusti esan ondoren, ara zer ipinten eban. «Nadie debe faltar esta noche a este acontecimiento! Al mismo tiempo se hace una *obra de caridad*, por el fin simpático a que se destinan los beneficios que se obtengan». (La Gaceta del Norte-1930'ko Dagonřla'ren 22'n.)

Ori katoliko izparřingi batek zelan esan leiken?... Ba... esanda. Bařa orřetarako ez dago eskubiderik, ez katoliko izenean ez da sentzunen izenean be!... Eta katoliko izparřingi batek gitxiago, naiz ta eraltzalak agintariak eurak izan!... Gauzaj bere izenaz deitu bear yake, eta Yaungoikoak agindutako goi-maitasun ederřa dantza nastuekaz batean aotan ez da artu bear... Dantzok edozer gauza izango dira... griřan piztugarři, ikasbide txar, gexoai ixeka egitea... edozer... bařa kristiřau maitasuna egundo bez!... Ederto giřakez gauzak olan ba'lira! Goizaldean amaitzen diran dantza nastu zikiřok, gaiztakeri ikastola gitxienez dira. Eta katoliko giřstioak gaiztesteko beartuta gagoz, diranak dirala eraltzaleak.

Gotzariak ao batez gaiztesten dabezan dantza nastuak, gabaz naiz egunezkoak, katoliko ta euskotar giřstioak gořotau bear gendukez, eta sustarřetik ataraten alegindu. Izparřingi katolikoak auretik dirala!...

Eta! Ikasi! jikasi!...

Zer?... Parantzetik datorkigun ikasbide ederřa. Ara «Documentation Catholique»n gai onetzaz irakuri doguna (Garřla'n 19'ko zenbakian). Igaro dan udabariian izugarřiko ekaitz-uriola batek, Parantzen ego aldeko amabi erki onřdatu zituan. Īlak, zaurituak eta ezer be barik gelditu ziranak milaka asko izan ziran. Zoritxarpean

yausi ziranai zelanbait lagundu bear yaken eta, oi dan lez, oretarako batzorde bat ipiñi zan. Batzordeko batsuei dantza ordainduak eraltzea otu yaken, beste bide batsuen artean, dirua biltzeko asmoaz. Eta Bourges'ko Gongotzañak idazki bat argitaldu eban dantza nastuok gaiztesten. Bertan diño: «Zoritxarekoen onuraz egiten diran dantzatzaz eretxi bat euki ete leike? Ara eretxi bi. Bata eskertar endore (alkate) batena da, bestea Gongotzain batena. Endorea Carcassone'koa da. Nik ba'dakit abadezale arteko izatetik urin dagola, baña bere sentzunak erabagi au emon eragin dautso:... Agindua 1.º Dantzaldi batzar gustiak agindu ba'ria emon arte Carcassonne'ko luñalde gustian debekatzen dira»...

Zergaitik debekatzen daben? Zoritxarpean dagozan artean ori, berak diñon lez, «malséant» txarto ikusia, eta ez-egokia dalako.

Eta da'rai: «Gongotzaña neu naz. Yauriari idazki bat zuzendu dautsot esanaz; Kristiñautasuna, maitasun agerkunderik guren eta gizakoyena da. Egiz maitale izatea, zoritxarekoak maitatu ta euren alde zerbait neke artzea da. Nik ba'riz dantzan egizko maitasunetik sortzen dan neke oparirik ez dot aurkitzen. Bizi be'ra daukien zoritxarekoak, atsegin zaratatsu eta txaretik urten daben soroski edo limosna ba'leiteke artzea, baña onetan ixeka (burla) egiteko era bat ikusten ba'dau, iñok arpegira yaurti al izango ete dautso?

Edozelan be, dantzariak zoritxarpekoen eskar onerako eskubiderik ez dauke; dantzako alaitasuna naiko saritzat euki bear dabe».

Ara endore eskertar eta Gongotzain baten eretxia. Katoliko gustiak be eretxi oretakoak ez dogu izan bear?...

AU, ORI TA BESTEA

¡Irakurri!... baña gauza onak.

Egunokaz Beljika'n bildu dira ogetamar latefitako, izpafingilariak, ludiko izpafingi katolikotafen Batzar orokor bat egiteko. Izpar benetan pozgafia!

Irakurzaletasuna goiko emaitza dala norbaitek esan dau, eta egi andia izan be. Baña zaletasun au, kaltegafi izango ezpada gauza onetzazkoa izan bear, yateko gogo onuratsua, yaki onetarakoa bakañik ona dan legez. Gaur egunean batez be, irakurri barik, ilunpean biziko giñakez, orixe da yakinbiderik aukerakoena ta. Irakurtea gogoari yaten emotea da, eta yakiña, ofetarako, neufizko, onuratsu eta egokia izan bear. Orixe egiten ez dalko, gaur irakurzale asko ikusten ditugu, burua ta biotza gustiz naspilduta daukiezanak. Gogoari yateko txaña emoten dau tse ta, gogoko osasuna galdu bear...

Irakurri ba, yakiteko bakañik ez dogu egin bear, obeak izateko be bai. Alan ba, idazti ta izpafingiak irakurten ditugunean, laosak artzen ditugunean arantzakaz arduraz ibilten garean lez, irakurgai onak aukeratzeko ardura andia euki bear dogu. Bestela galduak gara. Eta onetan zuzendu bear asko katoliko artean be ikusten dogu. Edozein izpafingi ta idazti irakurteko kezkarik ez, ta gero... «kristiñau sentzuna» auzoan...

—Baña, «niri kalterik ez daust egiten»... saritan esaten dabe, guzur eta gaiztake-riaren aurka «bakunauta edo txertatuta» dagozala *uste* daben askok. *Uste* ofetan

egotea, egiten dautsen kalteen ezaugafirik onena ez ete da gero?...

Erantzun egokia.

Bein idazti alan-olangoak irakurten zalea zan bateri bere emazteak esan eutson: «Idazti ganorabakook zertarako irakurten dozuz?

—Andra, ofegaitik ez zaitez estutu.— esan eutson. ¿Ze kalte egingo daustela uste dozu? Irakurritakoa bereala aztuten yat. Entzuten egoan alabeak esan eutson: —Aita; igaro dan igandean, zer yan gendun ba'dakizu?

Aitak itaun ori zetara yoyan ez ekiala, zerbait oldostu ondoren esan eban, ez zala gogoratzen.

—Ondo da-esan eutson alabeak, baña yatekoak, alikatu, indartu egin zinduzan.

Aitak bereala, esan gura eutsona, igafita, besarkatu ta geyago idazti txañik ez ebalá irakurriko esan eutson.

* * *

Katoliko gustiak orixe egingo ba'lebe!... Ofez gañera gustion eginbeaña auxe da: Izpafingi ta irakurgai onak ezagutu ta zabaldu; onai indaña emon ta lagundu; beti onak irakurri ta txañai ta erdiz-erdizkoai guda gogofa egin... egunoro ikusten dogu ba «zelako irakurgaya alako gizona» egi andi bat dala. Zer irakurten dozun esan egidazu ta nor zaran esango dautzut...

Tolosa'ko Eukaristi Batzafa

Egiz zoragafia izan da, Dagoniā'ren 28'tik 31'ra Tolosa'n egin dan Eukaristi Batzafa. Yaupariak, umeak, gaste ta gurasoak gure ziñesteko Eguzki dan Eukaristia'ganako maitasun yori ta gartsua, alkafen leyan, agertu dabe. Egun gusietaan itzaldi mamintsu ta egokiak, eta eleizkizun edefak egin ziran, baña batez be azkenengo egunean, inguruetan egundo egin dan eleizkizunik bikain eta zoragafiena egin zan. Amafetan Gotzain mesa eleiza pil-pil egoala, asi zan. Abesbatz edefak, Motriko'ko ume talde zoragariak lagunduta, Mokoroa'n yaupa andikiro abestu eban. Itzaldia P. Ormazabal kanonigu yaunak berak dakian lez sutsu eta samurkiro egin eban, «Yauparen onurak» gaitzat artuta.

Afatsaldean Batzafa amaitzeko egin zan ibildeuna bafiz gitxitan ikusi dan lakoa. Gotzain agurgafia buru zala, irureun abade yaun, ogetamaika eritako udal gizonak, eleiz batzatakoko ekuññez inguratuta, ogetabost mila gipuzkoatafek euren ziñeste sutsuaren agerkai goragafia emon eban.

Amitzeko gure Gotzain agufgariak itzaldi aitakor, sakon eta gartsua euskeraz eta erderaz egin eban, egun areitan Eukaristia deunaren garraitzak azaltzeko. Berak iñoan lez Eukaristiak umetxoen biotz samurak Beragandu ditu; itxaropenez beteko gasteen biotzak; baita emakume ta gizonzekoen biotzak, euren egunoroko eginbeafetan atsenden artuta, maitasun batek bultzatuta, katoliko zintso ta Eukaristi maitale zintso agertu diralako. Eta yaupariak eta agintariak, Eukaristia'ganako maitasunean eurai dagokien lez lenengo mañan agertu ziran.

Batzar goragafi au amaitzeko, Tolosa'ko endoreak erki gustiaren izenean, Eukaristiaren eskintza samur eta biotz-biotzefik sortutakoa egin eutson.

Egiz eta benetan esan geinke, inguruko mendien antzera, Eukaristia'ganako maitasuna, sendo, sustraitsu eta garaya dala.

Eukaristi-Batzar au gertau dabenak egiz eta benetan txalogafi dira. ¡Biotzeko zorionak gustioi! eta jauferal!...

Beljikan beste garaitza eder bat

Egun areitan bertan, Beljika begikoak, latefi gustiko lenengo Eukaristi Batzafa egin dabe, Beljika'ren azkatasunaren eungafen urtea ospatzeko. Beljika'ko Gotzain gustiak, eta Mixiño urñietatik etofitako beste asko, Van Roey Gotzain buruaren inguruan milaka yaupariak bildu ziran. Umeen egunean bildu ziranak 50.000 izan ziran; emakumen egunean 40.000 andra ta neskatil eta azkenengo egunean 150.000 katolikotar ibildeun zoragafiena egiteko. Malinas'ko uria egun ofetan eleiz andi biufu zan, gustia apaindurik, Kristo gure Yauna Eukaristian aintzaltzeko. Ibildeunaren azkenean bere biotzeko poztasuna agertzeko, Van Roey kardenal agurgariak itzaldi biozkor eta gartsua egin eutsen, Yesus'en izenean, ziñestean sustraitsu, eta beti zintso yafaitzeko, eta alkafenganako maitasun eta bakean alegin gustiaz irauteko, eskatuaz.

Ainbeste epelkerien erdian, Kristo Efegegen garaitzok, egi-egiz biotza pozez eta adorez hetetan dabe.

«Kristiñau Ikasbide» bafia dala ta

Lengo zenbakian aitatu gendun, Gaspari kardenal agurgariak egindako «Kristiñau Ikasbide» bafia ludi gustirako, laster lateraz agertuko dala. Efoma'ko izpafingi batek idatzi eban, Ikasbide bafi ori, Aita Santuaren izenean Eleiz gustirako egiña dala, baña *L' Osservatore Romano*'k zeatz azaldu dau, Ikasbide ori zelan argitalduko dan Aita Santuaren izpafingiak diñonez, Ikasbide ofen egilea Gaspari kardenala da, baña, beste edozein idaztiren egile lez, ez esaterako, Eleiz Legedia, batzordez batean Eleizaren aginduz egin eban lez. Egia da, Gotzain eta urtziztilari edo teologo yakintsuei euren eretxia eskatu dautsela, onango gayetan irakasleak eurak be, besteen eretsia yakitea gura izaten dabe-ta. Baña aolku-eskatze onek, lanari gafantzi andia emon afen, «Kristiñau Ikasbide» ori Aita Santuzaren aginduz egiña dala ez dau adirazten, eta beste lzkuntzetara aldatzeko agindua Berak emon dabenik be ez.

Onek besterik ez dau adirazten, egitarau zeatz

eta estuenak gogoan artuta, Eleiz gizon yakin-
tsu ofek egin daben lana itzalgarfia dala, batez
be sei urtean, ardurarik andienaz lan oferi ekin
dautsolako, Eleiz gustiak «Kristiñau lkasbide»
bakafaren gurari bizia ikusirik, eta gurari òri
asetu gurarik.

Ez dirudi ba, Eleizak lkasbide ori Eleiz gus-
tietan «nai ta ezkozat» aginduko dauanik.

Gaspafi yaunak berak be adirazi dau, Gotzain
bakoitza azke izango dala, ori ala beste antzeko
bat bere goterkian ezarteko.

Lourdes'ko bidezkunde ta alatzak

Urtero lez Pantzetafak Lourdes'ko bidezkunde
ospetsua egin dabe. Aste betean 40 000 bidezti
1 400 gexogaz Lourdes'ko Ama Sortzez Gar-
biaren onetan bildu dira. Egun oneitan baita
bildu dira befogematar osagile yakitun, igesko
bidezkundean izan ziran osatze gelgafiak, ya-
kidi-arauz aztertzeko. Osagile-landolan lan egi-
teko osagile-bazkun bat eralduta dago eta orain
arte bazkidetu diran osagileak 1.450'era eltzen
dira.

Iges Parantzeko bidezkundean osatu ziranak,
iru izan ziran, eta osatzea bein-beñekoa bakafik
ez zala izan aztertzeko, urte betean itxaron
dabe, euren erexia emon aufetik gexo izanda-
kook bafiro aztertzeko. Eta zeatz eta ardurarik
andienaz aztertu ondoren, ao batez autortu
dabe, osatzeok egizkoak izan dirala, eta yaki-
diz ezin leikezala azaldu, beraz goi-indafen bat
tarteian izan dala. Osatze gelgafizat iru oneik
emon dituez.

—Paule Margerie probentzarafa, muñazal edo
meninjes gaitzduna, gexo onen aldirik txafenea
egoala, Lourdes'ko uretan garbituta, une atan
osoan osatu zan. Beronek izan eban gexo
mueta, osagile gustien eretxiz, osatu ezina da.
Alan da be, 1929'ko Garila'ren 27 ezkerotik osa-
sunik edefena dauko.

—Bardin, Maria Chauvin, 30 urte ezkerotik
pikor gaitz epela toki askotan eukona, eta lepa-
zur eta abar pott-gaitzak yotakoa, il zorian ure-
tan sartu ta 1929'ko Dagoniila'ren 25'n gustiz ba-
patean osatu zan. Afezkero 19 kilo gizendu da,
eta gexoen aztefen barik lan egiten dau.

—Maria Trolong, urteetan kuntzafun gaitz
zauriduna sabel-zareko gaitz epelaz luña yota
egoana, urteetan Liile-ko osatetxean egona,

1929'ko Dagoniila'ren 24'n bapatean osatu zan.
Osagileak, urte gustian zain egin da, baña ge-
xoen lofatzik be ez yako gelditu. Amabost kilo
irabazi ditu. Osagileak aztertu ondoren esan
dabe, gexo astun askotatik bapatean osatuta
gelditu zala.

Intelektual burua eginda, mirariak ukatu gu-
rarik dabiltzan osagileak or dauke euren *yaki-
turia* non azaldu. *nai ba'dabe*...

Bitartean Lourdes'ko Ama efukitsuaren ain-
tza zabaldu daigun.

Mexiko'ko Eleiza ta Agintariak

Alderdi bietakoak autu-aldi luzeak egin ondo-
ren, lateriak erabagi dau, Mexiko uriburuko
Gozain eleiza bafiro katoliko eleizaren eskueta
ipirtea. Bakoitzari berea emotea Yaungoi-
koa'ren legea da-ta, lapufetan egin ebena bafiro
biurtu baño ez dabe egin. Alan da be, osutatko
gustia ez dabe biurtu gura izan.

Eleiz onenak ziran antxiñako, XVI eta XVII'
gn. gizaldiko eleiz-yantzi edefak eta bitxi edon-
tziak ez dituez emon; ez da ainbeste aberasta-
sun daben idazitategi ta agiriak. Gauza eder
oneik baña lengo tokietan zainduko dira, gus-
tiak ikertu al izango daben biltegi edo museo
bat egiteko. Ez dago ondo eginda, baña ordain-
tzafe txafari, emoten dabena artu, eta emon
gura ez dabena eskatu egin bear yako, ta fuste
dogu katolikotafak, Mexiko'n orixe egingo da-
bela.

Gure Yauna itxasoan


Itxaso ta, luñen Yaubea toki gustietan aintzal-
dua izan bear dau-ta, gai onetzaz izpar pozgafi
bi irakufi ditugu.

Norddeutsche Lloyd itxasontzi-bazkun ale-
mandafak, itxasontzi gustietan yaupa ta eleizki-
zunak egiteko kapiña edefak ipiñi ditu. Ofrez ga-
ñera ara asmo begiko bat Yaupa mesa esaten
dan bitartean, Eukaristi ikurfiña agirian ipiñiko
da, oyal gofian kurutze zuri bat dabela. Beste
europar itxasontzi-bazkunai yafaituaz, yapon-
dar «Yusen Kwaisha» Bazkunak be Europa ta
Amarikara'ko ontzietan kapiñak ipintea erabagi
dau. ¡Ederto!

M'tar G.

ELEIZA AMA TA KRISTIÑAU IKASBIDEA



 ARITAN toki onetan Kristiñau Ikasbidearen beařizantzaz itz egin dogu, eta Yaunaren laguntzaz, gai oneri erea datorkigun gustian ekiteko asmotan gagoz, ondoegi ikasten ez dana, geyegitan iñoz be ez dalako esaten, eta *Yaungoiko-Zale*'n asmo bikaña Kristiñau Ikasbideaganako maitasuna zabaltzea dalako be bai.

Baña zio guztien gañetik, eten barik lan oneri ekiteko adorea, emoten dauskuna, Eleiza Amak ainbeste bidar agertzen dauskun gurari bizia da, beraz, Yaungoikoa'ren guraria. Eta guretzat zeregin bakaña bizitz onetan, Yaungoikoa'ren guraria ez te dau izan bear?...

Aita Santuak esan dabenez, «ez yakin aldietan» bizi gara, eta goiko gauzatzaz zabaldu dan ezyakin lotsagaria bastertzeko al dogun gustia, *gustiok* egin bear dogu. ¡Zeregiñik bikañena orixe da! Orixeregin beařekoena eta onuratsuen!

“Esnatzeko ordua eldu da,,

Kristiñau asko, onetan lo zořoan egon da eta oraindiño lo zořo kaltegarı ore-tatik ez dabe urten. Vitx'ko Gotzain yakintsu izan zan Tořas eta Bagés'ek esaten eban lez: «Mundutařak oargabeak ardura barik eta gauza ezerezari lez, Kristiñau Ikasbideari begiratzan dautse, eta alan da be giza bizitzako ikas-idaztia berau da, bertan ziñeste eta egin bear dogun gustia dagoalako. Eleizkoi diranak be kutsutu dituan ardurarik ez. au dala ta Igarleagaz dedar egin eta esan bear dogu: ¡Esnatzeko ordua da!» (1).

Gizartea gexo astunaz dago; giza-legea-abere-legeak bastertuteko ařiskuan; eta gizabidea ondatzeko zorian, kistar ikastiko egi lenak, bizitzako egiak, aintzak

(1) De la Ciudad de Dios y del Evangelio de la Paz. tom, I. 250 ing.

artu gura ez diralako. Zerbait egingo ba'da, bide bat bakaña dago; Kristiñau Ikasbidea aintzat artu, biotzean sustraitu eta *egin*... Kristiñau Ikasbide barik ez dago gizabiderik!

Obenik andiena

Kristiñau ikasbidea ez yakitea, bigařen yatorizko obena dala Aita Santu batek idatzi eban, eta len aitatu dogun Toñas eta Bages agurgariak gurasoen ardurarik ezaz auxe diño: «Kristiñau ikasbidea irakasteko ardurarik eza edo itxikeria gurasoak semeakaz egin leiken obenik andiena da, eta bardin ugazaba batek bere etxe-ko menpeko ta mofoyakaz, Paul deunak itz oneitan argiro diñon lez. Norbaitek bere menpeko ta mofoyetzaz ardurarik ezpadauko, ziñestea ukatu dau eta ziñesgea baño ıxařago da». (I ad Kor. 11-14) Beraz Kristiñau Ikasbideaz ardurabakoa dan sendi burua, Yaungoikoa'ren aizkidetasunean egon eta gaizkatzea, katolikotar ziñesitxi ba leu lez, gauza eziña da. eta ondiño iñoz kristiñau izan ez diranak baño gaiztoagoa da». (Ib.)

Itzok gogoręigitzat artuko dituezala diño, baña Paul deunaren itz garbiak gustiai oldostu eragin bear dautse, Espiritu santuak esandako itzok, orduan beste indar oin eta gizaldi gustietan eukiko dabe-ta.

Eleiz Ama'ren ardurea

Ez da ba ařitzekoa Eleiza Ama deunak Kristiñau ikasbide auzia ardurarik andienaz artu, eta gai onetzak agindu eta erabagi zeatzak emotea. Asmo oneik betetako eta Kristiñau Ikasbidea bear dan onuraz irakatsi eta biotzetan eta bizitzan sustraituteko or emen Kristiñau Ikasbide Batzarak egiten dira. Egiñean be datořen Uriña'ren 5'tik 9'ra, España-lateriko batzar aundi bat Zaragoza'n egingo da. Antxe idazlerik bikain eta katekistarik ospetsuenak egun oreitan bilduko dira, amabost inguru Gotzain bertan dirala, Kristiñau Ikasbidea erarik onenean, onuraz eta baster gustietan zabaltzeko bideak adiraldu, aztertu eta erabagiteko. Ez da ba auzi alan olangoa, gaur egunean, eta beti be lenena, onuraisu beařekoen eta goragarie-na baño.

Orixe dala-ta Eleiza'k Kristiñau Ikasbidea irakasteařen nekazka edo parkamen ugariak beti emon ditu. Eta ara ointsu emon dituanak.

Kristiñau ikasbidea ikasi ta irakasten dabenentzat parkamen bariak

Azkenengo *Acta Apostolicae Sedis'ek*, Kristiñau Ikasbidea ikasi ta irakasten dabenak irabazi leikezan parkamenak Pio XI'n aginduz iragaři ditu.

Paul V, eta XIII'gn. Kelemente'k emondakoak gomutau ondoren, auřerantzean indařik ez dabela izango diño, eta ordeaz ementxe ipiñten dituguzan parkamenok irabazi al izango dira:

1.º Kristiñau Ikasbidea ilean biritan ordu erdi inguru, eta ez ogei minutotik bera, irakatsi ala ikasten daben gustiak *ilean biritan parkamen osoa*, irabazi leikie, euren obenen damuaz autortu, Yaunartu eta edozein eleiza ikertuaz Aita Santua'ren asmoakaitik otoi egin ezkeru.

2n. Len aitatuako aldian, Kristiñau ikasbidea irakatsi ala ikasten daben *bakoi-tzean* kristiñau gustiak *irureun eguneko parkamenak* irabazi leikiez.

Ara auferantzean, Kristiñan Ikasbidea irakatsi ala ikastearen irabazi leikezan parkamenak. Nekaska ugariok, Kristiñau Ikasbidea kristiñau gustiok irakatsi eta ikasten ikusteko gurari bizia, Eleizak daukala adirazten dausku. Eta guk egin gein-ken gauzarik onena albait ondoen irakatsi ta ikasten alegintzea dala be bai, bakoi-tzari bere elez, eta «euskaldunei euskeraz» irakatsita... Ekin ba!...

AU, ORI TA BESTEA



Yaungoikoa'ri eskefak!...

Bai, egiz esan geinke Yaungoikoa'ri eskefak, udaldia igaroez eta yantzikera nasayak eta beso makila ta aragi ustelaren erakusketa nabarmenak, urituez doazala. Aberekeria, aberatzen artean sortuta, gizarteko mala gustietara igari barik zabaldu da, eta lotsabakoen *kofradian* inoz baño geyago igaro dan udaldian sartu dirala oartu dogu. ¡Benetan tamalgaria, baña egia dala ezin ukatu...! Zerbait lotsa euren buruari dauziela uste izan zeinkean asko, gustien auran ain barik agertu dirala ikusi dogu. Eta kristiñauen artefik lotsabakori ezaingari au bastertzeko Gotzainak eta, erabagi gorak emon afeñ, gaiztakeriak, ontzat dagozanen artean be, triskantza txikia ez dau egin... ¿Kristiñau zentsuna galdu dalako?... ¿Gogor egin bear dabenen itxikeriz?... Ba'leiteke bietatik zerbait baño geyago izatea...

Kristiñau ontzat dagozan, eta Maria'ren alaba euren burua egiten dabena, *lotsaz* yantzita ibilteko *lotsaz* ikusi ditugu. ¡¡Olakoñik!!...

Orain aize *preskoa* belaria erakusten asi deitenean, lotsa geitxoagogaz yantzita agertuko dira!... Baña aize *preskoak* dakaren eratasun eta lotsea, aize *epelak* eroatan dabela ba'dakigu ta Kristiñau sentzuna, *kristiñau* artean zabaldu daiten Yaungoikoa'ri otoi egitea biderik egokientzat daukogu, sentzunori goitik etori bear dabena da-ta...

Eta baita gomutara yatorku beñola Binuesa aba izlari ospetsuak itxas ertzeko uri ospetsu bateko Maria'ren alabai esaten eutsena: «Andra Maria'ri mesede bat eskatu bear dautsozue; *neguan*

ilteko eskaña, udaldian ilten ba'zare erukari bear dozue ta...»

Eredu bat

Yon Maria B Vianney deunaren bizi-tzan, Trotxu edeslariak diño, «Bere eleizan sartzen papar agiri ta beso estaldu bakod. nai inoz be ez eutsela itxi. Eta ez andiki ez eritar lauei era onetan sartzen ez eutsen itxiten. Egun baten, eri artako gastelukoak ikertu zituan, eta etxe artan dantzarako soñekoaz egoan emakume baten irudi bat ikusi eban. Eta atzamaraz erakutsiaz etxekoai esan eutsen: «Gilotinara doala edozeñek uste izan leike». Etxekoak laster igari eben esan gura ebana ta bereala irudia bastertu eben.»

Ildakoa izketan?...

Aldizkingi askotan auxe irakuri dogu: «España'ko eri baten neskatil gaste bat il zan, eta gorpua il kutxan egoala auzokoak agurtza esaten, oitura ebenez, bildu ziran. Laugarren eskutukia esaten egozala, ildako gastea arizko irudia bai'ltzan zutik, agertu zan, eta begirakun zo'otzaz gustiak aritzen zituala esan eutsen: «Naiko da, naiko da; nigaitik ez otoiрик egin, gaurko yanzkera nabarmenai yafaitzearen *kondenauta* nago-ta». Eta besterik esan barik bañero il kutxan etzun zan».

Aldizkingi benak auxe argitaldu dabe, eta geure aldetik ezer geitu barik, gaurko oitura ta yantzikera, zerura baño gaiztokira eroateko egokiagoak dirala, diño-gu...

KATOLIKO IZPARAK

Erabagi txalogafia

Irala'ren 20'n italtar gudarosteak, Aita Santua'ri Efoma'ko bakalduntza indafez kendu eutsuela, irurogei urte bete dira. Eleizaren etsai amofatu ziran agintariak. egun ofetan latefi-yai andia egiten izan dabe, «lapufeta» ofen gomutaa.

Baña orain italtar bakaldun eta Doipuruaren arteko bakeak egin ziran ezkerotik, egun ofetan yai egiteko agintariak ziorik ez euken, eta Mussolini'k erabagi txalogafi bat artu dau: yai ori kendu eta ordeaz, Itunbena egin zan eguna (Otsala 11^a) yai egitea. Datofen ilaren 15'ko batzafean, Mussolini'k lege ori emoteko asmoa agertuko dautse, Aita Santua'rentzat ain samingafi izan dan yai ori kenzeko. Ederto egiña, eta pozgafia, Eleizarentzako gogo ona agertzen dabena da-ta.

Aita Santua'k erabagi onen baña pozez artu dau, eta katoliko gustiontzat pozgafi da eta benetan txalogafi.

Bizitz onetan baña, poz ta atsekabea alkafen urfan ibiltan dira-ta, italtar agintariak sobietakaz saldu eroste itunbena egiteak, uste izan leike, Aita Santua'en biotza saminduko ebalu, lufeko onura apur bategaitik, siñeste eta zuzentasun gustien etsai agertzen diran boltxebiekiekaz, artu emonik eukitea katoliko latefi bateri ez dagokion gauza da-ta.

Gaizki egiña gaiztestu dogun lez, ondo egiña txalotu daigun.

Lourdes'ko bidezkundeak

Aufeko zenbakian ikusi gendunez, Lourdes'ko Ama Sortzez garbianako. eraskuna gero ta sutuago bidezkunde ugafietan agertzen da. Ara zenbaki batsuk. Lourdes'ko geltokian igaro dan Dagoniñan yatsi diranak 210.000 bidezti izan dira. Eta trala'ren lenengo amabost egunetan 85.000. Ori bilbeletan eta eldu ziranak zenbatu barik. ¡Gauza pozgafia benetan ainbeste ta ain-

beste katoliko Ama'ren ofetan ikusteak siñestea askok uste dabean baño biziago biotzetan sus-traituta dagola adirazten dauta! Bidezkunderik edefenatakoa Lieja'koa izan da 7.000 bideztigaz. Txafak gaiztakerirako saratatsu agertzen dira, baña onak lo dagozala ezin esan geinke, aspaldi egiten diran batzafak, yayak eta bidezkunderik katoliko bizitzaren ezaugafi bikaña dira-ta.

Parantze'ko irakasle bidezkundeak, Efoma'n

Irakastola onen aldeko irakasle talde edefa Aita Santua'gana eldu da. Abegirik onena egin dautse, Kristiñau irakatsien aldeze oreik, ainbeste on eleiza ta gizarte-ari egiten dautsielako. Euren lana txalogafia, eta bere biotzean geyen maitatzen dabentarikoa dala adirazi ondoren, esan dautse pozez ikusten dituala, Parantzen batez-be zabaldu diran sufumufu guzufeeko bi ezereztuteko eretian aurkitzen dalako.

Sufumufu bata, Aita Santua gaizki gexorik dagola-ta zabaldu dana da. Aita Santuak esan dautse orixe dala-ta toki gustietatik estutasunez itaun asko egin dautsiezala, eta ofen erantzuna, begien aurfan daukela adirazi dautse, eurak ikusi leikenez, beintzat osasun edefagaz dagola esan dautse. Gerokoa Yaungoikoaren eskuetan dago, eta esku obeitan ezin leiteke egon eta Bere naya gaur eta beti beteko da.

Bigafen sufumufua *Action française* auzietzaz izan da. Baster gustietan esaten ibili dira, Aita Santua'k, bidekatuta dabilzan onein aurka emondako erabagiak biguntzeko asmoa dabela, eta ori laster ikusiko dala. Aita Santuak diño gustiekaitik, zintsoakgaitik, eta ez diranak biurtu daitezcan egunero otoi egiten dabela; baña bazkun'aren kaltez emondako erabagiak ezertan be ez dirala aldatu, eta aldatu be ez dirala egingo. Ofetan menpetasunetik urten dabena, beste biderik ez dauke beraz, apaltasunez, katoliko gus-

tien buru dan Aita Santua'ren aginduak betetea baño.

Gustiai bere aldez otoi sutsuak eskatuaz, oneskuna emon eutsen.

Oberammergau'ko Nekaldia

Oberammergau, Babiera'n, Alemania'n dagon efi txiki bat da, Itxas ertza baño, 841 metro gorago Alpes'en oñean dagon efi onek 1600 biztanle inguru ditu. Efi koskor au gustiz ospetsu egin da, bertan antzeztuten dan Kristo'ren Nekaldia dala-ta. Amar urterik bein, egiten dan antzoki yayetara milaka bidezdiak ludiko alde gustietatik eltzen dira; eta euron artean gizon yakintsu eta ospetsu asko. Aurten gotzain asko izan dira, eta Ingalanda'ko bakaltsein buru Mac Donald be an izan da. Ara oitura eder ori nondik sortu zan. «Ogetamar urteko guda» izugaria amaitu zanean Alemania'n izugarifzko ixufi bat sortu zan efiak auzez ondatzen zituana. Oberammergau inguruak be milaka efiotzaz ondatura itxi zituan. Estutasun aretan siñeste bizidun efi onek asmo ixalogarfi bat artu eban. Ixufi aretatik zaintzen ba'eban, amar urterik bein efi gustiak Kristo'ren Nekaldia antzeztuteko ziñitz edo eskintza egin eban. Eta efi onetan ixufiaz bat be ez zalako il, amar urterik bein beti bete izan dabe eskintza ori eta andikiro bete be. Kristo'ren nekaldia antzeztuten efitar gustiak sartzen dira, eta ain ederto egiten dabelako ludi gustia eurai begira ipintea lortu dabe.

Antzerkiok udaldian astean bi edo iru bider egiten dira. Antzokiak lau, bost mila lagun artzen ditu, eta zortzi bat ordu atsedean apur bategaz, irauten daben antzerkian, eun metro zabalera daben agertokitik 700 antzezlari igaroten dira, eta gustiak efitafak. Gustiak antzezlari bikain lez agertzen dira, eta efi aretan zoritxar andi bat da antzerki ofetarako gai ez izatea. Batez be, Yesus antzeztutea zorionik andientzat esten dabe, eta umetatik orixe buruan dabela, ofetarako gertatzen gurasoak asten dira. Oberammergau'tafak eskintza ori, 1633'n egin eban eta iñoz be utsik ez dabe egin 1920'rarte. Orduan guda galgafiaren ondorenak zirala-ta, ezin gertau izan eban baña orde, 1922'n egin eban. Aurten bañero egin dituez antzezkizun ospetsuak eta izpafak diñoenez, iñoz baño obeto, sutsuak eta bidezti geyagogaz egiten diardue.

Antzoki onetan itzal andia, ixiliasuna soma-

izen da, eta ain egokiro eta ziñeste biziz gauza gustiak egiten diralako, bertan egon diranak aurtortzen dabe, toki artatik Kristo'ren Nekaldia ganako maitasuna biztuta urteten dala.

Efi zoriontsua, eskar ona Yaungoikoa'ri ain egokiro agertzen alegintzen dana!

Izpar txorta

—Budapest'en Emeriko deunaren milēgafēn urtea ospatzeko yai edefak egin dira, Aita Santua'ren Ordelari Lepizier kardenal agurgafia buru zala. Azkenengo eguneko ibildeunean, eun mila lagun baño geyago bildu ziran, euren artean Burne, Wetminster'ko kardenal, Faulhaber Munitx'koa, Palermo'ko kardenala eta Seipel ospetsua be bertan zirala.

—Italitafak. Loreto'n latefi-Eukaristi-Batzar edefa egin dabe. Aita Santua'ren ordelari, Kapostosi kardenal agurgafia izan zan. Zertzelada begikoa. Gnre Yauna'gaz oneskunda emon eban unean Italia guztiko yoalak (kanpayak) yo ebezan Loreto'ko bidezkunde ospetsuaz kistar gogoak batuteko.

—Tuyugaba yaun bakaldun sendiko, eta Yapon'go alduneko buru danak Aita Santua ikertu dau. Yapondar abade katoliko batek lagundu dautso, eta Aita Santua'gaz autu aldi luzea euki dau.

—Oraintsu larogetaka urtedun il zan, Hagen aba Batifano Obserbatorioko zuzendari ospetsu ta yakintsua izan dana. Toki ori betetako, urte askotan bere laguntzale izan dan Stein aba yosulaun olandaña Aita Santuak autu dau.

—Sei urte oneitan, Txina'n ziñopa martiri il diranen artean Gotzain bi ta ogetabi abade-lekaidedagoz. Gotzain bata pantzezkataña izan da ta bestea salestafa. Enparau mixiolarietatik sasi pantzezkafak, lau Sixeut gopatzekoak, iru pasionista, yosulaun bi, txiñar yaupari bi, Paris'ko atzeri mixiolari etakoa bat, Pikpus gopatzako bat, Issondun gopatzako bat eta salestar bat.

—Beljekar irugafendafak. Mercier kardenal ospetsuari gomutaki irudi bat iragitea erabagi dabe. Irudi onen egilea, Aba Effen Czenia, buruñurduna da, eta gogartea egiten dagola, Mercier yakintsuaren irudia egin dau.

"BOXEO,, EDO UKABILKETA DALA-TA,,,"



Yaungoikoa'ren emaitza

GORPUTZEKO bizitza Yaungoikoak gizonari, emondako gorputzko emaitzetan edereña dala ezin ukatu daike. Eta gizonaren bizitza lantsu, onuratsu ta iraunkorak, gorputzeko sendotasunean sustara daukolako, gorputzaren sendotasun, lerdin eta txairotasuna lortu eta zaindutea, zelanbait Yaungoikoak emondako emaitzak zaindu ta ugaritzea da. Beraz gizonaren eginbea'etatik bat. Orixe dala-ta, gizonak gorputz bizitzari kaltea eka'ri leikion gauzetatik aldentzeko daukon eginbea'rez ga'ñera, gorputz bizitzari eutsi, sendotu, marduldu eta obetuteko eginbea'ra dauko. Deunak eurak be orixe irakasten dabe, laztasunak, neuriz eta zurtasunez egin bear dirala diñoenean. Gorputza sendotzea ba'riz, berenez gogoarentzat onuraga'ri da, gogoak gorputz bidez lan egiten dabelako, gorputz sendoa, gogoaren laguntza'le ohea izango dalako. Idazkerarik onena daukanak be, idaztortz txara' ba' dauko ondo idazten zeregin eukiko dau. Bardin gogorik onena eukia'ren, gorputz argala daukonak gauza andirik ezin egin, naita be. Gizonaren alegia'ña ba, antxi'ñakoak esaten eben lez «gorputz sendoan gogo sendoa» eukitea izan bear dau. *Mens sana in corpore sano.* Bizitza Yaungoikoa'ren emaitza da, eta lurpean gor-detako ez dausku emon, zaindu ta irabaziak ugaritzeko ba'ño.

Gorputz-iñarkun eta yolasak

Aitatu doguzan egi garbietatik, beste bi oneik sortzen dira: Lenengoa; gure bizitza'ren yabe Yaungoikoa dalako, geure ta geidearen bizitzaren kaltez, o'rtara-ko zio ga'rantzitsuen bat izan ezik, ezerbe ezin geinkela egin, oben egin barik,

Yaungoikoaren Legeko boskañen agindua «Iñor ez iltea» da-ta. Eta agindu onetan norbere ta besten bizitzai, ezertako zio barik, kalte egitea be debekatzen da.

Bigareña; gorputz bizitza zaindu ta indartzeko egiten diran iñarkun eta yolak *neuriz, eraz, aldi egokian, norbere bizibideko eginbear eta gogoaren kalte barik* egin ezkeru, gustiz onuratsu ta txalogañiak dirala. Eta ez gorputzarentzat bakañik, gogoarentzat be bai.

Ba'dituguz gure erian onetaraku aukerakoak diran gorputz-iñarkunak. Batez be pelota yokoa, espata dantzia ta mendigoizaletasuna, len aitatu dituguzan baldintzakaz egin ezkeru, gastedi sendoa ugaritzeko aukerakoak dira. Baña zoritxañez Eusko-erian atzeritar yolak eruz sartu yakuz, basatikeri ta, garbi esateko, astakeria zabaltzeko aukerakoak diranak. Onein artean gaur bat bakaña aitatu do, gizabide, zilegiziti ta sentzunen izenean, betiko bastertu bear litzakena. Au *Boxeo* edo ukabilka yokoa da.

Boxeo edo ukabilka yokoa zer dan.

Ori nik bestean edozeñek daki, gizon bik ukabilka egiten daben buruka bat dala, zein nagosi dan ikusteko. Yoko onetan osoan garailari urtetzeko, batak bestea konorte barik luñera bota bear dau, eta amar iroiren edo segundo bañu yagiten ezpada, bota dabena garailari izaten da. Oretaraku, yakiña, ukabilka ikaragañiak emon bear, eta sentzuna kentzeko tokietan al dan gustian, betondo, zur, matralazur biotz, urdail eta abar, itz baten osagiñe yakintsu batek esan daben lez «konorte barik ipinteko emon bear diran ukalbikadak, eriotzea ondoren ekañi leikie». Eta sañi askotan orixe gertatzen dala ikusteko txitean pitean izpañgiak ekarten dituezan bañiei begiratu. Eta urñago yoan barik, nor ez da tamalez bete Gabiola gaxoa era oretan il dabela irakuñi dabenean? Eta ondiño aldi laburēan Ipar Amerika'n *lau* era oretan yoko tokian bertan ilda yausi dira. Orixe dala-ta yoko oretzazko ain zalekeri itsua geure erī maite onetan zabaltzen ikusteaz biotza atsekabez betetan da, ez da gitxiagoraku be ta. Eta eriotzaraño eldu ez da be, yoko galgañi oretan zauriak, baltzunak, betondo urátzeak, odol yario ugariak ezer ez lez dira. (1) Eta naiko da; yoko onetzaz beste gauza asko esan leike baña.

¿Ukabilka buruka ori zilegi ete da?

Figueiras abak, len aitatu dogun idaztitan zearo egi au aztertu ondoren, buruka oneik oben astun dirala ezpaibarik diño (79'n ing.). Izan be, boskañen aginduak norbera ta iñor zauritu ala zartada aztunik emotea debekatzen dau, eta egin-egiñean be, «boxeo burukalariak, bestea konorte barik itxiteko, *albait ukabilkadarik andiena* emotera yokatzen dau». Eta ori Yaungoikoa'ren lege ta gizalegearen aurka da. Yaungoikoa'k osasuna ta gorputzaren osofasuna zaintzeko agindua emon dausku, eta ukabilka-buruka ori, zuzenean agindu oren aurka doa, egunoro dakus-

(1) Gai onetzaz irakuñi, I. Figueiras Aba pantzeskañak idatzi dauan idazti edefa. ¿En lícito el boxeo? 54-77 ing. 1930,

gunak agertzen dabenez. Eta ori olan dalarik, iñok ukatu ezin daikenez, oituraz yolas oñeitara yoan eta txalotutea zilegi izango ete da?...

Itaun batzuk eta erantzuna

Ukabil-buruka au, aitatu dogunaz bakañik, edonork igarri leike, basatikeri ezaingarria dala. Eta olan dalarik, gizabidean auñeratuenentzat dagozan erietan ain zabal egotea, ¿zelan izan leike? ¿Zelan izparingi, onak be bai, ainbeste zertzeladaz olango basatikeriak iragarri ta txalotu? ¿Zelan on eta biozpera diranak be, olango ankerkeriak ikusten yoaten ete dira? ¿Yoko ori agintariak zelan ez dabe debekatzten? Izan be olar burukak debekau, ari yokoak galeraso, eta gizon burukak azke? Abere ta landarak zaintzeko ainbeste bazkun, eta gizonak zaintzeko ez ete dira bear?... Bidebagekeri onen aurka izenaren yaube diran *gizon* gustiak zelan ez ete dira yaikiten?...

Ara erantzun gogoña baña garbia: Gaurko gizabide edo *zibilizaziñoa*, guzur bat dalako eta kistar sentzuna ta giza-legea aintzat dagozan biotz askotan zearo galdu dalako... eta batez be Jouffroy'k esaten ebanez, *gizonik ez dagolako*...

AU, ORI TA BESTEA



Deba'ko ikastolea dala-fa...

Ostolaza deritxon «indianu» yaun batek, Deba'ko urian Ikastola (?) Idaztitegi bat iragi dau. Bere izena daroan Ikastola Idaztitegi ori, iragi ei dau, Ameriketara ta, yoaten diranak an estu eta lafi ezyakiñaren efuz ibili ez daitezcan, yakintza bidean sartzeko. Tira, ori bear dan bidez ez da txarto.

Baña, berak diñonez irakaskintza gayetan, argi gitxikoa dalako, irakasbide edo pedagogia gayetan yakintuntzakoari zer egin bear daben itandu ei dautse. Ta eunñaren onuz nonbait, Ikastola Idaztitegi ori... *astola* izateko eraldu dau.

Lenengo, Idaztitegian idazti txar kaltegarfiak ipiñita. Blasco Ibañez, Victor Hugo, Darwin, Dumas, Insua ta abar...! *Aparaju* ederañak anka biko abere *zibilizauak* ugaritzeko!...

Bigafen, euskeraz itz egiten daben ikasleai «erestun» gofotografi ta kaltegarfia ipiñita. Egin-eginean be ...*astola* bat iragiteko idazti lizunak ikasleen eskuetan ipiñi, ta am iren altzoan ikasitako izkuntza samuñ galera tea eta gofotatzen irakastea lakorik ez dago. Bide oretatik «indio» biurtzeko Ameriketara yoan beañik ez dabe izango.

Gotzain agurgarfiak

Ikastola oren bafi yakin daberrean, idaz-

ki bat ixilean zuzerdu dautso idazti txar ofeik kalte asko egin leikiela ta, afen, Idaztitegitik bastertzeko eskatzen. Baña «indianu» yakintza-zaleak bere Gotzaiñak eskatu dautsona ixil ixilik bete beafean, Gotzaiñaren idazkia «El Liberal» era bialdu eban, eta Gotzain yaunari bere burua garbitzeko idazki bat zuzendu eutson, bere ikastolan adimenerako «yanari edendurik» ez egoala esanaz. Bitartean Ulazia, *basati azkatasunkeri* zaleak, Ostolaza'ri zorionak emoten idazki bat argitaldu eban, bera menperatzeko Gotzaiñik ez dagola ta esanaz. Eta bardin «La Voz de Guipuzcoa'n Baroja'k betiko kirtenkeriekaz urten dau. Oldosteko azkatasuna, idazteko azkatasuna, gizabidea, yakintza ta abar nastauta iñon diran sentzunbakeriak idazti dituez.

Ofeik, non bizi dira? ¿Gotzaiñak idazti txarñak debekau eta *bere menpeko* kristiñauai oafak egiteko eskubide ta eginbeañ ez ete dituz? ¿Eurak eskubide ori aintzat artu gura ezpadabe ¿nor dira aurka yarkiteko? ¿Idazteko azkatasuna aldezen ba' dabe, Gotzaiñari eskubide ori ukatu ete leikiote? ¿Ala azkatasun ori eurentzat bakafik ete da?.. Orixe dala ta Gotzain yaunak Ostolaza ta Ulazia'ri ederto erantzun dautse... Eta, ordua da, katoliko askok «La Voz de Guipuzcoa» ta antzekoak euren ziñestearen etsai gogofak

dirala igarteko... Eta aditzale onari itz gitxi!...

Euskerea bafiz zer dala-fa górofau?

Zuzenidazkerarako eragozpena dalako, Deba'ko irakasleak esan dabenez? Gastela ta andaluzta'arak Akademiaren ortografi edo zuzenidazkerea ikasita yayoten ete dira ba? ¿Ala areik óretan egiten dituezan utsen e'ru be euskereak ete dauko? Olango irakasleak dagozan lekutik *ilustrazi-ñoak* urtengo yok! ¡Bai orixel!...

Eta *indianua* ta euskerea dala-ta, gomutara yatort Agife'tar Domeka euskal idazle trebeak bere idazti «Kresala»n idazti ebana: Euskerea dala-ta estabaidan dabiltz *Indianua* ta *Itxasgizona* eta,

«*Indianuak*, kuku'ukuku egitera doian ola'arak legez burua jasota, zudur azpiko biza'arak kiskurtuaz, gustiz astiro ta benatsu:

—Neuk esan neike iñok baño obeto, lur asko ikusi ditut eta: euskereak ezta^u ogia irabazteko *balio* (Yo puedo *disir*

mejor que nadie, porque *ha visto muchos* tierras: *baskuentze* no vale para ganar pan).

—¿Zelan irabazi dozu ba zuk geldotsaf órek? ¿Erderaz jardun ederen batsuk egin-da? Esagun dozu.

—Nik neure ogia lan gogo'ean ondo irabazita daukat.

—Eztiñot ezetz, baña lanean egiteko eztoz uste euskereak kalterik egingo eutzunik, eta erdereak indar andirik emongo eutzunik be». (*Kresala* XII'n atzalb.

Amaitzeko órek abade ta Gotzañak yan beafik dabiltzanok obeto egingo leukie idaztiak egin bear dituezanean, iñoren idaztietatik lapu'etan egin barik, euren burua rekatuko ba'leukie. Ez Pio Baroja'k egiten dabena egin; beti abade lekaideak iruntsi bea'ean, eta Lhande abaren idazti batetik, aitatu barik berea bai'litzan ingoskia osoa bere idazti baten itzez-itzi ipiñi...

Ortxe igarten da zertarako nai dabenez zorieko azkatasun ori!

KATOLIKO IZPARAK

Zaragoza'ko Kristiñau Ikasbide Batzaña. ::

Gure elburua Kristiñau Ikasbidea'ri zor yakon gañantzia emon eta adimen biotz gustietan sus-traitzea da-ta, egunokaz Zaragoza'n egin dan antzeko batzafak biotza nasaitu ta itxaropenez betetan dausku. Batzar egiz gañantzitsua izan da, bertan amazortzi Gongotzain eta Gotzain, Aita Santuaren Ordeleri, lau miña batzarkide ta lañeri gustiko katekista ta izlari onenak bildu diralako. Barzelona'tik seireun ume berarizko bul-tzian euren Gotzain Irurita agurgafia buru ebela eldu ziran.

Batzar onetan ots andia egin dabena, eta gus-tiak afituta ikusi dabena Kristiñau ikasbide Erakusketa izan da. Idaztiño, ingi, irudi, eleiza-toxoa, Kristiñau ikasbidea umetxoan biotzeta-raño ikus-bidez eldu eragiteko erabilten diran ikasbide gustiak an bilduta agertu dira. Gauza benetan edefa ta afigafia, Kristiñau ikasbidea umeai irakasteko, burua zenbat nekatu bear dan, beste edozerk baño obeto agertzen dabena.

Lenengo egunean yai edefa egin zan, Pilar' eko eleizaren aũfeko zelayan amar miña umeri Yauna emonda. Eurok dira Yesusen kutunak, eta ume yai barik ezin leike bear dan lez onango batzarik egin. Asmo txalogaña izan zan ba.

Eldu ziran Gotzañetatik ia gustiak itzaldiak egin zituezan eta euron artean gure Gotzain lan-gile Mujika agurgafia itzaldi bikaiña egin eban «Kristiñau Ikasbidea ta Gizartea» gaitzat artuta,

Enparau itzaldiak edefak benetan izan ziran eta gaur egunean batez be gañantzi andia dau-kenak. Kristiñauen ezyakin lotsagafia, egiaren etsayak egiten diarduen guda ikaragafia, gizar-teko maña gustietan, nai ta ezkoa dan goiko egia zabaltzeko biderik egokienak eta abar, bafak baño besteak obeto azaldu ta adiraldu ziran. Eleizkizunak bafiz ikusgafienetarikoak izan zi-rala esan beafik ez dago. Amaitzeko egin zan batzafean, itzaldi sakan eta egikoñak, Burgos'ko Gongotzain, agurgafia, Aita Santuaren Orde-

lari yaun ag. eta Gandasegi yaunak egin zitue-zan, Eleizak, Kristiñau Ikasbidea zabaltzeko gizaldiak zear egin dituan lanak azalduaz.

Ara labur-labur Zaragoza'ko Kristiñau Ika-sbide Batzar gañantzitsuaren bafi. Gai oneri eki-teko asmoa daukogu ta gaurkoz besterik ez di-ñoogu, Kristiñau Ikasbide zaletasuna zabaltzeko onango batzafak albait sañien eta toki askotan egitea ia beafeko gauza dala baño.

Txiñar katolikotarak

Ainbeste naspil, itxulaskunde ta guda dirala-ta txiñar katolikotar eta mixiolariak nekaldi go-gofa igaroten diardue, Eta gudan ondoren gal-gafia ikurri ta lapufetak diralako, toki askotan gofiak ikusi dituez. Uste izan lei ba, ango kato-likoak sakabanatu ta uñitu egingo zirala. Baña, Yaunari eskefak, olangorik ez da gertatu. Ara egiztuteko zenbaki batsuk. 1927'tik onuntz, aba-deak ugaritu egin dira; orduan 2.901 ixan ziran eta gaur 3.420 dira. Lekaide mixiolariak 3.418'tik 3.961'ra igon dabe. 1927'n eleizak 11.560 zi-ran, gaur 12.262. Txiñatar yaupari ta lekaideak asko ugaritu dira. Gotzain mixiolari bi erail di-tuez, baña orde bertako Gotzañen zenbakia bikoiztu da. Azkenez. txiñar katolikoak 2.500.000 inguru dira. Egia da igaro diran urteetan, mi-xiolariak bertako guda ta naspilak kalte asko egin dautsiela, baña Yaunaren eskua zabala da-ta, txafetik be ona ataraten daki.

Mixiñoen alde dei bat

Ziñeste zabalkunde Bazkunaren lendakafi Sa-lotti yaun agurgafia «Mixiño egunerako» dei bat egin dau, Eleiz Bazkun gañantzitsu onen al-dez katoliko gustiak lan egiteko beartuta dago-zala azalduaz.

Ziñeste-Zabalkunde-Bazkuna, bere izate ta elburua zabal eta gañantzitsuena dala diño, eta bere asmoa, izkuntza ta enda gustietako kato-likoak zabalkunde onetan lan egiteko bultz egi-

tea da. Batez be ori egin bear dabe, Urñila'n 19'n lurbira gustian mixiño aldez ospatuten dan egunean.

Egia da azkenengo urte oneitan lan asko egin dala. Ori zenbaki oneitan ikusi geinke. 1922-1923'n 24 miloi bildu ziran eta 1929'n 66.000.000'ra eldu da bildu dana. Au gogoan eukitekoa da, batez be urte oneik ludi gustirako txafak izan diralako. Baña alan da gustiz be, mixiolarien beafizan estuenak betetako be nai ko ez da. Mixiño asko beafizan negargafian aurkitzen dira, laguntzarik emon ezin leikielako. Egun ofetan ba katoliko gustiak Aita Santuak gura dabenez, otoi egin bear dabe, itzaldiak mixiñoak gaitzat artuta, eta ukar edo limosnak. Eta batez be, Ziñeste Zabalkunde Bazkunan sartu, auxe da laguntzeko erarik onena-ta. Goterki onetan mixiño aldez lan ederto egiten da, baña oindiño geyago eginbeafa dago.

Gaur—Vilariño abak diñon lez - katoliko bero gustiki zelanbait mixiolari izan bear dabe.

Orixe dala-ta samin andia artzen dogu, España'n euneko batera ez dirala eltzen Ziñeste Zabalkundean sartuta dagozanak. Eta ori oso gitxi da; oso lotsagaría». (Mensajero X-930.924 ing.)

Yaungoikoa'ren bidera

Aspaldi protestantetan artetik asko eta onenak katoliko ziñestera biurtzen dira. Eta egi bidera bide askotatik eldu leitekkelako, Jaunaren eskafak, bakoitzaren izakerea galdu eragin bari beraganatzen dituz. Batsuk yazokun bat edo beste dala, besteak edestia irakufita, itzaldi bidez, lagun onuz... eta abar. Ara onetariko yazokun yakingafia. Ginebra'ko kalbinista bat, giza bizitza aztertutean, zertzelada batek oldosten ipinten eban. Gizarte gustietan beti legeak eta aginpidedun bat oartzen eban, eta yakiña menpetasuna be bai. Sendi bizitza ba'da, aitaren menpean dago; efi bizitza, agintarien menpean; adimen bizitza, irakasleen menpean. Ori lege orokofa da. Eta berekautan ziñoan; egin daigun gogo ta eskar bizitzan' agintedunik ez daitela izan, eta ori Yaungoikoak bere lege orokofa austeaz izango litzake; gauza bakana ziñez. Eta oldostu ta oldostu eta otoi egiñaz, oartu dau protestanteen artean ez dauken buru eta aginte

dun ori Aita Santua dala, eta katolikobiurtuda...
¡Yaungoikoaren bideak bai'dirala eskutuak!

Ipar Amerika'n antzoki txafen aurka

Hayes kardenal agurgafiaren asmoz New York'eko katolikoak erabagi ixalogafia artu dabe. Gudaketa gogofa egitea, antzokietan zabaldu dan zabarkeri ta lizunkeriaren aurka.

Hayes kardenalak idazki bat argitaldu dau, eta bertan diño lotsagaríro antzokia yausi dala, ziñegizti (moral) arau lenak ostikopetzeraño, eta ori lotsagaría dala, gizarte lotsearen aurka dala-lako.

Eta lenen antzerki txafen izendegi bat egin dabe. Ederto dago, eta Ipar Amerika'n andikiro gauzak egiter mutiñak dira-ta, zerbait egingo dabela uste dogu.

Emen be ofetan lan egin beafa ba'dago, antzoki ta zineetan, txafak egiten dituan kalteak izugafiai dirala *begiz* ikusten da ta. Egia esan, «Estrella del Mar» aldizkingiak «Gufa Cinematográfica» ta «Gufa Teatral» argitaldu ditu; baña katoliko burua, egiten dabena, zine ofeitatik urñinxoago ibilten ez diran bitartean, zintso batsuen alegin geyenak aizeak eroaten ditu. Arlo edeña ziñez. Katoliko-ekintza esku artean darabilguntzat!

Batikano'ko Uria

Batikano'ko Uria, latefi beryaube lez burua agertzen asi da. Budapest'en latefi arteko egazkin (aviaziño) batzafa egin da. Eta Batzar ofetara Batikano-latefiak bere ordelaria lenengoz bialdu dau. Ordelaritza onetarako, Batikano'ko epaikari Angelini eta Skatessi aba Gregoriana lkastetxeko matematika irakaslea izentauak izan dira.

- Batikano'ko Urian Ifatizkin edo radio tramankulua, Markoni ospetsuaren zuzendaritza-pean, ipinten diardue. Iña onetan uste danez orniduta geldituko da. Zuzendaritza, Aita Santua Gianfranzestxi aba yosulaun eta, Gregoriana'ko lendakaria autu dau. Izentatze au eginda ufengo egunean Aita Santuak tramankuluak zearo ikusi ditu.

M'far G.

ABERTZALEKERIA DALA-TA

Abertzaletasuna.

BAKOITZAK bere burua *neuriz* maitatzea, Yaungoikoa'ren agindua da. Bere eskuetatik, izateagaz batera, ainbat ondasun, gorputz eta gogo, daukogun gustia, artu dogu. Baña ondasunok ez yakuz emon lurpean gordetako, obetu ta ugaritzeko baño. Orixe dala-ta, bere emaitzak lurpean gorde zituan mo'roya Yauna'k zigortu egin eban (Matth. XXV-30). Geure burua maitatu bear dogun lez, geure urko laguna maitatu bear dogu; eta zenbat u'gegokoa izan, geyago; orixe dala-ta, geure guraso, sendi ta senideak, geure e'ri ta aberia, besteak baño geyago maitetuteko bear-kuna daukogu. Beraz, norberea *neuriz* maitatzen dabena, txalogari da, eta ori egiten ez dabenak euren gurasoak maitatzen ez dituenen antzera, laidogari. Egizko abertzale danak ba, bere e'riaren alde lan egin bear, daukon ona zaindu, ugaritu, eta gizabidean au'fera yoan daiten alegin egin bear dau. Egizko abertzaletasuna, aberi alde itz-egitean ez dago bakarik, egitez maitasun au agertzean baño. Eta benetako maitasuna dagonean, «aberkike gustiak igarotako asabatar bizitzaz bizi dira; gustien leyadura ta itxaropenaz, bizitza baka'ren luzepenaz etorkizunean», Merzier kardenal ospetsuak esaten eban letxe. (1).

Baña i'noz be ez da astu bear, *gizonaren ondasun gurena* aberia ez dala, eta aberi gustien ga'ñetik Yaungoikoa ta bere legea bete bear dituala.

Abertzalekeria.

Norberea maitatzeak baña, besteak go'rotatzera ez gaitu eroan bear; geuretzat nai ez doguna besteai ez dautsogula opa izan bear, zentzunak irakasten dausku-ta.

(1) *El Concepto Católico de la Vida, según el Cardenal Mercier*,—Juan Zaragueta. 1930, tom. I, 342 ing.)

Ori egiten dabenak aberia gauza gustien gañetik ipiñi oi dabe, eta gizon gustiok Yaungoikoa'ren semeak gareala aztuta, lařegikeririk baltzenetara eltzen dira. Eta lařegikeria, gauza gustietan kaltegarri ba'da, onetan kaltegarrienetarikoa da. Abertzaletasuna maitasun zuzenetik sortzen da; abertzalekeriak gořotora eroaten dau. Abertzaletasuna, maitasuna da; lenengo norbere eriaarena, gero enparauena; gauza bakoitza bere tokian, egizko maitasun zuzenak ořaxe bultzatzen gaitu-ta. Baña norberea bakařik maitatzen ba'da, ta besteak gořotau, maitasuna norberekokeri biurtzen da, eta norberekokeriaren ondoren, asarea, gořotoa, guda ta naspila dira.

Eta igali oneik emoten dituan zugatza, ona ezin izan leiteke. Ortik sortzen da besteak iruntsi beara, besteak menperatu ta gustien gañetik yaři beara, eta onen ondorenak aifatu beařik ez dago. Maitasunez norbere eria aldezten dabena, beronen bizitza zaindu, ugaritu ta mardultzen aleginduko da, eta berau ito gura danean bakařik, etsayen aurka yaikiko da, gizona, berari bizia kendu gura dautsienean, aldezteko yaikiten dan letxe. Bestela Agustin deunak diñon lez, «Auzoko eriai guda egitea, eta beste batsuk aspiratzeko, igarotea, ořetarako zio barik, agindu-guraz bakařik, eriak ertsitu ta aspiratzea izer esan geinke dala, lapuřeta andi bat baño? (1).

Gaurko lateřien gaitza.

Eta tamalgaria da baña lateři askotan, atxe abertzalekeri au izugariro zabaldu da, eta ludiko bakeak daukon etsairik bildurgariena berau dala esan leike. Bata besteen aitzakiz lateřiak agiñetaraño izkiluz ornitzen dira, eta bata besteen bildurak eta lengo guda galgarien ondoren negargarriak, ondiño ikutzen gagozalako, bakean bizi gara, baña biotzetako amoruak bear dan baño geyago belaria agertzen dau. Eta gustia Kristo'ren Eregetza lateřiak autortu gura ez dabelako; Aita Santua'ren eta Eleiza'ren irakatsiak aintzat artu gura ez diralako, eta ori egiz bakearen aldez yokatzen dabenak, begiak zabalik daukozanentzat eta *ikusit gura* dabententzat, katolikoak eta euroi yařaitzen dautsenak bakařik dirala!

Eleiza ta abertzalekeria.

Egizko abertzaletasuna, onbidea da-ta, Eleizak begi onez ikusten dau. Baña abertzalekeriaz ori ezin leike egin, bere irakatsien aurka doalako.

Orixet dala-ta «L'Action Francaise» gaiztetsi eban; eta Aita Santuak kementsu agertu eutson Mussolini'ri bere asarea, bide ořetatik yařařizeko asmoa agertu ebanean. Eta ointsu Hilter'tarařak, egitamu ořegaz, Alemania'n garailari urten ebanean, Mayenza'ko Gotzařak, kementsu urten dau asmo ořein aurka, katolikotaraři, alderdi ořetan sartzen debekau eta, sartzen diranai ikurton edo sakramentuak ukatzeko aginduaz.

Eritx Berger'ek, txauburu batek ori esan ebalako, ařituta, Hugo Mayer, Mayenza'ko Gotzařa'ri idazki bat zuzendu eutson, eta bai laster eta egokiro erantzun

(1) *De Civitate Dei*. 1. IV. VI'n atzalb.

be, euren egitamuko 24'n atala Kristo'ren irakatzien aurka egoala. Beste gauza batsuen artean auxe inotson: «Kristiñau legeak geide-maitasuna onaritzat dauko. Eta sozialista-nazional idazleak, lege au Kristo'k irakatsi eban eran ez dabe aurtzen: eurok alemandar abendaren aintza ta erbestetarren ezetsia irakasten dabe. Sari askotan, erbestetar abendaren goroto osora eroaten daben ezeste ori, kristiñau eta katolikotar ez da. Kristo'ren zilegi-legea, orokora da, eta aldi ta abenda gustientzako da. Orixe dala-ta, oker andi bat da, kristiñau zinestea, alemandar abendaren zentzun, zilegi ta legera tolestu bear dala eskatzea. Gañera, zineste-
-auziak erabagitea sentzun eta biozketari ez yagoko, adimen eta naimenari baño». Eta beste azalben batzuk emon ondoren, ia katolikoak izena alderdi oretan emon leiken; eleizkizunetan taldean, etorten laga leiken, eta ikurtonak emon leikioezan itandu ondoren, auxe erantzun dau: «Auxe erantzun bear dogu: *Ez*».

Gaitz au aspaldikoa da eta ez angoa bakañik. Oin ogetaz urteak Weis aba ospetsuak, erderaztuta «El Peligro Religioso» deritxon idazti baten auxe zinoan: «Beraz ez gaitez anitu ba, alemantasuna, alemandarren erlejinoztat azaltzen entzuten da'dogu». (130 ing).

Yaungoikoa'ren legepetik abertzaletasuna ataratearen ondorenak orexek dira. Yaungoiko barik, abertzaletasuna, abertzalekeri iguingari ta galgari biurtzen da...

AU, ORI TA BESTEA

Katoliko askoren koldarkeria

Gaur egunean, asko dira euron burua ontzat egiten dabena, txaren alderdiko etsi ezkeroko asaratuko litzakezarak, eta alan da be, egi ta ontasunaren aldez yokatuteko, *onegi* agertzeko bildur diranak. Eta mutikoen antzera, bestea bano *obeago* ez agertzearen, okerkeriak egiten, baruan ez daukiezan eretxiak aldeztan, bein baño sariagotan ikusiko ditugu.

¡Eurak abadeak esaten dabenen aldez -eta yañi! ¡Bai zera!...

Zer *esango dabe* lagunak!... ¡Izpañingitxara adoretu eskuetatik yaurti! Baña, gixaxoegitzat eukiko nabek! Eta gaur egunean txara ta ona irakurteko adorea agertu bear dala - ta or ikusiko dogu *gizon* au, izpañingi txara gaiztesteko adore barik!...

Erlijiño ezyakiña buruan, eta koldarkeria biotzean dabena paperezko gizona da; esamesaren puts apur bategaz lufera yausten dana.

¡Zeure egin beña bete!

Kristiñauak non nai tañai noz, kristiñau lez agertu bear dau, eta, bere ziñes-tea autortzeko, iñoz be ez dau lotsarik agertu bear, ostean saltzale bat izango itzake.

Orixe dala-ta, beti gogoan euki bear leukie Welington gudalburuaren esakuna. Gudalburu onek, gudaketarako bere menpekoak adoretuteko, iñoz be aintza ta irabazirik ez eutsen aitatzen, bere itz bakañak onexek izaten ziran: ¡Zeuen eginbeña bete egixue!

Eta ori gustien auran eta bildur barik, Viñars gudalburu ospetsuak egin eban lez. Malplaket'eko gudaketan txar-to zaurituta yausi zan, eta azkenengo eleizakoak eskatu zituan. Baten batek esan eutson, ixilean ekañi zeikezala ele-xakook, eta berak erantzun eban:

—Ez, gudarosteak Viñars kemenez burukatzen ikusi dau, eta oin kristiñau lez ilten ikustea egoki da. ¡Orixe da gizon izatea...!

Esamesaren bildur dirantzat «sermoi-

ixo» bat

Ziñestearen kaltez idazti asko egin zituan, ziñesge pantzetar bat Santos eritxona, gexo gogor batek arapau, ta Yaungoikoagana biurtu zan. Berakñain-beste ikasbide txar emon eutsen aizki-deai parka - eskatu ondoren, amabost urteko bere semeagana biurtu ta auxe esan eutson: «Eneñ seme, entzun eta eurreñ buruan artu egik esango daustadana. Lasterñeure bizitza gustia epaituko yo-

kan Yaungoikoa'ren aurera yoango nok; asko iraindu yoat, eta bere erukiaren bear izan andia yaukat. Neure ziñestebako irakatsi txarakaz ikasbide txar asko emon daustat. ¿Parkatzen daustak? Al dokana egik ba Yaungoikoaren parkamena be lortu yagiadan, eta ik nire irekatsiei ez eyok yaraitu.

Eta orain emongo daustadan ikasgaya gogoan artu egik: Epaituko ñokan Yaun berbera ziñaldaritzat ipinten yoat; ni neure itzaldietan, idazkietan eta egiteetan, kristiñau lez azaldu ez banok, iñoz be ez dala izan neure buruak ori

eskatzen eustalako, beti izan dok, *esamesakaitik*, arokeriz ala norbaitseu eder egitearen...

Ene seme, belauniko yari adi, neuri entzuten eta euri begira yagoazanen otoryak batu egizak: eta neure azkenengo irakatsi au beteko dokala Yaungoikoa'ri eskiñi egiok, eta aren niri parkatu dais-tala eskatu.»

Amaikatxo oren antzeko bizitzan ikusten dira, eriotzan zoritxarez ainbeste yaraitzale euki ez aren...

G.

KATOLIKO IZPARAK

Toledo'ko Eleiz Batzara

Eleiza'ko buru diranak, ziñestea zabaldu, oiturak ondu, okeñak zuzendu, auziak erabagi, eta erki bakoitzean lege batasuna zaintzeko, nozik-nozera Gotzain batzafak egin bear dituez. Auxe da Eleiz Legediaren 290'n atalan oartzen dana. Auxe egin dau Segura kardenal agurgafiak bere Gongoterkian, Eleiz batzafera bere menpeko Gotzain eta lekaide buruai deituta. Andikiro Batzar au ospatu da, ez beñolan Toledo'n egin ziran dotoltasunaz, bai baña zerbait antiñako Eleiz Batzar ospetsuen antzera. Ufñla' ren 12'tik 18'ra, egunoro Gotzain batek Batzafaren asmoetarako yaupa esaten eban, eta eguneko lanak amaitu ondoren, Andra Maria'ren aintzazko eleizkizuna egiten izan da. Azkenengo egunean bakalduna bertan zala, Gotzain-eleizan Segura Kardenalak itzaldi baten Batzafaren bafi emon eban, eta gizosteak urten ondoren lege bafistauok bertan ziran bederatzi Gotzafiak eta enparau batzarkideak izenbetu zituezan, eta ondoren ufengo Eleiz Batzafa emendik ogei urte bafu egitea erabagi eben.

Beste erabagien bafi ez da yakingo Aita Santua'k ontzat emon arteraño. Batzar au *Te Deum* abestu eta Yesus'en Biotzari Gongoterkia eskiñiaz amaitu zan.

Mixiñoetako emokun

erakusketa : : : :

Efoma'ko salerosle batsuri ouu yaken Aita Santua'ren Yubileo urtearen gomutaz mixiñoentzako eskintza batsuk egitea. Asmo ofen bafi Italia'ko salerosle ta landolai emon eutsen eta gustiak pozez eta esku zabalez erantzun dabe. Eta Batikano'ko areto bafen bildu diran emokun gustien Erakusketa Asis'iar Pantzezka Deunaren egunean zakaldu zan. Egun ofetan Aita Santua Erakusketara yatsi zan eta Casazzoni, italiar salerosle lendakariak bildu zan gustia Aita Santuari eskiñi eutsen. Aita Santuak itzaldi

bikain baten, bere poza ta eskar ona agertu eutsen, mixiolariak eta euren kristiñauak, Italia'k eskintzen eutsezan emokun ain ugari ta edefak artzean eukiko daben poza azalduaz. Erakusketa onetan, asi eun-gayetatik eta idazteko tramankulu ta radiatorañoakoak dagoz; yantzi-gai, yaki, idazti, eleizarako bear diran gauza gustietarikoak, kristiñau-ikasbidetarako zineak eta abar. Ikusgafizko emokuna italiar salerosleak mixiñoen alde egin dabena.

Alan da be, Erakusketa onetan agertzen dan zenbakuntza batek beafizanak be izugafiak dirala, adirazten dauku.

Eleizak bere kontura mixiño-efietan bere ardurapean dituz 692 erieixe 285.505 gexogaz; bein-beiñeko eritegiak 857, 11.066 gexogaz; erilaguntza tokiak 750; ustel-eri edo lepradunentzako etxeak 811, 4.060 gexogaz; 292 agure etxe 11.341 atso-aguregaz; 1.528 umezurtz-etxe 81.240 umezurtzegaz; 27.264 ikastola 1.299.551 lenengo mañako ikaslegaz; bigafen mañako 1.117 ikastola, 178.444 ikaslegaz; 156 irugafen mañako ikastola, 8.052 ikaslegaz; 386 lanbide-ikastola, (?) (escuela profesional) 29.548 ikaslegaz; eta 5 ikastetxe Nagosi 1.007 ikaslegaz. ¡Bada ba, laguntasun beafa ta Italia'ko salerosleak egin dabena beste latefi batsuetan be ederto etofiko litzake!

Gotzain siñausle bi

katoliko egin dira : :

Benzinger yaun aguñgafi ta Kilon'go (Indietan) Gotzain agurgafiaren afean Jakobitar siñausleen Gotzain bik katoliko autortza egin dabe. Bata Ivanoius yauna, Gongotzaña, eta bestea Theophelxis bere menpeko Gotzaña izan da. Jakobiten artean katoliko biurtzeko lera andia aspaldi somatzen da, eta aldi laburfean amasei abade ta iru miña jakokitar katoliko biurtu dira.

Baña nortzuk dira oneik jakobitok? norbaitek itandu lei. Ara, Kalzedonia'ko Eleiz Batzafean, monopisita edo Yesukristo'gan izate bakafa

goala esaten ebenak, doibazkatu edo excomulgau ondoren (451'n urtean); andik eun ingurura Jakobo Baradai eritxon batek, Antiokia'n beñolako ziñausle ondafakaz eleiza bat irasi eban. Orain eun miñ inguru dira, eta euren iraslea-gandik Jakobita izena artu dabe, eta Mesopotamia, Kurdistan eta Siria'n bananduta bizi dira.

Matematiko ospetsu

bat be bai : : :

Londres'tik diñoenez katoliko biurtze ospetsu bat izan da. M. E. Taylor Wittaker, matematiko ospetsua katoliko egin da.

Berau Edimburg'ko Ikastetxe Nagosi irakasle zafena da. Lenago Irlandar matemaf'ko ta ortziztilari edo astronomo Bazkunako lendakari izan zan, eta gaur London'eko Matematiko Bazkunako lendakari da. Banaka banaka ainbat yakitun dira, eta onenatarikoak, katolikotar ziñeste argia, goi-eskafagaz ikusi dabenak, eta Yauna'ri eskefak emonaz, eskatu dayogun noraezean dabilzanak argitu dagizala.

Batikano'ko izpafak

Bein baño safiago izpafingiak ekafi dabe, Batikano'ko ifatizkin edo «radio»ren asieran Aita Santuak, ludi gusiari itzaldi bat zuzentzeko asmoa eukola. Onetzaz ufila'ren 18'ko «Osservatore Romano»k esan dau ofetzaz erabagirik ez dabe iñoz artu ta beraz izpafok sustarba-koak dirala.

Ifatizkiñeko lanak aufera doaz, eta tximist indafa emon bear daben olako lanak amaitu daitezenean, Batikano'ko ifatizkiña lanean asiko da. Uste danez aziñaren lenengo egunetan aste-ko eran egongo da.

—Datofen ilaren bigafen erdian Batikano'n Aita Santua ta bere inguruko lankideentzat gogo inarkunak izango dira. Yosulaun bik emongo dituez. Iges arte Eleiz Legedi arauz iru urterik bein egiten ziran. Emendik aufera baña, «Quinquagesimo» deritxon idazkian Aita Santuak agertu zituan gurariak, albait safien egitea izan ziralako, urtean bein egingo dira.

Izpar = txorta : : :

M. Alfred Oswald, pianu - yotzale ospetsua, ointsurarte Baltimore'ko Konservatorioko ira-

kasle izan danak, yosulaun sartzea erabagi dau. Eta bere emaztea, bardin pianu-irakasle izan da, karmeldafetan sartu da. ¡Senar-emazte zorionsuak!

Kasanova jaun agurgafia Granada'ko Gongotzaña, Zaragoza'ko Kristiñau lkasbide Batazafera yoañ da bertan gexotu ta il da. Borja'n 1854'n yayo zan. Alfaro'n txaunburu izan zan eta gero Madrid'en. 1907'n Almeria'ko Gotzain autu eben. 1921'n Granada'ko Gotzain eta 1925'n kardenal. (G. B.)

Bretondafak euren izkuntza aldez badiardue. «Breiz» deritxon bazkun bat dauke. Eleiz-otoitzak-eta bretoneraz eta lateraz argitaltzen ditua-na. Ointsu argitaldu dau «Ofis Jezuz Krist Roue ar bed» deritxon idaztiñoa, yaupa besperak, eta Kristo'n Bakalduntzazko «Quas primas» idazti orokofa itaun - erantzunetan ipinita. Idazkerea bretondar «batutakoena» da, eta ikastoletan be erabiltzen dana.

Akino'tar Toma deunaren *Summa Theologica*, 1870'n Buglio aba yosulaunak txiñeraz biur-tu ebana, laster irafi ta salgei ipiñiko da. Oe-tan txiñoak baño atzerago gabiltzala autoritu beafean gagoz, olangorik amesetan ez yaku ondiño otu ta. ¡Toma Deunaren Teolojia euskeraz! ¡Noiz izango ete da!...

Lourdes'erako bidezkundeak aurtin iñoz baño ugariagoak izan dira. Pantzetafetan bakafik 170.000 bidezti 10.000 gexogaz. Enparau laterietakoak, bidezkundez yoañ diranak bakafik, 70.000'tik gora dira eta gezoak 8.000. Sei miña gexo-zain, eldu ziran gau ta egun gexoai laguntzeko. Ba'dau indafa gure Ama maiteak, kristiñau biotzak beragantzeko!...

Beste latefietan diplomatiku edo latefi-orde-larien buru, Aita Santua'ren ordelaria izaten da, orain gizaldi bat dala beintzat asita. Aleman-dafak baña orain arte zafena aututen eben, baña azkenengo txandan, Pazzeli yaunak aldi geyen eroyalako, bera izan zan. Oin iru urte Ordelaritza ori ipiñi zan, eta oin auferantzerako erabagi dabe, beste latefietan lez, Ordelarien buru Batikano'koa izan daitela. Orixe agintariak erabagi dabe. ¡Ederto egiña!

M'tar G.

Gizarte gaitzak eta osakai bakara

Naspil aldia.

GAUR egunean, ainbeste auferapen, asmakizun, gora-bera, yoan-etofi, idatzi ta irakuñi-bear, erexi, asmo, aldakuntza ta artegatasunen erdian, gauza bat bakañik argi agertzen da. Naspila bizitzan, naspila gurarietan eta susterik eza eretxietan. Gairik gañantzisuenetan gizartea noraezean dakusgu. Urduri ta artega, gauza ta bide bari bila ibilte onek, gizartea gaizki dabilela adirazten dau; eta gexo aztunaz dagoanen antzera, bein batera, bein bestera, bein osakai bat, gero beste bat txastatu ta gero ta txarago aurkitzen dala. Egoera laña zinez, ondoren ikaragariak ekañi leikezana. Bilbel edo automobil bat ikusiko ba'gendu erainkiña txarto daukona, galga-balastak loka daukozana, argiak oker, aldapa bera, eta biderik ez dakien *txopeña* zuzentzaletzat daukona, auxe esango geunke: «*Orenak egin yok...*»

Gaurko gizarteatzaz beste ainbeste ez ete geinke esan?... Bai osakairik ezpalego eta Yaungoikoa'k gizadiari bere izatea zaintzeko oldea emon ezpaleutso. Eskerak olde edo instinto oneri, amiltegi ertzetik atzera egiten daki. Bestela, aspaldi ondatua zan...

Sasi osagileak.

Esan doguna gauza argia izan aren, ba'dira *itsu* batsuk, gaitza ikusi gura ez dabenak, eurai ondo yoakielako, gexoa ain txarto ez dagola esaten dabenak, onein ikurriña: *ezer ez egite gozoa*, itz garbiz, alperkeria...

Beste batsuk «astotxoen» ganean ederto doazan bitartean: *or konpon!*.. egiten zaleak dira. Onangoakandik ezer ezin leike itxaron. Oneik alde batera itxita, batean eta bestean sasi-osagile ugari, gero ta ugariago, gizartean ikusten dira, auxe di-

ñoenak: «Gizartea osatzeko gauzak goikoz bera ipiñi bear dira, gizartea lenengo suzitu, eta bañien-bañi eraldu bear da. Orixe da bide bakara»... Ori bañiz zearo ondatzeko aukerako bidea dala edonok dakus. Gizartea gauza bizia danez, ezin gelditu leiteke, bere biotzaren taupadak beaŕekoak dira, eta goikoz bera ipintea ilteko biderik onena izango litzake. Gexo bat txarto dagonean osatebakuntzaz sendatu leiteke, egia da, baña osatebakuntza ori arduraz egin bear da, biotza gelditu barik eta bizkor, gexoa esku artean gelditu ez daiten. Oker dagozan azurak zuzendu, gexo dagozan atalak osatu, baña ardura andiz, ondo dagoana ondatu barik. Gexo astuna bapatera ez da osatzen, apurka baño; epebakotasuna gexo askorentzat gexoa bera baño kaltegañiago izaten da, oŕexek eriotzara eroaten dau-ta.

Gizartea su ta gar osatu gura izatea ba, erokeri utsa da, eta ondoren onik ezin ekari. Sasi-osagiñe onein burubakokeria egiztuteko or dakusgu Rusia'ko eñi gaxoa basatikeri laidogañien azpian... An Yaungoikoa'ren yaubetasuna ondatu gura dabe, eta gizabide ta giza-legea galduta, basatiak baño basatiago biurtu dira...

Azkatasuna.

Au bai dala itz edeña! Gizonak birloratzeko aukerakoa! Igalirik edeñenak gizartean emoten dituana. Gizona, *gizon* egiten dabena. Baña gizonaren *gizatasuna*, egia maitetu, eta zuzena aldeztutean dagolako, azkatasun ona eta osasun-gañi onen araua, Garzia Moreno G. Ekuador'eko erkaldetarian lendakari ospetsu ta ziñopa izan zanaren ikurñtz (lema) onetan sartzen da: *Azkatasuna gustirako eta gustientzat, gaiztakeri ta gaiztoentzat izan ezik*. Azkatasun onek bai gizartea yasoten dabela!...

Baña txindi onen ondoan, guzuŕezkoa agertzen dan antzera, liberalkeriak aldeztan daben, *azkatasunkeri* galgaña askok eta askok nai dabe. Eta esakunak diñon lez «onena usteltzen danean txaren biurtzen dalako», egizko azkatasunaren etsairik andiena, gaurko azkatasunkeria da. Onen bidez ba, gizadia osatu nai izatea kirtenkeri utsa ez ete da? Alan da be, «gau-txori» argizaleak (!) itzaldi, idazti ta izpañgietan osakai bakar lez azaltzen dauskue. Baña oker dagoz. ¿Gaurko gaitz gustien iturña, *azkatasunkeri* ori izan dala ikusteko begiak non ete daukiez? ¿Gizadia txarto doala ez ete dabe auiortzen? ¿Eta nai dana oldostu, nai dana esan eta idatziteko azkatasuna aldeztuaz, gexoa osatu nai dabe? Ez dauke ames txarñ! Gexoari nai dabena egiten lagatzea baño kaltegañiagorik ¿zer?... Osagiñeak gexo dagona geldi eukitera egiten dabe, edozer yateko azkatasunik ez dautse emoten, eta emoten yakona be neuriñz, eta obetuez doanean apurka azkatasun geyago emoten dautse. Eta gexoentzat gogoko izan ez aŕen, gustiok ondo deritxogu. Emen *txertatzea* ez da ezertarako, gexoa oŕetarako gai ez da-ta. Azkatasunkeriaren gaitzak, azkatasunkeriaz osatu nai izatea, sua suagaz amatatzea izango litzake. Eta ez dot uste gauza eŕeztatzat iñok eukiko dabenik!...

Itz bitan; egi ta zuzenzaleari nai aña azkatasun emon, lege bañutik ez dau urtengo-ta; gaiztakeri ta guzurzaleari al bait lokañi geyen ipiñi, beti kalte egiteko bidean dago-ta. Bultziari galga, balastak loka itxiten yakoz ariskurik ez dagonean,

eta oker doanean albait geyen estutu. ¿Txarto doala-ta nori bururatu ete leikio azke itxi bear yakozala esatea? Azkatasuna, gauza edera, egiz *gizon* diranentzat; azkatasunekeria kaltegarri gustiontzat. Oñeik eskatzen dabenean azkatasuna, zelangoa izango dan ikusteko auxe oartzea naiko da: ¡*Gora azkatasuna!*... deadarka kalera urtetzen dabenean, zer galdu dauken gustiak etxeko ateak albait ondoen itxiten alegintzen dira! ¡Ezaugarri edera, ziñez!...

Osakai bakaña.

Gizartearentzat osakai bakaña egi ta zuzentasuna dira. Goteunak argiro diñosku: *Zuzentzak eriak yaso egiten ditu; obenak bañiz zoritxareko biurtu.* (Esak. Idaz. XIV, 34). Eta egi ta zuzentza osasungarria Kristo gure Yaunak, eta bere Eleizak Kristiñau ikasbidearen bidez irakasten dausku. Gizarteak, osatuko ba'da, Kristo'ren Eregetza autortu bear dau, bere legepean bizi bear dau, eta Katoliko-Ekintza bidez, egi ta zuzentzaz goi-maitasuna gizartean, sendietan eta gizon bakoitzaren biotzean sustraitu deitenean, eta orduantxe bakañik, gizartea osatuko da.

Bestela gizartea azalez ondoen eraldu añen, tximist-bultzia (tren-electriko), albait ondoen egiña, be, tximist indañik ezpadauko, auñera bidean zirkiñik egiten ez dabenean lez, gizartea be, geldi ta eriotzako ilunpean yausiko da. Eta eriotzaren ondorena gustiok dakigu ustelkeria dala...

AU, ORI TA BESTEA

¿Txinoak be aúfera artu?...

Eusko-erria orain arte, ekandu garbietan gaientzen izan dala, ezagutu daben gustiak autortu dabe. Aspaldi baña, us-
telkeriko amiltegian bera doala ezin uka-
tu daike. ¿Noren eruz? Agintarien epel-
keriz, askotan, eta iñoz gaiztakeriz be
bai. Agintariei ikasbide ederá damotsen
izpar bat irakurri dogu, eta nok uste ta,
Txina'tik datorkie ikasbide eder au. Ur-
teokaz an be dantza nastuak ugarituez
yoan dira, ta nonbait ardao saltzeko ta,
dantzok egokiak dirala-ta, Nankin'go
ostatu-etxe yaubeak, baipena eskatu da-
be, dantzak egiteko aretoak zabaltzeko.
Eta ara ango agintariak emon dautsen
erantzun ederá: «*Nankin Txina'ko uri-
buru da, eta toki onetatik, ondamen-
dira eroan leiken oitura gustiak baster-
tu bear dira. Dantzea galgafia da, eta
yolas zindo ta ona ezin leiteke izan.
Gizon eta emakumeak gaba dantzan
igarotea, erri-osasun eta garbitasuna-
ren kaltekoa da. Beraz galerazo egin
bear da, geure gasteria oitura galgar-
ietatik zaintzeko*».

¡Ederto egiña!... ¡A zelako ikaskidea,
Eusko-erriko agintari ta alkate ¡katoliko!
askorentzat! Ez dira ba Gotzañak eta
abadeak agindu ori emon dabenak, gure
ziñestea ezagutzen ez daben txiñar agin-
tariak baño!

Eta benetan lotsagarri ez ete da, txiño
batsuk emengo agintariei oitura garbien
aldez aúrea artzea?...

An ostatu-etxeak egin dautsen eska-

riei uko garbiaz erantzun dautse, emen
«ardao saltzale ta inpernuko auspodun-
en» eskariei «amen» egiten dakusguz.
An ziñeste bakoak, emen katolikoak!
¡Lotsagarriagorik!...

Semeakaz arduratu...

Semeak azi, mendu ta eziteko eginbear
eta eskubidea gurasoena dala giza-lege
ta ziñestek irakasten dauskuna da. Eta
tamalez dakusgu, eskubideok zaindu
bearean, lateriak «iruntsi» gurarik dabil-
tzazala. Irakaskintza-azkatasunik ez da-
golako, gurasoak euren semeak lateri
ikastoletara bialdu bearean aurkitzen
dira, eta an irakasleak azkatasun lañegi
daukelako, sarri askotan, irakatsi ta ikas-
bide txarén eragipenez ziñeste eta oitura
onak galtzeko galbidean aurkitzen dira.
Eta sendi katolikoetako semeak, galbide
ofetan sartu beara samingarria da. Ola-
korik gertatu ez daiten, katolikotar gura-
soak alkar artu bear dabe, euren esku-
bideak zaintzeko. Arerioen aurka zintso
ta kementsu yokatzeko aldietara eldu
gara, eta orixe dala ta Bizkaya'n be,
asmo ofegaz Bazkuna sortu da. Bazkun
ofetan, gustiak euren izena emon bear
dabe, euren semeak asiera ona izan
dayen arduratzen diran guraso gustiak
beintzat. Bazkun onen lantegia, Bilbao'n
Henao kalean dago. Zeuen izenak al bait
ariñen araxe bialdu!... eta *katoliko lo-
tien* kofraditiek urten!...

GIZA - BIDEA

Beti gertu,
beti ernai,
beti zintso
on aldez,
eten barik
ta kementsu,
ta gogotsu,
biotzez.



Zuzen dana
onetsita,
zintso-zintso
yokatu,
zuzentasun
bide-zear,
ez inoz be
aspertu.



Egiaren
izpiagaz
argiturik
bidea,
eragospen
gustiengain
beti bete
legea.



Legearen
lokañiaz
lotu griña
zitalak,

zuzen-bidez
erabili
gorputz-gogo
indañak.



Buruaren
yaubetzagaz
izan zeure
garaile,
bizi-bidez
izateko
egite-on
egile.



Egi-izpiz
guzuñaren
lokañiak
azkatu,
txara dagon
tokietan,
onen bidez
garaitu.



*Yauna'n bildur
izan zaite,
bete Beren
Legea,
Orixe da
—diño Yaunak—
Gizon gusti
gustia.*

KATOLIKO IZPARAK

Katoliko Ekintza. : :

Gure Aita Santu agurgafiak, Katoliko Ekin-tzak aginduak emon dituan ezker, batez be-gasteen artean zerbait egiteko urduritasun osa-sungafia susmatzen, da. Ezaugafi ona da.

Oraintsu Zaragoza'n Gastedi katolikotafen batzaña izan zan eta bertan ederto lan egin eben, asmo ta erabagi egikofak artuaz. Egun batsuk geroago, Ikasle katolikoan Batzakoak, Madrid'en bildu ziran, katoliko eskubide ta irakatsien alde erabagiak artzeko. Ba'da bear izana. Es-paña'ko ikasleak, katoliko usain bako bazkun baten, eta katoliko agertzen diran beste baten alkartuta dagoz. Lenengoak, eurak nai dabena egin gura dabe; eta zaratatsuago diralako, ba' dirudi gustiak eurakaz dagozala. Baña katoliko lkasleen Bazkuna obe, zintsoago ta geyenena da, eta lotsagafia izango litzake atzera geldit-zea. Eta zorionez ofetarako ez dagoz. Orixe dala-ta egin daben batzafean, sutsu agertu di-ra, eta etsai gustiei aurpegi emoteko gertu. Era-bagiok aufera erotan ba'dabez, besteen gañe-fik agertuko dirala uste dogu. Zer ba, beti zara-ta geyen egiten dabena nagosi izan bear ete dau ba?...

- Eta Segura kardenal agurgafia buru dala, egunokaz Katoliko Ekintzako batzaña Toledo'n bildu da. Bertan aztertuten diarduen gayak gaf-antzitsuenetarikoak dira. Gizarte gayak; langile artean, lugin eta itxasgizon eta emakume artean izpañgi onen alde, eta abar katolikotasun eragipena indartzeko bideak adiraldu dira. Kristo'ren etsayak izpañgi, zine, irakaskintza ta antzoki bidez, lan gogor egiten dabe eta izkilu bardiñakaz erantzun bear yake. Izpañ-giak batez be erdizka ta zeañetara katolikotasun kaltez diarduenak kaltefarienak dirala X'n Pio agurgafiak esan eban eta onangoai be gogor egin bear yakie. Gustiok lan oneri ekin bear dautsugu eta alan da gusti be, guda gogoña ta neketsua izango da, Segura kardenal langileak esan daben lez: «Kristo'ren deyarri, eriotzararte lan egiñaz erantzun bear yako, Berak betiko atsedeen zorienttua gertatzen dausku-ta».

Katoliko izenaren yaube izan guran daben gustiok ekin ba!...

Ikastetxe bikaña. : :

«Gregoriana» deritxon Ikastetxe Nagosia, ka-tolikotar ikastetxerik ospetsuenetarikoa da, ber-tan yauparitzarako ludiko baster gustiefatik ikasketak egiten ikasleak biltzen diralako. Berau euskotar deun baten asmoz sortu zan. Inaki deunak, gure Zaindaria, 1551'n irasi eban. Eta euskotar ospetsuak bertan irakasle izan dira. Ufaburu aba zeanuritar ospetsuak bederatzi ur-tean pilosopia irakatsi eban, eta oraintsu il da Loinaz aba yakintsua, eta gaur irakasle diran artean Zapelena aba napartafa, Bidagor donos-tiafa, Huarte, ta Ortiz de Urbina azpeitiafa, aita-tu geinkez.

Ila onen 6'n Ikastetxe onetako etxe bafia one-tsi da, Pazzeli, Pompili, Verde ta Laurenti kar-denal agurgafiak beste gizon ospetsu asko ta 1.800 ikasle bertan zirala. Ikastetxe onek 8.000 metro laukitu estaltzen ditu, eta bertako idazti-gaita 800.000 idaztintzako lain da. Onetan biz-kaitar emakume euskaltzale ta biotz andidun ba-tek dirutza andiak emon ditu. Euskotafak irasi ta euskotafak egiten eta irakasten eragipen an-dia izan dabe, ikastetxe bikain onetan. Eta geu-retzat be aintzagafia da.

Iñun-zaleak nortzuk?

Safi entzuten da, gu, katolikotafok iñun-zale-ak gareala, eta ori guzur andia dala, eta yakin-tzari beste inok baño geyago, Eleizak laguntzen dautsola ikusteko, aufflean aiatatu dogun Ikastetxea ta beste beronen antzeko asko ta asko aitatzea naiko litzake. Gaur katolikoak edozein yakin-gaitan, etsayen aufflean burua tente agertu leite-kez, eta ori izpañgi gaiztoen guzur ta bafike-tari baño egiteari begiratzen dautsen edonork ikusi leikena da. Gaur egunean ori ukatzen dabena gaiztoak eta ez yakinik baño ez dira. Eta ale bat. Latefi arteko Gizatiziti edo antro-poloji Bazkunak aurtan O Porto'n Batzaña egin

dau. Bazkun onek iru urterik bein 10.000 franko-ko saria emoten dautso, gizatzitzi lanetan ludian geyen gaientzen danari. Eta aurten sari au Tehilard yosulaun aba yakintsuari emon dautsoe. Sari au irakazteko asmoz zortzi yakitun ospetsu aurkeztu dira eta alan da be ia autarki gustiak yosulaunarentzat izan dira.

Epaikariak onexek izan dira: M. Boule panztetafa; Fraipont, belgikafa; Dubois, olandafa; Sergi, italitafa; Peres de Lima, portugaldafa; Hoyos Sans, espanafa; Kostrevoski, polonitafa; Matiezka, txekoslabitafa; Andriecescu, rumanitafa; Hintze, erusitafa ta Nikolaief. ukranitafa. Epaya entzule gustiak txalotu dabe. Yosulaun yakintsu au ointxe bafiro Txina'ra biurtu da, bere lanai ekiteko.

Beste ale bat. Egun gitxi dala Grenoblen il da, ludizti edo jeolojian yakintsuenetarikoa izan dan Piefre Termier katoliko zintsoa. 71 urte izan ditu eta bizi gusian bere zintstea bildur barik autortu dau. Berak autortu dabenez, ludi artezketak Yaungoikoa'ganako maitasuna geitu dautse. Gizon onetan ikusi geinke egiztuta Pasteur yakintsuak safi aitatzen eban Bakon pantzeskatar ospetsuaren esakun au: «*Yakituri gitxik Yaungoikoa'gandik urintzen dau; eta yakituri andiak Beragana eroaten gaitu*». Ilunzale esten gaituen «gau-txoriok» ixildu beitez ba...

Yudar bide=oneratuak

Aspaldian, ainbat yudafek goi-argiz katoliko zintstea besarkatu dabe, eta Parantzen diranak oitura artu dabe, urtero Montmartre'n bilduta Yesus'en Biotzari eskintza egiteko.

Iges lenengo aldiz egin eben, Yesu-Kristo'n bakalduntza autortuteko eskintza au. Eskintza, Mortara aba ospetsuak egin eban bere larogei urteak lepoan dituala. Mortara aba au agustiindafa da, Euskelefan gustiz ezaguna, eta euskeraz ikasi ta ainbat izaldi euskeraz e in zituana. Oin ogetabat urte ezagutu gendun, txikitatik ain ospetsu dan aba yakintsu au. Yakiña da ba, 1858'n, lau urtedun zala bere inudeak, gurasoen bafi barik, gexo -aldian ugutzau ebal, eta IX'n Pio'k kristiñau asiera emon bear yakola aldeztu ebalako, aitzakitatzat artuta, ainbesteko zalaparta Aita Santua'ren efegetza'ren aurka egiteko bere etsayak artu eben. Bere oldez lekaide sartu zan eta gustiak ixildu ziran.

Aurten, Devaux abak yaupa esan eta eskintza

egin dau. Irurogei yudar katoliko biurtitakoak bertan ziran eta eleizkizuna egin eben tokian bertan, Rattisbone yudar ospetsua 1892'ko urtafilaren 20'n katoliko egin zalako antxe biltzen dira yudar onbideratuok. Urte askotan!...

Izpar txorta : : : :

Ungaria'n Irakaskintzako ministo Julius Korhis yauparia egin dabe. 45 urte ditu, eta pilosopia ta pedagogia yakintsu da; berak argitaldu dituan idaztiak agertzen dabenez.

Apirka egoaldeko Aita Santuaren Odelari Gijlswijk yaunaren aginduz lau yauparik Testamentu edo Itun Bafia apirkerara biurtu dabe. Baita edesti Deun labor bat egin dabe umeai irakasteko. Ia onetan euskaldunoi audea artu dauskue. Ia diñot, Olabide aba yakintsuaren *Itun Bafia*, ederto egiña laster euskaldunok pozez agurtuko dogulako. ¡Yaungoikoari eskefak!

Paterno di Castello Biscari bakaldungeyak bere lenengo yaupa emon dau. Ogetabost urte ezkondu ondoren bera lekaide ta emaztea lekaim saritzea erabagi eben, eta lenengo meza ondoren Angela Austeri bere emaztea izan dabentari, lekaime soñekoa emon eutson.

Egunokaz Mistrangelo kardenal eta Florenzia ko kardenal agurgafia il da. 1852'n yayo zan eta 1915'n XV'n Benedicto'k kardenal egin eban.

Baita Charost Rennes'ko Gongotzain ospetsua aste onetan il da.

Leopold Fonck yosulaun yakintsu Viena'n urfilaren 19'n il zan. Gregoriana lkastetxe ospetsuko irakasle izana da. X'n Pio'k Instituto Bibliko irasi ebanean, lankidetzat autu eban, eta bertako lenengo lendakari. Tamala izan da argitaltzen asi zan idazti bikain batsuk ez amaitzea.

Ila onen 20 inguruan Batikano'ko ufitizkin bafian itz-egiten asiko dira. Aita Santua'ren idazfitegirako, ardurea izan dabent amerikar etxeak, entzukin ufe utsezkoa, nakar ertilanakaz apainduta aurkeztu dautso.

Yainkobakokeria dala-ta

Talde biak

Gizartean «eguzkia nora, zapiak ara» bizitz-arautzat daukienak ugari dira. Paul deunak diñoan lez «onein yaungoikoa urdala da» (Pilip. III-19), eta izen bari-rik ipintekoan *lapikista*, deituko geunskioe, beti lapikoari begira dagozalako.

Oneik alde batera itxita, ala bañuan sartuta, Agustin deunak esaten eban lez, gizartean talde bi ikusten dira. Norbere burua ezesteraño, Yaungoikoa maite dabena, eta norberekoikeriz, Yaungoikoa ezesteraño eltzen diranena.

Lenengo taldekoak Yaungoikoaren yaubetasuna, aldi, alde, garatz ta notin gustietara zabaltzea nai dabe, izaki gustien Egile danez, yarein ezin leiken esku-bide osoa dauko-ta

Bigañen taldeak ostera, ludiko arasoetan zer ikusirik ezpaleuko letxe, Yaungoikoaren eragipena toki gustietatik baztertzeko alegin gustiak egiten ditu. ¡Gaiztakeri baltza ziñez!...

Talde bi onein arteko burukea eten bakoa izango da, baña Yesu-Kristo'k esan ebanez, gaiztokitar gudarosteak Yaungoikoa'rena iñoz be ez dau garaituko.

Etsairik txarënak?

Argi ta garbi bakoitza bere tokian agertuko ba'litz, nor, nor dan ezagutuko litzake. Baña bazter gustietan zabaltzen doan gaiztakeria ikusita, eurai ez yoaken gauza ba-litz letxe, samin barik, tamal barik, *izenez* beintzat, katoliko diranak ikusten ditugunean, etsairik txarënak, aintzat agertzen diranak ez dirala esateko gogoia etorten yaku.

Baña órez gañera, gure arteko ez dirala esateko bildur izan, eta katoliko zintso diranakaitik beti zer esanka; eta euron uts eta akatzak beti agotan erabilteko eta euron kaltez edozein guzur zabaltzeko gertu dagozanak, tamalez gero ta ugariago dira. Gotzañen agindu zuzenak aitzakitzeko beti gertu dagoz, Eleiza'ko buru diranen kaltez guzur eta abar idazten dabena izparingiak kezka barik erosi ta irakurten dituez, eta yainkogabekeria alegin gustiz zabaltzen diarduen izparingien laguntzalerik onenak dira. *Ogeigaren gizaldiko* lez agertu gurarik, Katoliko Ekintzaren alde zokatueta, abadeen menpean yarte dala uste dabe. Eta daukien *ilustraziñoagaz* oretarakoxe yagozak eurok!...

Ori bai, esamesagaitik baño ezpada be, igandeko mesetan, *belaun bakañaren*, azpian, Eleiza'ren etsai dan izparingiaz ikusiko dira, eta Paskoaskoa egiten be bai; ortik auñera Eleizak azpian artuko dituen bildurik ez izan... eta lengo lepotik buruaz ikusiko dituguz...

Órez *saltzaleak* dirala esango leukenak, guzurá esango ete leuke? ¿Eta Eleiza'ren etsairik txañenak dirala esango leukenak?...

Agiriko etsayak

Oneik ain ugari diranik ezin esan geinke, baño onaren kaltez eta gaiztakeriaren alde zokatueta, «argiaren semeak baño zurágo dirala» bai. Masoikeri ta liberalkeriaz euren buru-biotzak kutsututa daukez, eta euron ikurítza auxe da: «Kristo gure Érege izaterik ez dogu nai». Asmo galgari ori auñera eroateko bide gustiak erabiliko dituez. Besterik ezin dabenean, izenik edereñak agotan artuta, ori bai, baño asmorik baltzenagaz. Euren bazkUNETAN «erlejiñoatzako eztabaidak debekatzen dira» baño «azkatasunaren» izenean «yakidia» agotan artuta, egizko katolikotar zínestearen kaltez edozer esaten dabena eragospenik ez dautse ipiñiko.

Baña *egizko azkatsuna* bide zuzenean ez ete dago? Eta azkatasun onen izenean Eleiza'ren kaltez ezer esan ete leike? *Egizko yakidia*, ¿egia azaltzean ez ete dago? Eta «euron yakidi» ori, zínestearen kaltezkotzat zelan aurkeztu leikie, *guzur-zekoa* dalako baño? ¿Eta guzur-zekoa danari «yakidi» izenik emon ete leikio?...

Alan da baño, izen eder oneik *leloak* atzipetuteko aukerakoak dira-ta, gizadiaren maixu burua eginda agertzen diranoi *kaiku* askok zínestu egiten dautsie...

Yainkogabekeri - zaleak

Erderaz «laicismo» izenaz estalduta, gaur eguneko yainkogaberi-zaleak, agertzen yakuz, eta lateñitar Batza sortu dabe, euron asmo galgariak; erlejiño ta yainkogurtzaren eragipena, bazkun, izparingia ta ikastoleatik baztertuteko. Ikastoletan bada «pedagoji bariaren» izenean, besteen eretxiak zor yaken itzala agotan artuta, Kristiñau lkasbidea, gizartearen eustazpia, umeen eskuetatik kenduta. Bazkunetatik *gizadi* ta *batasunaren* izenean, lateñietatik *azkatasun* eta *auñerapenaren* izenean, gizatasun, batasun eta azkatasun eta auñerapen gustien iturri dan Yaungoikoa baztertu gura dabe. Boltxebitañai bidea gertatzen diarduenak, talde andia ez dabe

gingo, baña inguruan biltzen dituezan katolikotzazkoen txindiaz, katolikotasuna-
ren etsai diran izpafingiak, *El Sol* eta senitartekoak, gero ta indar geyago artzen
dabe. Lotsabakokeriak, dantza, zine ta yolasetan, ontzat dagozanen laguntzaz eta
diruaz, gero ta indar geyago artzen dau, eta bitartean katoliko asko ikusten dira,
besoak idunduta «olan nora eldu bear ete dogu» esan arén, ezer ez dabela egiten.

Etsayak guda egiten dauskunean geldi egotea ez da zilegi; katoliko danak
txarén kaltez eta onaren aldez al daben gustia egin bear dau; ziñestea *etxe baruan*
erabilten dan soñekoen antzera artzea, *saldukeria* da; adimen, biotz eta egiteen
yabe agertzen ez dan katolikotasuna, guzurézkoa...

Gaur beti lez, «Kristo'ren aldez ez dagoana Bere aurka dago», eta bakoitza
dan lez agertzea, onaren aldez eta txarén kaltez yokatzea, iñoz baño eginbear
astunagoa da. Aita Santuak eta Gotzaniak, katolikotarén eginbearak onetan argiro
azaldu ditue, eta «Katoliko Ekintza»ren aldez, ikastez, itzez, bizitzako ikasbidez,
eta otoitzez, gizon eta emakume, zar eta gaste, gustiok, eten barik, ekiteko bear-
kuna daukogu.

Kristiñau Ikasbidearen bitartez ezyakin lotsagarria baztertu; egite onen bitartez
gaiztakeria ito; eta etxean eta kalean, bultzi ta kapean, antzoki ta yolasean, baster
gustietan, egizko *Yaungoiko-zale* gareala agertu... Gaur beste biderik ez dago.

¿Zoroak nortsuk?

Ori dala-ta etsayak zorotzak artzen ba'gaitue, ainbat obe; ezaugarí ona izango
litzake-ta. Zoroak ez dira «Yaungoikoa'gan ziñestu, eta Bere maitasunez Mundua
ezesten dabenak; Yaungoikoa'gan ziñestu, ta Munduagan bakañik ziñestuko ba'
leukie lez bizi diranak baño. Yaungoikoa'gan ziñestu ez, ta laztasun bizitza egingo
leukienak zoro izango litzakez; baña mundutarén arauz bizi dan kristiñaua ondiño
zoroago izango litzake». Itzok, Gotzain ala yauparienak ez dira, ziñestebako izan,
eta katoliko biurtu dan *Papini* italitar idazle ospetsuarenak baño. (1).

Yaungoiko Zalen aldez ba, zintso, kementsu eta eten barik yokatu daigun
yainkogabekeriaren aurka lanik onena izango da-ta...

GAMA

(1) *Los operarios de la vña*. G. Papini. Vºn atzalb. Erd. Madrid. 1930.

KATOLIKO IZPARAK

Zine ta iratizkin edo radio

katolikotar aldez : : :

Zine ta radioak dauken eragipen aundiatzaz urteak dira, toki oneitan idatzi genduala. Eta gero ta geya o eragipen au zabalitzen dalako, onerako nai txafarako izan leitekezan auferapenok, egi ta ontasunaren aldezko egiten katoliko gustiok alegindu bear gendukela, esan beafik ez dago. Egia zabalteko radioa baño egokiagorik gitxi. Eta ziñeste txafak egiten dituen kalte ikaragarfiei eutsiteko baño ezpada be, zine onari indafa emotea beafekoa da. Orixe dala-ta, parantzeko ta beste latefi batsuetako katolikoak onetan lanean diardue, eta beste gauzatan baño be, onetan batera lan egitea beafekoago dalako, aziñaren lenengo egunetan, Paris'en katolikoak radio ta zine katolikoan batzaña egin dabe, alkartuta lan egiteko. Verdier eta Lienart kardenalak bertan izan dira eta beste lau Gotzain be bai, zabalgundeetan lan egiten daben katoliko bikain talde ugariagaz batean. Beste bide batzuk itxi barik, asmakizun bafiok egiaren alde zelan erabili bear diran adiraldu eben. Gai onetan geyen aitzen yaken izlariak, irakatsi eder eta egikofak azaldu zituzetan.

Uste dogu, Batzar au gustiz onuratsua izango dala, baña oneik batzañok latefi-arteko izango ba'lira, gustiok batera lan eder eta onuratsua goa egin leikela esan beafik ez dago.

Ziñeste Zabalkundera-

ko etxe bafia : : :

Ziñeste zabalkundeetan iñoz baño lan geyago egiten dala gustiok dakusgu. Aita Santua'k onetan egin dituan lanak, azkenengo izan diranetan zabal eta sakonago agertzen dira, baña batez be XV'n Benedito eta «Mixiñoen Doipuru» izena ondo irabazita daukon, gure Aita XI'n Pio agurgafiak egin dituen alegiñak bardiñik edestian ez dabe izan.

Beste lan askoren artean ofetarako berarizko etxe egoki ta zeregin astun onek eskatzen daben

lakoa, egitea erabagi eban. Urban VIII'ak 1627'n urtean irasi ebana txiekiegi zala-ta, gaur eguneko beafizanak betetako lain izango dan «Propaganda Fide» deritxon etxe au Batikano bafuan egiteko asmoa aufera eroateko, 1928'ko ofiñaren 12'g lenengo afia onetsi eban, eta gaur ia amaituta dago. Mixiolarietan Zaindari, eta *Yaungoiko-Zale*'ren Zaindari dan Xabier'tar Pantzeska deunaren egunean onetsi ta zabalteko asmoa egoan; baña, lanak zerbait atzeratu diralako, oneskunde datofen urtearen asierarako itxi dabe. Uste denez, Aita Santua'ren bederatzigafien urtea betetan dan egunean oneskunde egingo da. Y. I. ufengo baten onetzaz zerbait geyago idatziko dogu.

Txiñar mixiolaria : :

Aspaldi, guda ta itxulaskundeak dirala-ta Txiñar'ko misiolari askok gofiak ikusi dituez, baña euren gurutz-bidea ondiño ez da amaitu. Komunista lapufak dirala-ta, txitean-pitean entzuten da, bateko misioño etxeak zakabanatu dituela, ta besteko mixiolariak espeteratu dituela. Ondiño oin'su, Kian-Fou'n iru mixiolari erail dituez. Beste batsuk espeteratuta daukiez, eta euron azkatasuna lortuteko Mignani agurgafia ta Genlis aba azke itxi dabez, ofetarako eskatzen daben txindia biltzeko. Mixiolari batsun azkatasunagaitik amar miñoi libra esterlina eskatzen dituez. Yakiña, gitxiagogaitik be, azke itxiko leukiez, baña, beintzat asko eskatu. Euroi dirua emotea yasarpn eta espeteratxe bafiak egiteko bidea izango litzake, eta ara mixiolari gaoak igaro bear dituzetan estufasanak.

Egunokaz komunista lapufok, Loggin Gotzain agurgafia erail dabe. Pantzeskatar italitafa izan da berau, eta Suang-Yang-Don'go Bikarioa. Mixiolari gaxook ba'dauke laguntasun beafa. Otoitz eta txindiz alegindu gaitezan.

Batikano'ko ufutizkiña

Aziñaren 20'n onetsi dau Aita Santuak, Batikano'ko Urian ufutizkin bafia. Ufutizkin au auferapn gustiakaz egiña da ta lpar Amerika'ko

Later-Batza'n dagoan «International Thetephone et Telegraph Corporation»ek Aita Santuari, Italia'ko latefiagaz egin dauan itunbenaren gomutaz egindako bezuza bikaña da. Bazkun onen lendakaria berein - beregi etofita, oneskunde onetan izan da. Hernand Benn, katoliko zintsoak emokun au eskiñiaz, Aita Santua'ri azaldu dautso, Rafael eta Mikel Angel'en erti-lanari ikutu barik ipinteko zelako ardurak euki bear izan dituezan, eta baita emendik aufera munduan diran katoliko gustiak zuzenez Batikano'ra itz egin leikiela. Aita Santuak, erantzun dautso eskeñak emonaz, eta Bere asmoak ufutizkin onek osoan betetan dituala adiraziaz. Ufutizkin oneri 800 entzugin ezafi leikiok eta ontxegandik 400 ipiñita dagoz, eta bat Mikel Anjel'en kupularen gañean. Batikanoak dituan biztanleak gogotan eukita, ludian ufutizkin geyen dituar latefia gaurgandik berau da. Ufutizkin onetan 800 kilometro loru eralgi dira, eta Aita Santuak gustiak zuzenean itz egin leike, berari deituteko baña bitarteko ufutizkin baten bidez baño ez. Aita Santuak, txarameltxo bateri sakatuta, itzizkin gustiak zabaldu zituan, eta une onetan Benn yaunak belanikotuta, Aita Santua'ri eskuan mun egin ondoren, bertako tramankulu gustiak onetsi zituan.

Onegaz eta laster onetsiko dan radio ufutizkiñaz, bere semeakaz itz egiteko eukiko daben

efeztasunak, Eleiza'k Belduai ezarten dautsezan itzok gomutara datoz: *In omnem terram exivit sonus eorum et in fines orbis terræ verba eorum*».

Lekaime pantzeskar

bat «akademiku» : :

Sor Enkarnazion Heredero, Toledo'ko Isabel deunaren lekaimetxeko lekaime edo monjea «Bellas Artes y Ciercias Históricas»ko Madrid'eko bazkunak bazkidetzat autu dau, egin dituan edesti-lan edeñak sarituteko. Ezaugafien eskitza egiteko, Lendakari ta bazkideak bertara yoan bear izan eben, eta «Lokutorioan» Lendakariak, lekaime apalaren goralbenez itzaldia egin eban. Ondoren «tornu»tik akademiku ezaugafia ta agiria bañura sartuta, Abadesaren eskutik be-launiko artu zituan, eta eskeñak emonaz Sor Enkarnación'ek itzaldi edeña irakuñi eban. Batzar bakan onetara, Gotzain laguntzalea, pantzeskatafen nagosi ta gizoste andia eldu zan, «akademika» bañi ta bakan oneri zorion-aguñia emoteko.

Ementxe bai «usterik gitxiñ dan tokitik erbiak saltu egiten dau» erdel esakuna osoan bete dala.

M'tar G.

ONAK, ONEN ALDEZ

Egi-zaletasuna.

Jaungoikoa'k gizonari burua ez dautso emon apaingaritzat bakañik. Alan da be, gaur egunean askorentzat, *apaingari* baño ez dala esan aeren, guzuriak ez gendukela esango ta nago. Ori bañiz, apaintzeko eran egiña danean. Bestela ofetarakoxe be... Burua, *buruagaz* ibilteko Yaungoikoa'k emon dausku; bañiz ori ta adimen-arauz ibilteko emon dauskula esatea, bardin da. Eta adimen-arauz ibiltea egi arauz ibiltea da. Beraz, gizona dan gizonak, egia maitetu bear dau, egia bilatu bear dau, egia besarkatu bear dau, eta egiz bizi bear dau...

Eta gizona *gizon*, onexek egiten dau. Yauna'ren arpegiko argi zoragari onek, gizonaren adimenean argi egiten dabenean, gizona zintso, zoruntsu, zuzenzale ta adoretzu egiten dau. Beste toki baten esan gendun lez. (1)

«Argi onek damotso zoruna gizonari,
biotza eraldurik, zintso zuzenzale,
adore neurgabea damotso argi onek
gudan ez azpertzeko zuzenaren alde».

Nai ta ez bizitz onetan, buruka egin bear dogu, Job deunak diñoan lez, «Gizonaren lur gañeko bizitza gudaritza da-ta» (Yob. 1-7).

Eta buruka au egi ta zuzentzaren aldekoa da. Egi-bide zuzen-zear ibili bear gara ba...

(1) *Goi-Izpiak*, Egia. 15'n ing.

Esan dogun gustia, bidezkoa dala, *buruz* érez ulertzen dogu, baña egitean dago loña. Gure biotzak egi ta bide zuzenari bakañik begiratuko ba'leuskio, egitez zuzenzale izatea ain gaitz be ez litzake izango, bultzia (trena) burdinbidetik lez, leunkiyo yoango litzake. Baña... egi-bidearen laztasunak alde batetik, eta girñaren makurkeriak bestetik, inguratzen gaitue ta, egia, sañitan «éregañia» izaten yaku, eta bide zuzena, «eziña» ba'litz lez begitandu...

Eta orduantxe ikusten da, gure egi-zaletasuna benetakoa dan ala ez. Eragospen gustiak gora-bera, kementsu burñuka eginda, auñera yañaitzen ba'dogu, orduantxe *egizko* egi-zale izango gara, gure biotzean be egiak sustañak bñta dituala eza-gutuko dogu, eta *gizonari* dagokion kemena agertu be bai... Egia onuratsu izango yaku...

Baña «egia éregañia» dala-ta, egitik igeska ba'gabiltz, zuzenbideko eragospenak dirala-ta, «ezin geinkela» bururatzen ba'yaku, geyen-geyen be Pilatus'en antzekoak izango gara. Yesus'ek egiaren ziñaltza emoten luñeratu zala esan eutso-nean, Pilatus'ek itandu eutson: *¿Egia zer da?*... Eta... erantzuna entzun barik yudatañakana biurtu zan, Yesus eñubakoa zala esateko... Eta ondorengo koldarkeriak ezagunak dira. Beste ainbeste gaur egunean ontzat dagozan askok egiten dabe. *Buruz* egi-zale agertzen yakuz, *egitez*, koldarkeriz beterik etsayei adiguri egin ezinda. Eta norbait, *ziñesten daben eraz bizi ezpada, ibili ta ibili bizi dan eraz ziñestera eltzen dalako*, euron koldarkeri ta adorerik ezaren ondorena, maite ebela esaten eben egiaren aurka yartea izaten da. Au egunoro dakusgu. *Gaur gizonik ez dagola* diñogunean, *¿zer* besterik adirazten dogu?...

«Gogo zintsoarentzat *Egi*-onurak dira,
begi gexodunentzat ez da on argia,
ara or goiko emaitz on eta ederén au
zergaitik dan askontzat gorotogañia».

Koldarkeriaren sustara.

Koldarkeria ba, egia *benetan* maite ez izatetik dator, orén ondorena, eretxietan naspñila zabaltzea da-ta. Eta eretxi naspñiletatik, gurari naspñilak eta bizitza naspñila, iturñitik ura lez sortzen diralako, lengo zenbaki baten esan gendunez, «gairik garñantzitsuenetan gizartea noraezean dakusgu». Eta naspñilak naspñila ugaritzen dabelako, egia buru-biotzen yaube egin ezpada, basatikerirantz antxitxiketetan goaz... Eta orñexeri be, neuk dakidan batsuk, *progresoa* deitzen dautsoe. ¡Tira ba!... Olan ba'da, *eurentzat* gorde dayela...

Gizon izan!...

Egia maite dogunok, *egitez* maitetasun au agertu bear dogu, guzur eta naspñil-zaleen aurka, guziñok bat eginda, izparñingi ta guzur zabaltzaleai guda gogor egin

bear dautsoegu, eta egi ta zuzentzaren alde zintso yokatzen dabena, al dogun giñoan, lagundu, Aita Santuak esan dabenez, izparingi gaiztoa, *ixuri txara, gaitz astuna ta egizko zoritxara* ba'da, izparingia benetan ona danean, egi zabaltzale, osakai bikain, eta gizarteko zoriona ekañi leikena da-ta.

«Katoliko Ekintzan» alkartuta, *onak onen alde zintso*, adoretzu, bildur barik, eta eten barik yokatu bear dogu, Paul deunak diñon lez (1) *txara gorotau eta ona aldeztuta, txarak geu garaitu bearean, ontasun bidez geuk txara garaitu daigun.* (2)

Alan ba,

«Biotz andidun izan ta gertu adimena zeuregandu dagizun egiaz zoruna, eta estuntzapean biziten ba'zara be azke biziko zara. Zeugaz dago Yauna.»

GAMA.

(1) Ad Rom. XII-9.

(2) XII-21.

AU, ORI TA BESTEA

Batikano'ko Eleizan itzaldia euskeraz.

Ainbat aizkide daukoguz Eroma'n, biotzez euskerea maite dabenak, eta euretari-ko batek bialdutako idazki baten, izpar pozgafi bat bialtzen daust, atal onen irakurleak pozik irakuriko dabena.

Oraintsu karmeldar yaupari bafi batek, bere lenengo Mesea, Batikano'ko Eleizan izan eban. Euskotar talde polita bildu ziran eta «itzaldia ta dana... euskeraz. Aita Galdos Eibartar yakintsuak egin eban itzaldi ori, gure ele bigun eta eztitsuan..!»

¡Ederto gizonak! «Aita Galdos yayoa da gero, ofelako gauzetarako izan bel ¡Euskereak burua jasotea Jaungoikoak nai du» esan eban Aita Kardaberaz ospetsuaren anaya dala, ez dauko aztuta; eta dagon tokian dagola, geure elearen alde zerbait egiteke ez da geldituko!

Baita pozez irakufi dogu, Eusko-Ikaskuntzak, Barzelona'ko Ikastetxe Nagosian euskeraz irakasteko ikastola zabaldu dabela. Irakasle Apraiz'tar Odon, gure bazkide ta bertako irakaslea autu dabe. Euskal-zaletasuna, egitez, olantxe agertzen da, itzaldi gustiakaz baño obeto.

Erantzun edefa.

Peyremale, yauparia, Lourdes'ko txauburu onbidetsua izan zanak bere ziskua, beartsuei laguntzeko, beti zabalik

eukan. Egun baten, aufeko egunean erositako txaleko bero bat beartsu bateri emon eutson. Mirabeak ikusi ebanean, ixilik egon ezinda, esan eutson:

—Yauna, txaleko bafia emoten dautso? ¿Zergaitik zartxo bat eskeko oferi ez dautso emoten?

Abade onbidetsuak erantzun edef au emon eutson:

—Soñeko zafetan naiko aberatz dago, ofez gañera beste zar bat emotea alpefekoia izango litzakio...

Izan be ezertarako ez dan soñekoa eskekoai emoteak ez dauko gatz andirik, egizko goi-maitasunetik sortzen dan biotzeko efukiak, norberak bear ez dabena emotera baño, besteak bear dabena emotera geyago bultzatzen gaitu. Ori da kristiñau-gatzaz beartsuei laguntzea...

Lituanian'tafen oifura yafalgafla.

Lituanian'tafak, euron zifñestea ta eraspina edozeñen aufean agertzeko, *esamesari* ez dautse begiratzen. Olango «olokeririk» kristiñau zintso arein artean ez da ezagutzen.

Angelus'a entzuten dabenean, dagozan tokian dagozala, naiz ta kale erdian, be-launiko *Agur Maria*'k esaten dituez.

Baseñi-etxe, eta itxasertzeko efietan ez da etxerik, zafarako ate ondoan iru lau metroko kurutze andi bat ez daukonik.

Oitura txalogafia benetan, gure efi onetako oiturakaz antz andia daukona. Tamalez baña esan bear dogu *Agur Maria*'k esateko oitura Eusko-efian galduez doala, eta len toki askotan ikusten ziran afizko kurutz-bide edefak, aldien buruz yausten ikusiafen, baniztatzeko ardura gitxi artzen dala. Bitartean, zifeste epelkeria zabalduz dakusgu, oiturak ustelduaz doaz...

Kurutze ta Andra Maria'ganako maitasuna, galtzen doazan biotzakandik besterik ezin geinke itxaron...

Lituania'ta katoliko zintsoak emoten dauskuen ikasbideari yafaituaz, gure efi maite onetan ain sustraituta egon ziran oitura edefak piztu ta zabaldu daiguzan, *esamesak* ostikopetuta.

G.

Efitar mixiolarien aldez

Efitar mixiolariak, euren odolekoen artean, ziñeste zabalatzeko, azkatasun, efeztasun eta eragipen geyago daukela itsu ez dan edonork autoritu bear dau. Eleiza'ren gogoa eta lanak ofetara xe zuzendu dira, lenengo urteetatik asita. Eta Aita Santuen asmoa orixe izan da. Batez be XV'n Benedito agurgafiak bere idazki bardingabe «Maximum illud» itzakaz asten danean, argiro azaldu eban, enda, izakera eta izkuntza bardiña dauken mixiolariak, euren efikideen artean, erbestetik eldutakoak ezin leikezan lan asko, eta ziñeste zabalgunte onuratsua egin leikela. Beraz, Eleiza'ren asmoak aufera eroateko efi bakoitzean, bertako albaik abade ta lekaide geyen eukiten alegintzea beafekoa zala.

X'n Pio agurgafiak, auferkoaren irakatsiak sendetsiaz, 1926'n argitaldu eban idazki bikañean, auzi au gaur eguneko gafantzisuenetarikoa zala, eta onetan utsik txikiena egitea, Eleiza'ren bertako eragipena atzeratzeko bide zala adirazi eban. Ofetara bertakoentzat abade ikastetxeak idigi ta mixiolarizarako albaik ondoen gertatzen alegin gustiak egiteko agintzen eban. Eta ikasbidea emonaz, lenengo ixiñatar sei gotzain bere eskuz egin zituan.

Egunokaz bafiro be, onetarako laguntza eske, Salotti, *Propaganda Fide*'ko idazkari bafiak, dei egiten dau, argitaldu daben agiri baten. Dei au befeun Gotzañen izenean egiten dabela diñosku, batsuk abade ikastetxeak egiteko laguntza eskatzen dautsoelako eta beste batsuk egin dakoai eragipen geyago emoteko beafizana dabelako. Ofetarako Aita Santuen gurariei erantzunaz, lurbira gustiko katolikotafak ziñesgeen alde laguntza emon bear daben lez, abadegayak ziñesgeen arteko abadegayen alde egin bear dau, emengo abadeak angoen alde, eta emengo Gotzañak ziñesge arteko Gotzañen alde. Olanxe agertuko dogu geure batasuna, eta Kristo' gan gustiok biotz bat eta gogo batekoak gareala. Lan bikaña, onuratsua eta bear-beafekoa da berau. Al doguna bakoitzak norbere aldeik egin daigun ba, orixe da Eleiza Ama'ren gurari bizia ta...

Gasterien kristiñau azi-

eratzaz : : : : : :

Gasterien aziera onak beti euki dau gafantzi andia, baña gaur añakoa gitxitan izango eban. Gaur guda gogofa egiten yako kristiñau legez gasteria aziteari, eta gai onetzaz Eleiza'ren etsai gustiak, toki gustietan alkartuta guda gogofa egiten diardue. Etsai oneik aspaldi, emen be, alegin gustiak egiten diardue, eta lan galgafi onek egin leikezan kalteak ufinduteko, Segura kardenal agurgafiak, Madrid'en «Katoliko gizarte-astea» izenez gai onetzaz gizon yakintsuen batzaña bildu dau. «Katolikotar Gizarte Aste» onetan gasterien kristiñau azieratzaz itzaldi bikañak egin dira, Aita Santua'k gai onetzaz aurtemin argitaldu daben Idazki edo Enziklika edefa oñafizat artuta, Azila'ren 25'n asita 29' rarte egin diran batzañetan, kristiñau aziera, Eleiza'ren eskubideak, gurasoen eskubideak eta Latefienak, astertu dituez; latefien zeregiña, Eleiza ta gurasoi euren eginbeafak betetan laguntza dala argiro azalduaz, eta baita besteen eskubideak iruntzi barik latefiak, bata besteen eskubideak alkartu ta lan egin bear dala. Argiro azaldu eban, Yaungoikoaren bilduñ irakasten ez daben irakaskintzak ondoren onik ezin leikela ekafi. XIII'n Leon'ek *Nobilissima Gallorum Gens* 1884'ko otsañaren 8'an argitaldu eban idazkian diñon lez, Kristiñau arauz gasteak asi ezik «ikasketa gustiak kaltegafi izango yakoz, Yaungoikoa'ri itzalik ez eukiten oiizen diran gasteak, bizikera garbi ta legepean biziterik ezin yasan al izango dabe, eta euren gurariak lotuteko indar barik, ezez elduko dira latefiak naspiltzera».

Beti esaten doguna: Yakintza gustien oñafizat, Kristiñau Ikasbidea, Kristiñau Ikasbidea, eta... Kristiñau Ikasbidea... beste bide gustiak ur ganean etxegeñan ekitea da...

Aita Santuari Kardenal agurgafiak menpetasun aguña bialdu eutson eta batzar au onetsiaz maitekiro erantzun eban.

Euskotar mixiolariak

El Siglo de las Misiones, yosulaunen aldiz-

kingi edefa lotaziñako zenbakian eusko mixiolari-
rien zenbakuntza, benetan aintzagafia dakar.
Onetaz beste baten asitroago itz egiteko asmoa
daukogu-ta, gaurkoz, zenbakuntza bakafik aita-
tuko dogu.

Europa'tik at, Kristoren zīñestea zabaltzen
lanean diarduen euskotar mixiolariak Apalategi
abak egin daben lan edefetik artuta onexek dira:

Agustindar onetakodunak, 21; Agustindar re-
koleto deritxoenak, 152; Beihafan'dafak, Gari-
koitz'tar Mikel zoriotsuak irasitakoak, 19; Benedi-
dafak, 57; Lekaide zuriak, 8; Kaputxindafak,
134; Karmeldar onutsak, 151; Miren Biotzeko
Semeak, 214; Domekatarafak, 19; Eskolapioak,
26; Ikastola kistafa'tafak, 17; Pantzeska'tafak,
275; Kistar irakaskintzakoak, 2; Yosulaun (jesui-
tak), 249; Mariristak, 43; Atzeritar mixiñoetako-
ak, 26; Nekaustar (pasionistak), 28; Pauldafak,
69; Efedentoristak, 15; Salestafak, 2; Yesus'en
Biotz Deunekoak, 5; Biotz Deunetakoak, 7; Sa-
kramentutafak, 15; Irukoitzafak (Trinitarioak),
38; Gustiz: MĪLA BOSTEUN ETA LAROGETA
ZORTZI, ogetasaspi mixiño-lanetan bananduta.

Ludi gustian lanetan diarduen mixiolari gizon-
ezkoak, oraintsu il dan Streit aba yakintsuak
idatzi ebanez, 1926'n onexek ziran: Mesadunak,
12.712; legoak, 4.456. Gustiz, 17.168, eta onei-
tatiik 1588 mixiolari euskotafak. ¡Gudaroste
aintzagafia!

Egiz esan geinke geure aizkide Piefe Lande
yosulaun eta idazle bikañak, *L'Emigration Bas-
que*, idaztarian esan ebana: Eusko-efia, bere biz-
tanleak gogoan eukita, Europa'ko efi gustien
artean mixiolari geyen emon dabena dala. Ba-
daukogu zergaitik afotu! «ukabillari» efimeak
urten dabelako baño geyago bai beintzat!...

Ainbeste mixiolari, geure anai daukogun ez-
kero, mixiñoen alde lan egitea beste efiari baño
geyago dagokigu. Orixe dala-ta, egunokaz Bil-
bao'n gertatzen diarduen *Misiño asteen*, gogo
sutsua, biotz zabala agertu, eta sakela be, eurai
laguntzeko zabaltzea bidezkoa da.

Katoliko Ikastetxeak

Gaurko katoliko ta etsayen artean bufukarik
gogofenatarikoa ikastolen inguruan dabil. Orixe
dala-ta, toki onetan be, bildur barik egiaren
etsayai arpegi emoten dautse. Yakidien izenean

egiari guda egiten dautse, yakidiaz egia aldeztu,
eta onetan etsayen ganetik agertzen alegindu,
zīñestea ta yakidia *benetakoa* danean, ederto
alkartzen dira-ta. Orixe dala-ta, katolikoak Eleiza'
ren gogoari yafaituaz al daben toki gustietan
Ikastetxe bikañak iraginten alegintzen dira. Ikaste-
txe onein artean Paris'ko «Institut Catholique»
ospetsua da. Bertan ikastaro onetako bafiztu egin
dabe, eta lengo teoloji ta beste ikasgayen gañe-
ra, gizarte ta ogasun ikastolak idigi dituez. Baita
bertan dago Rousselot abade ospetsuaren ikas-
tola, belafi ala miñeko gaitzez oguzi ezin dabena-
ri, euren gaxoa osatzeko. Ikastola bafiztatzeko
bi miloi franko arpidez bildu dituez. Aurten ikas-
tarorako 2.126 idasle dagoz, zenbaki onek bere
gafantzia agertzen dausku. Toki bafia ones-
tean Binet eta Verdier kardenalen inguruan
ogetamar Gotzain baño geyago bildu dira. Bau-
drilart yaun lendakari yakintsuak itzaldi bikaña
egin eban.

—Eleiz Legedi arauz, Txile'ko Gongotzañaren
eskariz, uri ospetsu atan, Yesus Biotz eta Sor-
tzez Garbiaren Ikastetxe Katolikotafa. Irugañena
da berau Eleiz Legedi arauz egin diranen artean.
Lenengoa Milan'go Yesus Biotzaren Ikastetxe
Nagosi katolikotafa, eta bigañena Pekin'en irasi
zana.

—Yosulaunak Tokio'n 1908'n irasita dauken
Ikastetxe Katolikotar Nausian be, atal bafia egin
bear izan dabe. Yapondafak «Yotxi Daikagu»
deitzen dautse, eta Agintariak, legez, aintzat artu
eban. Afezkero ikasleak gero ta ugariago dira
eta yakiña, Yapon'en katolikotar zīñestea zabal-
tzeko ikastetxe onek era ipen andia eukiko da-
bela.

Domīne alatzgilearen eungafen urtea : : :

Aurten Sortzez Garbia Sor Katarīne Laboure'
ri agertu yakola ta, bere domīne mirariñsuen
eungafen urtea dalako, toki gustietan yai andiak
egin dira. Domīne ofen eraspina toki gustietan
aufez zabaldu da. Beronen bidez asko oneratu
dira eta ospetsuaretarikoa 1894'n yazo zan Al-
pontso Ratisbona yudatar ospetsuaren biurize
afigafia da.

M'tar G.

